

Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz

Euskal gazteen joerak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailordetza
*Gazteria eta Gizarte Ekintzarako
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
*Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz : euskal gazteen joerak / [egilea, Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm. – (Gazte Plana ; 19)

ISBN 84-457-2391-X

1. Jóvenes-Conducta social-Euskadi. I. Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva. II. Euskadi. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. III. Serie 316.62-053.81(460.15)

Títulos publicados:

1. EAEko Gazte Plana 1999-2001
2. Plan Joven de la CAV 1999-2001
3. Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000
4. Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000
5. Euskadiko gazteak 2000
6. Juventud vasca 2000
7. EAEko II. Gazte Plana 2002-2005
8. II Plan Joven de la CAV 2002-2005
9. EAEko Gazte-elkartegintzaren liburu zuria 2003
10. Libro blanco del asociacionismo juvenil de la CAPV 2003
11. Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua
12. Manual de programación y evaluación de planes y programas de juventud
13. Euskadiko gazteak 2004
14. Juventud vasca 2004
15. Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko
16. El acceso de la juventud a la vivienda
17. Euskal gazte lankideen bizi-ibilbideak
18. Trayectorias vitales de la juventud cooperante vasca

Argitaraldia: 1.a, 2005eko urria

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitatzaila: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Argitaraldiaren
Kordinatzailea: Bakarne Zuazua Astarloa

Egilea: *Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva / Identitate Kolektiboan Ikertegia:*
Beatriz Cavia, Gabriel Gatti, Andrés Gómez, Iñaki Martínez de Albeniz, Silvia Rodríguez,
Alfonso Pérez-Agote, Elsa Santamaría, Benjamín Tejerina

Itzultzailea: Asier Irizar Mezo

Azaleko argazkia: Andrés Gómez

Fotokonposaketa: Composiciones Rali, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 7ª - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-2391-X

LG: BI-3147-05

AURKEZPENA

IDENTITATEAREN ETA POLITIKAREN KULTUR BERRI BATERANTZA. EUSKAL GAZTEEN JOERAK Gazte Plana bildumako lanetako bat da, EAEko Gazte Planaren babesean sorturiko bilduma, izan ere. Gazte Planak, Organizazio Kudeatzailearen barruan, Gazteen Euskal Behatokiari hainbat iturritako informazioa biltzeko eta euskal erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen esku jartzeko funtzioak egokitu dizkio.

Horrela, bada, Gazteen Euskal Behatokiak gazteen errealitateari ikuspegi globalez erantzun nahi dio, *global* hitza bi adieratan ulertuta. Ikuspegia, alde batetik, globala da, gazteria —horren sektore dinamikoa izanik— gai anitzek ukitzen dutela aintzat harturik, horiek guztiak islatzen saiatzen delako, hala nola lan-egoera, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza, kultura eta aisia. Beste aldetik, globala da ikerketa soziologikoak oro har errealitate soziala eta, bereziki, gazteen mundua aztertzeko garatu dituen perspektiba teoriko eta metodologikoak bildu nahi dituelako.

Illo horretatik, irakurleak esku artean duen azterlan honetan, Euskadiko gazteen arazoan analisia egiten saiatzerakoan, ikuspegi kualitatiboa lehenetsi da ikuspegi kuantitatiboaren aldean, hau da, edukiek ez dute, oro har, adierazgarritasun estatistikorik. Kasu honetan lehentasuna eman zaie euskal gazteek bizi dituzten esperientzia sozial jakin batzuk erakusteari, besteak beste: aktibismo soziala, koadriletan sozaltasun proiektu musikalak, kultura-ondarea, asteburuko aisia eta teknologia berriak. Egoera sozial horiek euskal gazteriaren etorkizuneko joerak identifikatzeko balio estrategikoak diren aldetik hautatu dira.

IDENTITATEAREN ETA POLITIKAREN KULTUR BERRI BATERANTZA. EUSKAL GAZTEEN JOERAK Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak finantzaturiko ikerketa-proiektu baten emaitza da, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia 2 Sailaren Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva-Identitate Kolektiboen Ikertegiak burututakoa.

MIREN AZKARATE VILLAR
Kultura sailburua

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 0. Sarrera: gazteak, eta gizarteratzeko bizi duten krisialdia | 11 |
| 01. Gaztaroa, aztergai | 13 |
| 0.1.1. Adina, estratifikazio iturri gisa | 13 |
| 0.1.2. Gaztaroa ez da beti izan | 14 |
| 0.1.3. Gaztaroaren mugak | 17 |
| 0.1.4. Igarotzea eta horren gizarte-errituak | 18 |
| 0.1.5. Eskolatzeko-aldia bateratzea, luzatzea eta masifikatzea | 21 |
| 0.2. Erljioa, lana eta politika gazteak gizartean integratzeko ardatz gisa jasaten ari diren krisi erlatiboa | 22 |
| 0.2.1. Gazteen bizitzaren sekularizazioa | 22 |
| 0.2.2. Gazteen eskarmentua lan-arlo garaikidean | 24 |
| 0.2.3. Politika konbentzionalerik haratago: politikaren kultura berria | 30 |
| 0.2.3.1. Gizarte-mugimendu berriak: politikaren gizarte-produkzioa | 35 |
| 0.3. Azterlanaren helburuak eta metodologia | 40 |
| 1. Gizarte-mobilizazioa: kultura politikotik politikaren kulturara | 47 |
| 1.1. Elkarrekin egon, elkarrekin mugitu, elkarrekin eraiki | 51 |
| 1.2. Parte hartu, bizi izan, proiektatu | 53 |
| 1.3. Berritu, berriro jabetu, berriro sinbolizatu | 56 |
| 1.4. Gizartea berriro sortu, erresistentzia eta eskarmentudun diskurtsoa | 58 |
| 1.5. Mundua ikusi, aztertu eta mugitzea: pribatua, publikoa eta gizarte-birsorketa | 61 |
| 1.6. Mundua ikusi, aztertu eta mugitzea: mobilizazioaren gizarte-esparrua eta erakundearen esparrua | 63 |
| 2. «Kokatutako» koadrila: identitatea, gaztearen egitekoa | 67 |
| 2.1. Sarrera | 69 |
| 2.2. Koadrila eta azaleratzen ari den sozialitatea | 69 |
| 2.2.1. Sozialitatearen eredu iragankorra: gauzak egitea | 71 |
| 2.2.2. Eredu iragangaitza: elkarrekin egotea | 75 |
| 2.3. Ondorioak | 78 |

| | |
|--|-----|
| 3. Ondarearen gaineko lana: identitatea eraikitzea eta erakustea | 81 |
| 3.1. Ondarea eta identitate kolektiboa | 83 |
| 3.2. Ondarearen gaineko diskurtso motak: «kultura-tradiziozkoa» eta «konstruktibista-emergentea» | 84 |
| 3.3. Ondarearen kulturazko edo tradiziozko interpretazioa: egiazkotasuna galtzea eta berreskuratzea. Ondarea, talde-subjektuaren aktibatzaile gisa | 85 |
| 3.3.1. Ondarea, politika-ekintzailetasunaren toki gisa: talde-subjektuaren mobilizazioa | 85 |
| 3.3.2. Denbora eraikitzea ondarearen bidez: erritu-egutegia asmatzea eta orainaldiak jatorriarekin duen lotura | 87 |
| 3.4. Ondarearen interpretazio konstruktibista edo emergentea: euskalduntasuna hutsal bihurtzea eta identitate normaldua agerraraztea | 87 |
| 3.4.1. Ondarearen interpretazio emergenteen aukerarako, euskalduntasuna errutina bihurtzea | 88 |
| 3.4.2. Berrikuntzaren kultura: tradizioa modernizatzea eta estetiko bihurtzea | 89 |
| 3.4.3. Egiazkoa berreskuratzen jatorria erakustera: identitatea eszenaratzea | 89 |
| 3.4.4. Identitatearen mekanismoaren ezagutza diskurtso konstruktibistaren sustraian | 90 |
| 3.5. Aditua: identitatearen homologazioa, profesionalizazioa eta instituzionalizazioa | 91 |
| 3.5.1. Espertiziaren biografia: ondarean ekintzaile izateko profesional bihurtzera | 92 |
| 3.5.2. Figura berriak identitatearen kudeaketan: adituak, ingeniariak eta begiraleak, eraikitzaileak eta partikularraren homologatzaileak | 93 |
| 3.6. Ondorioak | 95 |
| 4. Atsegin hartzeagatik lan egitea: musika-zaletasunetik lanera | 97 |
| 4.1. Sarrera | 99 |
| 4.1.1. Musika makinaz egitea | 100 |
| 4.1.2. Teknologia-emozioa, gutxingoentzat ote? | 101 |
| 4.1.3. Elektronika-eskarmentua proiektu gisa | 101 |
| 4.2. Elektronikaren metafora | 102 |
| 4.2.1. Diskurtsoa adituaren eta musika esperientzia gisaren artean: Dance kultura eta gizarte-errituak | 103 |
| 4.2.2. Bizitza-proiektuak: sozializazioaren instituzionalizazioa | 105 |
| 4.2.3. Tokian tokiko definizioak: despolitizazioa eta tokikotasuna | 106 |
| 4.2.4. Ikasteko jokoak | 108 |
| 4.3. Ondorioak | 110 |
| 5. Identitateak sarean: gizarte paralelo baten teknologia-esperimentazioa | 113 |
| 5.1. Sarrera | 115 |
| 5.2. Tokian tokikoaren eta globalaren arteko erlazioak | 117 |
| 5.3. Diskurtso eta praktika adituak | 120 |
| 5.4. Sozialitatea bizitza-proiektu gisa | 122 |
| 5.5. Pragmatismoa norbanakoa/taldea erlazioan | 125 |

| | |
|--|------------|
| 5.6. Politikan parte hartzeko beste era batzuk | 126 |
| 5.7. Identitatearekin esperimentatzea | 128 |
| 5.8. Ondorioak | 130 |
| 6. Merkataritza-gunearen lurraldea: gazteak agertokian | 131 |
| 6.1. Gazteak, kontsumo-praktikak eta azalera handiko merkataritza-guneak | 133 |
| 6.2. Errealitatearen eta simulazioaren arteko gurutzaketa | 135 |
| 6.3. Globalaren eta glokaltasunaren arteko gurutzaketa | 137 |
| 6.4. Norbanakoaren eta taldearen arteko gurutzaketa | 138 |
| 6.5. Inklusio eta eskusio prozesuen arteko gurutzaketa | 139 |
| 6.6. Sozialitateen arteko gurutzaketa | 140 |
| 6.7. Ondorioak | 141 |
| 7. Azken irizpenak | 143 |
| 7.1. Igarotzealdia luzatzea eta desinstituzionalizatzea | 146 |
| 7.2. Gazteriaren zatiketa | 147 |
| 7.3. Eraso oinarrizko zenbait kultura-dikotomiari | 147 |
| 7.4. Instituziotik esperimentura eta proiektura | 149 |
| 7.5. Euskalduntasuna, bermatuta gizartean | 149 |
| 7.6. Politikari buruzko iritzi berri baterantz | 150 |
| 8. Bibliografia | 151 |

0

**Sarrera: gazteak,
eta gizarteratzeko
bizi duten krisialdia**

0.1. GAZTAROA, AZTERGAI

0.1.1. Adina, estratifikazio iturri gisa

Gaztaroa, eta bizitza-zikloaren garai horretako jarduera motak eta erlazio prototipikoak ere, beste esparru zabalago batean kokatu behar dira, hain zuzen, adinaren arabera egiten den gizartearen estratifikazioan. Beste era batera esanda, gizabanakoak zein adinetakoak diren, gizarteak halako edo bestelako rolak atxikitzen dizkie.

Gizarte ikuspegitik, adinak zerikusia du adin biologikoarekin, baina azken hori adinaren osagaietako bat besterik ez da. Gizarte-adina gizartea sailkatzeko sistema bat da, ezaugarri biologikoa ardatz hartzen duena. Gauza bera egiten da gizartea generoaren arabera sailkatzen denean; ezaugarri biologikoa, hain zuzen, sexua, hartzen da kontuan. Sailkatzeko bi modu horiek gizartearen toki jakin batean kokatzen dute gizabanakoa, garrantziaren eta boterearen hierarkiaren arabera, betiere. Horregatik, estratifikazio sistemak ere badira. Sistema bereizgarriak eta sozialak izan ohi dira.

Sistema bereizgarritzat jotzen dugu errealitatea antolatzen duena klaseak nolabait banatuz edo horien artean etenak sortuz. Eten edo banaketa hori sinbolikoki adierazita dago. Generoari dagokionez, izaera maskulinoa eta femeninoa sozialki definitzen duen sistema sinbolikoak markatzen du; oro har, izaera maskulinoa eta femeninoa kategoriatatik atxikiak eta etengabeak dira: ezin dira aukeratu, eta bizitza osoa irauten dute. Adin-kategoriak direla eta, esan liteke atxikiak direla, ezin direla aukeratu, ondoz ondokoak direla, hau da, ezin da kategoriatatik irauten behin betiko, izan ere, denboraren arabera antolatuta daudenez, gizabanakoa, denborak aurrera egin ahala, kategoriatatik jakin bati, aurrekoaren hurrengoari, atxikitzen zaio, nahitaez. Bizi dugun garai honen ezaugarria da sailkatzeko sistema hauek jazartzea (jazarpen soziala eta kulturala); generoari dagokionez, kategoriatatik jakin bati atxikitzeak eta horretan irauteko ezaugarria desagerrarazteko ahalegina gaur-gaurkoa da, eta adinari dagokionez ere, denboraren arabera kategoriatatik jakin bati atxikitzea eta ondoz ondokotasuna desagerrarazi nahi izatea gaur egungo ahalegina da. Hori gertatzen da, neurri batean, behintzat, zientzia eta teknologiaren aurrerakuntzei esker, eta, horrek sortzen ditu hainbat arazo, legeei, etikari eta politikari lotutakoak.

Gizarte-sistemak direla diogu. Esan nahi dugu ez direla behin betikoak; eraturakoak, errepikatzen direnak eta aldakorrek dira. Aldatu egiten dira gizarte batetik bestera, bai eta gizarte batean ere, garai batetik bestera.

0.1.2. Gaztaroa ez da beti izan

Gaztaroa da norbanakoaren bizitzaren fase bat, nerabezaro fisiologikoan hasi (baldintza «naturala») eta helduaren estatusa (baldintza «kulturala») lortzen den arte irauten duena. Baldintza unibertsaltzat hartu izan da gaztaroa, giza garapenaren fase gisa, gizarte guztietan eta historiaren une guztietan izan dena. Ikuspegi horren arabera, giza espeziearen izaerak eragiten du, batetik, haurraren mendekotasunetik erabat gizarteratu arteko prestakuntza aldiaren beharra, eta, bestetik, adin-talde horri lotuta dauden krisiak eta gatazkak. Teoria horiek, gaur egun ere nagusi direnak gehienon artean, G. Stanley Hall psikologo estatubatuarrek argitaratu zituen estrainekez, *Adolescence: Its Psychology and its Relations to Psychology, Anthropology, Sociology, Sex, Crime, Religion, and Education* (Feixa, 1998: 16) izeneko lan handian.

Adin-sistema banatuta dagoen klaseetako bat da gaztaroa. Baina gaztaroari buruz gaur egun dugun kontzeptua ez da beti halakoa izan. Denboran eta espazioan zehar hainbat eta hainbat sistema izan dira adina sailkatzeko, baina horietan sartu gabe ere, esan genezake Europako gizarteetan, duela gutxi arte, gaztaroa pribilejioa izan dela, aristokraziako eta gizarte maila altuko kideek eduki dutena. Gaztaroa, adin klase gisa hartuta, berria da gure artean.

Helduen bizitzan sartzeko goiztiartasuna (hau da, haurtzarotik helduarora zuzenean igarotzea) ageri-agerikoa zen *apprentisage* ereduan, Erdi Aroan Europan oso hedatua zegoen ereduan, alegia. Haurra goiz egotzen zuten familia-nukleotik: zazpi edo berderatzi urte zituztela, haurrak, neskak eta mutilak, beste familia baten etxera joan ohi ziren bizitzera; etxe berrian etxeko lanak egin behar zituzten, eta lanbideak edo bestelako trebetasunak ere ikasten zituzten. Horrekin batera, helduekin bizi zirenez, bizitzako beste zenbait jokabide ere bereganatzen zituzten. Apendizik ikasketa-kontratua zuten familia berriarekin, eta kontratuak irauten zuen haurrak hamalau-hamazortzi urte bete arte. Ohitura hori, nekazarien artean ez ezik, hirietako maila baxukoen (artisauek), merkatarien eta nobleen artean ere bazegoen hedatuta. Beraz, nerabeak gizarte-bizitza hasten zuten familiarengandik urruti, (...). Ohikoa zen, bestalde, haurrak helduekin batera egotea tabernetan eta izen txarreko tokietan: bizitzaren gauzak (sexualitatea, esaterako) behaketa zuzenez ikasten zituzten. Eskola, instituzio gisa, gaur egun haur eta gazteena da bereziki; baina, garai hartan, eskolara adin guztietako jendea joan ohi zen (berri-berria da ikasmilak adinaren arabera banatzea). Beste alde batetik, tutoreen edo irakasleen kontrolpean bazeuden ere, nerabeen independentzia-maila askoz ere handiagoa zen, eta, horrenbestez, familia-ko hesio sentimendu oso ahula zuten. (Feixa 1998: 32-33, Ariès-i jarraiki, 1973)

Galland-ek, 2001ean, adin-maila horretako artean Frantzian izan den bilakaeraren ildo nagusiak ezarri zituen (2001). Antzinako Erregimenean, gaur egun gaztaroa deritzogun adinean zeudenak gurasoen aginpidean zeuden, seme-alabatasunaren erlazioaren barruan. Gurasoen aginpidea handia zen, baina ez da etengabe gauzatzen – seme-alabek hutssegite larriak egiten zituztenean gauzatzen zen, batez ere-; beraz, seme-alabek askatasun handia zuten jarduteko. Ez zeukaten garrantzi handiko rol edo ardurarik. XVII. mendearen bukaeran, hezkuntzak toki handiagoa hartu zuen, baina, oro har, goi-mailako gazteentzat

izan behar zuela uste zuten. Munduaren adierazpen mentala aldatu egin zen, eta bereizi egiten zuten kargu publikoei zegokiena familiaren esparruari zegokionetik. Familiaren esparruan, adibidez, goi-mailako gazteek hezkuntza jaso behar zutela irizten zuten; hezkuntza formala jaso behar zuten, izan ere, ideia aristokratikoen arabera, norbanakoak berez zituen zenbait balio, eta, horren ondorioz, hezkuntzaren helburua zen bititza publikoan goi-mailakoa izatea; eta, gizarte-maila beherakoentzat, berriz, obligazio zen eredu bihurtzea. Hezkuntza, beraz, gizarte-mailaren pribilejioa zen. Horregatik, aristokraziatik kanpo ez zen gaztarorik, adin-klase gisa, behintzat.

XVIII. mendearen bukaera arte ez zuen arrakastarik izan berdintasuna lehenesten zuen ideiak. Berdintasuna nagusitu ahala, gizarte-mailak zuen garrantziaren tokia hartuz joan zen meritua aldarrikatzen zuen ideia. Norbanakoen bititza eraiki beharreko proiektutzat jotzen zuten, eta langintza horretan ezinbesteko tresna zen hezkuntza. Hezkuntza mundanoaren ordeztu, nazio-hezkuntza nagusituz joan zen poliki-poliki; erabilgarritasun publikokoa, herritarrei prestakuntza ematera bideratutako hezkuntza, alegia. Eta horrekin batera, gaztaroaren kontzeptua ere aldatu zen. Gaztaroa ez zen zain egoteko garaia (helduaren erantzukizuna hartu arte zain egotea). Kontzeptu horren ordeztu beste bat azaldu zen: ikasteko garaia zen gaztaroa. Hala esan zuen, behintzat, Jean Baptiste Crevierrek (1762).

XIX. mendean erabat banatu ziren arlo pribatua eta publikoa. Bereizketa horrek familia ere jo zuen bete-betean. Gaztea intimitatearen eta erabilgarritasunaren artean bereizita agertzen zen, eta horren bidez, idealismo erromantikoaren eta materialismo pragmatikoaren artean bereizita. Egoera horrek belaunaldien arteko gatazkaren hasiera islatzen zuen.

Gazte kategoria, beraz, burgesiaren esparru zabalagoetara hedatu zen, baina XX. mendea arte hezkuntza ez zen zabaldu gizarte osora, eta era berean, gaztetasuna bera ere ez zen izan mende hori arte kategoria erabat hedatua. Freixaren ustez (1998:36-38), oinarriko lau instituzioetan izandako aldaketan eraginez gertatu zen aldaketa. Lau instituzio horiek ziren Familia, Eskola, Armada eta Lan-esparrua.

Hogeigarren mendeko hirurogeigarren hamarkadako mobilizazioei esker gazteek talde-subjektutzat hartu zuten beren burua, eta subjektu horrek identitate eta kultura berebereak zituen. *Marketingak* eta publizitateak, hau da merkatuak, berehala irentsi zuten gazte-azpikultura hura, ezaugarri, sinbolo eta erritu bere-bereak zituena. Horrek guztiak, era berean, eragin zuzena izan zuen gizarte osoan. Izan ere, gaztetasunaren arabera ezartzen hasi ziren edertasunaren arauak, janzkera, musika... inoiz ez bezala. Gizarteak gazteriaren irudi totalizatua eraiki zuen, eta gazteriarengan jarri zituen bere kezka, baina baita itxaropena ere. Gertaera horretan garrantzi handia izan zuen masa-hedabideak hainbeste zabaldu izanak. Eta aldaketa horien jokaleku sinbolikoa izango dira bai patriarka-autoritatearen krisia, nagusikeriaren aurkako matxinada eta bai sexu-iraultza izenekoak ere. Mendebaldeko Estatuak agentziak eratu zituzten, subjektu historiko berri hori, politikoki gainobjektibatua zegoena, moldatzearen. Eta gizarte-kategoria horren barruan garrantzi eta definizio-maila handia hartu zuen ikasleak, bai egoera sozial gisa eta bai kategoria sozial gisa ere. (Feixa, 1998: 43-44).

Esan genezake, beraz, gaztea ez dela beti izan; ez, behintzat gaur ezagutzen dugun bezala. Garai historiko jakin batean, eskuarki, pertsonen garai bat da, berezko zentzua due-

na. Nolanahi, gaur egun ikusita ere, zenbait muga du. Alde batetik, egoera horrek gizarte-sektore jakin bati baino ez zaio atxikitzen. Beste alde batetik, berezko zentzua ez da autonomia, helduaroari dagokionetik ondorioztatzen baita. Beste era batera esanda, gazteak prestakuntza jaso behar du helduen gizartean dagokion tokia hartu ahal izateko. Eta, beste alde batetik, gazteak berez ditu –jaiotzez eta mailaz– behar dituen baldintzak etorkizunean gizartean dagokion tokia betetzeko; beraz, gazteak berez baduena ezagutu eta garatzeko eta abian jartzeko jardueratzat hartzen zen hezkuntza. Horren ondoren, gure gizarteetan unibertsalizatuz joan zen egoera hori. Hezkuntzaren oinarrizko printzipioa maila izatetik meritua izatera pasatu zen, eta gertaera horrek bi aldaketa ekarri zituen: alde batetik, gizarteko beste sektore batzuei bidea ireki zitzaion, eta, bestetik, hezkuntzari sortzeko gaitasuna aitortzen zion, gaztearengan ezagutza, dohainak eta trebetasunak sortzeko gaitasuna. Dena dela, artean bazen zenbait muga, izan ere, *de facto* hezkuntza-prozesutik kanpo ziren zenbait sektore (nekazariak eta langileria). Eta horrez gain, hezkuntza, eta hezkuntzarekin batera gaztetasuna ere, ez da autonomia, helduaroan (etorkizunean) lortu beharreko mailaren mende baitago.

XX. mendearen atarian hasitako masa-produkzioak eta, horrekin batera, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko sektore guztietan kapitalismo-ekoizpenaren zabalkundeak hainbat ondorio eragin zituzten gizartean. Masa-gizarteak hezkuntzaren unibertsalizazioa ekarri zuen, gizarte-sektore guztietara hedatu baitzen, eta, horren ondorioz, gazte guztietara ere bai. Hezkuntza masifikatu zen XX. mendean, eta hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, ondorio garrantzitsuak ekarri zituen gertaera horrek. Baina XX. mendeak gazteen autonomizazioa ere ekarri zuen, alegia, gaztea berez zen gaztea, eta ez helduaroan izan behar zutenaren arabera. Hala bada, gaztetasuna, pertsonen bizitza-zikloko egoera berezia eta horren gizarte-irudia –beren-beregi aztertzea merezi duena eta politikoen arreta erakartzen duena– ez ezik, subjektu historiko berria ere bada, bere definizioa eta bere helburuen definizioa lortzen saiatzen dena (eta helburu horiek ez datoz bat, are gehiago, aurrez aurre daude, gizarte- eta politika-definizioan atxikitzen zaizkionarekin). Gazteriak, beraz, identitate eta kultura bere-bereak hartzen ditu: belaunaldien arteko gatazka, handiagoa edo txikiagoa, eragiten duten identitate eta azpikultura. Gazteak, alegia, gutxiengo aktiboak, mobilizatu egiten dira, beti bezala, eta horrek identitate sentsazioa eta beren interesak definitzeko gaitasuna sortzen du.

Gazte izaeraren autonomizazio eta unibertsalizazio erlatibo horretan azpimarratu behar dugu badela beste prozesu bat, harremana duena, baina berezia dena aldi berean: gizonen eta emakumeen arteko berdintasun progresiboa. Aurreko bi prozesuek definitzen dute azken hori. Hezkuntza baztertzailetik hezkuntza bereizirako jauzia gertatu zen. Arlo publikoa eta pribatua erabat bereizi zirenean, batez ere pribatutasunarekiko eta intimitatearekiko lotura estua zuen hezkuntza berezia nagusitu zen. Ondoren etorri zen emakumea zenbait lan-esparrutan hastea, eta horren ondorioz, lehenago gizonen-koenak bakarrik ziren beste sektore batzuetan eskumena eta agintea hartzen hasi ziren emakumeak.

Prozesu horiek guztiek sarea osatzen zuten, eta ondorio orokorra zuten hierarkia-sailkapen printzipioetan gainbehera etorri zirela adina eta sexua. Bide horretan lagundu zuen, bestalde, zientzia- eta teknologia-ezagutzaren erritmoak, eta horrekin batera, ondorengo belaunaldien hezkuntza-prestakuntzaren erritmo aldaketak ere bai, izan ere heldutasun-ean eta eskarmentuan oinarritutako aginpidea astintzen zuten etengabe. Teknika eta eskumena ez ziren jada adinarekiko proportzionalak; ordea, askotan alderantzizkoa gertatzen

zen. Horren ondorioz, zalantzan jartzen zen gizonen eta helduen gaitasun handiagoa zutela zenbait lanetarako.

Baina beste esparru batzuetan izandako aldaketek ere lagundu dute adina eta sexua ahultzeko hierarkia-sailkapen printzipio gisa. Esparru sinbolikoan, esaterako, gure gizartean garrantzi handi hartu du gazte irauteak, eta horrek badu eraginik kontsumoan, gorputzarekin...; eta hori zuzen-zuzenean lotzen zaio edertasunari, eta zenbaitetan gazte izaerarekin lotzen da edertasuna. Beste adibide bat jartzearren, bikotekidea aukeratzeko autonomia ere lortu dute gazteak.

Helduak, hortaz, prestigioaren zati bat uzten du, eta heldu izateko urratsak prestigioa galtzen du.

0.1.3. Gaztaroaren mugak

Azterlan honen abiapuntua gizarte-erakundeen krisia-edo izan da. Erakunde horiek egituratu dute, ikuspuntu makrosozialetik, integrazioa eta gizarte-ordena, eta ikuspuntu mikrosozial eta banakoetatik, berriz, bizitzaren zentzua eta identitatearen alderdi soziala. Estatua, Erljioa, eta Lana dira instituzio nagusi horiek, eta estu lotzen zaizkie gizarte-mekanismoei. Bestalde, instituzio horiek politika-, erlijio- eta lan-balioetan daude bideratuta. Hala bada, gizarte-sistemaren krisi erlatiboa da.

Krisi erlatiboa diogu, ez baita desagertu erakunde horiek definitzen duten mundu soziala. Ordea, zenbait gizarte –segmentutan badira hainbat jarduera mundu horrek egituratzen ez dituenak, eta jarduera horiek gizarte-zentzua eta identitatea sortzen ari dira.

Gizarte-sistema horren balio nagusiak zenbait ardatzen inguruan daude bilduta: adina, sexua-generoa eta lanbidea. Herritarraren paradigma da gizona, heldua eta langilea. Balio horiek ezartzen dute, gizarte-egitura gisa, gizartearen banaketa adinaren arabera: haurra, gaztea, heldua, zaharra. Norbanakoaren gizarte-adina ezartzen dute noski adin biologikoak, lan-egoerak eta familia-egoerak ere.

Horiek horrela, Lana instituzioaren krisi erlatiboa bereziki azpimarratu behar da. Aldaketa sakona ari da gertatzen lan-merkatuan. Hogeigarren mendeko 70 hamarkadako krisi ekonomikoak mendebaldeko herri guztietan desberdin eragin zuen. Herritarrek, eta bereziki lan-merkatu biltzen ari diren edo epe laburrera bildu behar diren gizarte-segmentuak (gazteak eta emakumeak) aldaketa hori somatzen dute

Lan-merkatuan gertatzen ari diren mudantzak eta horiek pertzepzioa aldatzen ari dira gizarte-adin mugak; batez ere lan-merkatuan sartzeko edo bertatik irteteko adinek ezartzen dituzte muga horiek: gaztea-heldua eta heldua-zaharra dira mugak. Guretzat, logikoa denez, bi horietatik lehendabizikoa da interesgarriena: gazte izatetik heldu izatera dagoen bidea, edo, beste era batera esan zaionez, gaztaroaren luzapena. Muga horrek bidaide du bikoteko sexu-harremanak izaterakoan era berria, ez horren instituzionalizatua, eta aldaketa dakar baita familia barruko belaunaldien arteko harremanetan ere. Azkenik, areagotu egiten da berdinen arteko harreman erabat soziala.

Baina gazteak ez dira lan-merkatuaren aldaketak eragindako subjektu pasibo hutsak; gizarte-bizitzaren eraldatzaile aktiboak ere badira. Lehenik eta behin, harreman erabat sozialak luzatzean aldatu egiten ditu harremanak berak, eta horiek utzitako tokia gizarte-bizitzaren espazio/denbora koordenada berriak hartzen dute. Aldaketa horren erakusgarri dira gaua, zenbait espazio betetzea, edo hiri-nomadismoko era batzuk ere. Bigarrenik, segmentu horiek beste bide batzuk bilatu dituzte gizarte-bizitzan esku hartzeko (boluntarioz osatutako elkarteak), eta beste helburu batzuen inguruan mobilizatu dira (gizarte-mugimendu berriak). Azken finean, politikaren zentzua aldatu dute neurri handi batean. Alderdi politikoetan oinarritzen zen politika, eta helburu zuten Estatua kontrolatzea, jarduera erabat politikoaren bitartez; talde horiek, ordea, kultura-aldaketa dute helburu, kultura zentzurik zabalenean hartuta. Alegia, gizarte-bizitzaren pentsaera eta balioak aldatzea dute xede.

Auzi hori aipagarria da, izan ere zalantzan jartzen da belaunaldi berriak erabat despolitizatuta daudelako ideia. Bestelako kontua da: ekintza politikoaren oinarriak aldatzen ari dira. Ekintza politiko hori bideratuta dago, batez ere baina ez horretara soilik, kultura oinarriak aldatzera, hedabideetan ikuskizun bihurtzen diren zenbait gertaeren dramatizazio predikatiboaren bidez (Gusfield, 1994:105-113). Eta beste alde batetik, politika egiteko ez ohiko modu horrek berekin darama politika eta eguneroko bizitza bereiztea, esparru publikoa eta pribatua bereiztea eta politika inplikatzeko identitate pertsonalaren gizarte-dimentsioan.

0.1.4. Igarotzea eta horren gizarte-errituak

Modernitatean ondo samar definitutako bizitza-zikloa izan da gaztaroa, batez ere gaztaroaren azken aroa. Gaztaroaren hasiera, ordea, lausotuz joan zen hezkuntza prozesuaren *continuum*-ean, gero eta luzeagoa izan baitzen. Edonola ere, argi zegoen gaztaroaren eta helduaroaren arteko muga. Gizarte-bizitza zehazten zuten biologiak, lan-egoerak eta familia-egoerak. Beraz, logikoa zen mugarri izatea familia eta lan arloetako gertaerak: adin egokian lana aurkitzeak eta familia sortzeak helduaroan sartzeko bidea adierazten zuten. Hala izaten zen beti, nahiz eta desfaseren bat edo beste izaten zen gizarte-sektorearen araberak. Gure gizartean soldadutza bukatutakoan sartzen zen helduaroan.

Ikus dezagun, bada, helduarora sartzeko ate hori nola dagoen gaur egungo gizartean. Zenbait soziologok gaztaroa luzatzen ari dela diote. Gure ustez, baina, beste zerbait da. Luzatu eta lausotzen dena gaztarotik helduarorako igarobidea da. Eta hori gertatzen da igarotze hori mugatzen duten elementuak desegituratzen ari direlako, gero eta gehiago desegituratu ere. Modernitatean berregituratu egin ziren elementu horiek, bai gaztaroaren sinbolo-adierazpenari dagokionez eta bai faktizitate ordenari dagokionez ere, eta horixe da desegituratzen ari dena. Modernitatean bazen nolabaiteko koherentzia sinbolo-adierazpenaren eta egintzen artean. Baina, gure ustez, ekintzak azkarrago aldatu dira adierazpena baino. Baliteke gaur egun ohikotzat jotzen dena ez ohikoa bihurtzea. Ikus dezagun zer gertatzen den helduarorako sarbidea mugatzen zuten elementuen faktizitate ordenan.

Lehenik eta behin, azken urteotan ikusi dugu derrigorrezko soldadutza desagertu egin dela, eta, beraz, gazte askok lan egiteko eta familia sortzeko mugarritzat hartzen zutena bukatu egin da. Lanpostua aurkitzea, harreman afektiboa eratzea eta familia sortzea, hau

da, gure kulturan etxea erostea eta heldu bihurtzea. Baina lana lortzea bide luzea eta nahasia, eta ez nahitaez lineala, bihurtu da, izan ere, jarraitasunik eza eta atzera egiteak ere badira bide horretan. Eta, azkenik, ez da errazagoa harreman afektiboak eratzea eta familia sortzea.

Gero aztertuko dugu prozesu horietan zer gertatzen den. Baina, oraingoz, esan behar dugu helduarorako atea irekitzen duten elementuak lausotu egin direla eta horien arteko elkarreragina konplexuagoa dela. Lana ziur edukitzeak badu eraginik familia osatzeko garaian, eta, era berean, azken horrek eragina du aurrekoan; biek ala biek oztopatzen dute gaztea gurasoen etxetik irtetea. Horrek guztiak erakusten du gutxi gorabehera egonkorra dela gaztea gurasoengandik independizatzeko prozesua, baina ez du, hala ere, estatutu argi eta onartua. Horrek eragina du familia eta gizartearen estimuan, bai eta gaztearen autoestimuan ere. Eta, jakina, ondorio zuzenak ditu belaunaldien arteko harremanetan, bai gizartekoetan eta bai familia barrukoetan ere.

1, 2 eta 3 taulatan ikusiko dugu zein den Espainiako gazteek lortzen duten autonomia-maila, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta betiere. Taulatan ikusten denez, iparraldeko gazteak askoz ere burujabeagoak dira hegoaldekoak baino. Espainia hegoaldean dago, eta autonomia gutxienekoa da, Italia salbu. Adibidez, Portugalgo eta Greziako gazteek autonomia-maila handiagoa daukate. Lehenengo taulan ikusten denez, 18-29 urte bitarteko Espainiako gazteen %83 bizi da gurasoekin, Italian gertatzen den antzera; Danimarka da muturreko adibidea, %30 baino ez baitira gurasoekin bizi. Eta 25-29 urte bitarteko espainiarren %60 gurasoekin bizi da.

1. Taula. Gurasoen etxean bizi diren gazte europarren proportzioa (1996)


| Adina | Europako herrialdeak | | | | | | | | | | | | | | |
|---------|----------------------|----|----|----|----|----|-----|----|----|----|----|----|-----|----|------|
| | B | DK | D | G | E | F | IRL | I | L | HB | A | P | FIN | UK | EB14 |
| 18-21 | 95 | 73 | 91 | 88 | 98 | 86 | 95 | 96 | 90 | 83 | 85 | 93 | 72 | 79 | 90 |
| 22-25 | 68 | 15 | 51 | 67 | 89 | 53 | 74 | 88 | 64 | 38 | 52 | 82 | 21 | 43 | 63 |
| 26-29 | 26 | 5 | 21 | 47 | 59 | 18 | 34 | 63 | 31 | 10 | 34 | 53 | 7 | 15 | 32 |
| Guztira | 61 | 30 | 51 | 67 | 83 | 51 | 71 | 83 | 57 | 39 | 54 | 78 | 32 | 42 | 60 |

Belgika (B), Danimarka (DK), Alemania (D), Grezia (G), Espainia (E), Frantzia (F), Irlanda (IRL), Italia (I), Luxemburgo (L), Herbehereak (NL), Austria (A), Portugal (P), Finlandia (FIN), Erresuma BAtua (UK), Europar Batasuna (EB).

Iturria: Galland, 2002: 70

Gazteek lortutako independentzia-maila orokorra (2. taula) neurtzen da lau faktore nagusiren arabera: gurasoena ez beste etxeren bat, bikotekidearekin bizi direnak, finantza-autonomia eta lanpostu egonkorra. Mailarik baxuenean daude lau faktoretatik bat ere ez daukatenak; maila ertainean daude faktore bat edo bi betetzen dituztenak; eta goiko mailan daude hiru edo lau faktore biltzen dituztenak. Taulan antzematen denez, Espainiako 16-25 urte bitarteko gazteek autonomia-maila urria dute. Oso gutxi dira goi-maila lortzen dutenak, eta erdiak baino gehiago beheko mailan daude, ez baitaukate lau faktoretatik bat ere ez. Italian baino ez dute egoera baxuagoa. Helduaroan beranduago sartzen dira lana lortzeko zail daukatelako. Hori neur daiteke langabezia-tasen arabera, bai eta aldi baterako kontratazioaren arabera ere, alde handiak baitaude herrialdeen artean.

2. Taula. Europako herrialdeen sailkapena, gazten independentzia-mailaren arabera (16-25 urte). (1996)



Iturria: Galland, 2002: 72.

Hori dela-eta, honakoa dio Gallandek:

... independentizatzeko garaia dela-eta europar gazteen artean halako aldea izateko arrazoia egiturazko faktore bat izan liteke: hasierako ikasketak luzeago edo laburrago irautea. Egia da arlo honetan egoerak oso bestelakoak direla. (...) 1997an, gazte britainiarren %80k baino gehiagok zituzten bukatuta hasierako ikasketak; baina belgikarren %35ek eta frantziarren %40k zuten egina gauza bera. Edonola ere, hasierako ikasketa horien luzera ez da faktore erabakigarria lehenago edo beranduago independentizatzeko. Adibidez, ikasketa-tasa handiko zenbait herrialdetako (Danimarka) gazteak dira lehenak ia erabat independentizaten; eta hasierako ikasketa laburrak dituzten beste herrialde batzuetan (Grezia, Portugal), berriz, gazteak beranduago bihurtzen dira independente. (2002: 71-2)

Beraz, horren zergatia jakin nahi izanez gero, beste kultura-faktore batzuetara jo behar harko da; lehenik eta behin, gazteak familiarekin dituen harremanak azaltzen dituen faktorea aztertu behar harko da, eta hasierako ikasketak bukatu izanak, enpleguari dagokionez, jokatzen duen sinbolismoa ere bai. Hau da, ea zein puntutaraino bereizten duten ikasketek eta enpleguak pertsonaren bizitza bi garaitan.

Hirugarren taulan ikusten da zein den Espainiaren tokia, Europako beste herrialde batzuen aldean, lau faktoreetan. Guztietan dago azken tokietan; lan egonkorren alorrean, azkena da.

Gure lanaren ikuspuntutik aztertuta, garrantzi handiko da gazteek halako zailtasunak izatea gurasoengandik banatzeko. Menpekotasuna betikotu egiten da, eta logikoa da, beraz, gazteek erakutsi nahi izatea ez direla gurasoak, eta oro har, helduak bezalakoak. Eta horren isla da nola jokatzen duten musika gustuetan, beren gorputzarekin (*piercing, tattoo*), janzkera kontuetan, eta espazioa eta denbora betetzerakoan. Eta ziurrenik islatzen da gauza publikoei buruz erakusten duten jarreraren ere. Hemen kokatu behar da, beraz, gure kezka sozializatzeko, parte hartzeko eta mobilizatzeko modu berriak direla-eta. Azken finean, indartu egin da gazteen azpikultura izenez ezagutu izan dena.

3. Taula. Europako herrialdeen independentzia- maila hainbat faktoreren arabera (1994-1996)

| | Bizitokia | Bikotekidearekin bizi dira | Errenta | La egonkorra |
|----|----------------|----------------------------|----------------|----------------|
| 1 | Danimarka | Danimarka | Erresuma Batua | Erresuma Batua |
| 2 | Erresuma Batua | Erresuma Batua | Danimarka | Luxemburgo |
| 3 | Herbehereak | Luxemburgo | Alemania | Alemania |
| 4 | Frantzia | Alemania | Luxemburgo | Irlanda |
| 5 | Alemania | Frantzia | Herbehereak | Portugal |
| 6 | Luxemburgo | Portugal | Irlanda | Herbehereak |
| 7 | Grezia | Grezia | Belgika | Danimarka |
| 8 | Belgika | Belgika | Portugal | Frantzia |
| 9 | Portugal | Herbehereak | Frantzia | Belgika |
| 10 | Irlanda | Espainia | Espainia | Italia |
| 11 | Espainia | Irlanda | Grezia | Grezia |
| 12 | Italia | Italia | Italia | Espainia |

Iturria: Galland, 2002: 74.

0.1.5. Eskolatzeko-aldia bateratzea, luzatzea eta masifikatzea

Eskolatzeko-aldia dela-eta, gure gizarteetan hiru mugimendu gertatu dira.

Lehenengo, hezkuntza gero eta unibertsalagoa bihurtu da, eta gizartearen sektore gehienetara zabaldu da. Emakumeek gizonen antzeko hezkuntza-maila lortu dute; eta gizarte- eta ekonomia-sektorerik ahulenei ere ireki zaizkie hezkuntzarako ateak. Bigarrenik, aurrekoarekin batera, hezkuntza bateratuagoa da, eta ondorioz, masa-gizartearen gailurra, alegia, masifikazioa, gertatu da.

Elkarren ezagutzeko gizarteetan oso hurbil daude pertenezko-taldeak. Baina intimitasuna handiegia bada, gizarteak desorekatu egin liteke. Horregatik adierazi behar dira berriaz taldeen arteko mugak. Hori horrela izanik, errituaren eraginkortasuna behar-beharrezkoa da. Ordea, masa-gizarteetan anonimotasuna da araua; jokabide pribatuak familiaren baitan baino ez dute garrantzirik, eta horregatik ez da horren garrantzizkoa jokabideen gizarte-kodifikazioa. (Galland, 2001: 79-84).

Beste alde batetik, hirugarrenik, hezkuntzaren ibilbidea luzatu egin da, anitzagoak ere badira, bihurriagoak ere bai, ez dira horren monolinealak. Ikasketak anitzagoak dira espezializazio-beharra dagoelako. Horrekin guztiarekin, orain badago aukera gaztearen eskola-eta bizitza-ibilbidean aldaketak egiteko. Gertaera horrek ekarri du, neurri batean, eskola-errituak desagertzea eta ibilbideak gero eta lausoagoak dira. Adinez gaztea izatearen eta adin helduaren arteko mugak luzeagoak eta lausoagoak dira. Egonkortasun eza egonkortu egin da, nolabait; alegia, luzatu egin da batetik bestera igarotzeko aldia.

Adin heldua lortzean bukatu egiten da prestakuntza-aldia, eta, aldi berean, familia-independentsia, lan-autonomia eta finantza-autonomia ere egonkortu egiten dira. Hiru bal-

dintza horiek lortzea zerbait lausoa da gaur egun, eta, horren eraginez, hiru baldintzen arteko erlazioa ere lausotuta dago. Lehen, argi zegoen noiz lortzen ziren hiru baldintzak, eta denbora laburrean gertatzen ziren hirurak. Orain, aldiz, helduarora lortzeko bideak parzialak, aldi batekoak, itzulgarriak eta elkarren arteko konexiorik gabeak dira. Igarotzeko aldia orain, ezkontzeko eta lan egiteko aukerak aztertzeko garaia da.

0.2. ERLIJIOA, LANA ETA POLITIKA GAZTEAK GIZARTEAN INTEGRATZEKO ARDATZ GISA JASATEN ARI DIREN KRISI ERLATIBOA

Ikus dezagun, ondoren, labur eta gizarteko gazteei begira, zer gertatzen den hiru instituzio nagusiekin: erlijioa, lana eta politika.

0.2.1. Gazteen bizitzaren sekularizazioa

XX. mendearen bigarren erdialdean azkar *sekularizatu* dira Espainiako gizartea, oro har, eta euskal gizartea, bereziki. Erritmoa are biziagoa izan da euskal gizartean, kontuan hartu behar baita joan den mendeko 50 eta 60 urteetan askoz ere erlijiosoagoa zela euskal gizartea Espainiakoa baino (Duocastella et al., 1967; Duocastella, 1975). Gaur egun, aldiz, batez bestekoaren azpitik dago, batez ere gazteen artean. Baina sekularizazioa ez da, berez, erlijioa desagertzea, baizik eta erlijioa bihurtzea erlijio-kultura lauso eta pribatua, eta instituzionalizatutako sinesmenek eta jarduerak garrantzia galtzea (Pérez-Agote eta Santiago, 2005).

4. Taula. Erlijio-autodefinizioaren bilakaera Espainiar Estatuan. Ehunekoak.

| | 1965 | 1975 | 1980 | 1982 | 1984 | 1985 | 1988 |
|------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|
| Katoliko praktikatzaileak | 83 | 74 | 50 | 51 | 51 | 44 | 41 |
| Katoliko ez praktikatzaileak | 15 | 14 | 35 | 38 | 35 | 43 | 40 |
| Sinesgabeak | 2 | 2 | 20 | 9 | 5 | 4 | 6 |
| Interesik ez dutenak | – | – | – | – | 6 | 7 | 7 |
| Beste erlijioen bat | 0 | 0,2 | 0,7 | 0,5 | 1 | 1 | 1 |
| Ez du erantzun | 0 | 4 | 4,3 | 2 | 2 | 2 | 5 |

Iturria: Díaz Salazar, 1993: 133.

5. Taula. Espainiar Estatuko gazteen erlijio-autodefinizioa. Ehunekoak.

| | 1960 | 1975 | 1989 |
|--|------|------|------|
| Oso katoliko onak | 6,7 | 5,1 | 1,1 |
| Katoliko praktikatzaileak | 68,7 | 27,4 | 14,3 |
| Oso praktikatzaile ez diren katolikoak | 15,8 | 29,4 | 20,6 |
| Katoliko ez praktikatzaileak | 7,7 | 18,3 | 20,6 |
| Interesik ez dutenak | – | 19,7 | 30,4 |
| Ateoak | – | – | 7,7 |

Iturria: Díaz Salazar, 1993: 135.

6. Taula. Praktikaren bilakaera Espainian. Mezatara doazenak. Ehunekoak.

| | 1973 | 1978 | 1981 | 1984 | 1985 | 1990 |
|----------------------------|------|------|------|------|------|------|
| «la igandero edo sarriago» | 68 | 40 | 41 | 30 | 28 | 33 |
| «Hilean behin» | 7 | 17 | 12 | 13 | – | 10 |
| «Urtean zenbait aldiz» | 10 | 25 | 15 | 24 | 34 | 29 |
| «Inoiz ere ez» | 13 | 15 | 31 | 30 | 37 | 29 |
| Ez du erantzun | 2 | 13 | – | 3 | 1 | – |

Iturria: Díaz Salazar, 1993: 151.

7. Taula. Espainiako gazteen praktikaren bilakaera. Mezatara doazenak. Ehunekoak.

| | 1960 | 1968 | 1975 | 1981 | 1984 | 1989 | 1990 |
|--------------|-------------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Adina | Gizonezko gazteak | 15-29 | 15-25 | 18-24 | 15-24 | 15-24 | 18-24 |
| Igandero | 42,6 | 53 | 25,3 | 23 | 17 | 18 | 13 |
| Inoiz ere ez | 10,1 | 15 | 23,2 | 40 | 47 | 40 | 47 |

Iturria: Díaz Salazar, 1993: 151.

Azken taulatan (4, 5, 6 eta 7) ikusten denez, oso bizkorra izan da Espainiako sekularizazio prozesua. Eta are bizkorragoa izan da Euskadin. Adierazleek ziotenez, Euskadin garrantzi handiagoa zuen erlijioak Espainian baino, eta gaur egun Euskadiko biztanle gazteen erlijiozkotasuna askoz ere txikiagoa da Espainiako batez bestekoa baino (8, 9 eta 10 taulak). Azken taulan antzematen denez, Euskadiko gazteen erlijiozkotasuna horren behera etorri da, ezen esan baitaiteke gazte gehienak ez direla fededunak.

8. Taula. Euskadiko gazteen erlijio autodefinizioa. Ehunekoak.

| | 1987 [Adina: 18-25] | 2004 [Adina: 20-24] |
|------------------------------|------------------------|------------------------|
| Katoliko praktikatzaileak | 16 | 5 |
| Katoliko ez praktikatzaileak | 47 | 38 |
| Kristaua | 7 | (Ez da kategoriarik) |
| Beste erlijio batzuk | 1 | 1 |
| Sinestuna | 9 | 4 |
| Agnostikoa | 7 | 14 |
| Sinesgabea | 13 | 35 |

Iturria: Pérez-Agote, 1990: 40 [Datua 1987]; *Juventud vasca*, 2004: 107 [Datua 2004].

9. Taula. Euskal gazteen erlijio-praktika. Ehunekoak.

| | 1987 [Adina: 18-25] |
|------------------------|------------------------|
| Inoiz ere ez | 55 |
| Urtean zenbait aldiz | 25 |
| Hilean zenbait aldiz | 7 |
| Ia igandero | 7 |
| Igandetan eta sarriago | 6 |

| | 2004 [Adina: 20-24] |
|-------------------------------|------------------------|
| Astean behi baino gutxiagotan | 60 |
| Astean behin | 36 |
| Astean behin baino gehiagotan | 2 |
| Egunero | 0 |

Iturriak: Pérez-Agote, 1990: 40 [Datua 1987]; *Juventud Vasca*, 2004: 109 [2004ko datua].

10. Taula. Euskadiko eta Espainiako erlijiozkotasuna. Ehunekoak.

| | Euskadiko gazteak 2000 | Espainiako gazteak 2001 | Euskadiko gazteak 2003 | Espainiako gazteak 2004 |
|------------|------------------------------|-------------------------------|------------------------------|-------------------------------|
| Sinestunak | 57 | 62,6 | 68,9 | 46 |
| Fedegabeak | 39 | 35,8 | 30,0 | 52 |
| Ed/Ee | 4 | 1,6 | 1,1 | 2 |

Iturria: *Juventud Vasca*, 2004: 108.

0.2.2. Gazteen eskarmentua lan-arlo garaikidean

Lana, antropologiaren ikuspuntutik, «gizakiaren ingurune fisikoa eraldatzera bideratu-tako berriazko giza ahalegina» (Udy, 1970: 11) da. Hala ere, gure gizarteetan lanari bu-ruzko eztabaida azaltzen denean, lanaren esanahi zabalagoa hartu ohi da, giza jarduera ga-razteko era espezifikoa, alegia, giza jarduera garatzeko era historiko berriazkoagoa. A.Gorzek dioenez:

Guk lana esaten dioguna ez da modernitatearen asmakizuna. Industrializazioaren garaian sortu eta garatu zen guk ezagutu, praktikatu eta gure bizitzaren erdigunean kokatzen dugun kontzeptu hori. Lana, gaur egun, ez da ataza, egunez egun errepikatzen dena, norberaren bizitzari eusteko eta bizitza bera errepikatzeko ezinbesteko dena; eta ez da, halaber, egiteko hutsa, nahiz eta norberaren edo ondokoaren onurarako ezinbestean egin beharreko egitekoa izan; eta lana ez da, era berean, *motu propio* egiten duguna, gure denbora eta ahalegina kontuan hartu gabe, guretzat beste inorentzat garrantzitsua ez dena eta guk geuk beste inork egin ez lezakeena. Jar-

duera horiek –etxe lanak, arte lanak, autoprodukzio lana– lantzat hartuta ere, ez da gizartearen oinarrian dagoen lana, bitarteko eta helburu nagusia dena, alegia. (1995:25-26).

Modernitatean bereizita agertzen da lana gainerako gizarte-erakundeetatik, eta, bereziki, familiatik. Industria-produkzioa orokor bihurtzean, nekazaritza-produkzioak kapitalismo egitura hartzean eta zerbitzu-produkzioa politika eta enpresa eran antolatzean, lana bereizi egin zen etxetik eta familiatik. Ekonomia-arloa, eta berarekin batera lana, beregain bihurtu ziren, eta ez ziren etxeari eta familiari loturik agertzen.

Mundu berri horretan, non lana independentea den, lanean diharduenak baino ez dauka erabateko tokia gizartean. Ez da familia gizartean txertatzen dena; familia gizartean txertatzen da lan egiten duenaren bitartez.

Lanik ezak menpekotasuna dakar, bai eta gizarte-identitate erabateko eza ere. Horregatik hasi dira emakumeak lan-munduan erabat sartzeko ahaleginetan, gizonezkoek bezala.

Gaztaroa menpekotasun garaia da, lanerako eta familiarako prestatzeko garaia, baina lana lortzea gero eta zailagoa denez, egoera desitxuratu egiten da.

Hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera, *petrolioaren krisialdia* izenez ezagutzen den garaitik aurrera, hasi ziren mendebaldeko gizarteak lanaren inguruko hausnarketak egiten. Alde batetik, galdera zen ea nolakoa zen ekonomia krisia, koiunturazkoa edo egiturazkoa. Beste batetik, eta aurreko galderarekin batera, ea zein zen populazioaren errepresentazio subjektiboa lan-merkatuan. Soziologoek gizarte-mobilitate subjektibo esaten diote horri, eta funtsezkoa da gizarte-bizitzaren zenbait alorretako jokabideak azaldu ahal izateko. Euskadin, behintzat, argi ikusten da lana dela gazteen arazorik larriena, eta ondoren, oso hurbil, etxebizitzarena. Atzean samar geratzen dira gainerakoak. (Juventud Vasca, 2004: 82).

Lan-munduan gertatzen ari diren aldaketen testuinguruan, argi dago nabarmena dela gazteen tokia. Bi aldetarikoak da: batetik, etengabe berregituratzen eta desegituratzen ari den lan-merkatua jasotzen dutenak dira, eta beraz, lan-eredu berriek zuzen-zuzenean eragiten diete. Eta lan eredu berri horien ezaugarria ez da, hain zuzen, «ontasuna», izan ere merkatuan sartzeko oztupoak ikaragarriak dira, langabezia dago, lan prekariora ere bai... Eta, bestetik, gazteek berek hartzen dute parte aktiboki gertatzen diren aldaketetan, hau da, gazteengan sortzen dira lana ulertzeko modu berriak eta lanarekin harremanetan izateko modu berriak ere; gazteek berek sortzen dituzte alternatibak ohiko lan-ereduen aurrean.

Eskuarki esan liteke lan-merkatuko aldaketek eragina dutela ekoizpen-sektore guztietan, eta bereziki, langileengan. Populazio aktiboaren gazteen sektorean biltzen dira nabarmenago enplegu mota berriak, kontratazio mota berriak. Lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketak adinaren arabera badira, bi erataraz azertu behar da hori. Aldaketak izan litezke historia-garai baten aldaketaren eraginez, baina izan litezke norbanakoa gizarte-ziklo biologikoaren halako edo bestelako fasean dagoelako ere; eta gerta liteke bi zergatien konbinazioa izatea ere. Ez daukagu, baina, bi erlazio horiek bereizteko serie historiko homogeneorik; hala bada, tentuz ibili beharko dugu adinarekin gertatzen diren aldaketei buruz eztabaidatzerakoan, eta are gehiago belaunaldietan gertatzen diren aldaketak garai histori-

koen aldaketak direla esaterakoan. Hau da, tentuz ibili behar da esateko belaunaldi gazte batean gertatzen dena orainaldiarena dela bereziki, gizartearen helburua dela.

Aipatzen ari garen aldaketen zenbait ezaugarri hartzen ditugu oinarritzat. Lehenik eta behin, egiturazko ezaugarriei dagokienez, gazteen lan-merkatuaren ikuspegi orokorra erakusten digutenak, gazteak zein lanetan aritzen diren eta zein diren lan horien ezaugarriak.

Gazteen lan-merkatuaren ezaugarrietako bat langabezia indize altua da, 11. taulan ikusiko dugunez. Nabaria da zenbateraino eragiten duen langabeziak gazteen artean. Espainian langabeziak populazio aktiboaren %11,3ri eragiten zion 2003an, eta 25 urtetik beharako %22,3ri. Euskal Autonomia Erkidegoan zertxobait murriztagoa zen tasa hori: populazio aktiboaren %9,2ri eragiten zion, baina gazteei dagokienez, estatuko parametro berdintsua zuen (%22). Sexuaren arabera aztertuz gero, 25 urtetik beherako emakumeen langabezia-tasa handiagoa da adin bereko gizonezkoena baino. Hainbeste gazte langabetu egotearen arrazoia izan liteke, neurri handi batean, prestakuntza aldia luzatu egin delako, baina beste alde batetik, lanpostua lortzeko oztopoak handiak direlako, batez ere prestakuntzarekin bat datorren lanpostua lortzeko. Eta baliteke hori gertatzea bi arrazoiek zerkusia dutelako elkarrekin.

11. Taula. Langabezia-tasak Europar Batasuneko (15 herrialde) eta EAeko 25 urtetik beherakoen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak*

| | Guztira | | | Gizonezk. | | | Emak. | | |
|----------------|---------|------|------|-----------|------|------|-------|------|------|
| | 2001 | 2002 | 2003 | 2001 | 2002 | 2003 | 2001 | 2002 | 2003 |
| E.B. (15) | 14,0 | 14,6 | 15,4 | 13,2 | 14,3 | 15,5 | 14,9 | 15,0 | 15,3 |
| Belgika | 15,3 | 15,7 | 19,0 | 14,3 | 16,0 | 20,1 | 16,6 | 15,2 | 17,5 |
| Danimarka | 8,3 | 7,1 | 9,8 | 7,3 | 8,8 | 10,6 | 9,3 | 5,2 | 9,0 |
| Alemania | 7,8 | 9,3 | 11,0 | 9,0 | 11,1 | 13,7 | 6,4 | 7,2 | 8,1 |
| Grezia | 28,0 | 25,7 | 25,1 | 21,0 | 18,7 | 17,8 | 35,7 | 33,7 | 34,1 |
| Espainia | 20,7 | 21,5 | 22,3 | 16,1 | 16,9 | 19,0 | 26,7 | 27,7 | 26,6 |
| Frantzia | 18,0 | 18,9 | 19,0 | 16,0 | 17,5 | 18,1 | 20,5 | 20,8 | 20,1 |
| Irlanda | 6,1 | 7,8 | 8,0 | 6,4 | 8,7 | 8,9 | 5,8 | 6,7 | 6,9 |
| Italia | 27,8 | 27,1 | 26,8 | 24,8 | 23,7 | 23,7 | 31,6 | 31,5 | 30,9 |
| Luxemburgo | 6,2 | -6,9 | 11,5 | 7,0 | -5,2 | 10,7 | .. | -8,9 | 12,4 |
| Herbehereak | 4,4 | 4,6 | 6,6 | 4,2 | 4,3 | 6,7 | 4,5 | 4,8 | 6,5 |
| Austria | 6,0 | 7,2 | 7,5 | 6,2 | 7,8 | 8,1 | 5,8 | 6,5 | 6,8 |
| Portugal | 8,8 | 10,4 | 13,4 | 6,4 | 9,0 | 10,6 | 11,9 | 12,2 | 16,7 |
| Finlandia | 26,6 | 28,2 | 27,8 | 25,7 | 28,6 | 27,8 | 27,5 | 27,8 | 27,9 |
| Suedia | 9,5 | 12,9 | 14,3 | 10,8 | 13,4 | 15,5 | 8,1 | 12,4 | 13,1 |
| Erresuma Batua | 10,3 | 10,9 | 11,4 | 11,8 | 12,8 | 13,0 | 8,7 | 8,8 | 9,5 |
| EAE | 25,7 | 17,1 | 22,5 | - | - | - | - | - | - |

Iturria: Geuk egina, EUROSTAT eta EUSTATen datuak oinarritzat hartuta.

* Urte bakoitzeko bigarren hiruhileko datuak.

Estatistika-informazioa daukagunetik ez da eten goranzko joera aldi baterako kontratazioari ez eta lanaldi murriztuko kontratazioari dagokionez ere. Batez ere lehendabizikoak egin du gora.

Hamabigarren taulan ikusten denez, azken hamarkadan gora egin du kontratu mugagabea sinatu duen langile kopuruak; hala ere, aldi baterako kontratazioa gero eta handiagoa da; hamasei urtean bikoiztu egin dira aldi baterako kontratuak: 1988an ia bi milioi izan ziren, eta 2004an, berriz, 4 milioi baino gehiago.

12. Taula. Soldatapekoen bilakaera, kontratu edo lan-harremanaren arabera (1988-2004). Espainia. Milakakoetan adierazita.

| | 1988 | 1991 | 1994 | 1997 | 2000 | 2004 |
|--|----------------|----------------|----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| Mugagabea | 6.720,8 | 6.630,4 | 5.974,9 | 6.661,4 | 8.300,5 | 9.664,0 |
| Iraunkorra | 6.585,0 | 6.519,4 | 5.844,4 | 6.532,4 | 8.138,9 | 9.502,0 |
| Etena | 135,8 | 111,1 | 130,5 | 129,0 | 161,6 | 162,0 |
| Aldi baterakoa | 1.895,2 | 3.135,0 | 3.025,2 | 3.379,3 | 3.930,6 | 4.213,0 |
| Ikasteko, prestatzeko edo praktikazkoa | 63,0 | 56,2 | 90,9 | 115,5 | 125,8 | 128,7 |
| Urtearen sasoi batekoa | 560,2 | 515,5 | 234,9 | 264,9 | 272,5 | 255,2 |
| Probaldia | .. | .. | 17,5 | 22,9 | 41,0 | 63,5 |
| Beste langile baten tokia betetzeko | .. | .. | 78,2 | 138,5 | 192,9 | 261,9 |
| Lan jakinetarako | .. | .. | 415,3 | 730,3 | 1.140,6 | 1.388,0 |
| Bestelakoa | 1.271,9 | 2.563,3 | 2.188,4 | 2.107,3 | 2.157,7 | 2.115,6 |
| Saillkazina | 13,2 | 5,1 | 2,3 | 14,5 | .. | .. |
| Guztira | 8.629,2 | 9.770,5 | 9.002,4 | 10.055,1 | 12.231,1 | 13.876,9 |

Iturria: EPA.

13. Taula. Soldatapean (kooperatibistak izan ezik) lanean diharduen 25 urtetik beherako EAEko populazioa, kontratu motaren, sexuaren eta ekonomia-sektorearen arabera. Absolutuak, 2003. urtea.

| | Behin betikoa | Aldi baterako | Kontraturik gabe eta bestelakoa | Guztira |
|----------------|---------------|---------------|---------------------------------|-------------|
| Gizonezkoak | 10,1 | 25,8 | 0,7 | 36,6 |
| Emakumeak | 7,2 | 16,9 | 2,3 | 26,4 |
| Nekazaritza | 0,1 | 0,2 | 0,0 | 0,3 |
| Industria | 6,8 | 15,0 | 0,1 | 21,9 |
| Eraikuntza | 1,5 | 6,1 | 0,2 | 7,9 |
| Zerbitzuak | 8,9 | 21,4 | 2,7 | 33,0 |
| Guztira | 17,3 | 42,7 | 3,0 | 63,0 |

Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuak oinarri hartuta.

Aldi baterako kontratazioa interesatzen zaigu bereziki, izan ere gaur egun gehien egiten denetarikoa bat da, eta, horren ondorioz, gazte asko lan-merkatuan sartzeko bidea ere bada. Aldi baterako kontratazioak hainbat aldagai ditu: lan eginkizun edo zerbitzu jakin bat egiteko kontratua –ohikoena–, behin-behinekoak, urte sasoi batekoak, ordezkapena eta, azkenik, gazten artean horren hedatua dagoena, alegia, praktikak egiteko edo prestakuntza jasotzeko kontratazioa. Hamahirugarren taulan ikusten denez, aldi baterako kontratazioa oso hedatuta dago gazteen artean, behin betiko kontratazioa baino askoz ere hedatuago egon ere: eta, beste alde batetik, taula horretan azaltzen denez, zerbitzu sektorean biltzen dira aldi baterako kontratu gehienak.

Lan-errealitate horiei begiratuz gero, logikoa da modernitatean *lanaren kultura* izenez ezagutu izan genuena nabarmen aldatzen ari izatea, batetik, lan urria dagoelako, eta bestetik, enplegurako modu berriak azaldu direlako: lanaldi murriztuko kontratuak, aldi baterakoak, aldi baterako kontratazioa egiten duten enpresak. Urritasunak, eta beraz, segurtasun ezak berekin dakarte garrantzi handiagoa ematea segurtasunari lanpostuaren beste ezaugarri batzuei baino. Eta aipatutako lan urritasun ezaren eraginez, autosorkuntza indibidual edo taldeko modu berriak azaltzen ari dira, alegia, bizi ahal izateko lanpostu mota aberriak sortzen ari dira. Eta laburrago esanda, aipatutako aldaketa horien ondorioz aldatzen ari dira gure gizartearen zenbait ardatz, esaterako, lanak pertsonaren bizitzan betetzen duen tokia. Pentsa liteke, beraz, lana bizitzaren erdigunean dagoelako ideiatik –zein lan egiten dugun, horixe gara-, gizarte-identitatearen beste iturri batzuetara aldatzen ari garela: lan egiteko bizi ginen gizartetik bizi ahal izateko lan egiten den gizartera joan gara, eta, hortaz, lana ez dago erdigunean, tresna da, bizitzaren helburu baino bitarteko bihurtu da lana.

Oraindik ere bizirik dirau gazteen artean lanaren kultura klasikotzat –aro modernoko kontzeptua– jotzen dugunak; baina kultura zurrun hori lasaitzen ari dela ikusten dugu. Beste jarrera bat antzematen da, eta lana beharrezkoa da baina ez dago bizitzaren erdigunean; eta beste bide bat ere igartzen da, zeinak etika sekularizatu malguago batera baikarizatzea. Adibidez, lana norberaren errealizazio gisa eta lana bizitzaren jarduerarik garrantzitsuena delako ideia geroz eta mugatuago agertzen da gazteen artean. Hala ere, gazte horiek soldatapeko lana nahi dute, nahiz eta horretarako beharrik izan ez, eta prest daude aisialdia murrizteko lan hobeaz lortzearren¹.

Gazteek, helduen aldean, argi dute lan egin behar dutela eta, are gehiago, lan ona aurkitu behar dutela. Baina, beste alde batetik, gero eta gehiago dira lanaren ikuspegi ez horren polarizatua dutenak; alegia, gero eta gehiagok diote lan egiten dutela bizi ahal izateko, eta ez alderantziz. Adinarekin batera behera egiten du lana betebeharrak moral gisa ikusteak; ez da, ordea, erabat desagertzen. Baina badu ondorioz, izan ere garrantzi txikiagoa hartzen du identitate pertsonalaren gizarte-dimentsioan.

Gazteen artean lan egiteko modu berriak daudela diogunean, esan nahi dugu gazteen artean bikoiztu egin dela, beste belaunaldiekin alderatuz gero, hirugarren sektorean jardun nahi dutenen kopurua, eta autoenplegurako aukera handi samarra dela ere bai. Ohiko lan iturriak beteta badaude edo gazteei ez bazaie horietan sartzen uzten, gazteak be-

¹ Lanari buruz epigrafe honetan eman ditugun ohar gehienak oinarrituta daude ikerketa-talde honek Bizkaian egindako azterlan kuantitatiboaren emaitzetan. Argibide gehiago nahi izanez gero, ikus: Pérez-Agote, A., Tejerina, B. eta Santamaría, E. (2005).

hartuta daude *enplegarritasuna*² beste gune batzuetara zabaltzera. Lanean hobera egiteko ere, enpresaz aldatuta bide egokiagoa ikusten dute, eta ez ohiko bidea, hau da, enpresa berean jarraituta.

Teknologia berriak ez dira gazte gehienentzat *curriculum*a osatzeko ezaugarri hutsa; lan-merkatuan sartzeko ezinbesteko baldintza dira. Hala bada, aipatu behar da Internet gazteen artean erabiltzen dela gehienbat, enplegua bilatzeko erabili ohi baitute, eta ez da horrelakorik gertatzen aurreko belaunaldietan.

Nabarmendu beharrekoa da emakumeen, eta batez ere emakume gazteen, sektoreak berariazko ezaugarriak dituela. Emakumeek, gaur inoiz baino gehiago, lan egin nahi dute, ekonomikoki beharrezkoa izan edo ez izan; are gehiago, gizonezko gazteek baino gehiago nahi dute. Gizartean ahalmen osoz eta independentziaz kokatu ahal izateko lana beharrezkotzat jotzen duen ideia gero eta hedatuago dago emakume kontzientzian. Berez, urtez urte ari da hazten emakumeen okupazio-tasa, eta prozesu hori Europar Batasuneko herrialde guztietan ari da gertatzen, batere salbuespenik gabe, nahiz eta erritmoak eta orekak ez iren berdin-berdinak (14. taula). Oraindik ez dute gizonezkoen okupazio-tasa lortu, hala ere, EAEn, esaterako, %75,6koa baita.

14. taula. Lanean jarduteko adina duten emakumeen okupazio-tasa Europako herrialdeetan eta EAEn.

| | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 |
|----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| EB 15 | 49,3 | 49,7 | 50,2 | 50,8 | 51,6 | 52,9 | 54,1 | 55,0 | 55,6 |
| Belgika | 44,6 | 45,0 | 45,4 | 46,5 | 47,6 | 50,4 | 51,5 | 51,0 | 51,4 |
| Danimarka | 66,9 | 66,7 | 67,4 | 69,1 | 70,2 | 71,1 | 71,6 | 72,0 | 71,7 |
| Alemania | 55,1 | 55,3 | 55,3 | 55,3 | 55,8 | 57,4 | 58,1 | 58,7 | 58,8 |
| Grezia | 37,3 | 38,1 | 38,7 | 39,3 | 40,2 | 40,6 | 41,2 | 40,9 | 42,5 |
| Espainia | 30,7 | 31,7 | 32,9 | 34,4 | 35,8 | 38,4 | 41,2 | 43,0 | 44,1 |
| Frantzia | 51,6 | 52,1 | 52,2 | 52,4 | 53,1 | 54,0 | 55,2 | 56,0 | 56,7 |
| Irlanda | 40,1 | 41,6 | 43,2 | 45,9 | 49,0 | 52,0 | 54,0 | 54,9 | 55,4 |
| Italia | 35,4 | 35,4 | 36,0 | 36,4 | 37,3 | 38,3 | 39,6 | 41,1 | 42,0 |
| Luxemburgo | 44,4 | 42,6 | 43,8 | 45,3 | 46,2 | 48,6 | 50,1 | 50,9 | 51,6 |
| Herbehereak | 53,2 | 53,8 | 55,8 | 58,0 | 60,1 | 62,3 | 63,5 | 65,2 | 66,2 |
| Austria | 58,9 | 59,0 | 58,4 | 58,6 | 58,8 | 59,6 | 59,6 | 60,7 | 63,1 |
| Portugal | 54,2 | 54,3 | 54,9 | 56,5 | 58,3 | 59,6 | 60,5 | 61,0 | 60,8 |
| Finlandia | 58,7 | 59,0 | 59,4 | 60,3 | 61,2 | 63,4 | 64,2 | 65,4 | 66,2 |
| Suedia | 68,5 | 68,8 | 68,1 | 67,2 | 67,9 | 69,4 | 70,9 | 72,3 | 72,2 |
| Erresuma Batua | 61,2 | 61,7 | 62,5 | 63,1 | 63,6 | 64,2 | 64,8 | 65,0 | 65,3 |
| EAE | 32,5 | 34,4 | 35,3 | 36,4 | 38,8 | 42,3 | 43,1 | 45,7 | 49,3 |

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

² Lan-merkatuan sartzeko oztopo gehien dituzten gazteei zuzendutako enplegu-politiketan erabilitako hitza.

Lanaren balioa emakumeen kontzientzian hartzen ari den maila beretsuan ageri da eguneroko bizitzan lanarekin lehian dauden jardueretik errefusa; eta, batez ere, lansariarik gabeko etxeko lanetik errefusa. Horixe arbuiazen dute gehien, baldin eta errefusa neurtzen badugu eskaintzen zaion denboraren arabera. Etxeko lanetik aldentzeak argi erakusten du emakumeengan lan kulturaren alorrean zein aldetan gertatu den, bereziki emakume gazteengan.

Bitxia da, bestalde, emakume gazteengan gertatzen ari den paradoxa: lana ez dela jarduerarik garrantzizkoena diote, baina beren aisialdiaren zati bat emango lukete lan hobeaz lortzearen. Horrek guztiak argi erakusten du emakumeek uste osoa dutela lan egin behar dutela, nahiz eta zaila den; baina beste gauza bat ere erakusten du, alegia, lanean gutxi polarizatutako bizitzaren ikuspegia dute. Emakume gazteek uste dute, aldi berean, lana garrantzitsua dela eta lanak garrantzi erlatiboa duela bizitzaren beste ezaugarri batzuekin alderatuta. Badakite bizi ahal izateko oso garrantzitsua dela lana, baina ez diote lanari eskaini nahi beren bizitza osoa; eta gauza bera uste dute gazteek ere.

Lan hau prestatzen ari ginela³, jabetu ginen lansariari ematen zitzaion garrantzia dela eta, alde handia zegoela aurreko belaunaldiko emakume eta gizonen artean: gizonen artean askoz ere garrantzi handiagoa ematen zioten. Baina gazteen belaunaldian ez da alderik. Horrek agerian uzten du zenbateraino aldatu den lanaren tokia emakumeen bizitzan, independentzia lortzeko.

Emakumeen artean, gazteenek garrantzi handiagoa ematen diote mailaz igotzeari, eta gizonen artean baina garrantzi handiagoa ematen diote zenbaitetan. Eta, beste alde batetik, berezko bi ezaugarriak, alegia, ezagutza eguneratzeko eta norbera errealizatzeko, gizonen artean baino gehiago balioztatzen dituzte. Horrek adierazten du gizonen artean askoz ere jarrera profesionalagoa dutela emakumeen artean.

Oso adierazgarria da ikustea emakume gazteek gizonen artean baino eta beste edozein sektorean baino gehiago balioztatzen dutela bilatzeko gaur-gaurkok diren hiru bideak: ABLEak, dirua irabazteko xederik gabeko erakundeak eta Internet. Hainbat arrazoi izan liteke horren atzean, baina, edonola ere, emakumeak hobeto egokitzen dira gaur egungo lan-arloaren egoera txarrera. Eta, hala ere, ez dugu ahaztu behar eurak dituztela oztupo gehien lan-merkatuan sartzeko, gazteak eta emakumeak baitira.

0.2.3. Politika konbentzionaleraino haratago: politikaren kultura berria

Aurreko azterlan baten ondorioa⁴ da irakurleak eskuartearen duen honako hau. Lan hartan saiatu ginen antzematen gure gizartearen sortzen ari ziren bizitza sentitzeko modu berriak. Horretarako, bada, bi helburu nagusi jarri genituen azterlanean. Lehendabizikoa, jakitea ea gure ustez estrategikoak ziren segmentuetan (gazteak eta emakumeak) zenbaterainokoa zen sozialitatearen, parte hartzeko eta mobilizatzeko irismena eta dimentsioa. Bigarrena lehenengoaren ondorioa zen: jakin nahi genuen ea sortzen ari diren

³ Ikus 1. oharra

⁴ «Nuevas formas de socialidad, participación y movilización. Estudio en tres áreas metropolitanas, Madrid, Valencia y Bilbao». Comisión Interministerial de Ciencia y Tecnología (CICYT: 2000-2002).

sozialitatearen, parte hartzeko eta mobilizatzeko modu berriek nola laguntzen duten gizartean bizi diren norbanakoen gizarte-dimentsioa eratzten.

Helburu horiek bete ahal izateko, aurretik jakin behar genuen, eskematikoki, ea zer ziren gure ustez azterlanaren dimentsioak: sozialitatea, parte hartzea eta mobilizazioa. Hiru kontzeptu horiek gizarte-jardueraren tipologia ideala biltzen dute gure ustez, eta tipologia horiek gizarte-jarduera jakin batzuetara era enpirikoz aplikatzean analisi-dimentsio bihurtzen dira.

Sozialitatea da, gure ustez, gizarte-harremanean bertan iraungitzen den gizarte-jarduera, harremanaz kanpo inolako helburu esplizitorik bilatu gabe. Parte hartzea ere gizarte-jarduera da, taldetan bilduta gizarte-arazoei aurre egitera bideratuta dagoena; baina aurre egitera betiere laguntza gisa, eta bi modutara azal daiteke, *autolaguntza eta heterolaguntza*. Eta mobilizazioa da gizarte-jarduera bat era nolabait antolatuan egiten dena, kanpoko helburuak lortzera bideratuta dagoena, alegia, pentsamoldea eta gizarte-jarduerak –gizarte-sistemaren funtzionamenduaren sinbolo nabarmenak – aldatzea duena helburu. Tipo ideal gisa, mobilizazioaren definizio hori hurbilago dago Tilly-k (1978), politika-jarduera publiko gisa eman zuenetik, Melucciren (1994) definiziotik baino, azken horrek mobilizazioan publikoak ez diren ezaugarriak ere biltzen baititu.

Lan-eremu itxia eta sistematikoa diseinatzearen, oinarrizko dimentsioetako bat (sozialitatea, parte hartzea eta mobilizazioa) nabarmentzen zen zenbait gizarte-forma zehazten saiatu ginen, hartara forma horietako bakoitzean gertatzen zen gizarte-bizitza deskribatu eta aztertu ahal izango genuke. Sozialitatea nagusi zuten formen artetik hiri-aisiako gauekin eta musikarekin zerikusia duten gazte-jarduerak aukeratu genituen, batetik, eta emakume helduen jarduera berriak bizitokietan, bestetik; parte hartzea nagusi duten formei dagokienez, auto eta heterolaguntzako boluntarioen elkarteak hautatu genituen. Eta mobilizazioa nabarmentzen den formetan, aldiz, generoan, kulturen, ekologian eta elkar-tasunean eragiten saiatzen diren gizarte-mugimenduak hartu genituen aztergai.

Parte hartzeak eta mobilizazioak iraun egiten dute, eta horregatik antolakuntza behar dute, nolabait. Baina sozialitatea une jakin batean adieraz daiteke, iraunkortasunik gabe. Horregatik, sozialitate-formetan bereizi egiten ditugu jarraikortasuna duten jarduerak (auzoetan elkarreragin jarraia duten formak eta musikarekin zerikusia duten zenbait jarduera jarrai ere) *topoetatik*. Topoak dira gizarte-eragileak elkarrekin bizi eta une jakin batean elkarri eragiten dioten tokiak (musika-jarduera ilaunak, hiri-aisiako gaua, aisialdia merkataritza-gune handietan). Topo horiek gizarte-bizitzaren uneak dira, non elkarreragin ilauna gertatzen den, eta ez dute zerikusirik lanbideak, politikak edo erlijioak.

Baina hasierako eredu horrek ez zuen etorkizunik (Badiou, 1969). Helburutzat hartu genuen aukeratutako jarduera edo topo bakoitzean ea hiru dimentsioetako bat ematen ote zen jakitea. Eta orduan, honakoa zen helburua: alde batetik, publikoaren eta politikoaren arteko harreman konbentzionalen subertsio erlatibo aztertzea, eta, beste alde batetik, pribatuaren eta *mikroaren* artekoak aztertzea. Hiru gauza aurkitu nahi genituen: 1) sozialitate hutsaren proiektzioa parte hartzean eta mobilizazioan, 2) parte hartzean sozialitateak eta mobilizazioak zein dimentsio duten, eta 3) mobilizazioan ea zein den sozialitatearen eta part hartzearen dimentsioa. Eta gure asmoa zen, bestalde, jardueraren eta *topoaren* arteko bereizketa zorrotzagoa egitea.

Aipatutako helburu hori funtsezkoa zen beste helburu teorikoago bat lortu ahal izateko: politikaren kontzeptu konbentzionala, publikotasunari lotutako kontzeptuak, politika-ko parte hartzea eta mobilizazioak, politika-kultura... berriro aztertzea. Eskuarki erabili izan den «politika» nozioa eratu zen, lurralde-estatu garaikideak gizarte-bizitzan zuen kondentsazio politikoaren ondorioz, Estatuaren lurralde-konkrezioa nagusi zen garaian. Beharrezkoa zen politikaren definizio oinarrikoago berri bat egitea, bestela, onartu egin beharko zen gizarte pribatizatua eta despolitizatua dela dioen diagnosi soila, eta batez ere, onartu egin beharko zen gazteriak ez duela kezkarik ez gauza publikoen arloan ez bestetan ere.

Aurreko helburua dela-eta, txanponaren beste aldean, azken helburu teoriko bat proposatu genuen: Francoren garaian gizarte-bizitza nolabait *sekularizatu* egin zenez, politika konbentzionala *sakralizatu* egin zen, eta komeni zen jakitea ea gure gaurko gizarteetan zein puntutaraino ez zuen demokrazien desakralizazioak, alegia, politikaren sekularizazioak, sozialitatearen *berrenkantamendua* eragiten.

Aipatu ditugun hiru dimentsioen (sozialitatea, parte hartzea eta mobilizazioa) arteko erlazioak ezartzea ez da batere lan erraza. Ez da hiruren arteko *continuum* sinboliko edo sozialik; kontua ez da, adibidez, parte hartzeak bere baitan biltzea sozialitatea eta garaile ateratzea, eta ez da, halaber, mobilizazioa izatea parte hartzea baino gehiago, eta, beraz, sozialitatea baino gehiago ere. Gerta liteke gure diskurtsoak jasotzea sozialitateari eta parte hartzeari buruzko iritzi hori, hau da, bi horiek hartzea osatu gabeko jarduera gisa. Hori gertatzen da politika hartzen delako gizarte-bizitzaren kondentsazio orokortzat. Eta,aldi berean, hori gerta liteke soziologiaren kontzeptu-esparruak Estatu nazionala eratu zenean ezarri zirelako. Estatu nazionalaren eraikuntza historikoa hustuketa prozesua da, hustuketa erlatiboa halere. Gizartearen beste esparru eta gorputz batzuk husten dira prozesu horretan. Garai modernoan, Estatuak egiten duen gizarte-bizitzaren kondentsazioak soziologoei ekarri zien aukera hartzeko gizartea lurralde osotasun antolatu gisa. Osotasun hori osatzen zuten norbanakoek, koherentzia sinbolikoa zutenek, politikoki supra-antolatuta zeudenek, hain zuzen. Estatu nazionalak bidea eman zuen *gizartea* eta *norbanakoa* bereizirik onartzeko, gaur egun egiten dugun bezala, gizarte-kondentsazioa lortzeko ahalmena baitzuen. Baina egun krisian da Estatuak, ez desagertuko delako, baina bai ahalmen gutxiago duelako gizarte-bizitza guztia hartu eta antolatzeko bere baitan. Eta horrek ondorioak dakarzikie bai norbanakoari eta bai gizarteari berari ere. Gure ustez, testuinguru historiko horretan ziurrenik nabarmen ari dira aldatzen hiru dimentsioen arteko erlazioak. Gaur egun, gero eta gehiago, gizarte-bizitzak ihes egiten dio politikaren supra-antolaketari, eta gero eta politika-bizitza gehiagok egiten dio ihes, goitik eta behetik, *par excellence* den politika-logikari, hau da, Estatu nazionalaren politika-logikari. Tocquevilleek (1985) espero zuen norbanakoaren eta estatuaren arteko esparruak uxatuko zuela despotismo arriskua; baina, gaur egun, esparru horrek halako neurria eta dentsitatea du, non nekez esan baitaiteke bi haien arteko esparrua dela⁵.

Gizarte-zientzialariek, oro har, modernitatearen ordena dela-eta, esaten zuten Merkatuaren eta Estatuaren arteko egituraketa espezifikoa zela gehienbat. Garai horietan gizarte-klaseen arteko gatazka izan zen gizarte-mugimendurik ohikoena; sindikatua alderdia bikotea zen ekonomia-politika bikotearen egituraketa. Politika-egitura aldatu

⁵ Era berean, gure ustez, gizarte-kapitala ideiak (Putnam, 2000) gizarte-harremanen nolabaiteko supra-antolaketak dakar berekin, ekonomikoa edo bestelakoa, eta ez du uzten barrutik ulertzen harreman horien esanahia.

egin zen baina, eta gobernu ez interbentzionista (liberala) izatetik, interbentzionista batera (New Deal) iragan zen. Horrek ia erabat lausotu zuen ohiko gatazka (langileriaren diktaduraren ideia alboratu zen, Eurokomunismoa, boterera iristeko parlamentu-bidea...). Marxek ederki asko ikusi zuen gizarte-mailen arteko gatazka dikotomizazio bat zela, izan litezkeen gizarte-gatazken kondentsazioa, finean. Bestelako aipamena egin behar da mendebaldeko Estatuetak nazionalismo periferikoei ugariei buruz. Oro har, gizarte-klaseko gatazkak eta horren konponbideak egituratzen zituzten mendebaldeko gizarteak, nahiz eta batean edo bestean gatazka nazionalista ere ageri zen zeharka. Hogeigarren mendetik aurrera, ekoizpenaren garapenarekin eta masa-konsumoarekin batera, ekoizlea kontsumitzaile bihurtuz joan zen; eta Estatuaren eraldaketa handiak, hots, arlo publikoaren garapena, ekonomia-politika (aldagai ekonomikoen kontrola), eta, oso garrantzitsua, gizarte-politika. Bestalde, Estatuak bideratu zuen enpresaburuen eta sindikatuen arteko negoziazioak zabaltzea. Horiek guztiek ekarri dute ohiko industria-gatazka itzaliz joatea.

Hogeigarren mendearen bigarren erdialdean, klase-gatazka itzaliz zihoan neurrian, beste hainbat gatazka eta mugimendu sortu ziren mendebaldeko gizarteetan. Baina ohikoak ez ziren desagertu. Mugimendu berriak eta zaharrak elkarrekin bizi dira: ezkerren ekonomia- eta politika-borroka eta nazionalismo periferikoak bizikide bihurtu ziren.

Beste alde batetik, gure gizarteak demokratizatzeko prozesuak ekarri du mugimenduak –bai ekonomia-politika gatazkakoak eta bai nazionalismoak– parlamentuko alderdi bilakatzea. Hala ere, badira indar handiko mugimendu marjinalak oraindik ere. Izan da logika hori aplikatu nahi izan duenik gizarte-mugimendu berriek zein bideri ekin behar dioten jakiteko (Pizzorno, 1994). Zenbait kasutan aplikatu daitezke, adibidez *Alemaniko berdeen* mugimenduan, baina ez du zertan horrela izan. Oro har, esan liteke mugimendu edo elkarte bat alderdi edo presio-talde bilakatzen dela mugimendu horrek duen arrazionaltasun instrumentalaren arabera. Mugimenduaren helburuak neurgarriak badira eta arrakasta kontrolatu badaitezke, mugimendua aipatutako bidetik doa. Baina mugimenduaren helburua baldin bada dagoeneko orainaldian bizitzea modu berezi batez eta gizartearen eragitea, orduan ez da aipatutako logikarena arabera jokatzeko ari, ez behintzat erabat.

Alderantzizko prozesuak ere gerta litezke. Gure herrialdeetan langabezia-tasa altuak dira, teknologiaren aurrerapenen erruz, bai eta lanari eta lanbideari buruzko kontzeptu zaharkitu samarrak daudelako. Eta horrekin batera, Estatuak, beren zer-arazoak arintzearen, babes-sistematan erreformak egin nahi dituzte. Horrek guztiak alderantzizko logikara eraman gaitzake – zergatik ez, bada? –, hau da, gizarte mugimendu batera, desegituraketara eraman gaitzake. Gogora dezagun, esaterako, joan den mendeko 70 hamarkadan Europan izan ziren greba basatiak.

Gure gizarteetan – nahiz eta guk 25 urteko eskarmentua baino ez dugun – estimu handikoa da herritarren eskubide indibiduala; gizarte horien kulturaren ardatzetako bat da. Baina, aldi berean, politika sinesgarritasuna galtzen ari da, gero eta gehiago, eta ez da ikusten herritarren arazoak konpontzeko bide gisa. Demokrazian erkidegoa da boterearen iturburu; alderdi politikoek herritarren arazoak eta nahiak erakundeetara bideratzen dituzte, azken horiek konpon dituzten.

15. taula. Euskadiko gazteen interesa politikarekiko (1996-2003)

| | 1996 | 1997 | 1998-99 | 1999-00 | 2001 | 2002 | 2003 | |
|------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|
| | 15-29 urte | 15-29 urte | 15-29 urte | 15-29 urte | 15-29 urte | 15-29 urte | 15-29 urte | 30 edo + |
| Handia | 8 | 9 | 9 | 9 | 9 | 8 | 9 | 9 |
| Zerbait | 29 | 23 | 29 | 24 | 26 | 25 | 27 | 26 |
| Askorik ez | 24 | 21 | 24 | 22 | 24 | 23 | 20 | 19 |
| Batere ez | 39 | 47 | 38 | 44 | 40 | 43 | 44 | 45 |
| ED-EE | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Ehuneko bertikalak | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| Politikarekiko interes-maila | 37 | 32 | 38 | 35 | 35 | 33 | 36 | 35 |

Iturria: Eusko Jaurlaritza 2004: 56

Aurrez aurre jo dute, batetik, boterearen oinarri sinbolikoak, eta, bestetik, eguneroko errealtateak, non herritarrek antzematen baitu alderdiek goitik behera jokatzeko dutela, herritarren jarrerak egokitzeko. Eta talka horrek bi ondorio nabarmen izan ditu. Lehenengo eta behin, lider populistak ateratzea errazagoa da; harro daude ideologiarik ez dutelako, ezta herritarra agintariarengana hurbiltzeko kezkarik ere. Lider horiek guztiek –Ross Perot, Fujimori (1990ean irabazi zuenean), Berlusconi, Haider, Le Pen– komunikatzeko ustez ohi-koak ez diren formak iragartzen dituzte. Baina, bigarrenik, agintarien eta herritarren arteko komunikazio eza, bai eta alderdiek goitik behera funtzionatzen dutelako sentimendua ere, lur onduta dira nolabait egituratutako elkarteak sor daitezela (Pérez-Agote, 2001).

Gizarte mugimenduei buruz aritzen garenean, oro har bi paradigma jarri ohi dira aurrez aurre mugimendu horiek aztertzeko. Alde batetik, estrategiaren edo jokabide instrumentalaren edo baliabideen mobilizazioaren paradigma, eta bestetik, identitatearen paradigma. Bi ohar egin nahi ditugu hori dela-eta.

Lehenik, arretaz aztertzen badugu auzia, ikusiko dugu bi paradigma horiek bete-betean dagozkiela gizarte-ekintzaren tipologiaren barruan Weberrek sailkatu zituen gizarte-jokabideko bi klase handiei. Alde batetik, aurreko zerbaiten emaitza dira jokabideak (tradiczioa, balioa eta afektua jokabidearen aurrekoak dira); eta, beste alde batetik, hausnarketan oinarritutako da eta helburu du etorkizunean emaitza lortzea jokabide arrazional instrumentalak. Tipologia horrek badu arazo bat, ordea, baztertzailea delako. Grafikoki adieraztearen, jokabide arrazional instrumentalak nahitaez behar du aurrez zenbait baldintza logiko gertatzea. Eta baldintza horiek nahitaez daude baldintzatuta erabat ez bada ere. Kulturak, tradizioak, balioek eta afektuek baldintzatzen dituzte baldintzak; elkarreraginean, aurreko baldintza horiek dagozkie subjektuari –identitatea-, helburuak zehazteko moduari, eta lortzeko behar diren baliabideei (kultura). Askotan jotzen da irrazionalizatzen gizarte jokabidea ez delako egokitzen esplizitatu gabe dauden helburuak lortzera, baina baliteke aurrearrazionala izatea, eta alde aurreko baldintza logikoak ezartzen saiatzea, besterik gabe. Elkarreraginean edo taldeen arteko harremanetan, besteek edo *outgroup*-ak norberaren identitatea onartzea izan liteke alde aurreko baldintza bat. Gizarte-mugimendu bat aztertzen dugunean, ikusten dugu batzuetan jokabide adierazkorragoa duela (emaitza da, berez), edo hausnarketarako joera duela (emaitza etorkizunean lortzeko), eta hori guztia bi mailatan: mugimenduaren beraren maila edo mugimenduak gizarteko prozesu orokorrean betetzen dituen funtzioen maila.

0.2.3.1. *Gizarte-mugimendu berriak: politikaren gizarte-produkzioa*

Bigarren oharraren bitartez zerbait atzerago joan nahiko genuke. Aukeratu egin behar dugu bi paradigmaren artean edo bi osagaiekin *cocktail* metodologiko ona egitearen artean. Nolabait, onartzen ari gara gure gizarteetan gizarte-mugimendu berriek badutela batasun edo homogeneizazio maila jakin bat. Horregatik, gizarte-mugimendu berrien teoria-kontzeptualizazioa egin behar dugu, eta beraz, egin ahal dugu. Gure ustez, ustezko homogeneotasun hori ez dago horren argi, eta ideia hori bilduko lukeen teoria-kontzeptua ez da, oraingoz, bideragarria. Gusfieldek dio ez dela erabilgarria ikerketa enpirikorako, halako fenomeno ugari eta desberdinen aurrean, ikuspegi abstraktuegia eta, beraz, hartzailea, ezartzea, eta gu bat gatoz ideia horrekin. Gusfielden ustez, ez dago teorika bakarria egoera guztietarako balio duena (1994: 93).

Aurrera jarraitu aurretik, azpimarratu nahiko genuke honako ideia hau: gure garaiko ezaugarri bat da gatazkaren deskondentsazioa, tentsio eta gatazka anitz baitaude. Ez da ordezkapen bat, amalgama baizik. Zaharra eta berria elkarrekin bizi dira, eta horregatik da zaila teoria berri bat, alegia, kontzeptualizazio zurrun bat, onartzea.

Hala ere ez dugu gizarte-mugimendu berriak kontzeptua alboratu behar. Emaitza interesgarriak ematen ari den eremu bat izendatzeko modu bat besterik ez da. Eta talde-jokabidearen logikan ez ezik gizarte garaikidearen konplexutasuna ezagutzeko ere ari da ematen emaitza interesgarriak. Gizarte garaikidearen konplexutasuna aipatu dugu, eta bereziki arlo publikoaren, pribatuaren eta politikoaren arteko harremanen beste ikuspegi bati gagozkio; gizarte egituren (politika, ekonomia, kultura) arteko harremanei gagozkio; eta eremu horrek bereziki laguntzen du jakiten nola gertatzen diren kultura-aldaketak, inola ere ezin direnak ulertu ez bada kontuan hartzen mugimendu horiek gizartearen kulturaren duten eragin zuzena masa-hedabideen bidez. Ikusiko dugunez, eragiteko gaitasuna dute –neurri batean, ez osorik– mugimendu horietako asko elementuen esanahi sakonek (sexua, adina), norbanakoei identitate pertsonala eta soziala ematen dietenak, aldatzen saiatzen direlako. Eta gizartearen kultura-eragina edukitzeko gaitasun horregatik da garrantzitsua gizarte-mugimenduen azterketaren barruan, dimentsio kognitiboa.

Gizarte-mugimenduak ez dira homogeneoak, eta, hala ere, hausnartzeko gaitzat hartzen ditugu, talde-ekintzaren modu historiko espezifikoak balira bezala. Hori hala gertatzen da gizarte-mugimenduei buruzko planteamendu landuenetan plano bikoitza dagoelako, izan ere mugimenduaren barne dimentsioa bilatzen dugu eta mugimendua gizartearekin nola dagoen egituratuta ere bai. Tourainek (1978) une bikoitz analitikoak bereizten du: batetik, gizartearen egiturazko une generiko bat, eta bestetik, gizarteak mugimenduan parte hartze analitikoak duen unea. Meluccik ere plano bikoitza aipatzen du, gaintitu egin nahi baititu plano politikoan ikusten diren ezaugarri neurgarrien ikuspegi miopeak: mugimenduetan murgildutako sareetan sortzen diren kultura-kodeek ahalbidetzen dute, bigarren maila, ekintza ikusgarria gizarte-eta politika-sisteman (1994:125). Komeni da gizarte-mugimenduek kanpoan dituzten ondorioak aztertzea, ziurrenik hirugarren une analitikoak dena, edo azterketaren kanpo-mailaren ezaugarri garrantzitsu bat, azpimarratzeko.

Nonbait, gizarte-mugimendu berrien ondorio politikoak errazena dira neurtzen. Zailagoa da jakitea eta neurtzea herritarrengan dituzten kultura-ondorio generikoak. Argi dago mugimendu horiek ez dutela jokatzeko bertako kideentzat soilik, eta nahiz eta ez da-

kigun nola neurtu, argi dago ondorio zuzen baino ondorio generiko gehiago eragiten dutela. Hori dela-eta, eragina neurtzerakoan, motz geratzen dira «afiliazioa» edo «parte hartzea» bezalako adierazleak. Gusfieldek, ondorio horiek aztertzeke eta neurtzeke, dramaturgiara –D.Snowtik (1979) hartuta– eta masa-gizartearen teoriara jotzen du (1994: 109 eta hurrengoak).

Baina Meluccik aipatzen duen murgildutako mailak baditu politikoak eta generiko kulturalak ez diren eraginak: sare horiek osatzen dituzten norbanakoengan gertatzen diren eraginak. Aktibismoak, hau da, norbanako horien parte hartzeak gizarte-mugimenduetan, erakusten du, parte hartzaile horien bizimoduagatik, horietariko bakoitzean sortzen dela funtzio bat, bizitzari zentzua ematerarekin zerikusia duena. Horra hor paradoxa: gizarte-mugimendua eratzen da eduki espezifikoko bat, zehatza, partziala, totalizatzailea ez dena, oinarri hartuta; baina Estatuan eta Merkatuan oinarritutako sistema osoa aldatzeko duten ikuspegitik, bizitzaren zentzua totalizatzaile bihurtzen da. Hala gertatzen da, behintzat, zenbait militanterengan. Ikuspegi instrumental hutsek ezin dute ondorio horien emaitzarik sortu militanterengan. Hala bada, gizarte-mugimenduak bizitzeko moduak dira, parte hartzaileen eguneroko bizitzan eragina dutenak. Norbaitek esan lezake ondorioek militantei baino ez dietela eragiten, eta herritar guztien artean gutxi direla militanteak. Baina ondorio horiek teoria-erakusleak dira: erakusten dute gure garaian badela, zentzuari dagokionez, defizit kronikoa. Erakusten digute gizarte-mugimendu berriak kulturalki ezarritako guneak direla, eta taldean zentzua ekoizteko gizarte-toki gisa herritarren eskura daudela⁶.

Gure garaiko gizarte-mugimenduen ezaugarri nabarmenetako bat da kultura-mugimenduak direla. Gure ustez, kulturari buruz aritzen garen guztietan bezala, ezaugarri konplexua da, hainbat esanahi eta ezaugarri biltzen baititu. Alde batetik, ez dute helburu Estatuaren eta Merkatuaren egitura totalizatzaileei eraso egitea zuzenean; bizitza komuna osatzen duten elementu garrantzitsuen esanahia aldatzen saiatzen dira. Horrenbestez, gizartearen kultura-edukiekin jokatzeko dute ekonomia- edo politika-edukiekin baino (politikaren ohiko kontzeptuaz ari gara, hau da, Estatuaren erakundearen logika, Estatuaren beraren logika).

Are gehiago, sarritan saiatzen dira gizarte-fenomenoen determinazio ekonomiko eta politiko-estatalak saihesten. Horrek esan nahi du, metaforikoki, kultura hartzen dutela aldagai independente gisa.

Beraz, mugimendu horiek ez dituzte onartu nahi determinazio objektibo izenez eza gutzen ditugunak.

Dena dela, ezin dugu esan mugimendu horien helburuak utopikoak direnik. Eta bada zenbait arrazoi. Lehenik eta behin, kulturalki ezarritako kontzeptuez kontzientziatu nahi dituzte herritarrak, eta ez dira hainbeste saiatzen, ordea, erabaki ekonomiko eta politikokoak aldatzen. Bigarrenik, mugimendu horietako partaideak esanahi kultural berri horiekin bizitzen saiatzen dira. Presentismoaren antzeko zerbait da, kanpotik ilusio gisa eta marjinalizat hartzen dena. Helburuak kulturalak dira batez ere, eta dramaturgia ikuskizun bihur-

⁶ Hala ere, gizarte-mugimenduei buruzko atalean ikusten denez, mugimenduaren ezaugarri hori, bizimodu gisa hartuta, ez da beti indar berdinarekin azaltzen; ziklo biografikoaren, belaunaldi-aldaketaren eta, oro har, denbora historikoaren iraganaren arabera aldatuz doa.

turik, hedabideen bidez saiatzen dira eragiten. Gizarte-kutsaduraren antzeko zerbait nahi dute.

Gizarte-mugimendu batek bizimodu gisa hautatzen badu ezaugarri presentista, horrek ez du esan nahi mugimenduak zabaldu nahi dituen kultura-edukiekin bat etorrira soilik bizi behar dutenik; horrez gain, formari dagokionez demokratikoki bizi izaten saiatzen dira, eta hori da, edukiaren arabera, mugimendu horietan gertatzen den gauzarik komunena. Elementu formal horren osagai funtsezkoak dira komunikazioa eta mugimendu barneko parte hartzea: partaideen arteko komunikazio zuzena eta parte hartze zuzena bizitzan eta ekintzetan.

Gizarte-mugimenduen aniztasuna aipatu dugu, betiere kultura-edukiaren araberrako aniztasuna. Baina aniztasun hori zertan den azaltzeko, behar-beharrezkoa da gizarte-mugimendu berrietako identitatearen auzia planteatzea.

Identitatea modu generikoz erlazionatzen da gizarte-mugimendu horiekin. Mugimenduetako partaideek era lausoago edo garbiagoan, egituratuago edo nahasiago, halako edo bestelako pertenezia-maila daukate komunitate lausoago edo argiago batean. Barne-osaketari dagokionez, konplexu samarrak dira taldeak; eta sentimendua horren arabera aldatu ohi da: zerikusia du taldearekiko hurbilago edo urrutiago egotea eta zein irakinaldi ari den bizitzen une horretan. Elkartasuna nazioz gaindikoa edo nazioartekoa izateraino hel daiteke. Baina identitatearen ezaugarri generiko hori, alegia, arau eta balio komunak araberrako gizarte-lotura sortzen duena, ez da bakarra.

Zenbait gizarte-mugimenduk erlazio espezifikoa dute identitate pertsonalaren eta gizarte-identitatearen arazoarekin. Zergatik? Bada, aldatu nahi dituzten kultura-edukiak gizarte jakin bateko norbanakoen identitate pertsonala eta gizarte-identitateari buruzkoak direlako.

Zoritxarrez, ezin gara lerrootan identitatearen eta bere prestakuntza-prozesuen soziologia-teoria garatzen hasi. Dena dela, komenigarria da aitortzea norbanakoak identitate pertsonala eta gizarte-identitatea eratzeko erabili ohi duen materia guztia dela gizartearen aldetik eraikitako materia; alegia, gizartearen aldetik ekoiztutako esanahiak dira. Badira ezaugarri pertsonalak eta talde-ezaugarriak pertenezia dakartenak. Bereziki adina eta generoa. Zenbait gizarte-mugimendu handi tematuta daude gure identitate pertsonala zehazten duten bi elementu horien esanahia aldatzen. Identitatea berriaz lantzen dute mugimendu horiek.

Identitate pertsonala lantzen duten gizarte-mugimendu horiek pribatuaren eta publikoaren arteko mugak lausotu dituzte, alde batetik, eta, bestetik, identitatearen alde pertsonalaren eta gizarte-aldearen arteko mugak ere nahasiagoak bihurtu dituzte. Prozesu berak eragin ditu bi ondorioak, eta ongi definituta daukate Europako gizarte-psikologoek. Prozesua argitzeko, pentsa dezagun orain zein harreman izan daitekeen gizarte-mugimenduen eta norbanakoaren artean.

Ikuspegi horretatik aztertuta, norbanakoen izaeraren ezaugarrien kultura-esanahiak lantzen dituzten gizarte-mugimenduek pribatuaren eta publikoaren arteko mugak hausten dituzte. Pertsonaren sexu-bulkadak esparru pribatuari zegozkion, baina pribatutasunaren auzia taldekoa bihurtzen da esparru publikoan. Horrexegatik hausten da alde pertsonala-

ren eta gizarte-aldearen arteko muga ere, indibidualdatusunaren pertsona-esanahia talde baten bidez konpontzen baita.

Baina ezin dira gizarte-mugimendu berrien kultura-eduki guztiak mugatu pertsona-identitatearen egiturazko gaietara. Zenbaitetan, esparru publikoko elementuak bihurtzen dira identitate pribatuaren elementu egituratzaile; ekologia, bakezaletasuna, mugimendu anti-nuklearrak... horiek guztiek eduki publikoak landu ohi dituzte. Taldeen osarak pertenezia egituratzen du, identitate intimoaren elementu egituratzaile bihurtzen dena, hain zuzen.

Horrenbestez, kultura-edukiaren gaia hartu dugu berriz ere. Bi prozesu ditugu aurrean, zerbait desberdina eta zerbait komuna duten bi prozesu. Berariaz identitatezkoak diren mugimenduetan pribatutik publikora doan prozesua da; eta gainerakoetan, berriz, publikotik pribatura. Baina prozesu guztiak lehengoratzen dira publikora eta pribatura, norbanakoen identitate pertsonalaren elementuak egituratuz. Beti asetzen da gure gizartearen zentzu defizita.

Gizarte-mugimenduetan bi gauza daude jokoan: batetik, arlo pribatuaren, publikoaren eta politikoaren arteko mugak haustea, eta, bestetik, ea politika ote den gizartearen dinamikiari eta sintesiari eragiten diona (Balandier, 1967:58). Gizarte-mugimendu berriak politikoak dira, baina politikaren esanahi berri bat hartuta: Estatuaren instituzioaz haratago egiten dute politika, gure gizartearen batasuna eta elkartasuna kulturalki lotzen duten esanahiak aldatuz. Marxismoaren egiturei buruzko ideia zaharkituan, oinarritzko ekonomia-egitura kapitalista gordetzea zen egitura juridiko-politikoaren egitekoa; eta politikaren *praxia* zen egiteko hori suntsitzea (Estatua garaitzea desegin ahal izateko); hartara, aldatu ahal izango ziren egiturazko ordena eta bi ekonomia-faktoreen (kapitala eta lana) arteko aurkaritza; eta, oro har, modernitatearen garaian politika izan da Estatuaren politika batez ere, eta ekintzak Estatuaren orden mantentzera edo aldatzera zeuden bideratuta. Estatuaren politika zen, eta, beraz, alderdi politikoen politika. Estatuak bildu, inguratu eta zaintzen zuen gizarte-ordena osoa. Gizarte-gatazka bakarra, edo nagusia, industria-gatazka zen, klaseen arteko gatazka. Et gatazka horrek biltzen zituen bere baitan gainerako gizarte-gatazka eta ezberdintasun guztiak.

Alde berean gertatu dira ohiko industria-gatazka eta beste gizarte gatazka eta ezberdintasun agertzen hastea. Langileen gatazkek biltzeko gaitasuna galdu du. Beste alde batetik, Mendebaldeko Estatuaren krisiak ez du esan nahi estatua desagertuko denik, baina bai gizarte-logika guztiak biltzeko gaitasuna galduko duela. Estatuaren gainetiko eta azpitiko gizarte-logikak ari dira azaltzen, eta ez dira Estatuaren logikaren esanetara jartzen; horren ondorioz, gizarte-bizitzaren gero eta sektore gehiagok egiten diote ihes alderdien eta Estatuaren logika-politika zaharkituari (Pérez-Agote, 1994).

Hala bada, gizarte-ordenari buruzko galdera lekuz aldatu da. Estatu nazionalak gizarte-bizitza biltzen zuenean, errazagoa zen erantzuna, soziologia klasikoaren bidez; are gehiago, galdera positiboa ere egin zitekeen. Horri esker, gizarte-antropologiatik erabat berezita abiatu zen soziologia, izan ere gizarte-antropologia arduratzen zen egitura politiko bereizi batez antolatuta ez zeuden gizarteez. Beraz, gizarte-antropologiaren ikuspuntutik, kultura zen gizartea egituratzeko ordena nagusia. Soziologia ekonomiari eta politikari lotzen zitzaien batez ere, eta kultura-arloa eta, hau paradoxa, gizarte-arloa –jakina,

ekonomiaren eta politikaren alderdietatik garrantzizkoa ez den gizarte-arloa-, bigarren mailan geratzen ziren.

Modernitatea salbuespena izan zen, denbora-tarte mugatu, non gizarte-bizitzaren lurralde-kondentsazioa gertatu zen. Estatua bihurtzen denean gizakien bizitza kontrolatzen duten erakundeetako bat, bat baino ez, gizarte-bizitzak bere izaera berreskuratzen du, eta gizarte-harremanak zentzua dute, berez. Modernitatearen etnozentrismoak indarra galtzen du (Albrow, 1996: 9-10).

Gizarte-mugimendu berriez hausnartzen dugunean, soziologoek aktore prototipikotzat ikusten dugu militantea edo ekintzailea, eta uste izan dugu mugimenduan sartzean bizitzeko modu berri bat hartzen duela; militante monolitikotzat hartu dugu, alegia, bere gizarte-identitatea *sinestun* izatean oinarriturik eratu duen aktoretzat hartu dugu. Militantea aktore bat da, eta arrazoi politikoak direla-eta, gizarte-arazoan zergatiari buruzko azterketa egiten du. Gizarte osoa aldatu nahi duenez, proiektu politiko bat lortzen saiatzen da. Militante prototipikoak pentsatzen duenarekin bat etorrira jotzen du, koherentziaz, eta bizitza militantziaren esanetara jartzen du. Militantzia da bere bizitzaren funtsa, zentzua ematen diona.

Lehenago aipatutako ikerlanean⁷ badira zantzuak erakusten dutenak militantearen irudiaren ezaugarriak aldatzen ari direla, eta ez da definitu berri dugun bezalakoa. Alde bate-tik, gizarte-mugimendu berrien oinarri diren elkarteetan profesionalizatzeko joera handia dago. Ezagutza teknikoak behar da (arloan buruzkoa), bai eta legeei buruzko ezagutza ere (borroka gero eta judizialagoa baita). Askotan, parte hartzera bideratuta zeuden elkarteetan gertatzen zen bezala, hautazko kidetasunak izan ohi dira zenbait ezagutzaren artean, eta, beraz, ikerketa eta gizarte-mugimenduren artean. Profesionalizatzeko joera horrek tentsioa eragiten du diseinatutako militante ereduak dagozkion politika-militantziarekin eta buru-belarri aritzearekin. Eta, beste alde batetik, ekologisten esparruan batez ere, bateratu egiten dira militantzia eta gaur egun militantziaz bereizita azaltzen diren beste esparru batzuk ere. Horrenbestez, ekintzaile izateko zenbait modu daude, eta zenbait ekintzaileengan aurkitzen dugu bete egiten dutela militantziak eta eguneroko jarduerak (lanekoak edo aisiari dagozkionak), gizarte-bizitzari dagozkionak. Hala bada, *sekularizatu egin da, irudizko adieran betiere*, politika-jarduera. Eta, era berean, sekularizazio horrek dakar politika-jarduera desdramatizatzea eta Francoren garaiko ekintzaileen jarduerak izan zuen esanahi profetikoa galtzea. Sekularizazio eta desdramatizazio horren sorburua da, gaur egun, *bizitza-zikloaren efektua*, militante haien bizitza-zikloa aldatu egin baita. Baina belaunaldi berrietako militanteengan ere –ez zuten bizi Francoren diktadura– ikusten dugu sekularizazioa eta desdramatizazioa. Halakoek *belaunaldi efektua edo denbora historikoaren efektua* jasan dute. Diktadura batetik demokrazia batera pasatzeak desdramatizazioa dakar, zalantzarik gabe, gizarte- eta politika-arloetara. Demokraziarako bidea hartzean eta mundu osora, Europara bereziki, zabaltzean, gure gizarteak bide eman die mendebaldeko gizarteek bizi dituzten prozesuei.

Oro har, soziologoek pentsatu izan dugu gizarteak monolitikoak direla, erdigune baten inguruan antolatutako gizarteak direla (Shils, 1978), eta sinbolo-koherentzia monolitikoak –erlijio edo politika jatorrizko *erresel sakratua* (Berger, 1966)– duten aktoreez osatuak direla. Sinbolo-koherentzia horrek antolatu eta hierarkizatzen zituen aktorearen

⁷ Ikus 4. oharra

esparruak. Gizarte zentratuak ziren, eta bertako aktoreek batasuna eta koherentzia zuten, sinbolismoari zegokionez. Horixe izan da konplexutasuna murrizteko soziologiaren formula (Gehlen, 1993). Formula horren korrelatu enpirikoa mendebaldeko Estatu nazionala zen.

Baina Weberrek iragarri zigun balioen politeismoa etorriko zitzaigula. Ideia hori sakon garatu du gure gizarteetako funtzio-bereizketaren teoriak. Gizarte-bizitza gero eta bereiziago diren esparrutan garatzen da, eta esparru horiek gero eta gehiago zabaltzen dute zeinek bere sinboloak. Galdetu beharko genuke ea beti ote den beharrezkoa integrazio sinbolikoaren esparrua, ea norbanakoak ba ote duen bere koherentziaren ideia eta ea izateko beharrezkoa ote den identitatea oso sustraituta egotea. Aniztasun garaikidearen ideiak gizarteari eta norbanakoari ere eragiten die; gizarteak izateko gero eta forma gehiago biltzen ditu bere baitan, eta norbanakoak gero eta sinbolo-sistema, loturarik gabeko esparru, gehiago dauzka (Pérez-Agote, 1996).

Baina kontuan hartu behar dugu zenbait gizarte-sektoretan berriro ari dela politizazioa gertatzen. Politizazioa zentzurik estuenean, gizarte-dinamika eta sintesiari loturikoa; dimentsio edo eskala berri bati dagozkion dinamika eta sintesia: planetaren dimentsioa edo eskala.

Arazo hori dela-eta, arreta berezia eskaini beharko diegu gizarte-mugimendu berriei, eta bereziki ekologismoari, feminismoari, eta, azken boladan anti-globalizazio izenez ezagutzen ari garen mugimenduari. Alde batetik, esan behar dugu ekologismoari esker jabetu garela baliabideak eta espazioa mugatuak direla. Erlazioen sistema globalak alteritate berri baten aurrean jartzen gaitu, ulertzen zaila dena, eta horren gainean eratu behar dugu gure identitate globala. Baliteke sistemaren eta zentzuaren arteko erlazioak hautsi izana, baina baliteke planeta-mailako identitate berriak eratzea beste norabide batzuk hartuta⁸. Horri buruz pentsa genezake planeta-mailan feministek planteatu eta eskatzen duten elkartasuna. Bat egiten dute planetako edozein emakumerekin, baina hurbileko harremanetan elikatzen dituzte beren iritzi eta sentimenduak. Soziologiari dagokionez, gizarte-agregazioaren teoria aztertu behar dugu berriz ere; lehenengo eta behin, dinamikoagoa izan dadin, ikusteko eskala handiko elkartasunari eusten diotela eskala txikiko elkartasunek, eta halaber, ikusteko neurri handiko elkartasun horrek emozio- eta adierazpen-maila handia lor dezakeela, nahiz eta soziologook uste genuen maila hori lortzeko aurrez aurre egin behar zela. Eta, bigarrenik, komunikazio-teknologiaren garapenak ahalbidetu dituen erlazio modu berriak kontuan hartzeko. Globalitatea etorri izan balitz modernitatearen bukaera gisa, Estatu bakarraren mendean (nahiz hastapenetan izan) izango ginatke munduan. Eta hori oso urruti dago egungo errealitatetik.

0.3. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Azterlan honen helburua izan da sozialitatearen garrantzi garaikidea badela ziurtatzeaz baino haratago joatea. Sozialitate hori ez dago politikaren mendean, ez eta politi-

⁸ Egin dezagun hausnarketa gobernuz kanpoko erakundeek parte hartzeko duten moduari buruz. Horietako asko elkarte profesionalak dira, planetaren edozein tokitan jarduten dutenak. Adibidez, osasun-erakundeek, kasu «Mugarik gabeko medikuak» edo «*Medicus Mundi*», berea ez den herrialdeetan jarduten dute, edo, are gehiago, arazuko osasun-laguntzarako eskubiderik ez duen atzerriko populazio imigrantea hartzen dute.

karen ekonomia-balioen mendeen ere. Sozialitate horrek berezko esanahia berreskuratu du, ekonomia-erabilgarritasuna edo politika-balioa baino urrutiago. Azterlan honek, ordea, bizitzaren kultura-dimentsioen eta ondorio politiko berrien arteko erlazioak ditu helburu. Ikusi dugunez, gizarte-mugimendu berrien mobilizazioaren –edo mobilizazio politikoaren – jomuga dira gure gizartearen kohesio sinbolikoa egituratzen duten zenbait kultura-gailu. Baina haratago joan nahi dugu, uste dugulako gizarte-kohesioaren tresna nagusiak hausteko borroka ez dela soilik taldean elkartuta egiten, baizik eta norbanako jardueren bitartez ere egiten dela. Jokabide horien instituzionalizazio-maila hutsala da, eta gorabehera handikoa.

Aipatutako gizarte-instituzioen (erlijioa, lana, politika) krisia dela-eta, sexu-harremanak eta birsorketa antolatu izan duten gizarte-erakundeen krisiarekin batera, gaur egungo gizartean ikusten den bezala, honakoa gertatu dela esan genezake:

- ▶ Gizarte-integratzaile tresnak desinstituzionalizatu egin dira, alde batetik, eta bestetik, bizitzari zentzua ematen dioten mekanismoei ere gauza bera gertatu zaie. Hori gertatzen da zenbait instituzio (erlijioa, ezkongai-aldia/ezkontza/familia, lana/lanbidea, ohiko politika) ez direlako eraginkorrak beren funtzioa betetzeko. Bizitzari zentzua ematea norbanakoak ekiteko duen arriskuaren eta askatasunaren zoriaren mende geratzen da: instituzioek jokabidea arautzeko ematen dituzten aginduek eraginkortasuna galtzen dute gizartean, eta norbanakoek hipostatizatu gabeko, preskribitu gabeko, alegia, horren ziurrak ez diren formulatar jo behar dute.
- ▶ Gaztarotik helduarorako bideak eragindako desinstituzionalizazioa. Hau da, aurretik ere esan dugunez, aro batetik bestera igarotzea osatzen duten osagaietatik –adin biologikoa, familia-egoera eta lan-egoera–, lehendabizikoa baino ez dago erabat osatuta gaur egun, eta beste biak askoz ere prozesu luzeagoak dira, joan-etorri asko dauzkatenak, harik eta familia- eta lan-egoera nolabait normaldu arte. Horrek guztiak dakar, garai horretan betiere, askatasun handiagoa eta norberarentzako arrisku handiagoak ere bai.
- ▶ Mekanismoen eta aipatutako esparruen nolabaiteko pribatizazioa. Politikari dagokionez, pribatizazio horrek eragiten du ohiko politikarekiko interes eza; hala ere, ikusi dugunez, horrek ez du esan nahi despolitizazioa gertatzen denik. Politika definitzeko modu berrietara garamatza gertaera horrek: taldearekiko, bestearekiko, edo, are gehiago, kulturalki, eta ez Estatu nazionalaren arabera, definitutako gizarte-totalizazioekiko interes handiagoa erakutsi behar da.
- ▶ Gizarte-bizitza zatikatzea. Hainbat egoera eta jokabide daude orain. Metafora eginenez, esan genezake *collage* bat dagoela. Aipatutako esparruak desinstituzionalizatu egin direnez, eta bereziki populazioaren sektorerik gazteenetan, ikusten dugu ugaritu egin direla bilatzeko bideak; are gehiago, ikusiko dugunez, gizartean beste era batera bizitzeko bizitza-esperimentuak ere ugaltzen dira, eta helburu dute gizartea bera aldatzea. Ez, agian, ohiko politikaren bidez, baizik eta aurretik ontzat ematen ziren premisekin hautsiz (*taken for granted*, gizarte-fenomenologiaren hizkeran).

Gazteen zenbait jokabide aztertzea izan da gure helburu nagusia. Gazteena eta helduarorako bidea luzatzen ari diren estadio berri horietakoena ere. Gure mikroskopioarekin ikusi ditugun gazte-mundu horiek guztiak ez dute, berez, multzoa osatzen; mundu multzoa da. Jokabide berri baten sorrera eta dagoeneko badauden jardueri ekiteko modu berrien sorrera aztertu nahi izan ditugu. Eta, deigarriak zirenen artean, sartu ahal izan ga-

ren horietara mugatu gara. Betiere bitartekoak eta denbora muga izan ditugu. Horrela hurbildu gara oso erreallitate zatikatua delako: helduen munduan sartzeko ispilua mila zatitan hautsi da, eta ezinezkoa da guztietara iristea.

Ikerlan honetan aurrera egiten duen irakurlea mundu askotan murgilduko da, elkarren arteko loturarik gabeak gehienak. Hala ere, azterlanaren bukaerara iristen bada, ikusiko du nahiko orokorrak –teorikoki eta enpirikoki– diren ondorioak atera ditugula.

Ez dezala, bestalde, irakurleak uste mundu guztien azalpen xehatua aurkituko duenik. Ezinezkoa da, oso kopuru handia baita. Baina, gure helburua lortu badugu behintzat, gizarte-zientzietan –gure inguruotan– ezagunak ez diren munduetan murgiltzeko aukera izango du, eta gizarte-mundu horien giltzarriak zein diren jakiteko parada ere edukiko du. Zentzuari buruzko lana da, gizarte-bizitzaren zentzuari buruzkoa, hain zuzen; zentzua bi-latzea lehengo erakundeek (lan hori egiten zutenak) lehen bezala lagundu ezin duten garai batean. Bestalde, ikerketa kualitatiboa da, sakondu egiten baitu ezagunak ez diren munduetan eta orokortzeko aukera gutxi duten munduetan. Ez da, beraz, bukatutako lan bat, sortzen ari diren fenomenoak –hitzaren esanahi filosofikoa kontuan hartuta– ezagutzeko aukera ematen duen lana baizik.

Horregatik guztiarengatik, *ad hoc* metodologia erabili dugu, berariazkoa, gure ustez egokituena eta mundu horietan sartzeko aukera gehien ematen ziguna. Hala bada, Wright Mills (1964) soziologoak esandakoa hartu dugu aintzat: azterketari ahalik eta egokituena zitzaion metodologia aukeratu dugu, eta, ondorioz, artisau-lana izan da honakoa.

Ondorengo lerroetan azalduko dugu zein bide erabili dugun mundu horietara hurbiltzeko eta ezagutzeko⁹.

1. Kapitulum

Landa-azterketa egiteko, aztertutako hiru gizarte-mugimenduetako talde nagusiak hartu dira kontuan. Hainbat talde ekologistatako ekintzaileekin taldeko hiru bilera egin dira, bai eta bi elkarrizketa sakon ere: bata mugimendu feminista bateko bi gazteri, eta bestea drogak legezkatzearen aldeko ekintzaile bati.

| | |
|--|--------|
| 8 ekintzaile ekologistaz osatutako taldea, lau emakumezko eta lau gizon, 30 urtetik beherakoak. Bizkaiko hiru taldetakoak dira. | MSEC-1 |
| 6 ekintzaile ekologistaz osatutako taldea, hiru emakumezko eta hiru gizon, 30 urtetik beherakoak. Gipuzkoako bost taldetakoak dira. | MSEC-2 |
| 8 ekintzaile ekologistaz osatutako taldea, lau emakumezko eta lau gizon, bi belaunalditakoak: 25-27 urtekoak eta 40-45 urtekoak. Hainbat taldetan aritu dira, eta guztiak dira ekintzaile gaur egun. | MSEC-3 |
| Elkarrizketa sakona bi emakumeri, 24 eta 25 urtekoak, Gipuzkoako ohiko talde feminista batekoak, eta talde horretako gazteen atala sortu dutenak. | MSF-1 |
| Drogak legezkatzearen aldeko Euskadiko mugimenduei buruzko ekintzaile aditu bati egindako elkarrizketa sakona. | MSLG-1 |

⁹ Bide batez, eskertu nahi diegu Esther Asensio eta Daniel Muriel-i landa lanean eta ikerketa aurreko eztabai-datan eskeini diguten laguntza.

2. Kapitulua

Landa-azterketak elkarrizketa sakona (CU1) eta taldeko bilera (CU2) biltzen ditu. Bileraren aldearen ohiko «lokalean»¹⁰ egin zen. Horrek esan nahi du, taldeko eztabaidaren edukiaz gain, landa-azterketak etnografia-dimentsioa ere izan zuela, izan ere azken azterketan erabili ditugu han jasotako argazkiak, gure lanaren analisi-bektoreetariko baten ikuspuntutik (espazioaren antolaketa edo kudeaketa) garrantzitsua iritzi diogulako.

| | |
|--|-----|
| Elkarrizketa sakona gazte bati, artista eta kultura-dinamizatzailea, bere herriko gizarte bizitzaren berri (batez ere gazte-bizitzarena) ondo dakiena. | CU1 |
| Taldeko bilera: hamar gazte, gizonezko, 18 eta 20 urte bitartekoak. | CU2 |

3. Kapitulua

Kultura eta ondarea berreskuratzeari buruzko diskurtsoen analisia aztertzeke, hiru elkarrizketa sakon egin zitzaizen ondarea aktibatzen, babesten eta erakusten lan handia egin duten hiru agenterik. Elkarrizketatuak aukeratzeko, analisi-ardatz bat hartu genuen, zeinaren muturrak honakoak baitziren: alde batetik, kultura eta ondarea berreskuratzea helburu duten taldeetako ekintzailetasuna –politikoa edo kultura-taldeetako–, eta, beste alde batetik, kultura eta ondarea berreskuratzeko lanetan diharduten talde profesionalak. Ardatz horrekin bat etorrira, bi mota diskurtsibo zehaztu ziren, analitikoki aurkakoak zirenak, baina agenteren praktikan elkarren eskutik zihoazenak: *ohikoa* edo *kulturala* eta *emergentea* edo *konstruktibista*.

| | |
|---|------|
| Bilboko auzo bateko ondarearen babeserako diharduen elkarte bateko parte hartzaile aktiboa. Bere ibilbide biografikoari dagokionez, kultura-ondarea hartu du lanbidetzat, izan ere enpresa bat abiarazi du, <i>txosnak</i> edo landa-azoketarako txosnak diseinatu edo instalatzen dituena. | RCP1 |
| Mendizaletasunari eta bide-zidorzaletasunari lotutako elkarrekin Gipuzkoan aspaldi ibilitako parte hartzailea. Bere ibilbide biografikoari dagokionez, kultura-ondarera bideratu du lanbidea, kultura-ondareari buruzko (batez ere bide-zidorrak eta landa-bideak) materialak diseinatu eta sailkatzen baititu. | RCP2 |
| Euskadiko politikan tradizio luzea izan duten hainbat taldeetako ekintzailea. Parte hartze horren ondorioz, ez erabat, baina Bilboko auzo batean landa-azokak sustatzen eta antolatzen jardun zuen, eta horiek izan zuten arrakastaren ondorioz, auzo horretako ondarea babesteko elkarte bat eratu zuen. | RCP3 |

4. Kapitulua

Lan enpirikoa prestatze aldera, pentsatu genuen aztertu behar genuela ea nola zegoen musika elektronikoa Euskadin; aintzat hartu behar da aurreko bi hamarkadetan nabarmen garatu zela beste musika-estetika batzuen produkzioa eta kontsumoa, sarritan politikarekin loturik azaltzen zirenak –*Euskal Rock Radikala*–. Zenbait jaialdi ez ziren erabat berriak, *Elektronikaldiak*, esaterako, bosgarren edizioa antolatu zuten 2003an, eta zenbait Dj, talde eta klub ari dira aspalditxotik; hara ere, ez zitzaigun zilegi iruditzen «*dance eszena*» izena ematea horiei, nahiz eta kazetaritzan hala esaten zaien. Beraz, musika elektronikoaren ekoizleak aukeratu genituen, adituak baitira, eta horrek aukera ematen zigun es-

¹⁰ Hala esaten diote beren espazioari, baina badira beste zenbait aldaera ere: loja, garagea, sotoa.

pertziaren eta esperientziaren arteko harremana aztertzeko teoria-elementuak antzema-tea. Horrez gain, beste zenbait behaketa ere egin genituen: nazioarteko jaialdia – Donostiako *Elektronikaldia*-, *dance* saio bat eta hip-hop kontzertu bat Bilboko klubetan, eta musika elektronikoan espezialdutako disko-dendetara joan ginen.

| | |
|--|-----------------------|
| Musikaria eta Dj. <i>Sound System</i> baten partaide da eta diskoak jartzen ditu Bilbo eta Getxoko zenbait klubetan. | MU1 |
| 3 Dj eta musika sustatzaileen taldea. Bilbokoak dira eta hiri horretako erdialdeko klub bateko dantzaldien arduradunak dira. | MU2 -1 -2 -3 |
| Dj. Getxoko klub bateko 3 Djz osatzen duten talde batekoa. Jaialdian antolatzen dituzte. | MU3 |
| Disko enpresa banatzaile baten sortzaileetarikoa bat. Enpresa horren Bilboko dendaren arduraduna da. Moda denda bat ere badu. | MU4 |
| Disko enpresa banatzaile baten sortzaileetarikoa bat. Enpresa horren Donostiako dendaren arduraduna da. Ohiko Dj Oartzungo klub batean. | MU5 |
| Jaialdiak, Donostiako Elektronikaldia, adibidez, antolatu eta hainbat musikariren <i>managementa</i> (ez bakarrik musika elektronikon dihardutenak) egiten duen enpresa. | MU6 |
| Kontzertuak antolatzen dituen Bilboko enpresa baten sortzaileetarikoa bat. | MU7 |
| Kontzertuak antolatzen dituen enpresa baten sortzaileetarikoa bat, eta enpresa horrek Gasteizen duen dendaren arduraduna. Hip-Hopari buruzko irratsaio baten aurkezlea. | MU8 |

5. Kapitulu

Honakoak izan ziren lan enpirikoaren oinarriak: taldeko eztabaida, mail-ak banatzeko bi zerrendaren jarraipena, behaketa *Hackmeeting Pamplona 2003*an, komunitate birtualek eta Hackerrek sortzen dituzten irakurgaiak, euskarri digitalean, aztertzea.

Hackerrek eta *chat* taldeek gehien erabiltzen duten formatuetariko bat banaketa zerrendak dira; formatu horren bidez mail mezuak lotzen dituzte erabiltzaile zerrendekin, erantzunak laukitxoetan jasotzen dituztenak. Zerrenden goiburuan harpidetza-formatua eta zerrenda-arduradunaren e-maila azaltzen dira. Azpian, mezuak bidaltzeko modua azaltzen dute.

Mail-a eguneko gaien zerrendaren arabera mezuekin batera zabaltzen da, eta bidalitako mezu guztiak berreskuratzen dituzte aurrekoak, interesatzen zaizkienei erantzuna emateko. Praktika horrek sortzen dituzten enuntziario mailak honela irakurri ohi dira:

Eguneko gai-zerrenda

Message 1

Erantzuna edo mezua

> 1 mail *lehenago*

>> 2 mail *lehenago*

>>> 3 mail *lehenago*

Testuaren bukaeran sinadurak, esaldi edo paragrafo batez identifikatzen direnak.

Aipatzekoa da oso desberdinak direla ordenagailu bidez egiten diren komunikazioak eta *offline* (esparru horretatik kanpo) egiten direnak. Horrekin batera, Hackerren ekintzailetasuna berariaz azaltzen da mezuetan, berak makina-hizkuntza izenez aipatzen duenaren bidez: idazmakinen letra-tipoa darabil, eta ez du puntuaziorik erabiltzen. Horrez gain, merkataritza-esparrutik kanpo dauden programen bidez sortzen ditu mezuak.

| | |
|--|-------|
| 5 gaztez osatutako eztabaida-taldea: 3 mutil et 2 neska, 17-25 urte bitartekoak. | CV-GD |
| Mail-ak banatzen dituzten bi zerrenden jarraipena, 2003ko irailaren eta 2004ko urtarrilaren artean: <i>Hacktivistas de Euskadi</i> , bata, eta <i>Hackmeeting Pamplona 2003</i> prestatzeko, bestea. | CV-LD |
| <i>Hackmeeting Pamplona 2003</i> Nazioarteko Bileraren behaketa | CV-HM |

6. Kapitulua

Hainbat fasez eta berariazko teknikaz osatu zen Merkataritza-guneak aztertze metodologia. Honakoak izan ziren:

Lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko gune horietara hurbildu ondoren, aztertu beharreko guneak aukeratu ziren. Bizkaiko bi gunetara, Arabako batera eta Gipuzkoako beste batera joan ginen. Azkenean Bizkaikoak –*Artea* eta *Max Center*– eta Arabakoa –*Boulevard*– aukeratu genituen. Hainbat arrazoiengatik aukeratu genituen gune horiek: jende asko joaten da horietara, sozialki oso toki adierazgarrietan daude, ezaugarri oso desberdinak dituzte... horregatik guztiagatik gune horiei buruzko ikuspegi zabalagoa lortuko genuelakoan geunden.

Merkataritza-gune horiei buruzko informazio teknikoa jaso genuen: zein urtetan ireki ziren, non dauden, zenbat jende bertaratzen den, sartzeko erraztasuna, arkitektura-osarea, planoak, merkataritza-banaketa... Material horiek ematen zuten informazioa handitze-arren, gune horietako barruko eta kanpoko argazkiak egin ziren¹¹.

Ikerketaren zatirik handiena izan ziren merkataritza –guneetan parte hartzailea ez zen behaketa-saioak. Hainbat teknika erabili ziren behaketa horiek egiteko:

1. Behaketa ikuspegi zabala eskaintzen zuten *toki finkoetan*: plazak, topaguneak, begiratokiak, tabernetako terrazak...
2. *Ibilbide aleatorioak* guneetako pasabideetatik: jendetzaren artean, espazioaren araberakoak, gazte-taldeen ibilbideei arreta eginez...

Etnografia-lan horren ondorioz, hainbat landa-koaderno osatu ziren, ondorengo analisiaren oinarri direnak (CCO).

Teknika horien laburpena egiteko, mikro-elkarrizketak egin zitzaizkien zenbait berri email e estrategikori. Estrategikoak merkataritza-guneetan ikuspegi zabala duten tokietan daudelako. Artean, esaterako, informazio-guneko langile bati eta joko-aretoko langile bati egin zitzaien elkarrizketa; Max Centerren, Bolatokiko langile bati eta zerbitzari bati. Bes-

¹¹ Material hau urria da, filmazio egiten ari ginela debekatu egin baitziguten merkataritza-guneen barnealdeko irudiak grabatzea. «Gunearen politika» halakoa zela adierazi ziguten.

talde, behaketa unean (CCE) merkataritza-gunean zeuden gazte batzuei ere egin zitzaien elkarrizketa.

| | |
|--|--------------|
| Artea merkataritza-gunea. 1998an ireki zuten. Leioan dago (Bizkaia), Bilbo metropoliaren eskuintaldean. Berezko estiloa du. | CCO1 CCE1 |
| Max Center merkataritza-gunea. 1994an ireki zuten. Euskadiko zaharrenetariko bat da, eta Bilbo metropoliaren ezker aldean dago, Barakaldon (Bizkaia). Birmoldatua. | CCO2 CCE2 |
| Boulevard merkataritza-gunea. 2003an ireki zuten, eta Euskadiko berriena eta handiena da. Gasteizko kanpoaldean dago (Araba). | CCO3 CCE3 |

1

**Gizarte-mobilizazioa:
kultura politikotik
politikaren kulturara**

Aldaketa sozialaren motiboaren parte bat gizartearen mobilizazioan datza. Eguneroko kontuak tradizioz erabili izan diren formak pixkanaka urrundu ahala jokamolde berriak indarrean jarri ohi dira. Aurreko ataletan, behetik gora datozen jokamolde horien agerpentako batzuk jorratu ditugun bezala, hemen gizartearen mobilizazioaren hiru alorretan hartuko ditugu aztergai: ekologia eta ingurumenaren defentsa, feminismoa eta sexuagatiko diskriminazioaren bazterketa eta, legearen ikuspegitik, ezin komertzializa eta kontsumi daitezkeen drogatzen harturiko substantzien legalizazioa.

Gizarte-mugimendu terminoa aspaldiko partez erabili izan da arau sozialetan edo erakundeetan aldaketak eragiteko edo gizartearen antolamendua goitik behera eraldatzeko ahaleginetan diharduten kolektibo ugariak izendatzeko. Mugimendu horien helburua era askotakoa da: aspektu zehatz baten gaineko legea egin edo aldatzeko eskakizunetik hasita, bestelako gizarte bat erdiesteko proposamen abstraktu eta orokorretaraino.

Haberle-ren arabera (1968), gizarte-mugimendu kontzeptua, erabiltzen hasi zenean, XIX. mendearen hastapenean, adiera mugatu-mugatua zuen: gizarte-mugimendua industriar zebilen langileria berria zen orduan, joera sozialista, komunista eta anarkistakoa.

Gizarte-mugimenduaren definizioak, bera partaide den gizarte edo erakundean aldatzeko eragin edo galarazteko jarraikortasunez diharduen kolektiboa dela dio. Kolektibo den aldetik, nekez zehatz daitezkeen eta aldatu egiten den partaidetza duen taldea da, eta bertako aitzindaritzaren posizioa, agintaritza legitimatzeko prozedura formalek baino gehiago jarraitzaileen erantzun informalak baldintzatzen du. Definizio horren autoreentzat –Turner eta Killian (1957)– gizarte-mugimendua malgua da, bai kideei dagokienez, bai barne-antolamendu aldetik ere. McCarthy eta Zald-en (1977) definizioa generikoagoa da: autore hauenentzat gizarte-mugimendua, egitura sozialaren elementu batzuen aldaketaren edo gizartearen sariak banatzearen aldekatzen ordezkatzen dituzten iritzi eta sinesmen multzo bat da. Tilly-rentzat (1978), ordezkapen formalik ez duten arren, hainbat pertsonaren izenean dihardutela arrakastaz erreklamatzeko duten gizabanakoak eta boterea daukaten gizakien arteko elkarreragin multzo jarraitua da gizarte-mugimendua; elkarreragin horietan zehar, botererik ez daukaten pertsona horiek boterearen aplikazioan edo banaketan aldaketak egitearen aldeko eskari nabariak egiten dituzte eta eskari horien euskarri gisa, jendaurreko sostengu-adierazpenak agertzen dituzte. Mugimendu politikoaren definizio ona omen da hau, agintariekiko botere-liskarrak erdigune gisa planteatzen dituelako.

Arestiko hainbat definizioek ere, nortasun kolektiboa partekatzeke eta integrazio sinboliko hertsia izateko premian enfasia jartzen dute (Touraine, 1978; Melucci, 1989, 1995 eta 1996; Diani, 1992 eta 1998). Ildo beretik, Raschke-k (1985) honela definitu du gizarte-mugimendua: nolabaiteko jarraikortasunez, integrazio sinboliko hertsia eta bere eginkizuna asko ez zehaztea euskarri harturik eta antolamendu- zein egintza-forma aldakorrek baliatuz, funtsezko aldaketa sozialak burutu, eragin edo galaraztea xede hartu duen aktore kolektibo mugimendu-eragilea da.

Askotan uzten dugu baztertua Turner eta Killian-en definizio haren arabera gizarte-mugimendua, gizartean aldaketarik eragin edo galarazteko helburuz, jarraikortasunez diharduen kolektibitatea da. Soziologiako eskuliburu guztiek dioten legez, gizarte-mugimenduek aldaketa sozialak eragiten dituztela aise onartzen dugu, fenomeno horiek benetan nola gertatzen diren eta gizarte-mugimenduen egintzari zenbaterainoko ardurara egotz diezaiekegun ikertzeko lana saihestuta. Beste batzuetan, berriz, gatazka politikoa dagokion, kontrako ikuspegitik begiratu zaio, Tilly-k (1978) dioenez: «Askoz ere hobeki dakigu gizarte aldaketak gatazka nola eragiten duen, gatazkak gizarte aldaketa nola eragiten duen baino. Gatazkaren eragin nabarmenetatik –greba bateko irabazi-galerak, adibidez– zenbat eta urrutirago joan, orduan eta parte hartzaileen baitan gatazkak izan dituen ondorioez, errebindikazio-helburuez, hirugarrengoz eta testuinguru sozialez informazio sistematiko gutxiago izango dugu». Errealitateaz dugun ezagutza zientifikoak ondorio larriak jasatea onartzeko prest ez bagaude, bederen, ezin zaigu ahaztu mugimenduetako aktibistek ezartzen dituzten elkarreraginezko esturkturak direla mobilizazioa eratzten dutenak eta gizarte aldaketaren kategorian sartzen dugun errealitate soziala eraldatzeko prozesuak sorrazten dituztenak.

Gizarte-mugimendua ez da errealitate sozialean, gauza bat bezala, topa dezakegun zerbait eta, gainera, ez du jokatzeko aktore edo subjektu kolektibo batek bezala. Erakunde, elkarte bat edo gizartea bezala, elkarreragin anitzen emaitza da. Gizarte-mugimenduek bereizgarri daukatenak ez du inondik ere subjektu kolektibo baten egintza islatzen. Gizarte-mugimenduaren kontzeptuak errealitate analitiko hutsa du eta, horren bitartez adierazten duguna argi dago: egintza kolektibo (edo erronka kolektibo) baten emaitza da; egintza hori moldatu dute, bai antolaturik dauden eta, gradu batean edo bestean, kidetasun edo nortasun kolektiboko sentimendua partekatzen duten gizabanako, kolektibo eta taldeek eragin dituzten elkarrekintza formal eta informalen multzoak, bai, gizarte-sektore zenbaiten mobilizazioaren bidez erdietsi beharreko helburu sozialak edo aldatu beharreko botere-erlazioengatik, berarekin gatazkan diharduten bestelako eragile sozial edota politikoekin ezarri den elkarreraginezko esturkturak (Tejerina, 2003: 340).

Interesatzen zaizkigun gaiak hauek dira: sozialtasuna, praktika sozialen genesi eta logika den aldetik; gizarte-mugimenduetan esku hartzea erabaki dutenen pragmatismo edo idealismoa; espazioa erabili, antzeztu eta (bir)sortzeko formak; diskurtso eta praktika adituak sorrera; lokala eta globalaren arteko erlazioa (glokaltasuna kontzeptua), gazteei dagokienez, nortasun-senari berariazko arreta zuzenduz; eta eremu publiko eta pribatuaren arteko erlazioak, politikaren zentzu berrien balizko agerpena ere aztergai hartuta. Ondoren aurkeztu ditugun ildoak, aktibistek adierazitako joeren eta aktibista horien beren praktikei aitortzen dieten adieraren arabekoak dira; gure informazio-iturriek aipaturiko aurreko kolektiboek bere-bereak dituzten praktiketatik zertan bereizten dira adierazi baino egin ez dugularik. Horien esanak, nolana ere, ez dira egiaztaturiko errealitateetat hartu behar, koordenada sozial eta generazional bereziek markaturiko unean uneko irakurketa gisa baizik.

1.1. ELKARREKIN EGON, ELKARREKIN MUGITU, ELKARREKIN ERAIKI

Eguneroko bizimoduan gertatzen diren harreman sozialek aurretiaz eragin ez duten jokamolde kolektiborik ez da. Blumer-ek jokamolde hori honela definitzen du: «Area jakin batean finkaturiko erlazio sozialak eraldatzeko ahalegin kolektiboa eta era berean, harreman sozialetan gidarik gabeko aldakuntza handia, era kontzientean bada ere, hamaika partaideren esku hartzea inplikatzeko duena». Blumeren iritziz, kontzienteki zuzendu eta antolaturiko mugimendua ezin esplikatu daiteke pertsonen jarrera psikologiko edo motibazio gisa, edota ideologia baten hedapen gisa, besterik gabe, azalpen horiek elementu garrantzitsu bat bazterrean uzten dutelako: mugimendu bat norbaitek eraikia izan behar du. Ustezko zale edo kide hori martxan jarri, animatu eta zuzendu beharra dago, eta deialdia garatu eta egokitu beharra dago. Hori prozesu baten bidez gertatzen da: bertan, «arreta irabazi, interesak suspertu, irainak ustiatu, ideiak ezarri, zalantzak argitu, sentimenduak eragin, objektu berriak sortu eta ikuspegi berriak garatu egin behar dira [...] pertsonen arteko kontaktuari esker gorpuzten da, elkar eragiten duten gizakiek osaturiko egoera sozial estrukturatu batean» (1957: 148). Blumeren ekarpenak, gure ustez, badu alderdi interesgarri bat: mugimenduko kideen kontrol eta atxikipenari, gogo biziaren garapenari, barne-kohesioari eta norberaren konpromisoari dagokienez, protestaren eraikuntza sozialeko prozesuei arreta handiagoa bideratu izana, alegia (Tejerina, 1998: 116-117). Mobilizazio sozialak eguneroko bizimodua den aurretiazko horretan du euskarria.

Erakunde bateko kideen arteko sozietasuna eta jarduera komunak ohiko kontuak dira. Bere kideekin bilera egin ondoren, azken hamahiru urteotan asteartero afaltzen duen aktibista ekologista honek dioskun legez:

Baita, ene ustez, adina ere. Adina, egia esan, bada zerbait; batzuk lanean gabiltza eta, bestelako ikuspegia baldin baduzu, harremana batzuetan... bestelakoa behar du izan, eta bestelakoa izate hori ere ez dago gaizki. Kontua ez da egun osoan elkarrekin egotea! Kontuan izan gutako batzuek hamahiru urte bete ditugula hemen asteartero-asteartero elkarrekin afaltzen, bilera amaitutakoan. Hasieran talde ekologista martxan jartzeko baliatu genuen afaria baina, gerora, horretan iraun duela. Hamahiru urte, asteartero elkarrekin afaltzen, zera! (MSEC-1)

Ekologismoaren aldeko militantziako faktore nagusiak aipatzean dimentsio ludikoa ere azpimarratu dute elkarrizketatu ditugun aktibista askok ere. Jarduera horiek era guztietakoak dira: mendiko ibilerak, jaietan ateratzen den konpartsa sortu eta moldatzea, eztabaidan aritzeko topaketak, etc. Horrela aitortzen du ekologista batek:

Gero, ordea, egiten ditugun mendiko ibilaldiak, konpartsako kideen afariak, konpartsaren jarduera, topaketak...Horrela, bada, bilatzen duguna jarduera komunetan esku hartzea da, ezta? Eta topaketa horien administrazioari dagozkion jardueretan –horietan, jakina, denok ikusten gara eta– ez ezik, egintza ludikoagoetan ere bai. Bestelakotan, alegia. Manifestazioez bestelako jarduera eta egintzetan, esan nahi dut (MSEC-1)

Euskal Herriko bost gizarte-mugimenduei buruz (ekologista, etnolinguistikoa, feminista, antimilitarista eta bakearen aldekoa) bederatzigarren hamarkadan eginiko ikerketa batean hauxe ondorioztatu genuen: «mugimendu ekologistaren baitako eta beste hainbat mugimendurekiko erakundearen arteko harremanak militantzia anitzaren emaitza dira batez ere, erakunde, talde eta mugimenduen arteko harreman iraunkorrak bigarren mailan agertzen zirelarik. Lokarri pertsonal eta informaletan oinarrituriko harreman horiek taldeen ar-

teko antzekotasun ideologikoen inguruan egituratzen dira»; mugimendu feministari zego-kionez, berriz, «mugimendu feministako erakundeen artean harreman gutxi dago. Erakun-deen arteko komunikazio bideak pertsonalak dira, batik bat» (Tejerina, Fernández eta Aier-di, 1995: 154-155). Talde terrorista eta klandestinoetan egiten den erreklutamendu diferentzialaren eta konpromiso-igoeraren azterketan, Donatella della Porta-k «aktibista batzuek muturreko politikan duten inplikazioaren hainbat estadiotan –klandestinitatean jarduteko erabakia barne– sare pertsonalek duten garrantzia» nabarmentzen du (1998: 236). Adiskidetasuna eta lokarri afektiboek elkartasuna areagotu egiten duten arren, ingu-ruko gorabeheretan oin hartuta ez dute bete-beteko azalpenik agertzen.

Sozialtasunak –edo, Bilboko aktibista ekologista batek dioen bezala, «igurtziak»– la-guntasuna sortu behar du:

Bai, azkenean berdin amaitzen duzu: jende batekin bost urte lanean eman ondoren, atzenean igurtziak adiskidantza dakar (MSEC-1)

Zeinahi gizarte edo talde sozialetan, denboran zehar metaturiko ezagutzazko altxorra belaunaldi berriaren eskuetan utzi behar den hori kinka larrietako bat da, inondik ere; be-launaldien arteko harremanak horregatik dira erreprodukzio sozialeko une behinenetako bat. Erakundeek bi motatako harreman sozialak integratzen dituzte:

- a) belaunaldi desberdinetako pertsonen arteko harremanak. Horietan, berariazko es-karmentuen, jarduteko eta pentsatzeko moldeen transmisioa gertatzen da. Elka-rrizketatu ditugun subjektuen arabera, «eskarmentu luzeagokoak dira» eta «bizka-rrean motxila kargatuagoa daramate» (adinak jakinduria metatu eta ezagutza asko eskuratu izanaren adiera du hemen: horietatik nolabaiteko agintaritzza tradizionala ondorioztatzen da);
- b) belaunaldi berekoen arteko harremanak: honelakotan, adin bereko pertsonen arte kontaktuak errazteko edo galarazteko mekanismo gisakoa da adina: «bata eta bes-tea elkarrengandik bereizi egiten baitira», «jendearekin kontaktuan sartzea ez da ba-tere erraza», «batzuekin errazkiago sartzten zara harremanetan», etc. Belaunaldi be-rriko kideek testigua ez hartzea taldea lagunarte bihurtzeko arrazoia izan daiteke:

Horixe da galdera nagusia eta kolektibo askok jasaten dugun arazo larria, ezta? Ikus-ten dugunez, zerean [erakunde ekologista baten izena] badute jende gaztea baina gero... Gurea nahiko zera da, are larriagoa ere, oso-oso larria, nork txanda harturik ez dugu. Bai, dudarik gabe, azkenean lagunartean zara, lagunartea zara, bilerak egi-ten dituzu... tira. Guk, dena den, beste abiapuntu bat dugu, hau da, ez gara borroka-tzeko eta bestelako jarduera guztietan aritzeko kolektibo hutsa, ezta? Harremanaren osagai humano edo pertsonala ez badago (eta horri sekulako balioa aitortzen diogu), horixe, aldian behin bilerak afari dira eta afariak bilera (MSEC-2)

Oso litekeena da talde jakin bateko kideak adiskidantzazko lokarri hertsiek elkartzen dituztela kanpora zabaltzea. Donostiako ekologisten taldean honela adierazi da hori:

Egiari zor, jendeari ikaragarri kostatzen zaio hemen sartzea; hori bai, hasieran sar-tzen diren guztietan –horixe dugu eta, gainditu beharreko erronka–, jendeak bere di-namikaren arabera diharduenez, kanpotik begiratuta lagun taldea diruri, berez dena baino askoz ere itxiagoa nahiz eta, gero, errealitatean, nahi duen guztiak ateak zaba-lik dituen eta sartzten dena beste kide bat izango den. Baina egia da hori, bai, zenbai-tetan, kanpotik ikusita eta egiten zaizkigun iruzkinen arabera, badirudi denak beti-

daniko lagunak garela, eta pertsona hori, adibidez, orain urtebete ezagutu zenuen bileran horietan bertan (MSEC-2)

Transmisioa une batean sozializazio bihurtzen da eta, horri esker, lanean aritzeko hainbat forma eta ohitura erreproduzitzen dira. Adina, eta adinen arteko aldea, eskarmentu, metaturiko ezagutza, jakinduriatzat tematizatzen da, aktibismoan emaniko urteek etorkizuneko akats eta okerrei saihestu egiteko balio dute. Nolanahi ere, aktibistak taldeetan aritzearen funtsezko arrazoia ez da sozialtasuna:

Ez zara sartzen adiskideen bila... agian norbait sartuko zen lagunak egitera baina, tira, zerbait aldatu edo hobetzeko xedez sartzen zara horrelakoetan, lagunen bila baino areago (MSEC-1)

Gizarte-mugimenduetan sartu eta bertan irauteko funtsezko arrazoia, gauzak aldatzeko asmoa, gogoia, nahia da. Taldeetan iraun eta horietako jardueretan ematen den denbora ahalegin baten ondorio dira, bestelako konpromiso edo zereginei kenduz orekatu beharrekoa. Hemen ere, bizitza pribatua eta bizitza publikoaren arteko haustura-lerroa ikusten da, Habermas-ek (1981) enuntziatutakoaz bestelakoa, aktibistek bizitza publikoa ere bizitza pribatuaren osagai dutelako:

Zure aisia horretara eskaini nahi izatea, horrek izan behar du, bestela... Bestela utzi eta kito. Familia baldin baduzu, edo bikotekidea baduzu, eta gai hori gustukoa ez badu, mokoka ibili ordez, jendeak hau uzten du, azkenean. (MSEC-1)

Publikoaren eta pribatuaren arteko erlazioak gerora ere jorratuko ditugun arren, azpimarra dezagun aktibista gehienek ez dutela adierazten pribatua eta publikoaren arteko bereizketa hori, alde edo moldezko kalkulu zentzuzkoren baten bidez, aktibismoa eta eguneroko lan edo famili alorreko zereginak uztartzea zail eta konplexua dela aitortzen duten arren. Denbora aldakia bi ikuspegitatik hartzen da aintzat:

- a) erabiltzeko moduko denbora mugatua denez, aktibista bakoitzak bere lehentasunen arabera banatzea erabaki behar izaten du, eta
- b) aktibisten bizi-zikloko aldaketek eta denborak aurrera egiteak lehentasun horien hierarkizazioan aldaketak sartzen dituzte, bestelako jardura berriak (amatasun edo aitatasuna, lana edo atsedena, beste hainbat) agertu ahala.

1.2. PARTE HARTU, BIZI IZAN, PROIEKTATU

Gizarte-mugimenduetako erakunde askoren plastizitateak planteatzen duen arazoa ezaguna da, hots, kidetasun-irizpidea finkatzea ez da beti-beti posible izaten eta, horrenbestez, kanpoaldea eta barrualdearen arteko mugak ez dira erraz taxutzeko modukoak. Neidhart eta Rucht-ek (1990) hainbat kategoria bereiztea iradoki dute: aktibisten, esku hartzaileen, zergapekoen eta zaletuen nukleoak, alegia. Hala eta guztiz, politikan parte hartzeko plegu berrietakoren bat, etentsuagoak, esporadikoagoak, sailkapen honetan ez dira erraz eta eroso sartzen baina, dena den, baliotsutzat jo dezakegu, oro har.

Parte hartzean jarraikortasunik ez izatea omen da garai hauetako bereizgarri bat Urruti daude gizakiek kate motz gisa bizi osorako hartzen zituzten konpromiso latz haiek. Aktibisten ikuspegitik, gizarte-mugimenduan egiten duten lanak, esklusibo izateari utzi ez ezik, bes-

telako interesekin uztartzeko moduko bihurtu behar du. Beste aldetik, bizi-zikloan zehar agertzen diren gorabehera pertsonal batzuek arreta zuzenagoa eskatzen dutenez, parte hartzea desagertu edo, gutxienez, graduz apaldu egiten da. Mugimendu eta erakunde moten arabera, batetik besterako aldeak nabarmenak badira ere, aktibismoa luzaro mantentzea akribitate urri edo akribitatearik ezarekin elkargarri gertatzen zaie hainbat militanteri.

Elkarrizketatu ditugun pertsonak emaniko erantzunetatik, gizarte-mugimenduetan izan duten partaidetzaren ezaugarriren bat atera dezakegu. Gogoan izan dezagun, beti ere, aktibista gazteenak aukeratu ditugula eta, horrenbestez, ez daude partaidetza politiko edo sozialean eskarmentu ugaria pilatuak, espero bezala. Nolanahi ere, aktibista askoren iritziz, oraingo hau ez dute bere lehen esku hartzea gizarte-mugimendu batean:

Era guztietako alor askotan parte hartu izan dut nik, baita kontzientzi eragozpen eta intsumisio alderdikoetan ere. Ondoren, gerora, institutuan nenbela eskola-kontseiluan eta bestelako ekimenetan ere parte hartu nuen. Lanean ere, hortxe ibili naiz, lan-alorreko arazoei konponbidea bilatzeko antolatu izan diren batzordeetan, hamaika alorretan, hitz batez (MSEC-2)

Testigantza ugarik adierazi dute hastapen-prozesua trantsiziotzat, gizarte-eraikuntzat: «Harra barruan aditu eta harixe geratu nintzen atxikita». Trantsizio hori, sartzeko unetik edo konektatzeko bidetik at gorpuzten da, gainera. Gizarte-mugimenduetako erakundeetan diharduten aktibista zenbait belaunaldi-une desberdinetakoak dira: erakundeetan aspaldi-aspaldiko une historikoetan sartu ziren militanteak, adibidez, sarbideetan aldeak nabarmentzen dituztenak, hala nola militantzian hasi aurretik konpromiso politikoa agertu dutenak eta horrelakorik ezagutu ez dutenak:

Ene ustez, gure artean dugun alde nagusia, nabarmenena, aspaldi sartu ginenetatik gehientsuenok erakunde politikoetatik etorri izanak izatea da; mugimendu ekologistan jardun eta konpromiso politikoa edukitzea ere uztartzen dute askok eta hori da, batez ere, gehien markatu gaituena (MSEC-1)

Gizarte-mugimenduan sartu aurretik erakunde politikoren batean eskarmentua izan duten aktibisten ezaugarrietako bat beraien sozializazioa da: izan ere, sozializazio hori ez datza ikasitako gauza edo ezagutzen altxorak ez ezik, horrelako bizipenak ezagutu dituztenek gauzak bestela egiteko estiloa dute nabarmen. Batez ere, frankismo osteko etapen mobilizazio handiko une (testigantza batzuek mito bihurtu ere nahi izan dutena, hain zuzen) historikoaren garrantzia nabarmentzen lagundu du, geroagoko unean aldean. Mobilizazio estilo hori, zenbaitetan, balizko belaunaldi-alorreko osagai batekin identifikatzen da: aurreko belaunaldia militantzia politiko sendo batetik mobilizatzen zelarik, oraingo aktibista berriek «despolitizatuago» dirudite. Horrek, egun euskal gazteek bestelako partaidetza praktikatzan duten eta partaidetza hori desberdina zertan den, zertan bereizten den, galdetzeraz garmatza.

Partaidetza-plegu batzuen artean mugak ezartzea benetan problematikoa gertatzen bada ere, elkarrizketatu batzuen ustez badira aldeak boluntario-jardueretan esku hartzen dutenak eta gizarte-mugimenduetan dihardutenen artean, bai erdietsi beharreko helburuei dagokionez, baita profesionalizatze-graduan ere. Horrelaxe ikusten du aktibista ekologista honek:

Jende horrek badauka kontzientzia sozialik eta, gainera, salaketa sozialean diharduen mugimendua osatu du, nolabait esateko. Hori, nire inguruko mundua, gobernuz kan-

poko erakundeena batez ere, nik ondo ezagutzen dudana... oso litekeena da bestelako munduak ere izatea hor zehar, ezta? Baina nik ezagutzen dudana hori, garapenerako elkarlan munduaz ari naiz, hori batik bat langileriak eta liberatuek, profesionalak, osatua dago; horietako batzuek berebiziko garrantzia aitortzen diote boluntario lanari baina, oraindik behintzat, oso erlatiboa da, **gorputz teknikoa** pisurik hartzen ari da pixkanaka, baina... (MSEC-1)

Honakoa bestelako partaidetzetatik bereizten duen funtsezko elementuetako bat talde ekologista edota feministen izaerarekin eta nortasunezko ezaugarriei dagokiena da (gizartea kontzientziatu eta gauzak aldatzea, alegia):

Gu, geure taldean, taldekoak eta barruan dabiltzan beste batzuk sentsibilizatzen saiatzen gara, eta kanpoko jendearekin ahaleginak egin behar ditugu (MSEC-1)

Udalak martxoaren zortzarako milioi bateko aurrekontua du izendatua, emakumeok behin ere ikusi ez badugu ere, ezta inondik ere, ezta? Kontua da aurren zerari [antzerki konpainia profesional baten izena] ordaindu diote. Bai, deitu egin diote eta horiek kale-antzezpen bat egin dute, ederki egin ere. Kontua da ideologi edukiaz ahaztu egin direla neurri handi batean, adibidez. Orduan emakumeok, kalean, egintza zuzenean gehiago jarduniko talde gisa, alderdi hori sakonago landu nahi izan dugu; orain, berriz, egoera laborala eta lana eskas balioetsi dela ikusten ari gara, ezta? Hori, azkenean, interesatzen denean ordeztu egin eta kito. Aurtengo martxoaren zortzian, esate baterako, beste hainbat alorretatik gehiago jardun gara (MSF-1)

Kaleko egintzak agerrarazten duen presentzia da taldeak azaleratzearen osagaietako bat; beste erakunde feminista batzuek, adibidez, tradizio luzeagokoak badira ere, mobilizazioa gutxiago lantzen dutenez, militante horien iritziz feminismoa ez da kalean behar bezain ikusgarria gertatzen, kontzientzia feminista hedatzeko eta feminismoaren salakuntza izaera ezagutarazteko gaitasun urria du horregatik eta, aldi berean, egintza feminista ulertu eta praktikan jartzeko beste hainbat formatatik bereizten duen aldea nabarmentzen da:

Egoera hori, gainera, kolektibo zabal batek bizi du, emakume gazteek osaturiko kolektiboa, eta gure egoera honetan, lanik gabe, hostiaren pareko prekarietatean bizi gara, gutako batzuk lesbianak gara eta panorama kaskar-kaskarra dugu aurrean, ezta? Azkenean, noski, ene ustez, emakume asko identifikatu izan da guk eginiko horrekin edo, agian, feminismoaren eremuan berez eta erraz sartuko ez lirakekeen neskek, jende osoari zuzentzen dizkiozun hitzaldien bitartez, akaso bai, ezta?, zeu zauden tokiraino, hitzaldia entzutera eta zeu ikustera etorri beharko dute bere kabuz, boluntario eta aktiboki. Orduan hartu genuen erabakia: espazio horretatik irten eta jendea den lokaletara joan beharko genuen, jendea gureganaino etortzera behartu ordez, geu joatea harengana eta hortxe, beraz, munduan diren bestelako emakumeak kaptatzea: agian berez gure erakundera aise etorriko ez lirakekeen neska eta emakume gazteak, agian kontzientzia erabat garatu gabea daukatelako. Esan beharra dago nik zerean [erakunde feministaren izena] militantziaz jardun nahi dudala, Donostian dagoen bakarria horixe delako. Bestela iristeko manera da hori, ezta? (MSF-1)

Alderdi bati dagokionez elkarrizketatu gehienak bat omen datoz, ordea: partaidetza biltzen eta baldintzatzen duen testuinguru sozialean gertatu diren aldaketaz, alegia. Errepara diezaigun une batez horiei. Gazteenen parte hartzean behatu den lehendabiziko aldaketa, horien indibidualismo, egoismo, bestelako interes eta kezkei dagokiena da. Ezaguri horiek partaidetza inoizkakoagoa ondorioztatuko lukete, taldeko bilera batean esku hartzen zuten euskal aktibista ekologistak adierazi zuten moduan (bilera hartan bi belau-

naldiko jendeak parte hartu zuen: gazteenek zaharrek baino hogei bat urte gutxiago zuten, batez beste):

Oraingo belaunaldikoak, oro har, ez dira mugitzen edo oso zertuta daude, ez dakit... Bai, noski, parte hartzen dute, baina bestela ere parte har liteke, seguru asko. Ez, noski, horiek bere garaian, gure adinekoak zirenean, esku hartzen zuten modu berean. Orain esku hartzen dugu baina, hori da, aldi behin (MSEC-3)

Oraingo mobilizazio gradua eta lehenaldian –iraganaldi berrian, esango genuke guk– izan direnak ez direla berdinak esan izan da. Ohartarazi dugunez, gizarte-mugimenduetako partaidetzak ez du gobernuz kanpoko erakundeen profesionaltasun gradua agertzen eta, gainera, horien agendan, beste hainbat helbururen gainetik, kontzientzia harraraztea eta gizartea aldaraztea agertzen dira, salaketa zehatza eta parodia uztartzen dituzten errebindikaziozko egintzak plazaratuz, egintza plegu dibertigarri, erakargarri eta ludikoak antzetzuz, espazio publikoan agertzea lehenetsita beti ere. Aspektu horietako batzuk beste-lakoak dira nolabait, lehenaldiko mobilizazio plegu tradizionalenen aldean, baina... zein da alderdi benetan berria, ba ote da alderdi berririk?

Lehenaldian izaniko erakundeez ez dizkigute pertzepzio eta balorazio berberak azaldu gure elkarrizketako emakume aktibista feminista gazteek eta ekologistek. Emakume horientzat belaunaldi arteko haustura osagai den bitartean (horien nortasun-ezaugarriak aurreko belaunaldiko ereduarenak ez bezalakoak izatearren bereizten dira), aktibista ekologistek erakunde ekologista ezagun eta handienek emaniko euskarria mobilizazio ekologistaren jarraikortasun terminoetan (are, aurrerantzean ere, jarraitzeko posibilitate gisa) baloratzen dute.

1.3. BERRITU, BERRIRO JABETU, BERRIRO SINBOLIZATU

Aurreko ikerlan batean (Tejerina, 2002) genioenez, mobilizazio sozialak gizartean eragin sakonak izan ditu. Aktibisten baitan eta parte hartzeko moduan gertaturiko aldaketen ondorioz gizarte-mugimenduen barnean jazo diren aldaketa zenbait ere orain arteko ataletan aipatu ditugu. Baina gizarte-mugimenduen egitura, helburuak eta estrategia aldatutakoan ere gertatzen da aldaketarik. Une honetan, ordea, egintza kolektiboaren ondorioz jazotzen diren eta gizarte-mugimenduek diharduten testuinguruan aldaketak eragiten dituzten bestelako aldaketak aztertzea nahiago dugu.

Gizartean jazotzen diren aldaketek gizarte-mugimenduetan aldaketak eragin ditzakete. Egintza kolektiboaren ezaugarriak espazio eta denboraren terminoetan aldatzen dira. XX. mendearen azkeneko hamarkadetan eta XXI.aren hasieran aldaketa horien erritmoa azkartu egin omen da: horrek esan nahi du testuinguru horretan bere jardura garatu nahi duen gizarte-mugimenduak ezin izango duela jardun joan den mendean zehar mobilizazio kolektiboak zerabiltzan parametro berberen arabera.

Mugimenduek ere nozitzen dituzte aldaketa-prozesuak, bai barne-eboluzioen ondorioz, bai gizartean jazotzen diren transformazioen eraginez ere. Aldaketa horiek egundaino ugari-ugariak izan direlarik, denetan nabarmenena, seguruenik, barne-homogenotasunaren galera eta aniztasunaren areagotzearekin zerikusia duen horixe izan daiteke. Mugimendu ekologista eta feministei dagokienez –mugimendu guzti-guztiek ez baitute bide horixe egin– hastapeneko homogeneotasun hura estrategiaren, ideologiaren eta an-

tolamenduaren dibertsifikazio bilakatu da pixkanaka. Esandako mugimendu horiek gaur egun hamaika premia eta interesen panoraman dihardutenez, oinarrizko kontsensuak sortzea eta erakundeen arteko elkarketak eratzea zailago bihurtu da:

Bada hor premien eta interesen aniztasun bat, geroz eta zabalagoa, mugimendu feministaren hastapenak bizi izan zuen garai historiko hartakoaz zeharo bestelakoa: orduan borroka-bloke handitan edota premia handien arabera multzokatzen ziren jarduerak. Artean klaseen, belaunaldien eta gainerakoen arteko batasun hori errazagoa (nolabait esateko) gertatzen zen, ezta? Zerak [aktibista baten izena] zioenez, nortasunen arteko batasuna. Lesbianek abortatzeko eskubidearen aldeko borrokan ziharduten, edo langileren bat kaleratzearen kontrako borrokan piketeak osatuz, edo... Egun, ene ustez, badago hainbat eskubide bermatzen dituzten legeetan (baina, era berean, errealitatean bermaturik ez dauden eskubideetan) kontsensurik. Hor ikusten da problematika gorria, nik uste dut, nolako borroka egin behar diren pentsatzeko eta, elkartzea baino areago, zein diren unean uneko premiak eta norentzat diren premiak zehaztu beharra dago. Hauxe da, nire iritziz, gauzak ostera definitzeko une egokia...(MSF-1)

Eta gauzak ostera definitzeko une hau testigantza ugaritan agertzen da, lehenaldiko mobilizazio forma batzuek beren eginkizunak bete dituzten arren, oraingo zertzeladei nekez egoki dakizkiekeelako. Aspaldi honetan emakume gazte asko sartu dira feminismoan, askotan, talde eta kolektibo berriak sortu dituztelarik baina, aktibista feminista horren aburuz, bestelako adierazpenak azaltzen dituzte, erreferentzia feminista bera partekatzen duten arren, «antolatu gabeko mobilizazio» gisa adierazten baitute. Horrek, aurreko belaunaldiko aktibistek beren feminismoa adierazi duten formarekin eta emakume gazteek beren sentimenduek bestela adieraz ditzaten nahiekin kontrastatzen du. Aurreko belaunaldia erreferentzia ez ezik, eredu osagarria ere bada:

Maila pertsonalean, aldiz, bi aldakiak mesedegarri gertatzen dira... zera esan nahi dut, alde batetik zereko [erakunde feministaren izena] bileretara joaten gara, eskarmentudunak gara, badugu mota jakin bateko formazioa eta, gainera, zerak [erakunde feministaren izena] askotan era antolatuago batean, espontaneoago batean, funtzionatzen du: «antzerki pieza bat egin behar dugu, goazemazue». Bi eskarmentuak dituzu eta biak dira arras onuragarriak. Zerak [aktibista feministaren izena] dioenez, erakundeak [erakunde feministaren izena] belaunaldi-erlojuaren premia du, jende gaztea mugitzea beharra dago, geuk ere geure prozesua bizi dezagun (MSF-1)

Hala eta guztiz, emakume gazte horiek esku hartzen duten mugimendu feministaren antolamendu eredua, klasikoaren alternatibazkotzat jotzen dute, aktibisten errealitateari egokitua dagoela diote:

Ez, edo, agian, bestela. Akaso ez dugu eredu klasikoa hautatuko, hainbat egunetan denok bilerak egin eta bilerak egin jardunez... baina akaso bai martxoaren zortzian, adibidez, hamabost emakume lotuko ditugu martxoaren zortzian zerbait egin dadin. Hori, beraz, funtzionatzeko beste forma bat da, batez ere bizi dugun situazioagatik eta testuinguruagatik, konforme. Bai, noski, halako batean ez dakit nik, astero bilera gehiago egingo ditugu, horretan jarraikortasunik hartzeko...(MSF-1)

«Berrikuntzak» egintzaren adiera ludikoa ere biltzen du, ez dagokio forma hutsari bakarrik:

Jendea ekarri ere egiten duzu, ezta? Ludikoagoa da, jendea begira geratzen zaizu eta, tira, akaso gauza batzuk ez zaizkio gustatuko baina tarte goxoa pasatzen dute ho-

rrela. Emakumeok, manifestazioetan errebindikazio ludikoagoak egitea planteatu izan dugu. Gure ustez militantziak ludikoa izan behar du, atsegina; bistan denez, guk errebindikazioa modu ludikoan egiteak ez dio garrantzirik kentzen eskakizunari. Tratu txarrez ari garela, esate baterako, kontua ez da horrelako trataeraren aurrean errespeturik agertzen ez dugula, zeharo alderantziz baizik: beste pertsona batzuen sentsibilitateekin kontuz ibili beharra dagoela. Baina garrantzi handia du hori hautsi eta ludiko bihurtzeak, horrela jende gehiago ekarriko duzulako, hots, mezua zabalago hedatuko duzu. Emakumeok mezua hedatzea nahi dugu, gazte jendea antzerki saio batera aiseago gerturatuko da, aiseago konturatuko da, ezta? (MSF-1)

Nolakoak dira euskal gazteen mobilizazioak eta parte hartzeko moduak? Zalantzarik gabe, gehientsuenak plegurik tradizionalenen antzekoak diren arren, horiek ere aldatzen ari dira. Taldeak txikiagoak dira, jarduera zehatzagoak eta aktibisten ezaugarri eta eskarmentutik gertuagokoak bilatzen dira (batzuetan, aktibisten baldintza sozialak dira errebindikazio eta salaketaren xede bihurtzen direnak), esku hartzea ez da lehen bezain sistematiko eta ohikoa, malguago da orain, aktibista bakoitzaren gorabehera aldakorrei aiseago egokitzen zaie, antolamendu pleguak demokratizatu egin dira, horizontalago bihurtu dira, eztabaidak ez dira lehen bezain ideologikoak, pragmatikoagoak ohi dira egun, egintzetan errebindikazioa eta alderdi ludikoa uztartzen saiatzen dira, hori bai, desadostasuna sortarazi duten gizartearen alderdiak kontzientziatzeari eta aldatzeari inola ere uko egin gabe.

1.4. GIZARTEA BERRIRO SORTU, ERRESISTENTZIA ETA ESKARMENTUDUN DISKURTSOA

Aktore sozialek munduaz sentitzen dutena ulertzeko baliatzen duten diskurtsoari etnosoziozia deritzogu; diskurtso aditua, berriz, aktore sozialek egiten dutena (eta, batez ere, erreproduzitzen dutena) ulertzeko ahaleginetan zientzialariek baliatzen duten mintzairari (Lamo de Espinosa, 1996: 124).

Ikerlan honen hasieran planteatu dugun gaietako bat, diskurtso zientifikoa eta diskurtso aditua aktoreen eguneroko diskurtsoan sartu ote den kezka izan da, horiek bizi dituzten egokierak geroz eta anitzagoak diren eta ondorioak geroz eta konplexuagoak diren neurrian. Ingurumenarekin, drogen legalizazioarekin edo sexu-arazoekin loturiko zeinahi gai, agerpen eta ondorioen behaketa sistematikoaren eta hausnarketa zientifikoaren emaitza den diskurtso horrek zeharkaturik, josirik, agertzen da. Egin ditugun elkarrizketa eta talde-bileretatik ondorioztatu dugunez, gizarte-mugimenduetatik mundu sozialaren konplexutasuna esperimintatzeko bi eredu desberdin daude.

Horietako lehena, eztabaidetan esku hartzearen aurretiazko urrats gisa, ezagutza teknikoaren metaketari erantzuten dio baina ez du agintzen aktibistak betiko gaietan ostera eta erabat janztea. Lehen-lehenik, talde edo erakunde bateko partaide izateko ezagutza teknikoaren jabe izatea ezinbestekoa ez delako:

Ez, horixe da, erakunde ekologista batean bazkide sartzeko ez duzu zertan jakinduria edo ezagutza jakinik eduki; erakunde honetan bestelako gauzak egiten ere arras baliagarri gerta zaitezke (MSEC-1)

Bigarrenik, taldeetan zereginak banatuak daudelako eta, gainera, eginkizun guztiek ez dute eskatzen maila bereko trebezia teknikoak:

Guk ez dakigu guztiaz, hemen denek ez dakite denaz, horrek hegaztiez zerbait jakingo du, beste horiek energiak eta haiek beste gai batez... orduan, hemendik eta handik hartutako jendez osatzen dira taldeak, eta honetaz eta hartaz dakite horiek, talde konplexuagoa moldatuz, ezta? Taldea bera da haize-emaile antzeko hori eratzten duena, hau da, ez da dena pertsona bakar baten baitan biltzen, ez du zertan pertsona batek edo batzuek dena jakin (MSEC-1)

Hirugarrenik, diskurtso zientifikoa menderatzea ez ezik, garrantzitsuena jendearengaino iristea delako; horretarako, dudarik gabe, aktibistek diskurtso pedagogikoagoa baliatu behar dute, termino tekniko eta zientifikoek bere-berea duten abstrakzioetik urrun:

Beste zerbait komunikatzen saiatzen zara, zaila den arren, zientzia gaiak espezifikoa eta konplexuagoak izaten dira beti, kaleko jendeak eta herritar xumeak ezagutzen ez dituen hitz arraroekin; orduan, nik uste dut, mugimendu ekologista batek dena soilten, dena errazten ahalegin behar du (MSEC-1)

Bigarren eredu, bere burua trebatzeko ahalegin izugarriak egin dituen, prestakuntza bikaina lortu duen eta, defendatzen dituen ideiekin loturik gizartean tekniko edo aditu gisa hainbat eginkizun bete ditzakeen aktibista motari dagokio. Era horretan, beraz, aktibistak profesional bilakatzen dira: nor izango dugu gaituago gainerakoei beren azturak aldatzeko moduak transmititzeko bideetan trebatu dena baino, horrez gainera gizartea mobilizatzen lagundu badu? Era soil batean adieraztearren, mobilizaziora ekarri duten gaien inguruan bizi eta lanean aritzeko nahian bi motako legitimazioak aurkituko ditugu: batetik, ezaguera adituak eskurazten duen legitimazio soziala eta bestetik, errealitate soziala aldatzen lagundu duen aktibistaren legitimazio politikoa:

Masterra ikasi dut nik eta nik neuk, behintzat, ez dakit ene eredu zein ote den baina, gutxien-gutxienez, adiera horretan, berdintasun-eragile lanean aritzea zertan den jakin nahi dut, irrikitan nabil horretan jarduteko. Hasteko, erakundeetatik gertuagoa omen da, ezta? Baina, batez ere, egiten dugun lana balora dakigun nahi dugu. Zerbait egiten duen orori ordaintzeko modua hori bada, emakumeoi ere ordain diezaguten. Izan ere, gure balio soziala hor zehar dabil, ez dakit non... (MSF-1)

Drogak legeztatzearen aldeko mugimenduko aktibista baten testigantza horretan bertan aurkitu dugu drogen gaineko ezagutzaren garrantzia eta, kontsumitzaile huts izatetik, aferari buruzko txosten eta azterketak egiten dituen aditu bihurtu duen gizakiaren dimentsio profesionala:

Idea, beraz, horixe zen, ketaminaz eta antzeko ikerlanak egingo zituen erakundea sortzea. Izan ere, guk egin genuen... tira, niri egokitu zitzaidan liburu bat idaztea (...) Bai, baina, jai-eremuetan, eremu ludikoetan eta horrelakoetan legez kanpoko drogei dagozkien arriskuak murriztea dela eta, premien azterketa diagnostikoa da hori, hau da, azpigituluak horrelatsu dio... Orduan, primeran etorriko zaizue, kontsumo-adierazleei buruzko berrikuspun bibliografikoa delako (MSL-G-1)

Aktibismoa profesionalen eskuetan uzteaz aparte eta bizi-proiektua eta lan-proiektua uztartzeko posibilitateaz aparte, ezagutzak (ezagutza adituak, batez ere), mobilizazioaren eszenatokiaren erdialdea betetzeko joera agertzen du, joera handiagoa, egunetik egunera. Horretarako hainbat faktorek lagundu dute, hala nola proposamen eta arazo sozial batzuen konplexutasun teknikoa, politika edo enpresa munduko erabakiak txosten teknikoen birtatez abalatzeko premia, egungo gizarte aurreratuek kontuak konpontzeko unean errea-

litatearen manipulazio zientifiko-teknikoaz baliatzeko joera (geroz eta indar handiagoz agertzen ari direna), etc..

Etno-ezagutza eta ezagutza adituaren artean egokitzen diren erlazioak azaltzea ez da bat ere erraza. Lehendabizi, manipulazioaren aldrebesagatik. Aktibista ekologista honek adierazi bezala, zeinahi polemikatan argudio eta azterlan zientifikoak agertzen diren arren, zientzialarien eta adituen diskurtsoa soiltzeko joera handia dago:

Honetan diharduten taldeetatik kanpo nabarmentzen da beti gauza berbera errepikatzen ari garela eta, hortaz, besteren arrazoirik ez dugula aditzen. Eman dezagun Espainiako Plan Hidrologiko Nazionala, adibidez: sekulako eztabaida dute Levante aldeko jendeak eta Aragoi aldekoak, ezta? (...) Baina, azken finean, zer ote da eztabaida hori, zer da kontua? Aragoikoek ez digutela urik eman nahi? Ederki, orduan ez bitez gure hondartzetara etorri... Azkenean, eztabaida, ene aburuz, azal-azaleko argudioetara mugatzen denez, «ez da entzuten, ez dira enteratzen ari» esaten dut nik. Badabil hor propaganda antzeko bat, funtsezko kontuak desbideratzeko joera bat, ene ustez. Horregatik ere sartu naiz, azkenean, «zer gertatzen ari ote da hemen?» galdetu behar duzu eta. *Plan Hidrológico Nacional* horretara joan eta, unibertsitate batzuek argi asko daukate beren posizioa, talde batzuek ere argi dute beren iritzi eta posizioa, Plan horri buruzko datuak, gertakariak, etab., bildu dituztelako. Kalean entzuten duzun eztabaida, ordea, bestelakoa da: PP-k egin behar duela, PSOEk galarazi egin behar duela... alderdi politikoen arteko kontua balitz bezala, alegia. Kontua ez zen hori, ura baliatzeko modelo bat dago hor auzian, kontua da ea posible den, ea azpiegitura berriek balioko duten, oraingoek balio ez duten edo egoera txarrean dauden... Hori da kontua. (MSEC-2)

Bigarrenik, paradoxa bada ere, horrelako diskurtsoak zenbaitetan koartada gisa kale-ratzen baitira:

Ene iritiz, Administrazioa baliatzen ari dena da, afera zenbaiten aurrean bere burua mehatxupean sentitzen duenean argi eta garbi erakusten eta erabiltzen duen arma da: Jainkoak berak ulertuko ez lituzkeen hitz tekniko-teknikoen segida botatzen du arrapaladan, baina, gorbata polita daukan pertsonai horrek zertan den esanez bota duenez... (MSEC-2)

Hirugarren, Administrazioak eginiko azterlanen eta teknikarien arteko eztabaidan esku hartu zuenean «sistemaren» diskurtso sozial nagusitu hori hausteko posibilitate gisa, aktibista honek zaborren errausketari dagokionez adierazi duen legez,

Errauskailuaren gaia ikaragarria da: gauza bat da... Edo, tira, zuk esan duzun beste afera horretan, fitxatuak gaudela esan duzu zuk baina kontua da behin ere, hau da, beti-beti argi eta garbi zenekien sistemaren, sistema bakar horren diskurtsoa zein gradutaraino barneratua zuten, ikaragarria da, madarikatua!

Kontua da hori dioena ez dela batzarra... Osakidetzako berrehun sendagilek esan dute, eta langile neuro-onkologikoez, zerbitzu-buruek... berdin dio! Osakidetzako Zuzendariak esaten badu, hostial!, Osakidetzako Zuzendariak esan du, kontuz. Baina gainontzeko horiek zuzeneko eragina nozitzen dute (MSEC-2)

Diskurtso ekologistan errotiko bereizketa aurkitu dugu: batetik, diskurtso soziala (soi-la) eta, bestetik, diskurtso aditua (ulertzen zaila). Mugimenduaren zeregina litzateke bere ideiak herritar guztiengana zabaltzea; hori ez da beti-beti ederki egiten baina, kontuan

izan, eginkizun pedagogiko hori erraztuko luketen baldintzak ere ez ditugu beti-beti gozaten; beste aldetik, «erosotasunaren aldeko joera» nagusitu da, gizarte-mugimenduen mezua populazio osora zabaltzea larriki galarazten duena.

Mugimendu ekologistaren diskurtsoa, beste hainbat gizarte-mugimenduekiko, zeharka egokitzen da eta globalizazioaren aurkako mobilizazioarekin du erlaziorik. Lokala eta globalaren arteko erlazioek mugimendu ekologistan dute elkargunea, gizarte ereduaren inguruan (kontsumo-kapitalismoa); mugimenduak, bere aldetik, eginiko hausnarketari esker, kontsumo-gizarteak sortarazten dituen arazoen gaineko ezagutza erakusten du:

Adiera horretan, behintzat, horrelaxe esaten da, bada teoriarik, mugimendu guztiek agertzen duten elkarrekiko zeharkakotasuna geroz eta nabariagoa da, hau da, zuk bereziki zein jorratuko duzun aukeratu behar duzu, berariaz. Nahi baduzu, honelako garapenaren aurkako edo ingurunearen aldeko borrokan jardungo zara bereziki, edo etxebizitza munduan, laguntza sozialetan, lan-munduan, nahi duzun horretan, hitz batez. Baina azkenean, adiera horretan, zeinahi mugimendu globalagoz elikatzen da borroka eta zeregin bat agertzen denean, eskuarki, beste zenbait kolektibotako jendea azaltzen da horretara. Baina ez diharduzu bereziki, indarrak bilduz, hortxe zaudede, egunero lanean tiriki-tarraka, garen bezala garelako, eta, zenbaitetan, garai batzuetan, hortxe ari zara baina, adiera horretan, zeharkakotasun hori erreala da (MSEC-2)

Globalizazioaren aurkako edo, bestela adierazteko, justizia globalaren aldeko mugimendu izenekoaren protagonismoa mugimendu-egituraz agertu da; bertan, talde guzti-guztiek aktiboki esku har dezakete beren nortasunaren arrastorik galtzeke. Gogoeta egitea eta bizi dugun gizartearen alternatibazko beste eredu bat eraikitzea izan dira, adibidez, mugimendu ekologistaren ezaugarriak. Mugimendu honen kritikak, ingurunean berak sorrarazi dituen ondorio ikaragarrien aurrean itsu segitzen duen kapitalismo desarroilista horren astakeriak izan ditu jomuga, eztabaidaren erdigunean gure bizitzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko estiloak kokatuz. Bai ekologismoak, bai feminismoak, espezie garen aldetik, gure sorreran funtsezkoak izan diren bi bektorerekin dute lotura: naturarekiko harremanak eta pertsonen arteko harreman sozialak. Ez da harritzeko kontua, beraz, mugimendu global berrietan batak zein besteak zeharkakotasun garrantzitsua betetzea.

1.5. MUNDUA IKUSI, AZTERTU ETA MUGITZEA: PRIBATUA, PUBLIKOA ETA GIZARTE-BIRSORKETA

Offe-k zioen gizarte-mugimendu berri izenekoek izaera publikoko baina instituzionalizatu gabeko esfera, pribatu huts eta publikoaren artean zangalatrau zegoena, politizatzeke ahaleginetan zihardutela baina publikoa eta pribatuaren arteko erlazioek konplexuago dirudite.

Errealizazio pertsonalaren, maila pribatuko auto-errealizazioaren bilaketak konpromiso publikora garamatza, gizartearen eraldakuntza kolektiboan beste hondar-ale bat ipini nahian.:

Ene ustez gauzak aldatzen joan behar dira, bestelakotzen, eta gainera... eta gauzak orain baino hobeto egon daitezten lortu behar dugu eta horretarako nik, behintzat, ene hondar-alea jartzen dut, nik dakidan alorretik, hori gutxienez argi asko daukat. Nik egiten dakidana eta egin behar dela uste dudana, espero dudana. Ezer aldatzerik

ez dagoela? Utzi dena bere hartan, zer egingo zaio! Baina gutxienez hori, gure ekarpena egitea (MSEC-2)

Beste hainbat aktibistaren iritiz, hala eta guztiz, bada goitik beherako bereizketa bizitza pribatua eta aktibismoaren artean, bata bestearekin uztartzen zailak diren arren. Aktibista ekologista bat, lehenago gertatzen zenaz beste aldera (mobilizazioak ahalegin eta jarduera guztiak gastatzen zituen garaietan), arestian bizitza pribatua berreskuratu egin duela esan digu:

Noski, orain geure bizimodu pribatua dugu, hori benetan berreskuratu dugu. Hori ene bizitza pertsonalaren parte bat da: zinema gustukoa duzula, irakurtzea atsegin duzula, buelta bat ematea edo zure taldekoak ez diren lagun batzuekin aritzea gusatzen zaizula... Bestela hau hagitz aspergarria izan liteke, ezta? (MSEC-1)

Militantzian sakon-sakon inplikatzekoak gizakiaren bizitza pertsonala erabat eralda lezake, hainbat bizitza-estilo, jokamolde eta abar aldarazita. Esfera publikoan jarduteak esfera pribatuaren eraldakuntza dakar. Badira horren adibide ezagunak, hala nola erlijio-talde itxietan edo erakunde klandestinoetan esku hartzea; badira, beste aldetik ere, hamaikatxo kasu ekologisten artean edota feminismoaren aldeko mobilizazioan, esate baterako. Bi testigantza hauek, gizartean emakumearen situazioa harik eta nekosoago bihurtzen duten, kontzientzia feministaren trebakuntzan eragiten duten baldintza sozialak ederki agertzen dituzte, horrekin batera, militantziaren kostu pertsonalaren berri iradokitzen dutelarik. Talde ekologistaren testigantzan, gertuko erreferente, informazio-emaile eta hartzaile gisa aktibistak bete beharreko eginkizunaz gainera, gertueneko giroan birziklatze praktikak xertatzea zein nekoso den ere aipatzen da:

Birziklatze gai hori dela eta, lagunuen etxera bazoaz: «Baina, baina...nola? Ez al duzue hau edo hori birziklatzen?»

E: Arrapostua ez al da: «Etorri da berriro ekologista zorionekoa?»

Bai, bai

Ene lantokian, horixe gertatzen dela ene lantokian.

Eta zure amarenean: «Hau neska astuna, ala Jainkoa!»

Edo «Begira, ekologista bat hortxe» (MSEC-1)

Publiko/pribatu dikotomiari paralelo beste dikotomia bat doakio: politikoa/pertsonala (ez politikoa) esferen arteko ekibalentzia gisa funtzionatzen duena. Hortaz, publikoa politikoa eta, beraz, ezin pribatizatuzkoa eta ezin inoren jabetzako bihurtuzkoa (arau hau haustea ustelkeria edo bidegabekeriazko jabetzea izango litzateke), pertsonala apolitikoa da, ezin publiko bihurtuzkoa, publikoaren eta politikaren mutur sartzetik babesturiko esfera. Pribatua, miazte edota zenbatze publikoaren eta jendearen begi luzeen helmenetik kanpo dagoena da: «ni»-aren bizitzaren opakotasuna, kanpotik begiratuta. Baina «ni» horrentzat ikusgarria da, zure bizimoduaren formari buruzko kontzientzia-terminoetan, zuk egin ditzakezun gauzen terminoetan (koherentzia pertsonala) eta zure bizitza pertsonaleko eguneroko borrokaren terminoetan ere (eraldakuntza pertsonala).

Emakume feminista gazte honen arabera, bere aktibismoak hainbat prozesu gainditu behar izan zituen: auto-kontzientziazte, beraren jokamoldeen azterketa, berak bizi zituen praktikak ulertzen saiatzeko prozesua, etab. Politika norberaren baitan moldatzen hasten da, norbere burua gertutik ezagutzetik abiatuta:

Nik uste dut hauxe dela, gutxi-asko, antolatzen diren emakumeen kolektiboek bizi ohi duten prozesua, ezta? Hasieran, terapia pittin bat egiten duzu auto-kontzientzia-tze taldeetan –zer gertatzen zaidan, zer sentitzen dudan, zein diren nire bizipenak, etab. – eta, horri esker, hori gizarteratu egiten duzu, hainbat gauza errebindikatuz, salatuz, etab. (MSF-1)

Publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa erabatekorik ez dago: bata eta bestearen arteko erlazioak –era askotakoak– erlazio kontingentea, historikoa dute, hau da, testu-inguruen arabera era bateko edo besteko bizipenak nozi ditzake eta, gainera, bestelako proiektu eta egintzak praktikan jartzeko euskarri gisakoa izan daiteke; horrela gertatu da zenbait talde feministatan, mugimendu autonomoak (okupazio mugimenduak) sortutako Bilgune Sozialetan eta globalizazioaren aurkako mugimendura bildutako beste hainbat erresistentzi plegutan ere. Adierazitako testigantza horietako batzuek kategoria analitiko hauek kasu batetik bestera eroateko modukoak direla eta, gainera, bi eremu horien arteko trantsizio azkar edo nekosoak egiten dutenak aktibistak berak direla aipatu digute. Izan ere, ikusten ari garenez, espazio publikoa pixkanaka-pixkanaka pribatutasunaren alorrean sartzen ari da aktibista askoren eguneroko praktiketan, sartze horrek aurreko belaunaldiko jendeak nagusiki zuen ikuspegi dikotomiko harekin biziki kontrastatzen badu ere.

1.6. MUNDUA IKUSI, AZTERTU ETA MUGITZEA: MOBILIZAZAZIOAREN GIZARTE-ESPARRUA ETA ERAKUNDEEN ESPARRUA

Gizarte-mugimenduak, bestelako erakunde, elkarte, alderdi politiko, presio-talde, etsaigozko leherketen aurkako protesta-forma eta antzekoek ez bezala diharduten agentzetzat hartu ohi ditugu. Egintza kolektibo eta gizarte-mugimenduen inguruko ezaguera-area bat finkatu da, ia lauhun urtean zehar hamaika lan zientifikok eginiko ekarpenaren ondorio bezala (Tilly, 1978). Gizarte-mugimenduen analisiak egun zientzia sozialetan agertzen duen legitimazio geroz eta nabariago horren ondorioetako bat, egunetik egunera aztergaiago bihurtzea izan da. Gauza edo subjektu bihurtze hori, alor instituzionalaren aurka agerturiko egintza kolektiboaren trinkotzeak eragin du. Mugimendua eta erakundearen arteko erabateko bereizketak sorrarazi du berariazko espazio hori (Alberoni, 1984). Dena den, ez gizarte-mugimenduak objektuak dira, ez subjektutzat dihardute, ezta alor instituzionalaren biran garatzen dira, espazio horretan sartzeke.

Ondoko lerroetan, gizarte-mugimenduen espazioa eta eremu instituzionalizatuen arteko erlazio konplexuak aztertuko ditugu.

Aktibista gazteen diskurtsoan, gizarte-mugimenduek berariazko espazioa izango lukete, beste bi espaziok mugatuta, hara:

- a) bere jarduera-eremua espazio instituzionalaren aurrean, aurka, sortzen da eta horren menpekotasun politiko zein ekonomikorik ez izatea lortzea da helburua;
- b) horien egintza gizartearen kontzientziatze prozesura eta beste hainbat eragile sozialen ganean (multinazionalak izan daitezke, adibidez, mugimendu ekologisten kasuan, edo diskriminazio soziala eragiten duten agenteak, berriz, feminismoari dagokionez) presio eragitera zuzentzen da. Ekologistek emaniko testigantza honetan argi asko adierazten da zertan bereizten diren alderdi politikoetatik eta nola diharduten politikan:

Politikariak orain egiten ari direna ez da politika. Egun, ene iritziz, komunikabideetan ez dago politikarik, politikari gutxi dabil hor, niri iruditzen zait gaur egun diskurtso politikorik ez dagoela, hedabideetan ez dela horrelakorik, hori ez da saltzen ari zaiguna baina, tira, hori bestelako kontua da. Ene aburuz, uste dut, mugimendu ekologistarekin politika egiten ari gara. Politika egiten duzu, politikaren baitan sartzen delako hori.

Oposizioa egiten dugu.

E: Hori ere politika egiteko modu bat da, beste modu bat.

Guri, politikan bestelako alternatiba bat agertzea gustatuko litzaiguke, alternatiba ekologistago bat, baina horrelakorik ez dago. Azkenean talde guztiak...

E: Badira hainbat alderdi politiko berde, edo...

Badira, edo. Edo. Tira ...

... Berde den horretara ere apuntatzen direnak, alegia.

Bai, noski, oraingo moda berde izatea omen delako (MSEC-1)

Mugimendu ekologistatik politika egiten bada ere, politika egiteko modu hori alderdi politikoek egiten dutenetik urruti dago; dena den, ez da erabat zehaztu zertan diren eta zein diren batetik besterako aldeak. Mobilizazio sozialak eskakizunak erakunde publikoen aldera zuzentzen ditu, gizartean egokitzen diren interes dibergenteen eta gatazka sozialen erregulatzaile lanetan horiek diharduten aldetik. Erakundeekiko harremana ohikoa da eta, askotan, liskarren iturri.

Emakume aktibista feminista hauen testigantzak kritika egiten dio erakundeen praktikatzen duten politikari, arazoan osoko kontzepzioaren arabekoak ez baitira, espedientea bete baizik ez dutelako egiten:

Udalak martxoan kontratatu gaitu, beraz, Udalean emakume batek horretarako lan bat egin duelako; bestela, ez zaie batere, batere, interesatzen, zerbait egiteko aukera guztiak ukatu egiten dizkigute. Beraz, urte osoan aukera bakarra dugu, martxoaren zortzian, ordubetxoa, horiekin lanean aritzeko. Askoz ere iraunkorragoa behar luke izan, askoz ere landuagoa (MSF-1)

Erakunde publikoekin orokorki kritiko agertzen den diskurtso hori gorabehera, gai eta kanpaina askotan elkarlanean dabilta batzuk eta besteak, udal mailan batez ere, hauxe omen baita gizarte-mugimenduen proposamenetatik gertuenekoa. Gizarte-mugimenduen egintzen beste bektorea gizartea bera da. Arazo jakin batzuen gaineko kontzientzia sortu edo hedatuz, sektore sozial zabalagoak mobiliza daitezten lortu nahi dute gizarte-mugimenduek eta, horretarako, gai batzuei dagozkien arazoez baliatzen dira, gizartean eztabaidak hedarazteko:

Bai, esate baterako, jana dela eta, bat batean agintzen dute janari ekologikoa, makrobiotikoa edo ez dakit nolakoa kontsumitu behar dugula... hori modan dago orain, transgenikoen afera agertzen hasia baita hedabideetan, esate baterako: horrelakorik ezin da jan, horrek halakoaren ehuneko ez dakit zenbatekoa dauka eta, azkenean, horrek izutu egiten gaitu, irensten ari garena jakinik. Azkenean horixe da mundu guztia ukitzen duena, egunero jaten duzu, egunero zoaz dendara, eta han erositakoa jan egin behar duzu, egunero jaten dituzun elikagaien menpeko zara, hitz batean. Horrek, beraz, ukitu egiten zaitu, nik, ergel honek, zer jaten ote dut egunegun?

«Ekologiko» etiketan agertzen duen guztia ere dago modako.

Horrela ez bada ere!

Eta saldu egiten da, horixe saltzen dela; esate baterako Iberdrolak bere energia berdea saltzen du, hori dena gezurra hutsa den arren.

Eta kobratu egiten dizu, etc., etc.

Zergatik ateratzen du Iberdrolak energia berdea? Energia berdea, berdea, ongi ikusia dagoelako orain. Berdetasun hori naturarekin, mugimendu ekologistarekin, bateko eta bestekoarekin lotu izan da betidanik eta, orduan, aurrera, Iberdrola hau eta beste egiten ari da... eta dena gezurra da. Hala eta guztiz, berde hori saltzeko mezu polita da eta gizartera iritsiko da, ekologiarekin, natural omen den guztiarekin (denak elkarren atzean doa, elkarri josirik, berdinagoak dira horrela), afera horiekin, hein batean gutxienez, kontzientziazatuta dagoelako gizartea, ezta? (MSEC-1)

Mobilizazioaren espazio soziala, publiko eta pribatuaren arteko kategorizazio tradizionala hautsi duen eta erakunde publikoen mundutik kanpo baina gertuenekin loturan katu den eskarmentu-eremua da (ez dago berezko hausturarik, egiari zor, batetik bestera dabilzan proiektuak baizik). Politika publikoei, agerturiko konpromisorik ezagatik eta azalkeriagatik kritika bortitza egin zaien arren, gizarte-mugimenduek elkarlanean kritikoki jardutea planteatu dute, adina erakunde horiek ordezkatu gabe. Mobilizazioaren espazio horren beste bi euskailuak gizartearen kontzientziazatzea eta gizarte modelo honetan nagusi diren praktika sozialen aldakuntza dira.

Kontsumoaren, asetzearen eta ongizatearen diskurtsoa modernotasunarekin lotua dago eta gure bizimoduan txertatua. Populazioaren gehiengoak erdietsitako bizi-maila polit horrek eta bere sozializazioak «kontsumo-gizartearen praktiketan» desmobilizatzea garamatzate. Aktibista ekologista batek dioenez, «sistema, egunero hartu behar dudana droga da».

Euskal gazteen artean, mobilizazioaren agerpenak tradizioko eta gaur egungo formen arteko tentsioa dago, erabat desberdinak diren bi logika soziali erantzunik emateke. Jarraikortasunak gorabehera, praktika sozialen genesi eta logika den aldetik, sozialtasunaren adieraren inguruan hainbat haustura-elementu nabarmen dabilta, bizi-proiektuaren eta protestaren sen ludikoa eta aisialdi-uneen arteko lotura handiagoa dagoelarik. Nortasun feminista edo ekologistaren sortze prozesua areago interpretatzen da «gauzak egite», «nortasuna egite» aldetik, «izate» aldetik baino; horrek, azkar-azkar aldatzen ari den ingurune-ari egokitzeko malgutasun handiagoz jantzen ditu edukiak.

Mobilizazio forma tradizionalen konparazioz gaur egungoak sintetizatu beharko bagenitu datu hauxe azpimarrako genduke: orain arteko mobilizazio horiek proiektu politikoa (politika, bizitzaren erdigune bilakaturik) bizi-senaz hornitzea xede zutelarik, oraingoak bizi proiektua adiera politikoz jantzi nahi dute (garrantzitsuena proiektua denez, berari eman behar zaio adiera politikoa). Publikoa eta pribatuaren arteko komunikaziorik ezaren nolabaiteko haustura argi eta garbi agertzen da aktibistak sozializazioaren agente bihurtzean, bizitza pribatua eta aktibismoaren ateko tentsioan, eta aktibismoa lanbide bihurtzeko saiakeretan. Goian adierazi dugun legez, aktibista batzuentzat, mobilizazioan esku hartzen ari ziren bitartean eskuratu edo osatu zuten ezagutza espezializatu bat kontrolatzeak bizi proiektua lanbide alorrera bideratzeko aukerak biderkatzen ditu, nahiz eta profesionalizatze horrek ez duen zertan proiektu pertsonala agortu.

2

**«Kokatutako» koadrila:
identitatea, gaztearen
egitekoa**

2.1. SARRERA

Euskal Herriko aski forma idiosinkrasiko edo prototipikoa den aldetik, lagun-talde edo koadrila izan da gehien aztertu den berdinaren arteko elkarreragin eta sozializazio forma. Koadrilatzat jo izan da, tradizioz, adin, sexu, auzotasun edota eskolaratze berdin edo antzekoak dituzten pertsonen osaturiko taldea. Alor honetan eginiko azterketek (Pérez Agote, 1984; 1987) orokorki berretsi dutenez, koadrilak dimentsio bikoitza du. Alderdi batek, barne-dimentsioa, barrura begira talde-konplizitatea (taldea kohesionatzen duen izpiritua, gradu batean edo bestean) ez ezik, astia erabiltzeko eta bizipen komunak interpretatzeko erreferentziak sortarazten dituen gizataldea delako. Bestetik, koadrilak badu kanpo-dimentsioa, publikoa, aisialdiarekin, astiaren erabilerarekin, festarekin eta aktibismo politikoarekin (bereziki azpimarratzekoa, ikusiko dugun bezala, Euskal Herriari dago-kionean) loturiko jardueretan bizitza sozialean gizakiaren aurkezpena kolektiboki bizitzeko aukera ematen duen erakundea den aldetik (Goffman, 1987). Koadrila, beraz, bizitza sozial edo publikoaren euskailua da, bere dimentsio lokal eta egunerokoa.

Koadrilaren bi dimentsioak horiek izaki, abiatzeko hipotesi gisa diogu horietako bakoitzaren garrantzia aldatu egin dela Euskal Herriaren arestiko historian. Frankismoaren azkeneko urteetan eta trantsizioaren aurrenekoetan (artean politikak agerpen itogarria zuen eguneroko bizimoduan) kanpo-dimentsioa (zentrifugoa) nagusi zelarik, koadrilaren norabide aldaketa bizi dugu orain: barnera begira (zentripetoa) egokitzen ari da, bere baitaratze kolektiboaren antzekoa gorpuztuz. Koadrilaren kanpo-dimentsioa –eta, honen barnean, dimentsio politikoa, sozializazio politikoaren agentziarena– nagusi zuen sozialtasun modelo-aren gainbehera egiaztatzen dugu, beraz. Dena den, erdigune sen-ekoizlearen tokia dagoeneko betetzen ez duen, politika dagoeneko guzti-guztia izan ordez, eztabaidatzeko, kezkatzeko edo ez kezkatzeko gai bihurtu den gizarte honetan zer gertatu da koadrilekin?

2.2. KOADRILA ETA AZALERATZEN ARI DEN SOZIALITATEA

Landa-lana egituratzeko baliatu dugun hipotesiaren abiagunean bi sozialtasun eredu be-reizten dira: bata, dekadentea, zinez atzeraka doan gizarteari legokioke; gizarte horren sozializazioaren –eta, orokorki, bizitza soziala zentzuz betetzearen– faktorea politikaren protagonismoa litzateke. Bestea, emergentea da, politikak bere ordura arteko izaera sakratua galdu du, bai sen-ekoizlearen ikuspegitik, eta aldi berean zentraltasuna, gizartearen antola-

menduaren ikuspuntutik. Politikaren eta bere profil instituzionalenaren gainbehera horren itzalpean –hobe, beherago hautemango dugun bezala, politikaren aldakuntza izendatzearen-ekoizle izango diren gizartearen antolamendu-plegu eta praktika berriak sortuz doaz.

Dena den, landa-lanean hauteman denez, eraldakuntza sozial hori paradoxa batek ukitu dago: bi sozialtasun mota horien profilak ez daude zehazki mugatuak, hasiera batean biek ere diruditena baino konplexuago eta, aldi berean, horien arteko antagonismoa korapilatsuago bihurtzen duen maila analitiko bikoitza erakusten dute. Ondoren, sozialtasun eredu horiek eta biak zeharkatzen dituen paradoxa zehaztuko ditugu: bi motatako sozialtasunen ezaugarri orokorrak honako eskeman laburbildu ditugu

| | ANTOLAMENDUA | |
|----------------------------------|--------------|---------------|
| | SOZIALTASUNA | MATERIALISMOA |
| DEKADENTEA | | |
| IRAGANKORRA «GAUZAK EGITEA» | EZKUTUKOA | AGERIKOA |
| EMERGENTEA | | |
| IRAGANGAITZA «EGONEAN EGOTEA» | AGERIKOA | EZKUTUKOA |

Eredu dekadenteari –politikak erreferentziatzeko erdigunea betetzen duen gizarteari dagokionari alegia– sozialtasun trantsitibo deritzogu: mobilizaziora begirako bitzta sozial hori materialista eta mugiarazte izan nahi duen sozialtasunaz elikatzen da, «gauzak egitea» (CU1) leloan euskailu hartutako sozialtasunaz. Dena den, «egitea» hori paradoxazkoa da, diskurtsoak agindu ahala irekitzen delako (eta denean), beraz, mobilizaziorako (berezko egintzarako) urratsa *sine die* geroraturik gerta daiteke. Milan Kundera-k ironiaz gogorarazten digunez, erregimen komunistaren peko bere sozializazioan behin eta birritan izan zuen honelako bizipen bat izateko testigu eta esku hartzaile: eztabaida politiko bati amaiera emateko, norbaitek sutuki erabakitzen zuen: «Goazemazue egintzara!» eta eztabaidak bere hartan segitzen zuen, oraingoan egintzara ekiteko moduz. «Egitearen» sozialtasun trantsitibo horren ezaugarriak, horrenbestez, ageriko planoan mobilizaziorako deialdia eta ezkutukoan soziabilitatea, intentsitate handiko (edo dramatismoz josiriko) «elkarrekin egotea», hasi beharreko egintzak tematizatzen direnean zabaltzen dena. Sozialtasun trantsitibo «esanez egiten da». Ageriko materialismoa («gauzak egitea») eta ezkutuko soziabilitatea («elkarrekin egotea») dira sozialtasun plegu horren koordinadak.

Eredu emergenteari –politika tradizionalak karga galdua duen gizarteari dagokionari–sozialtasun iragangaitza deritzogu. Sozialtasun mota hau «elkarrekin egotea» (harreman sozial hutsa) leloaren tematizazioan euskailu hartua dago eta horren konplexutasuna «egonean egote» hori posible bilakarazteko «egiten» diren gauzetatik dator. Aurreko ereduan gertatzen zenaz beste aldera, zera esan nahi dugu: ageriko planoan honelako sozialtasuna «egonean egote» edo soziabilitate huts gisa –«egonean egotea»– enuntziatzen bada–(CU1)–, ezkutuko planoan, lokaleko gazte-taldearekin eginiko bileran ikusiko denez, jarduera frenetiko eskatzen du, espazioen kudeaketa, «ingurunearekiko erlazioa» eta nolabaiteko trebezia edo *know-how* teknika eskatzen duen «proiektu»¹² ideia orokorrek

¹² Proiektu ideia hau bera azterketako beste hainbat sekziotan ere agertu izan da. Musika, ondarearen berreskurapen eta hacker aktibismoa jorratzen dituzten sekzioak dira bereziki garrantzitsuak.

hertsiki lotua. Hitz batez: ageriko soziabilitatea («egonean egotea») eta ezkutuko materialismoa («gauzak egitea»), «egiten jakite» batez lagunduak.

2.2.1. Sozialitatearen eredu iragankorra: gauzak egitea

Parte hartze eta mobilizazio¹³ politikoa erabateko aldakuntza erdiesteko praktika «altruistatztat» hartzen ohitua dagoen gizartearen ikuspegitik, motibazio horiei erantzuten ez dieten dinamika sozialak pribatizazioaren eta despolitizazioaren diagnostikoan kokatzen dira (ez horrenbeste mundu politikoa pentsatu eta «egiteko» bestelako bideetarako eta erakundeekin bestela erlazionatzeko joerei dagokien alternatibazko hipotesian, hau da, politikaren kultura aldarazteari dagokion hipotesian). Diagnostikoa, beraz, termino negatiboetan zabaltzen da, pribazioaren –Habermas-ek pribatismo zibilaren sindrome (Habermas, 1981) bataiatu duen horretan, hots, botoa ematetik haraindi, bizitza publiko-politikoari uko egitea– eta desagertzen denaren –despolitizazioa– formatuan.

Areago, diagnostiko hori biziki ontzat hartzeko modukoa izaki, hasiera batean diskurtso espezializatu batek –soziologikoak– atzemaniko sindrome sozial izan zen hura irudikari sozialean sustraitu egin da, ebidentzia sozial¹⁴ bihurturik. Biziki esanguratsua da, adiera horretan, joan den mendeko laurogeigarrenetan gazte «pasotaren» arketipoak bildutako arrakasta, ez-egintza politikoen eta sozialtasun patologikoen amalgama den aldetik. Ondoren, diagnostiko hau osatzen duten bi sindromeak jorratuko ditugu (pribatizazioa eta despolitizazioa), azterturiko diskurtsoetan formulatzen diren modu berean, eta horien birtatez, trantsitibo bataiatu dugun sozialtasun ereduaren logika zein den adierazten saiatuko gara.

Pribatismo zibila

Diskurtso soziologiko eta sozialen artean badago halako adostasun orokor bat, gazteak «pribatizatu» edo «indibidualistatztat» jotzeko unean¹⁵. Hauxe da atzetik aditzen den doina: gizarte modernoak (gazteek batik bat), tradizioz bere antolamendua bermatu duten balioei (altruismoa) eta praktikei (elkarreragina) uko egin die.

Bai, nik hori diot, alde batetik, baina berba egiten dut, gazte mugimendu batek zerbait garrantzizko egin badezake, mugimendu kulturaletik zerbait izatea da, eta elkarreraginean eta altruismoan oinarritzen da, ezta? Baina gizarteak geroz eta egoistago izatera, geure atseginean bakarrik pentsatzera behartzen gaitu... (CU1)

¹³ Mobilizazio kontzeptuan eta horrek berekin dituen erroka berrietan sakontzeko, cf. Sarrera orokorra: 0.2.3 epigrafea. «Politika konbentzionalerik haratago»

¹⁴ Azterketa honen markoan garatzea ezinezkoa izanik ere, adierazi beharrekoa da ezagutza espezializatutik ebidentzia sozialerako pauso horrek argi eta garbi utzi duela irudikari sozialean ezagutza soziologikoak errealtate soziala eraldatzeko (performatzeko) duen geroz eta ahalmen handiagoa.

¹⁵ Horrelaxe da: «indibidualismoa» egoztean transferentzia bitxia gertatzen da. Egozpen-katea, gure landa-lanari dagokionez, hurrengo sekuentziaren arabera da: elkarrizketatuak, lokalean biltzen diren gazteak indibidualistatztat jotzen ditu eta gazteek, bere aldetik, hurrengo belaunaldikoei egotzen diete indibidualismoa. Argi eta garbi erakusten du horrek indibidualismoa gizarte modernoan zein gradutaraino bihurtu den ebidentzia sozial eta topiko:

Ez, baina egungo mutiko-neskatoak etxe zuloan ohi daude egun osoan, play-rekin jolasean. Guk egun osoa kalean ematen genuen, hondartzan futboleak jokatzen, arrautzak zanpatzen... zerbait egiten... (CU2).

Eraldakuntza hori, oro har, eredu kulturalen aldakuntza gisa interpretatzen da, tokian tokiko ereduaren gainetik ildo kultural berriak ezartzeko modu gisa (horren eredu hutsena, gure elkarrizketatuaren kasuan, Japonia da; bertan denboraldi bat eman zuelako ezagutzen du):

jendearekin harremanetan aritzeko garaian, eskarmentuak eta denetik partekatzeke unean gaur egun da... nik pixka bat konparatzen dut, e? Ene ustez, hemengo etorkizuna orain Japoniako jendeak duen funtzionamenduaren antzekoa izango delakoan nago, gure aspaldiko bidetik alde eginik, ezta? Koadrilan atera eta baxoerditan ibiltzeaz, ez dakit nik... (CU1)

Jarraibide sozial eta kulturalen aldaketa horrek funtsezko bi ondorio ditu: batetik, erlazio sozialen tradiziozko formen (funtsez, koadrilaren erakunde soziala) gainbehera aurreikus daiteke oraintxe. Beste aldetik –honakoa berria da, diskurtso dekadentista ohikoan aldean– jendaurrean harreman sozialek hartzen duten intentsitate berria (biszeraltasuna):

Bai, kontua da, lehen, pertsonak beraien arteko harremanak izateko jendea etxetik irten egiten zen, kalera atera; egun, hori ez da beharrezkoa, geroz eta alferrikakoagoa da hori, zer dela eta? Orain, etxetik irten nahi duzunean, sentitzen dituzun premia edo zer horiek askozaz ere biszeralagoak izango direla (CU1)

Dena den, biszeraltasun hori ez da batere ohikoa eta, hortaz, gehiegikeriei mugak jarzeteke gizarteak baliatu dituen tradiziozko mekanismoek ezin aditu edo ezin atzeman dezakete, oro har. Festa eta antzeko erritu tradizionalen bidez ezin asimila daitekeen intentsitatea da, horiek ez baitute zuzenean hautemateko moduko dimentsio sozial edo komunitarioerik edo, bestela, ez dira kodean integratzeko errazak, festan nabarmenki esku hartuz bizitza sozialean agertzeari garrantzia aitortzen dion ikuspegitik aztertzen badugu politika. Alde batetik, festak bere zentzu tradizionalari heltzen dio oraindik eta, iraunarazi ez ezik, areagotu egin du, hainbatetan: festetan eguneroko bizitza soziala era tradizionalan antolatzeke mekanismo edo pentsaera hori bildu, sublimatu egiten da. Berez, gizarte tradizionalaren espazio-denborazko antolamendua (kronotopoa), sublimatuta bada ere, festan bakar-bakarrik iraun du bizirik. Geroz eta gehiago nabarmentzen ari den gizartearen pribatizatze-joera horretan inflexio gunea ezarri du festak, ereduazko espazio publikoan (kalean) presentzia izatearen inguruko gatazka erregularri erritu bihurtzen eta jazozen den bizitza komunitarioan salbuespenezko unea baita hori.

Gure informatzailearen esanetik ondoriozta daitekeenez, gazte-kolektibo jakin batzuk (antolatuenak eta, berezikiago, musika-taldeak) bakar-bakarrik harrapatzen ditu festaren lilurak, festaren idatzi gabeko legeak. Gauzak egiteke unea da festa, gauzak jende aurrean egiteke unea:

Herriko festak, esate baterako, inflexio-une biziki adierazgarria da, herrian indartsua nor den, indarra zeinek daukan, agertzeke. Zergatik? Gazte jendeak txosnak ipintzen ditu. Zeraren aldeko txosna, DYAKO txosna berehala ixten da, saskibaloier elkarteko txosna berehala ixten da, musika-taldean txosna ez da jaietan ixten. Zer gertatzen da? Eguneroko agoazilak hor daukazula, ezta? Egiari zor, horrela gertatzen da, erreferentzia gunea da, herriko musika-talde guztiek egun horietan jotzen dutelako, inongo baimenik eman gabe; beraz, aizu, elektrizitatea behar dugu, beraz, Bentako giltzak baldin badauzkat, hartu itzazue giltzak, ireki, utzi hor, oholtza gainean, entxufatu eta egin ezazu barrabiletan ipintzen zaizuna». Beti da horrela, neurri handi batean: egiten da, egin izan da, graffitiak eta horrelakoak ere egin izan dira egun horietan, badakizu. (CU1)

Sektore horientzat festa da eremu publikoan zabaldu beharreko «sozialtasun trantsitibo» gauzatzeko, «gauzak egiteko» egun aproposak, kanon tradizionalak agindu bezala. Horixe da, gainera, –pribatizatzeko sozialaren prozesuaren ondorioz, urtearen gainerakoa lurperatuago edo ezkutuago jazotzen delako– sublimatua izan den antagonismoaren espazio-denbora. Nabarmentasuna bilatzen da festan. Berez, jendaurreko nabarmentasuna ekoizteko mekanismoa da (Habermas, 1981: *passim*).

Esfera publikoan antagonismo soziala erritu bihurtzea den festaren mekanismo hori irudikari sozialaren eta diskurtso soziologikoen osagai da. Gatazka edo antagonismoa (onerako eta txarrerako) oinarri harturik kohesionatu den gizartearen azken lorratza litzateke festa. Festa, festan esku hartzea da soziologoak aipatzen duen irudikaria gizarteaz eta esku hartze sozialak («gauzak egiteaz») mintzatu behar duenean. Taldearen bileratik ateratako hurrengo laburpenean hautematen dira talde horrek, koadrila den aldetik, festan nola parte hartzen duen galdezka ari den analistaren (E) eta bere burua halakotzat (ezta koadrilaren tankerakoak diren peña edo konpartsatat ere) inondik ere ez duen gazte-taldearen arteko tentsioak; gazte-taldeak, gainera, publiko edo ofizial izateko inolako bokaziorik ere ez duela adierazi du, pasibo agertzen baita, jaietan jarduteko moduz ari direla, soziologoak estimulu gisa «gauzak egitea» planteatu dien horretatik beren burua arras baztertuz:

E: Inoiz egiten duzue zerbait hor kanpoan, ezertan esku hartzen duzue?

Beste lokaletan, edo?

E: Ez, bestela ari naiz: ezer egiteaz ari naiz galdezka, kanpainarik edo antzeko zerbait, edo herriko jaietan, koadrila al zareten itaundu gura dut...

Horretarako erabat pasibo gara, kar, kar, kar...

Hemen, herrion bertan ere bai... Hau da, hemen koadrilak... ez. Zurekin irteten duten lagunak baino ez... Baina ez dakit noren koadrila eta horrela, ez...

Ez dela ofiziala, alegia ... Ez dela peña edo konpartsa edo zer hori. (CU2)

Despolitizazioa

Bizitzaren pribatizatzeko prozesuarekin batera, diagnostiko soziologiko eta sozialak ere bat datoz: despolitizazioa edo politikaren aldeko interes galera orokorra geroz eta larriagoa da, gazte jendearen artean, batez ere. Politika zerbait suntsitzailatzat jotzen da:

Politikak duen arazoa egunero telebistan aurkitzen dugu eta, politikariak hizketan ikustean: eraiki orde, eraitsi egiten dute. Politikari baten egungo helburu bakarra ez da gauzak egitea, eraikitzea, beste politikariak esan edo eginikoa desegitea, suntsitzea baizik, ezta? Etengabeko borroka mediatikoa da, hein batean (CU1)

Alderdien edo erakundeen politikaren adiera, nolabait esatearren, neurri handi batean saturatzera iritsi da. Hein batez, saturatzeko horren ondorioz politika aldatu ezinezko «egindako» moduko batean estrukturatzen da eta, horregatik, haren presentzia, paradoxa bada ere, absentzia gisa artikulatzen da. Garbi asko agertzen ditu hurrengo laburpenak, politika konbentzionalaz mintzatzeko unean, suertatzen diren «ongi ulertuak»: hauexek probokatzeko terminologia politikoa –gauza jakina den aldetik– esplizitu ere ez egitea.

E: Aizu, afiliazio politikoaz berba egin duzuenen... horrek esan gura du denok zaretela zeraren aldekoak, hau da, zeratarrak, ezta?

Bai, zeraren aldeko gara denok (CU2)

Politikaren adieraren saturazioa nabarmena bada ere, onarpen edo onespenaren galararen horren ostean, politikaren adieraren eraldakuntza, politikotasunaren esanahiaren tokialdatzea (alderdi politikoetan eta berauek Estatuaren kontrolatzeko ahaleginetan zentratutako jardueratik, eraldakuntza kulturala –kultura, bere adiera sakonenean ulertuta– edo, akaso, bizitza soziala osagai dituen pentsaera eta balioen aldakuntza jomuga izango duen jarduerara) gertatzen hasiko ez ote den pentsatu beharko da. Gogoeta honek karga berezia du: gazteak geroz eta despolitizatuago daudela dioten ohiko esamolde hori auzitan jartzen baitu; errealitatean, egintza politikoaren oinarriak aldatzen ari direla da kontua, eta hori politikaren oinarri kulturalak aldatze bidean barrena doa, modu konbentzionalaz beste alderako politika egitera: politika egiteko modu berri horrek bere baitan biltzen du, baitetik, eguneroko bizimodutik politikaren bereizte funtzionalaren eta espera publikoa esfera pribatutik bereiztearen nolabaiteko lausotzea eta, bestetik, nortasun pertsonalaren dimentsio sozialean politikaren egiazko inplikazioa.

Diagnostiko bat eta bestearen arteko, despolitizazio prozesua eta politika bestela ulertze (hau da, egunerokotasunetik eta politikaren oinarri kulturalen aldakuntzatik gertuago) horren sorreraren arteko erdibidean koka dezakegu, aspaldi honetako gazteen sozialtasunaren ikuspegitik, nabarmenenetako bat izan den fenomeno: gazte-taldeek alokairuan hartzen dituzten eta «biltoki» gisa ere erabiltzen diren lokalen fenomeno, alegia. Gazteen bizitza sozialaz informazioa eman digun elkarrizketatuak ez du duda izpirik agertu fenomeno horrek aurreko joera guztiak hautsi egin dituela azaltzean:

Herri honetan, behintzat, gazte mugimenduaz iruzkin daitekeen horretaz, ene ustez argiena, ingurune honetan, gutxi edo gehiago ezagutzen dudana eskualde honetan, orain hartu duten joera... lokalak alogeran hartzea, alegia... niri triste samarra iruditzen zait, baina... beste aldetik, geratzen den gauza bakarra da (CU1)

Ikuspegi konbentzionaletik –horretan dauka euskailu sendoa gure informatzaileak–, fenomeno hori juzkatzeko garaian, dudarik gabe esanguratsuenak ziren harreman-plegu tradizional haiekiko, gazteen oraingo praktika berriei nolabaiteko galera egozten zaie. Bertan suertatzen den sozialtasuna erabat erreakziozkotzat jotzen da: «*Sortu baino areago –diate– txahala botatzea, gomitatzea da han egiten dena, ezta? Hau da, inguruan daukaten guztiak ihes egiten ahalegintzen dira*» (CU1). Endogamikoak izatearren, sozialtasun inerte edo antzu gisa ikusten dira kanpotik. Dena den, sozialtasun berri hori gainbeherako do dekadentetzat jotzearen arrazoia zehatza da: «egonean egote» hutsa, harreman sozial iragan-gaitz huts hori «gauzak egiteari» (izaera tradizionalagokoa den sozialtasun eredu trantsitiboari, alegia) nagusitu zaiola hauteman da. Hurrengo laburpenean atzemango dugu gazteen lokalek nolako auzia duten, bi sozialtasun ereduak direla eta:


...Lokala alogeran hartu, bertan ipiniko dute musika ekipoa, telebista, ez dakit zenbat traste, eta egun osoa zulo horretantxe ematen dute (...) Egonean egotea. Beste batzuek gauzak egiten dituzte, beste batzuek argazkigintzan dabilta, eta diapositibak ipintzen dizkiezu... hau da, toki polita da, eta topalekua ere bada, badakizu, telebistari begira edo play horrekin jolasean porroak erre, baina lokal horretan, ezer egiten ez badute ere, elkarrekin daude, berba egin, gauzak egin, ezta? Ene ustez, behintzat, elkar ezagutzen dute (...) (CU1)

Alde batetik, alde batetik oso ondo dago zeren... jendea elkartu egiten baita, gauzak partekatzen dira, baina beste aldetik baliteke horretantxe amaitzea, albino koadrila baten endogamia antzuan, ezta? Eguzkia bera ikusten ez duen jendeak osaturiko koadrila, alegia (CU1)

Benetan geldigarri gertatu den dilema edo baliokidetasun hau (batetik, bertan «gauzak egiten» diren aldetik, produktibotzat hartzen den sozialtasuna eta, bestetik, egungo gizartetan hainbat gazte-sektorek agertzen duten anomia edo alienazioa ikusirik, «gaitz txiki» legetxe hartzen den sozialtasun iragangaitza, «elkarrekin egote» hutsa) gainditzeko beste-lako azterketa-eredu berriak baliatu beharko dira. Dilema gainditu ezean, gazteen sozialtasunez aritzean bidezkoa izango zaigu gabezia edo murrizketa terminoetan bakar-bakarrik mintzatzea (esate baterako, alor sozialeko elementuen «pribatizazio» hutsaz) eta praktika horien sakoneko zurrumurrua ez dugu adituko.

2.2.2. Eredu iragangaitza: elkarrekin egotea

Hondoko zurrumurru hori ezkututik aditzen omen da, «elkarrekin egote» delako sozialtasun hutsaren lehen planotik haratago. Ebidentzia horren atzetik agertzen da praktika horien ezkutuko aurpegia: bere ikaragarritzko materialismoa edo, bestela esateko, bere aktibismoa (nahiz eta aktibismo plegu hori ezin daitekeen terminoaren adiera konbentzional marxistan hartu). Sozialtasun berri horien aktibismoa «ingurunearekiko erlazioetatik», artekaritza teknologikoetatik eta espazioaren kudeaketatik igarotzen da ezinbestez. Guk darabilgun hauxe materialismoaren kontzepzio lau edo hutsalagoa bada ere, esanguratsuagoa da ingurunera egokitze eta «hainbat gauza» manipulatzeko gaitasunaren ikuspegitik. Horretatik ondorioztatzen dena izango litzateke, gehienez ere, aktibismo politiko materialista baino arago, *materialagoa*. Lokalak horrelako aktibismoari –ez, bereziki, militantziazko aktibismoari, brikolatzaile amateurrak praktikatzen duenari baizik– dagozkion kasu paradigmaticoak dira.



Lokaleko pareta honetan automobilen aurrealdekoak ikusten ditugu.

Horrela bada, ageriko planoan, esplizitu bihur litekeen «gauzak egitea» baino areago, «elkarrekin egote» (egonean egote, alegia) erredundante, auto-erreferente eta intrantsitibo bizi dugun bitartean, ezkutukoan berriz, lokal horietan jarduera frenetiko hautematen da, elkarrekin egote hori posible bilakatuko bada; zeregin horretan taldeko lagun guzti-guztiek denak eta bi ematen dituzte, batzuek objektuak manipulatu, beste batzuek harreman intersubjektiboak kudeatuz, haiek jarduerak planifikatuz, etc. Hitz batez, «egonean egon» ahal izateko nahitaezkoa da «gauzak egitea», era ia-ia konpultsiboan: lokala konpondu, zereginak banatu, kirol eta aisialdizko jarduerak antolatu, eta abar.

Lokala alogeran hartzeko premia, inguruneak agertzen duen olgetarako eskaintzaren eskasian datza. Sozializazio primarioko kontrol arketipiko eta ikusgarritasun espazio berezko den (herriko plazako) aulki horren eta bigarren mailako sozializazioaren arketipo den tabernaren aurrean, gazte horiek egonean egon ahal izateko alternatiba bakarra dute lokala.

Egonean egoteko tokirik ez da eta.

Toki batzuetara deitu eta, egonean egoteko dela esaten duzunean, ezezkoa ematen dizute. Bestela, berandu arte taberna batean egon behar duzu baina egun osoa tabernan ematea ere ez zitzaigun gustatzen (...)

E: ... hau da, aulkitik lokalera zuzenean igaro zarete

Ez, tabernan barrena iritsi ginen (CU2)



Lokaleko jolastokia

Dena den, lokala «azken gotorleku» (SCE), babesla bilatzeko toki edo eskarmentuak ezagutzeko lekutzat har daiteke: harreman sozialen laborategi gisakoa edo. Horrelako praktketan pribatizatuz doan ingurune areriotasunaren kontrako erreakzio moduko bat baizik ikusten ez dutenentzat, babeslekuaren defentsa-logikaren araberkoa da lokala:

Lokal gehien-gehienak ezagutzen ditut, ezta? Eta hor espazioa azken gotorleku bihurtzen da eta jendea bertatik irten ere ez da egiten eta, esaten zaionean, «zer parranda pixka bat egingo al dugu?», lokalekoak ihardesten dizu «tira, hozkailua bete birra daukat eta»... (CU1)

Zeharo bestelakoa da lokala eta bertan garatzen diren jarduerak, harreman sozialekin, espazioarekin eta artekaritza teknologikoekin eskarmentuak (horiexek baitira funtsezko hiru dimentsio analitikoak) bizitzeko laborategitzat interpretatzen ondorioztatzen dena; lokalak, bizimodu paraleloa moldatzeko saiakuntzaren agerpenak dira (gizarte primitiboetako adin-herrixka haien modura), erabateko eta aldi berean behin-behinekoak. Lokalak auzitan zerbait ipintzen badu, hori da publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa. Aurreiritzi batzuetatik askaturiko ikuspegi horretatik zerbait aztertu beharra dago: ihes egiten zaion bizimodu geroz eta prekarioago baino areago, lokala edukitzeari esker gauzatu egin daitezkeen jarduerak.


Adiera horretan, aspektu nabarmenetako bat proiektu kolektiboaren ideia dugu. Taldeak bere praktikak eta harreman sozialak gorpuzten dituen azalera edo euskailua da. Horrenbestez, lokala egokitzea talde lanean jarduteko aukera ematea da

Pixkanaka-pixkanaka lokala egokitzen ari gara (...)

Ia denetik egin dugu hemen

Lokal hau hartu genuenean txerriegia zirudien, denok egiten genuen lan hemen eta, igotzeko gai zeudenak, margotzera ... (...)

Denok egiten dugu geure ekarpena, bakoitzak ahal duen neurrian (CU2)



Sukaldea eta «alpiste-tokia»

Jarduera horien ondorioz nolabaiteko talde-nortasuna sortu da, are harrotasun pitin bat ere, ondo eginiko lanean oin hartuta:

Nahi genuen guztia erdietsi dugu guk

Nahi genuena lortu dugu, gutxi gorabehera, badaukagu ping-pong mahaia, badaukagu futbol-mahaia...

Batzuek gelaxka ziztrin bat baino ez daukate, halaz ere, bost axola... guk dotore edukitzea amesten genuen, hortxe agoantatzeko (CU2)

Espazio hori ez da gehiago «azken gotorlekua». Sen berezi bat gorpuztuko den azalera da, eta jaurti egiteko ostertza, eta «egonean egoteko» espazio ireki autonomoa (taldeko kideen komenientzien arabera bestela moldatzeko modukoa) «aulkia» eta «taberna» izeneko espazio heteronomoz oso bestelakoa. Espazioan denetik sartzen da, eman egiten du.

Eman egiten du espazioak; asko, gainera. Nik ezagutzen ditudan morroi batzuek lokalean bi besaulki baizik ez zeuzkaten, akaso goian pisua zuten eta bertan zaintzen zituzten landareak, zera, estupezazientek eta hori...

Nahiz eta lokal txikia, margotu gabe, prestatu gabe... ez dakit, zikin samarra.

Hemen asko dago (CU2)

Bertan era askotako jarduerak garatzen dira. Erabilera anitzeko espazioak dira horiek.

Bai, izaten gara. Atzo lagun mordoska izan ginen... batzuek futbol-mahaian, besteak ping-pongean, beste zenbait pelikula ikusten (CU2)

Espazioa, jarduerak biltzen dituen azalera den aldetik: jarduera horietatik abiatuta egin ahal izango da kartografia bat, diseinu bat...

E: Ni zertxobait zerago izan naiz, abandonatuago, baliabide urriagoak izan ditut.

Honakoa areto modukoagoa da

Egongela eta bolatokia (CU2)

... kronotopo bat, goian aipatu dugun jaiaren apartekotasunaz zeharo bestelako espazio eta denboren antolakuntza, intentsitate apaleko baina frekuentzia garai-garaiko sozialtasuna gauzatzen den espazioa.

2.3. ONDORIOAK

Laburbilduz, esfera publiko eta pribatuaren arteko bereizketa nabarmen tradizionalaz beste aldera, lokal horietan garatzen den dinamika soziala *pribatua vs. publikoa* dikotomia inplosionatu egiten du bere adieraren ikuspegitik eta gazteen sozialtasun berriak aztertzea dela eta, berebiziko garrantzia izango duen ardatz analitikoaren sortzen lagundu du: *espazioa kudeatzeko estrategien* garrantziaz ari gara (espazioen erabilerak, antzezpenak eta birsortzeak, are tradizionalak berak ere, alegia). Elkarte edo *soziedade* (gastronomiko edo olgetako) ezagunen kasuak eta beste belaunaldi bateko kideei zegokien aurrekin honen ironiazko erreproduzio askeak garrantzi berezia du hemen:

Gure aitak dio, adibidez, hau da, soziedade edo txoko bat bezala, txokoan jendea afaltzera edo berriketan aritzera elkartzen baita, hau da, jendea lokal batean egonean egoteko elkartzen da. Jendeak soziedade horiek ikusten ditu, horietan gizasemeak bakarrik sartzen dira. Hemen ez bezala (CU2)

Espazio tradizionalak birsortzea eta txokoetako erabilera eta adiera sozialaren aldakuntza, idazlan honetan joera orokor gisa taxutzen ari den horren beste sintoma bat baizik ez da, praktika eta diskurtso tradizionalak (bestelako) adiera berriez janztea. Lokalak, hein handi batean, soziedade edo txoko tradizionalen imitazio/parodiak dira. Lokalek, areago, soziedadeek erabakitako konponbide logistiko batzuk imitatu egiten dituzte (kontsumitzen dena idatziz jaso, txandak finkatu, mantenu alorreko lanak banatu, etc.) eta, horietan egiten dena parodiatzeko asmoz diharduten arren, horrela, arbasoen praktika eta espazioak adiera berriaz betetzen ari dira. Txokoak eta lokalen arteko funtsezko aldea –sozialtasunen eredu diren aldetik– argi dago: bigarrenak ez dute, ez nabarmentasunik edo proiektio sozialik erdietsi, ezta jarduera publikoetan parte hartzeko bokaziorik ere. Neurri handi batez, kapitulu honetan frogatzen ahalegindu garen bezala, euskal gazterian prestatzen ari den kultura politiko berriaren ondorio da; izan ere, kultura hori, esfera publikoa eta pribatua elkarrengandik zeharo bereizi ordez, bata eta bestea elkartzen dituzten mugertzetan ernatzen ari da.

3

**Ondarearen gaineko lana:
identitatea eraikitzea
eta erakustea**

3.1. ONDAREA ETA IDENTITATE KOLEKTIBOA

Ondarea da, seguruenik, nortasun modernoaren engranajearen pieza sendoenetako bat, bera baita Néstor García Canclini-ren arabera, «elkarrekin mantentzen gaituen simulazio sozialaren oinarririk ezkutukoena» (1989: 150). Ondarearen osagaitzat hartzen diren horien bitartez, bera moldatzen duten lanabesen bidez eta moldatzeko egin behar izan diren eragiketei esker, gizatalde bat ikusgarri bihurtu eta «elkarrekin egote» horren irudia –gainontzekoak horrekin bat datozen, beste kontua da– eraikiko duten edukiak izendatu behar dira. Ondareak, izan ere, subjektu kolektiboaren instituzionalizazioa gorpuzten lagunduko du eta, gainera, nortasun kolektiboen lurraldeak eta historiak imajinatu eta bereizteko modua ikusgarri bihurtu dadin errazten du. Ondarearen ahalmenak argi asko agertzen ditu Francisco Cruces-en aipamen honek: «Ondareek nortasunak perfilatu eta sendotzen dituzte, elkartzasun eta arbuioak sustatzen dituzte, muga sozialak osatzen dituzte –elkarrengandik banandurik zeuden subjektuak taldekatuz eta taldekatuak zeudenak bananduz–, kontsentsua osatzen dute, alde eta gatazkak lausotu edo ezabatu edo agerian ipintzen dituzte, komunitatearen irudiak moldatzen dituzte, kulturak beren lurraldeekin identifikarazten dituzte». (1998: 85).

Ondareaz ari garenean, eskuarki, ez ditugu adierazten nortasun zehatz baten ezaugarriak –berariazkoa daukana, gainerakoetatik bereizten duena, bere berezitasuna objektibatzen duena– definitzen dituzten edukiak bestelakotasun horren eraikuntzan parte harturiko eragiketak edo, bestela esateko, nortasuna objektibitate modura sortarazten dituzten eragiketak.

Ondare-bihurtze hori osatzen duten eragiketak aztertuko ditugu edo, gauza bera bestelako hitzetan, ikusteko eta bizitzeko moduko objektua balitz bezala, bera moldatzeko erabili beharreko lanabesen bitartez nortasuna ikuskizun nola bihurtzen den aztertuko dugu. Eragiketak horien azterketak hainbat ate zabalduko dizkigu, hots (Ariño, 2002: 334-339):

1. Komunitatearen subjektu titularra nor den jakitea; komunitate baten egiazkotasuna zerekin eta norekin identifikatzen den, nortasun baten ondarea osatzen duten ondasunak zerekin eta norekin identifikatzen diren.
2. Denbora historikoko zedarriak nola osatzen diren: nola ekoizten den iragana, nola adierazten den orainaldiaren sorburua, nola kontrolatzen diren etorkizunaren beharrak eta nola exortzizatzen diren ezaguna dena galtzearen arriskuak.

3. Zein agentek eta zer legez esku hartzen duten ondarea osatzean: aktibista edo aditua, «fededuna» edo espezialista, eskarmentuzko jakinduriaren jabea edo baliozta-pen zientifikoan lorturiko tituluak erakusten dituen.
4. Ondasun horiek zein balioen arabera izendatzen diren: berritasuna edo bertakotasuna, benetakotasuna edo jatorrizkotasuna, bakantasuna edo kalitatea...

Ondarea osatzeko eragiketa horien azterketan ondoko testua gelditu egingo da. Horretarako, beren biografian ondarearen sustapen, defentsa, babes edo agerpenarekin loturiko kontuetan –dela aktibismo politikoaren, dela elkarte kulturaletan jardutearen, dela lanbidezko eskarmentuaren bidez– parte hartzeari garrantzia handia aitortzen dioten gazte zenbaitekin eginiko elkarrizketaren emaitzek osaturiko materiala aztertuko da. Aurrera dezagun hemen bertan, esandako elkarrizketa horiek azterturik, bi diskurtso mota atze-man direla: bata tradizionalagoa (kultural bataiatuko dugu) eta bestea, emergenteagoa (gure terminologian, konstruktibista).

Bi mota horietako bakoitza arakatuko dugu hainbat kontu aintzat hartuz: ondarearen interpretazioan nagusi diren irudikariak, diskurtsoek egituratzen dituzten erreferentzia markoak eta balioak eta, amaitzeko, ondareari dagokionez, norberaren bizibideak kontatzeko modua (baita, horren barnean, kontakizun hori indibidual eta kolektiboki egituratzen duten irudiak ere).

3.2. ONDAREAREN GAINKO DISKURTSO MOTAK: «KULTURA-TRADIZIOZKOA» ETA «KONSTRUKTIBISTA-EMERGENTEA»

Lehen diskurtso mota tradizioz kulturaren nozioak adierazi dituen parametroei dago-kie: norberarena eta bakarra dena, egiazkoaren sorburua jakinarazten duena, besterik gabe. Kultura, beraz, bestelakotasunen adierazle eta ondarearen defentsa, ondarean gor-puzten den hori adierazten duen bestelakotasuna babestea den aldetik.

Lehen diskurtso mota hau eraikitzekeo baliatu diren piezak argi agertzen dira: «egiaz-kotasuna» eta «sorburua»; «gurea» kontserbatzea; «bertakoa» babestea. Egintza eta jardue-rak ere halakoak dira: kultura berreskuratzea eta nortasuna defendatzea. Bilboko auzategi ezagun batean nekazaritza feria antolatzerara bere aisialdiko ordu asko zergatik eskaintzen zituen azaltzen ari zelarik, honela esan zigun elkarrizketatuak:

Auzo honetan tradiziokoa den edo finkatua dagoen zerbait legez nekazaritza feria edukitzeko baina, lehendik ere, hortxe zeuden sustraiak berreskuratuta. Berria da baina, aldi berean, ez erabat berria (RCP3)

Geure oroitzapenak berreskuratzea gustatuko litzaiguke guri, Errekalde horren oroi-men historikoa; Errekaldek ez baina bertako auzokideek emigrazioaren ondorioak ja-sateaz gainera eta zer hori, borroka izpiritu hori berreskuratzea eta bestea ere be-reskuratzea, lehenago zegoen ondare kulturala... etc (RCP3)

Beste muturrean bestelako diskurtso mota agertzen da, berez emergentea, ez da au-rrekoa bezain antzemangarria eta literatura soziologikoak dioenez, nortasunaren, politi-karen eta kulturaren gaineko egungo diskurtsoek bereizgarri dituztenetatik gertuko para-metroen arabera. Diskurtso mota –konstruktibista– honen ezaugarri nabarmenena ondarearen defentsaren despolitizazioa da; horrek garamatza, ikusiko dugun legez, bertan

dabilen lagunaren bizibidea *borondatezko lana* eta *lanbidezko jardueraren* artean zabuka dabilen bizipentzat interpretatzera. Beste aldetik diskurtso horrek ondorioztatzen duena argi dago: antzinakoa zaindu eta babestea ez den beste kontsiderazio guztietatik at agertzen da «ondare» kontzeptua

[Ondarea] iraganeko aztarna guztiak dira, ezta?, azkenean horixe da: denborak utzi-tako lorratzak, markak, ezta? (RCP2)

Horretatik haratago ere, ondareari buruzko honelako diskurtsoek erakusten duten aspektu berri-berria, ideologia horretakoen artean, patrimonializazio eragiketen azpian dauden mekanismo sozialez nolabaiteko kontzientzia daukaten pertsonak badirela pentsatzeko bidea ematen duten elementuak agertzea dira. Elementu osatzaile eta osagarriez eragileek duten hausnarketazko agerpen horrek bideratzen dute bigarren diskurtso mota hori «konstruktibista» bataiatzea¹⁶.

Idatzi duguna horrela interpreta litekeen arren, ez dugu ulertu behar kronologikoki bata bestearen atzetik datozela diskurtso mota bi horiek. Bietan lehena –kulturala– ez da bigarrena –konstruktibista– baino zaharragoa, izan ere. Biak bizi dira gure orainaldi honetan eta biak dira alor honetan diharduten eragileen gidari gisakoak. Ereduzko tipoak dira, horrela deitu nahi izanez gero, egintzaren orientazioak, bere osotasunean behin ere adierazten ez direnak baina, aldez edo moldez, praktiken helmugak dira, benetan.

3.3. ONDAREAREN KULTURAZKO EDO TRADIZIOZKO INTERPRETAZIOA: EGIAZKOTASUNA GALTZEA ETA BERRESKURATZEA. ONDAREA, TALDE-SUBJEKTUAREN AKTIBATZAILA GISA.

3.3.1. Ondarea, politika-ekintzaitasunaren toki gisa: talde-subjektuaren mobilizazioa

Hala eta guztiz, inondik ere baztertutzat eman ezin dira diskurtso mota horien eta denbora historikoaren arteko erlazio zenbait: estiloak, erreferentziak, manerak... Diskurtso «kulturala» lehenago bihurtzen da errealitate «konstruktibista» baino. Lehendabizi, ondarea interpretatzeko modu hori gure eremuan aski ezagunak diren (eta bizitza kulturalaren orientazio politikoa bereizgarri nabarmena duten) jendaurreko parte hartzearen inguruko interpretazioekin bat datorrelako.

Guk diogun moduan, herri kultura, euskal kultura antolatzen, lantzen ibiltzen ginen (RCP3)

[nekazaritza feria] ez dugu ikuspegi politikotik planteatzen. Kulturaren dinamizazioaz ikuspegi politikoa daukagu guk, ez da letra edo sigla batzuekin eginiko politika, dagoeneko zeinahi aukera politikotatik aske gabiltza eta. Bai, ordea, maiuskuladun kontzepzio politiko batekin. Gizartearen dinamizazio kultural politikoa egiten genuen eta hori gizartearentzat onuragarria, mesedegarria da. (RCP3)

¹⁶ Ikerlan honek jorratu dituen nortasunak moldatzen dituen mekanismoari dagokion kontzientziaren ezaggarri hori erakutsi du, koadrilen, musika munduko gizataldeen eta Internet fenomenoarekin loturiko unibertsoak bere-bereak dituen sozialtasunak aztertzen dituzten ataletan ikus daitekeen bezala.

Irakurketok, aldi berean, lan hori militantziazko aktibismoaren klabeen arabera interpretatzen dute:

Hasieran guk nekazari feria horrena martiarren kontu bat legez ikusi genuen (...). «Zer arraio egiten dugu guk...?» Hau da, zer lotura nekazari feriak euskal kulturarekin? Hasiera hartan [...] zertzen zuen jende askoren jatorri politikoa zela eta, hori ere ulertzen genuen (...) Jatorri politikoagatik, elkarteko jende dinamikoaren jatorria politikoa zen, ezker abertzaleari lotua, ezta? Eta, horrela, oso gauza zera zen guretzat... (RCP3)

Egungo errealitateari aplikatzen zaizkionean, berriz, diskurtso horiek ondarea idoro dute, baina modu berri horretan militantziazko aktibismoak bereak zituen kode zaharrak bestelako zerbait (politikarik gabeko kulturari berariaz dagokion hori) bihurtzeko lanabes eraginkor gisa agertzen dira ondarea eta ondarearen defentsa. Horrela bada, –orainaldiak eskatuta, omen– ondarea artekaria da eta kulturaren diskurtso politikoak zeharo bestelako lurraldeetatik diharduen subjektu kolektibo batekin talka askorik egiteke toparazten du:

[Bokazioa] politikoa da oraino ere, baina despolitizatu eta, auzoan ikusten dugunez, interesgarriak eta jendeak asimilatzeke modukoak diren elementuak baliatuz dihardugu, hori ikuspegi politikotik bideratzeko, baina alderdi politiko guztietatik kanpo, ezta? (RCP3)

Auzokideon artean, dinamizazio sozialaren kontzeptua pixkanaka bestelakotu egin da; kultura politikoezia geneukanok despolitizatu egin gara eta, beste aldetik, despolitizatuak politizatu egin dira. Horrela, iritsi garen elkargune horretan nonahitik datorren jendea topatuko duzu: ezker abertzaleko militantziatik datorrena, armadan hiru urtez boluntario eman dituen arren auzoa sustatzen, kultura dinamizatzen eta hainbat balio aurrerakoi bultzatzen zurekin beharrean dabilen morroi batekin esku lanean... (RCP3)

Horrela ikusirik, norberaren ondarearen gorespenak, diskurtso honetan, ondare horrek daukan subjektu kolektiboaren («euskal herritarrek», «auzoa», «nazioa», «hiritarrak»...) eragile potentzial bezala dihardu. Horrelakoetan ondarea defendatzea ez da berez helburua, mobilizazio politikoa –egun– posible bihurtzen duen bitartekoa baizik.

Nekazaritza feria horrekin, Txikitero Egunarekin... erdietsi nahi duguna herritarren kontzientzia sendotzea da, herritarren arteko elkartasuna bultzatzea, mobilizazio soziala klabe positibo eta aurrerakoian eragitea eta, helburu hauek lortzeko esandako baliabide horiek darabiltzagu. Batzuetan lantresna arras *light* izaten dira eta bestetan, berriz, sendoagoak (...). Nekazari feria zeharo lanabes neutroa da, ezta? Baina Txikitero Egun horrek zer daukan esango didazu... Hala eta guztiz, Txikitero Egunari esker, elkarrekin zerikusirik ez duten baina sakonean ados dauden errealitateak espazio berean lotzea lortzen dugu, ezta? Zuloan sartzear dagoen 90 urteko jendea rastafari batekin, kalean, «Gora eta Gora Euskadi» kantari. Hori mesedegarria da, ez euskaraz eta ez... kantatzen ez den auzo honetan eta... ezta? Hori da, gutxi asko, jardueraz dugun ikuspegi estrategikoa ... (RCP3)

Militantziazko aktibismoko bokazioen krisialdiaren ondotik, ondarea berreskuratzeak suspertu egiten dituela dirudi, beraz. Nortasunaren politikak euskal agertoki publikoan zor zitzaien tokia ondarearen bitartez hartu dute.

3.3.2. Denbora eraikitzea ondarearen bidez: erritu-egutegia asmatzea eta orainaldiak jatorriarekin duen lotura.

Diskurtso mota honetan denbora nola antolatzen den xehetasunez aztertzea komeni da: lehen-lehenik, eguneroko denbora, epe laburra: *erritu-egutegia* finkatzea; ondoren, denbora historikoa, epe luzea: *galera eta berreskuratzea*. Bi eginkizun horietan ondareak funtsezko betekizuna du: iraganaren eta orainaren ideia lantzeko une gogoangarriak –horrenbestez, ezagun denaren galera exortzitzeko erreferentziak– finkatzen ditu. Ondareak, alde batetik, epe laburra, erritu-egutegia antolatzen du:

Nekazaritza feria zergatik egiten dugun guk? Ez dugu egiten arrazoi kulturalengatik, funtsez, auzoa suspertzeko baizik. Arrakasta dela ikusten dugunez, gure lokal horren mugak gaindituta auzo osora zabaltzea xede duten hainbat ekimenekin jalgi gara (...). «Egun» asko antolatu ditugu: Iparralde Eguna, Txikitero Eguna, Txalaparta Eguna. Egun asko, bai (RCP3)

Baina horrek, batez ere, *amenazopean dagoen iragana, arriskutan dagoen benetakotasuna berreskuratzea* ardatza duen kontakizunaren bidez, historian talde horren agerpena errebindikatzen duen irudikaria antolatzeko balio du. Horregatik izan liteke, agian, CONTINUUM GALERA → BENETAKOAREN BERRESKURAPENA erreakzioak, denborari dagokionez, honelako diskurtso mota antolatzea. Bera partaide den kultura elkartearen izenaren jatorriaren berri azalduz, elkarrizketatu batek honela esan zuen:

Une hartan, Erronkarin euskaraz mintzo zen azken pertsona hilzorian zegoelako aukeratu genuen izen hori (RCP3)

Hori, beraz, ondarearen –eta, hedapenez, euskalduntasunaren– irakurketa tragikoa da:

[helburua] Errekaldeko oroimen historikoa berreskuratzea da; gogoan izan, Kepa Junkera eta horrelako jendea existitzea, Errekaldek inmigranteen etorrera masiboa nozitu eta euskara galdu duen tradiziozko gune euskalduna izatearen ondorio da; bertan, bitxia bada ere, euskaraz mintzo den jendearekin bizi da kanpotik etorrita den eta galiziar edo antzeko beste kultura bat daukan jende hori Errekalden bertan (RCP3)

3.4. ONDAREAREN INTERPRETAZIO KONSTRUKTIBISTA EDO EMERGENTEA: EUSKALDUNTASUNA HUTSAL BIHURTZEA ETA IDENTITATE NORMALDUA AGERRARAZTEA

Beste muturrean, berriz, ondarearen irakurketa konstruktibistak euskal unibertsoa ebidentzia instituzionalizatu gisa jo du: horixe da, seguruenik, datu behinena. Horri esker, «arriskutik» «berreskuratzerara», «jarduera politikotik» «aisialdirako erakustaldira»¹⁷ igaro gara. Ahaltsun historiko politikoaren baldintzak bestelakoak dira orain, diskurtsoetan hautematen den legez: ez dute konnotazio tragikorik eta, galdutakoa berreskuratzea ez ezik, gozamen estetiko ere aztergai dute, kultura tradizionalaren iraupen eta nola edo halako defentsa ez ezik, kultura horren adiera-moldeen estilizazioaz ere badihardute.

¹⁷ Alderatu kontu hau eta merkataritza-guneetan nortasunaren eszenaratzeari eskainitako atalean landa-lanari dagokion azterketatik ateratako ondorioak.

BBK-rentzat euskal baserri klasikoaren imitazio den txosna bat egin dugu, hor zehar ikusten dituzun bezalako teilekin, zuntz gorritz eginikoak, alegia. (...). Txosna horiek egun zernahitan baliatzen ari dira (RCP1)

Oraingo txosnak baserriaren tankera du, horrelako estiloa du, berria. (RCP1)

Kontua da txosnak ere estetiko samar izatea nahi genuela, ez genuen barrakoi antze-
korik gura, txosna baten teiltatuak bi hegal izan behar dituela argi eta garbi baitago
(RCP1)

Dena dela, «kultura», «nortasuna» eta antzeko karga duten nozioak koordenada berrie-
tatik kudeatzen hasiak dira: *implikazio* haren ondotik *asepsia* eta *neutraltasuna* hedatu dira;
militantziaren ordez, *espertizia*. Festa, txosna eta, orokorki, kultura-espazioak aisialdi eta ol-
geta klabeetan interpretatzen dira, komunitate eta premiei dagozkienak baztertuta. Klabe
horietan finkatzen da kultura eta ondarearen berreskuratzearen diskurtso berrien alderdi
emergentea.

3.4.1. Ondarearen interpretazio emergenteen aukerarako, euskalduntasuna errutina bihurtzea

Lehen diskurtso motak bere-berea duen irakurketa politikoago hark kulturari eta on-
dareari transmititzen zien transzendentzi girorik ez dute interpretazio hauek, noski. Ho-
rretan sakontzeke, oraingoan¹⁸, eraldakuntza horren arrazoietakoa bat euskal nortasunaren
adierazpenen nolabaiteko normalizazio edo errutina bihurtzea –areago, instituzionaliza-
zioa– gertatu dela pentsa daiteke. Euskalduntasuna, kuestionatzeko modukoa ez den ebi-
dentsia bilakatu da eta, horren eskutik, erakunde ofizial eta antzekoak...

Eusko Jaurlaritzak [bideetako] seinaleztapena ordaintzen du, geziak Eusko Jaurlari-
tzak ordaintzen ditu, ez dakit zeren proiektua zuritu behar duzu... Une onetan ber-
tan, ez dakit, lauzpabost kilo ditut, laurogei gezi ditut, gero badira beste hainbat mu-
garri ere, trataturiko egurrez eginikoak, berariazko pinturaz margotuak, tira ,eta
normalean ondoren Eusko Jaurlaritzako Turismo inspektoreak etorri, dena bere to-
kian jarrita dagoela egiaztatu eta kito, dena ordainduko dizu. Urteak daramatzate sei-
naleztapena egiten. Ene ustez hori da... seinaleztapena oso-osorik ordaintzen du,
agian oso-osorik ez, ehuneko laurogeian edo (...). Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek,
horretan ere aitzindari da, Ardanza lehendakari zegoeneko 96.a da, mendi-bideei bu-
ruzkoa: hamasei barra ez dakit zer (...). Badago arautegi bat geziak gutxi gehiago egi-
teko... (RCP2)

[nekazaritza feriaren antolaketari baimena emateko] Bilboko Udalak osasun-arau zo-
rrotz batzuk betetzea agintzen du eta, beste aldetik, BBK-k produktuak Bizkaikoak
izatea exijitzen du (RCP1)

...edo merkatua eta bere totemak...

[Feriatarako txosnak fabrikatzen ditut] merkatuan hutsune hori zegoelako (RCP1)

¹⁸ Idazlan hau sinatzen duen taldeak Euskal Herriko instituzionalizazio politikoaz eta horrek nortasun kolekti-
tiboaren eraikuntza sozialean duen eraginaz hainbat lan egin ditu hainbat publikaziotan, in CEIC, 1999, besteak
beste .

Jakina, ideia saltzen diot, ideia eta diseinua eta gero BBK-k erosi egiten dit. Bidezkoa, erabat (RCP2)

Jendea ohitu duzu; orain, iritziz aldatzea nahi baduzu, emaitza premia bat. Jendea ohitu duzu telefono mugikorraren premia sentitzen eta, jendeak, makurtu behar ez duenean bertan... Hurrengo urtean, barruan sartzeko makurtzea derrigorrezkoa duen txosnarik ez dizute alogeran hartuko... (RCP1)

... bigarren motako eraikuntza hauen arabera diskurtsoetan, biek in loturiko mintzairak («eskaera sortzea», «produktua eskaintzea», «berritzea», «patentatzea», berariazko legeria edo arautegi zehatzen erreferentziak...) alor honetan –ondarearenean– eragileen lanaren testuingurua eta egituratzen duen logika adierazteko unean gehien aukeratzen diren erreferentziak dira. Areago, euskal nortasun kolektiboaren irakurketak gatazkaren irudiak ukiturik aipatzen diren ere, ondarearen defentsarako erreferentzia gisa, diskurtso hau posible bihurtzeko egiazko baldintza gisa agertzen dira erakundeak:

Garai okerragoak etorriko dira, Madrildik kenduko diren garaiak: «festak popatik hartzea», ikusiko dira, ikusiko. Eta, une horretatik aurrera, Udaletik gertu behar dugu ibili. Horiek direlako erakundeak, lagunduko gaituzten erakunde bakarrak, alegia (RCP1)

3.4.2. Berrikuntzaren kultura: tradizioa modernizatzea eta estetiko bihurtzea

Une honetantxe agertzen da kultura eta ondarea berreskuratzeari loturiko praktiken alderdi aipagarrienetako bat, lurralde hau egungo bizitzari aplikaturiko ikerketa soziologikoarentzat interesgarri bihurtzen duena. Nolabait berrikuntzaren kulturaz ari gara, nortasunean –eta bere osagai ezagunetan: tradizioa, kultura, benetakotasuna, etc.– oin harturiko diskurtso konbentzionaletatik –diseinua, kalkulua, egokitzapena eta, akaso, espezializazio batez ere, funtsezko kontzeptuak dituzten– diskurtso garaikideagoetarako trantsizioa lotzeko erabili den hari horretaz, alegia.:

Jarduerek egun osoan iraun behar dute. Umeentzako jarduerak, txosnak, herri kirolak, etc. etc. (RCP1)

[Nik diseinatzen ditudan txosnak aurrekoen] tankerakoak dira baina mostradore ho-beak dauzkate. Horietako batzuek kanila dutenez, estetika bera ere... antzekoak diruditen arren, estetika aski bestelakoa da. Dena den, gauza hauek dira diseinatu behar direnak, pixkanaka-pixkanaka aldatzen saiatu behar direnak. Nik dakidan guztia baliatuta, sekulako txosna egin nezake oraintxe bertan (RCP1)

Ondarearen inguruko diskurtso emergenteetan berrikuntza da funtsezko muina, izan, aldearen adierazlea. Beharago ikusiko den legez, berrikuntzarekin batera aktibista militante zaharrari txanda eman beharra dator: aditua da diskurtso mota honetako protagonista erraldoia.

3.4.3. Egiazkoa berreskuratzetik jatorria erakustera: identitatea eszenaratzea

Esan gabe doa –berrikuntzaren– kultura honetan eta irudi –aditua eta ingeniaria– hauetan, goian aztertu dugun diskurtso-mota «kulturalak» berariazkoa duen BENETAKOAREN GALERA → BERRESKURAPENA *continuum* hori ez dela ezastrukturatzailea. Izan ere, ho-

rrelako diskurtsoetan, ondareak adierazten duen kultura «lehenagotik baden» elementua da, naturalizatutzat jotzen da, areago jakin eta ezaguntzat. Horregatik, ondarearen inguruan bere egintza (profesional zein bestelakoa) garatzen duenaren lanari aplikatu ohi zaizkion aditzak betikoak dira: *aitortu, definitu, sailkatu, erakutsi, hobetu*. Kontua ez da galdutakoa berreskuratzea; aitzitik, lehendabizi, ondareari berez zer dagokion eta zer ez dagokion zehaztu beharra dago eta, hori hobetu ondoren, zehazki mugaturiko objektu hori eszenaratu beharra dago:

Baserri-bideak, porlanez estaliak, bide-zidor bezala orain erabiltzen ez direnak... horiek berreskuratzea... bide hutsa bezala, besterik ez bada ere, baina birgaitzea, hau da, erabilgarri ipintzea, ez ziren baliatzen... Baliatzeko baliatzea, jakina, ez lanerako edo lanean baliatzeko, aisialdirako baizik (RCP2)

Palimpsesto –aurreragoko artelanen gainetik eginiko obra haiek, alegia: mihisearen sakoneko artelanaren jatorria ezkutatzan duten obrek andeatu ez baina estali egiten zutenak–, baten aurrean balego bezala ondare alorreko adituak errealitatea osatzen duten geruzak erakusten ditu, purifikatzen dituen bitartean, sorbururaino iritsi arte. Egiazkotasunaren tokizat gailurturiko benetakotasunaren mesedetan ez du egungoa arbuizaten; hastapenetako edertasun aseptikoaren peskizan dabil eta, horretarako, bidea sastrakaz garbitzen du, txukuntzen du:

Oraindik ere, tira, badira tarte batzuk... eta, ez pentsa, ahaleginetan gabiltza, nolabaiteko bide-zidorrak egiten dira-eta, eta saiatzen gara, birgaitzeko ere bai, arrazoi beragatik, bide-zidorrak bide horiexetatik taxutu nahi dira... Beste aldetik, dotoreak dira ibiltzeko, nik, adibidez, galtzadan ibiltzea nahiago dut porlanezko bidetik baino, e?, inondik ere! Bide edo pasabide publikoaren izaeraz jantzi duzunean, berriro ere erabiliko baduzu, bertatik sasia eta sastraka garbitu, bazterrak txukundu... bidea birgaitu egin duzu, bide hori seguru aski (RCP2)

Orduan berreskuratu dugu jatorria, sorburua, bere benetakotasun gordin eta ederrean agertzen den legez. Horrela eszenaratu da nortasuna, arrandi eta handikeriarik gabe, zientzialariaren hoztasun teknikoarekin:

[Feria] beraz,erakusten den tradizioa da (RCP1)

3.4.4. Identitatearen mekanismoaren ezagutza diskurtso konstruktibistaren sustraian

Nortasunez osaturiko izaeraren nolabaiteko kontzientzia izatea eta nortasunak osatzean esku hartzen duten mekanismoak nolabait ezagutzea dagoeneko ez da zientifiko sozialaren pribilegio edo hori ondorioztatzen da, behinik behin, elkarrizketatu diren pertsonetako batzuek diotenaren arabera. Orain, errealitate sozialaz eta bere mugapenez irakurketa hori –batzuetan aldrebestua, ironikoa den aldetik– egitea ondare kulturala jorratzen duten agenteek ere egiten dute. Aktibista baino areago museologo, tradizioen zaintzaile baino areago diseinugile, ondareaz diharduenak hornikuntza horien bitartez erakusten du «nortasun», «kultura» edo «ondare» kontzeptuen aurrean, horiek moldatzen dituzten eragiketak arbitrario eta iragangaitz direla jakinik agertzen da; hau da, eragile horrek dihardu ondarea eta nortasuna antzezlan baten, errealitatea tradizional bihurtzeko eragiketa askoren aplikazio errepikakorren, berariazko espazio eta denboraren eraikun-

tza lanen edota nortasunaren fikzioa posible bihur ditzaketen diskurtsoak lantzearen emaitza balira bezala.

Harritzeko modukoa da, egiari zor, eragile horiek ondarea nolako erreflexibotasun sakonez jorratzen duten ikustea; eta, erreflexibotasun horrek bultzaturik, beren jarduera, existitzen zena berreskuratzea ez ezik, *ez dena sortu eta eraikitzea* ere badela ulertzen dute zenbaitetan. Horrela bada, eskualde batzuetan ezezagunak ziren tradizio batzuk berreskuratzeaz ari ginela, gure elkarrizketatuetao bik esakune berbera baliatu zuten: *esku hartzea*. Esakune hori ez da hartu behar –nortasunaren azterketaz diharduen literaturaren gehientsua hartu izan den bezala– adiera peioratiboan; alderantziz, gauzak esateko era hori eragileek nortasuna birsortzeko, antzetzeko, are asmatzeko moduko objektutzat hartzen duten graduaren adierazlea da:

«Putxera» izenekoak antolatzen genituen, Eltze legeko horiek... antzina Bilbo – Santander lerroko trenbideko langileek zeuzkaten kazola modukoetan indabak egiten ziztuzten, tren-makina barruan... Horrek tradizio handi sustraitua du Balmasedan. Orduan (...), beraz, «putxera» egiteko artisaubat ere ekarri genuen, indabak ez ezik, lapikoa nola egiten den ikus zezan jendeak (...)

E: Errekalden ez zegoen trenbideko langilerik, ezta?

Ez, ez zen horrelakorik, baina tradizioa zen hura, kontua zen «putxera» haien inguruko kultura Errekalden ere ezagutaraztea. Urtero-urtero zerbait ezagutarazi, jendea gauzak ezagutuz joan zedin, ezta? (RCP1)

Bai, «asmatzen» ari ginen... horrela da, hutsetik asmatzen ari ginen. Gauza guztiak asmatzen dira, egun batetik bestera besterik ez bada ere, ezta? Baina existitzen ez zen zerbait sortzen ari ginen. Tradizioa asmatzen, alegia (RCP3)

Honetatik bizi naiz ni. Oraintxe bertan bi urte egin ditut lanbide honetan, oroimena, iragana... berreskuratzean. Kobazulo batean Cromagnon bat ikusten baduzu, marraztu egiten duzu. Hau gauza orijinala! (RCP1)

Kultura euskailu materialaz hornitzeko arduradunak nortasun kolektiboan aditu dira, ingeniari; errealitate kulturala interpretatzeko eta interpretazio hori jendeak gozatzeko azpiegitura bihurtzeko gauza dira subjektu horiek:

[Festetako txosnak] premien arabera diseinatu dira, neurri batean. Niri ikaragarri gus-tatzen zait festetara joatea eta, festetan nabilenean, horrela jardun ordez, jendea ikusten dut jendearen portaera, ibilera... Kasu horretan, tira, diseinu hori egin behar nuelako, diseinu bat egin behar nuelako eta... begia erne nindoan, konturatu egin nintzen eta horri esker eta txosna pittin bat hobetu egin nuen, ezta? (RCP1)

3.5. ADITUA: IDENTITATEAREN HOMOLOGAZIOA, PROFESIONALIZAZIOA ETA INSTITUZIONALIZAZIOA

Adituaren irudia eta adituaren inguruko kultura (berrikuntza, kalkulua, homogenotasuna, neurria, aurreikuspena...) da, gure iritziz, emergentziarik nabarmenena, ondareari eta kulturaren berreskuratzeari dagokion alorrean. Esan dezagun aurretiaz Euskal Herria ez dela kasu bakarra eta horrek espertziaren emergentzia ez duela ezaugarri bereizgarria: prozesu orokortua da eta, egun, sustraien galerak sortarazten duen beldurra noziturik, sustrai horiek beren tokian ostera finkatzeko eta, beharrezkoa bada, (bir)sortzeko dispositiboak ugaltu

egin dira, (Ariño, 2002). Irudi horietako bat da kultura eta nortasun alorreko aditua, galera-
ren arriskuak exortzitzatzeko gauza den pertsonaia, batez ere, Beck-ek «arriskuaren gizarte»
bataiatu duen horretan: «Lurpetik atera, katalogatu, birgaitu eta egiaztagiria ematen dute»
(ibidem: 343) eta, horren bidez, jatorria birsortzen dute, balio politikoez zama gabe.

3.5.1. Espertziaren biografia: ondarean ekintzaile izatetik profesional bihurtzera

Hauxe da kultura adituaren bertutea: tradizioiko betebeharrak eta modernotasuneko
eskakizunak elkartzen dituen, nortasunari buruzko diskurtsoak –eta hauen item ezagu-
nak: tradizioa, kultura, benetakotasuna...– eta diskurtso modernoagoen artean dauden lo-
karrien osagai da.

Adituak duen tradizioen eta modernotasunaren arteko bitartekari-izaera hori agerian
geratzen da inplikaturiko subjektuek beren buruez aditu diren lanbidez egiten dituzten
biografiatan. Elkarrizketatuetan sekuentzia goitik behera errepikatzen da¹⁹: *hobby* dela, ak-
tibismoa dela, biak batera dela, jarduera garrantzitsua eremu pertsonalean, denbora igaro
ahala –beti ere, subjektuaren iritziz, txiripari egotzi beharreko baldintzak direla medio-
lanbide bilakatzen da. Emaitza, azkenean, lanbidea eta konpromisoaren arteko, kezka so-
zial eta ogibidearen arteko hibrido konplexua da. Horregatik esan daiteke, elkarrizketatu
diren gazteen artean, ondarea defendatu, kontserbatu eta eraikitze-lan horretantxe uztar-
tzen direla harmonikoki partaidetza sozialeko gogoak eta lanbide-mundukoak:

Ene historia, nolabait, berdintsu hasten da, mugida sozialetan lanean jardutearren, ezta?
Ene ustez, hori da... jende askok ekimenak [enpresa alorrekoak] talde eta jardueretan
ibiliz aurrera atera dituen modu berean. Hor premia batzuk ikusi eta, ondoren, enpresa-
proiektuak sortu dira. Eskaladako ikastaroetan ibili den jendeak, azkenean, defizita ze-
goela hauteman eta abentura anitzeko bidai enpresa antolatu du. Umeekin eta anima-
zio munduan lanean jardunikoek, azkenean, berbenak girotzeko, edo haurrak
gobernatzeko edo gazteluak eraikitzeko taldea osatu du. Hasieran, behintzat, sustatze-
ko, elkartasunean jarduteko, auzoko lanean aritzeko, ideia bat defendatzeko asmoz. Ge-
roago, era berean, enpresa-proiektu bat egokitu da, ezta? Eta, horrez gain, edo horre-
kin batera... eta horrekin ez dut esan nahi enpresa-proiektua txarra denik, dirua
irabazten hasiko zarenik eta lanean ezagututako guztiaz ahaztuko zarenik (RCP1)

Mendizale izan naiz ni beti-betidanik eta, gero, beraz, ondarearen defentsarako el-
kartearena eta ez dakit zer gehiago neukan; horrek, gutxi gorabehera, liburu hau
prestatzeko atea zabaltu zizkidan. Oñatiko Udalak beka sortu zuen, ni aurkeztu,
beka atera... Nola suertatu zen? Herriko lagun batzuen ekimenez sortu zen hau guz-
tia, horiek Udalarari bide-zidorrak egiteko proiektua aurkeztu ziotenean. Udalak
baietz, dirua jarri zuen eta beka bat antolatu zuen, liburua egingo zuen arduraduna
ipintzeko eta, horixe, nik irabaztea egokitu zen. Urtebetea eman nuen liburua lan-
tzen. Orduan, polita gertatu denez, Federazioarekin harremanetan jarri eta, homolo-
gazioaren afera zela eta, bide-zidorrak homologatu behar nituen, Mendi Federa-
zioarekin kontaktua izaten nuen tarteka. Horiek, normalean, jarraibide batzuk
ematen dizkizute, ezta? Beraz, nolako bideak izan behar dituzten, luzera, zailtasu-
nak, ezaugarriak, hitz batez. Zuk, akaso, egiten duzun bide-zidorra baliteke... (RCP2)

¹⁹ Nahiz eta, bistan da, oraingoan eginiko elkarrizketak patro horren arabera izatea euskailu empiriko
nahikoa ez den, bibliografia zientifikoak gorabehera hori hainbatetan egiaztatu izan du. Adiera horretan, gehie-
netan aztertu den kasuetako bat, hizkuntza berreskuratzearen inguruan militantziak profesionalizatzeari dago-
kiona izan da. Honi buruz, cf., besteak beste, CEIC, 1999; Gatti, 2002; Tejerina *et al.*, 1995.

«Aisialdiaren edota aktibismo militantearen profesionalizazioa» izan liteke kultura aditua herrestan daraman fenomenoaren izena. Kultura hori, beraren inguruko praktika tradizionalen instituzionalizazio latza adierazten duen indize gisakoa da: objektuen izaera kulturalaren berrespen zientifikoa, egiaztapena, neurketa... Aspalditik datorren, tradizio lokal garrantzitsu bat herentzian jaso duen eta, berari uko egiten ez dion arren, tradizioa gaitutua duen praktika baten fase berria da:

[oroimena berreskuratze] hori militantziarekin identifikatzen da, konpromiso politikoz diharduen jendearekin. Koadro horrek, tema horrek ondo funtzionatu zuen zazpigarren hamarkadara arte, edo akaso zortzigarreneara arte baina aurrerantzean porrot egiten hasi zen (RCP2)

Inplikazioa (politikoa) eta asepsia (zientifikoa) uztartuak, aisialdia eta ogibidea konbinatuak... Baina aktibismo politikoarena eta ogibidearena ondareko adituak aldi berean uztartzen dituen unibertsoak diren arren, ezin ezkuta daiteke: batzuetan komunztadurazko akatsez dihardu, elkarren kontrakoak diren sentsazioez, lanbide-praktikaren bidez kotasunaz agertu ditugun ondorengo juizio hauek eta antzekoak jaurtiz:

Bere lana eta bere enpresa, batetik, eta zerako [elkarte kulturalaren izena] jarduerak bereizten ditu berak. Hau da, bera akaso Muskizeko ferian dabil, trikitixa jotzen, kobratuz, baina, hala eta guztiz, Artxandako feriara dohain joango zaizu, Artxandako ferriakoak gurera doan etor daitezten. Bera, orduan, une jakin batean profesionala da eta, beste une jakin batean, militante (RCP3)

Elkarteari interes pertsonalengatik eman dio hasiera; zer gertatu da? gerora, elkartearen dabilela, irtenbide pertsonala atzeman duela eta berak, betidanik, bere irtenbide profesional horrek elkartearen inongo eraginik izan ez dezan zaintzen du, biziki zaindu ere (RCP3)

Elkartearen baitan, berarentzat kaltegarri gerta daitekeen negozio antzeko bat dagoela uste duzu... Ideiak garbi ditugun bitartean... Nik horren alde egin nuen, beraz. Ni neu ere sustatzailea izan nintzen, nor, neu baino egokiagorik! Hau da, zer, hori baino hobetik. Tira, horrela gertatu ziren gauzak, pixka bat errebotez, akaso ez errebotez, pixkanaka baizik. Txosnak diseinatzen hasi nintzen, batekin, birekin, seirekin (RCP1)

3.5.2. Figura berriak identitatearen kudeaketan: adituak, ingeniariak eta begiraleak, eraikitzaileak eta partikularraren homologatzaileak.

Oroimenaren profesional hauek laguntzen dute nortasunen eremuan orain arte, absente izan ez badira ere, «militantzia politikoaren» kapusaiaren pean ezkutaturiko irudiak ager daitezten: ingeniaria, hautatzailea, begiralea. Aditua, hitz batez. Eragileak dira, goian idatzi dut hau, eta bere denbora aitortu, ezagutu, definitu, sailkatu, agertu, hobetu eta antzeko hitzez definitzen diren zereginetan ematen dute, «ondarea» zer den eta zer ez den zehazten eta, ondoren, eszenaritzen. Horien lana hainbat atazatan banatzen da: batetik, hautatzea...

Esate baterako, bide-zidor batean, gailurretaraino ez doazen horietako bat... hori mendizaletasuna da, hori bereizi beharra dago (RCP2)

Feriara datorren jendea hautatu egiten dut nik. Ferietara joanez, hori da, eta kontak-tua izan aurretik, feriara joaten nintzen (RCP1)

BBK-k badu baserriz baserri dabilen jendea eta badaki, jakin: honakoa etor daiteke, akaso produktu bat denean, aspaldi honetan, gehiegikeria franko jazotzen ari denez, elkarteei zerrenda bat eskatu ohi die, joateko den jendearen izenekin... (RCP1)

...beste bat, sailkapenarekin...

Ez, eztabaida piztu zen. Mende hasierako estazioa zen, dotorea, ederra, burdinazko estruktura zeukan, ondare industrialean sartzen zen nolabait, ez zen argi eta garbi «iraganeko lorratza». Tira, iraganekoa bai, baina iragan berrikoa eta, tira, aldeztatik galdutako borroka egin zen... etxeak eraiki behar ziren. Lursaila saldua zegoen eta estazioa haren erdi-erdian zegoen. Estazioa ederra zen, polit-polita, baina eraitsi egin zuten. Bota, desegin, eta manifestazioak egin ziren. Gerora, hainbat hitzaldi eman ziren Vasco-Navarro-az. Jendea etorri zen, trenbideko makinistak etorri ziren, nik orduantxe ezagutu nuen: kartelak, protestak... (RCP2)

... beste bat, katalogazioa, aurretiaz ezarritako eta zehaztasun osoz –zientifikoki– arauturiko maiztasun baten arabera:

IKERTZEA → SASTRAKA KENTZEA → IZENDATZEA → EGOKITZEA → ERAIKITZEA
→ HEDATZEA → INSTITUZIONALKI BERRESTEA → ERABILTZEA:

Dena katalogatzea, denak izendatzea, argazkiak ateratzea (RCP2)

E: Eta, zure lanean, faseak zein dira?

Badago ikerkuntza-fase bat, hasieran, Bilboko artxibo batean egiten dena, Bilboko Artxibo historikoan, hain zuzen (...). Hurrengo urratsa ibilbide bat osatzea da, hau da, lehendabizi ibilbidea imajinatu behar duzu: hor datza baserritarren arazo latza. Bai, arazoak daude hor. Baserritarrekin hitz egin bai, baina batzuek ez dizute onartzen hori pasabide publiko izatea, akaso auzitara eramango dute afera. Afera da, horixe dela afera! Baserritarra udalaren kontra, gutxi gehiago, eta udala baserritarren kontra

E: Ibilbide hori taxutuz gero, ordea?

Lehendabizi topo-gida, orritxo edo zerbait dugu; web orrialdea jartzea ez da derri-gorrezkoa baina egokia da, ongi dator. Hedatze fasean ezagutarazi behar duzu zeure burua. Zundatze lana egin behar da, gutxi gorabehera, hori berreskuratzeko, batez ere, turismoa erakartzeko... Hedatze fasean, web orriaren eta argazkien bitartez zer hori ezagutzera ematea; gero, baliteke bestela izatea, orritxo, edo liburua, segun eta zenbat diru dagoen, noski. Hori da bestea, esan dizudana, bideak, orritxo, argibideak... ibilbidea eta gunee interesgarriak, besterik ez (RCP2)

Hautatzea, sailkatzea, katalogatzea. Hau da, nortasunaren euskailu materialak balioztatzen dituzten irizpide zientifikoekin elkargarri, homologagarri, bihurtzeraino manipulatzen dituen ordezkartza-lana. Horien zeregina formula honetan laburbil daiteke: *berezitasuna homologatu egiten dute*, hots, berariazkotasuna berdintasun bihurtzen dute, ondareaz ezagutza metodikoaren arauak agintzen dutenera egokituz:

Bide-zidorrak egokitzeko lanak, horrela esango dugu; lehendabizi homologatu eta ondoren egokitu. Homologatzea, tira... homologazioa Mendi Federazioak ematen du, lurralde bakoitzeko mendi Federazioak, alegia, Senderismo Batzordea dauka eta hauxe da bide-zidorrak homologatzen dituen... (RCP2)

Homologazioari dagokion izendapen ofiziala berdin-berdina da honez gero Europa osoan... edo mundu osoan (RCP2)

Adituak, orduan, kultura eta nortasuna interpretatu eta beraiek gorpuztuko dituzten objektu gisa gauzarazten ditu. Nortasunak inskripzio bihurtzen ditu, kultura osoa kode homologatua. Euskalduntasuna hainbat labelen arabera egokitzen du.

3.6. ONDORIOAK

Aztertu ditugun bi diskurtso motez idatzi duguna laburbiltzen du, funtsean, ondorengo koadroak:

| ONDAREAREN GAINKO DISKURTZO KULTURAL EDO TRADIZIONALA | ONDAREAREN GAINKO DISKURTZO KONSTRUKTIBISTA EDO EMERGENTEA |
|--|--|
| Ondarea, egiazko herri-kultura | Ondarea, jatorriaren aztarna |
| Nortasun kolektiboaren interpretazio tragikoa (<i>gal-tzen dena</i>) eta ondarea | Nortasun kolektiboa eta ondarea egikari instituzionalizatu gisa interpretatzea (<i>normala, existitzen dena</i>) |
| Norberarena galtzea → berreskuratze <i>continuum</i> -a | Nortasunari berez dagokiona, egikari normalizatua |
| Ahantziriko benetakotasunaren birgaitze-lana | Ondarea ezagutu eta sailkatze-lana |
| Berezitasunaren errebindikazio partikularra | Berezitasunaren erakuste homologatua |
| Aktibismo militantea | Eskaintza aditua |
| Tradizionalismoa | Berrikuntzaren kultura |

Hanka sartzeko beldur handirik gabe, ondarean hiru elementu bereizgarri daudela esan dezakegu: (1) ordezkapen-lana dela; (2) nortasuna manipulatzeko eragiketa batek edo gehiagok osatua dagoela; (3) eragiketa horiek, balio sinboliko handia baina agerpen material sendoko objektu eta egoera bihurtzen dira. Elementu horiek aintzat harturik, ondareari dagozkion praktika sozialen alderdi berri eta benetan emergentea preziatzeko ikerlanak zein bidetatik zuzendu behar diren asmatzea ez omen da zaila. Goiko koadroak klabeak erakutsi dizkigun arren, era honetan ere enuntzia daiteke:

1. Lehen-lehenik, ondareak adierazten duen nortasun kolektiboaren (hots, euskalduntasunaren) banalizazioa –irakur normalizazioa– ikertzea;
2. bigarrenik, nortasunak osatzen dituzten mekanismoen ezagutzaren hedapena eta ezagutza hori hainbat praktika tekniko-zientifiko (jatorriaren aztarnak hautematea, garbitzea, adieraztea) bihurtzea iker dadin;
3. hirugarrenik, praktika horien –hau da, adituaren irudiaren taxutzea– profesionalizazioa ikertzea.

4

Abegin hartzeagatik

lan egitea:

musika-zaletasunetik

lanera

4.1. SARRERA

Gazte-sektore zenbaitek, hein handi batean, gorpuzturiko hainbat praktika estetiko garaikideri dagokionez, mundu sozialaz eta nortasun kolektiboaz hausnarketa egiteko bestelako adierazpideen berri ematen digu musika elektronikoak. Musika elektronikoari buruzko Loops (2002) bildumaren sarreran Blázquez eta Morera kritikariek tipiko ezagun bat suntsitzeko ahaleginetan dihardute: etorkizuneko musika elektronikoa izango dela dioena, alegia. Bien aburuz, elektronikoa orainaldiko musika da.

Soziologiaren eremuetan sartuta, musika elektronika orainaldiko musika da, eskarmentu gisa egiteko, aditzeko, dantzatzeko eguneroko praktika gisa gizarteak ekoizten duena, «antzezpen» edo «objektibizazio» izaerarik gabea. Adiera horretan «musika nortasunaren metafora da» (Frith, 1996: 109). Eta metafora elektroniko horretatik sortu zitzaigun, onargarri bezala, logika emergenteak behatzeko posibilitatea, hau da, nortasuna eskarmentuz eskarmentu bizitzeko eta eraikitze aukera, hainbat forma artistiko eta estetiko jantzirik. Ikuspegi horretatik ulertzen da zergatik –Euskadiko zein mundu zabaleko musika elektronikoaren emergentzia adierazteko unean– elkarriketatuek errepikatzen duten ingelesezko *boom* hitza, musika egin eta bizitzeko hainbat pleguk ezagutzen duten goraldi hori nabarmentzeko:

Boom antzeko bat gertatu da... Jaialdien *boom* hura jazo zenean sormen handia agertzen zen han-hemen, ekimen asko, ideia asko, gauzak egiteko gogo handia, kolektibo ugari zebiltzan beharrean... (MU1)

(...) Orain, berriz, hurrengo pausoa, duela lau urte garaiko *boom*-a disc-jockey izatea egokitu zen legez, ene ustez urtebete edo pare bat urteren buruan *boom* hori (...), diskoen *boom*-a pasatuta, musika zuk zeuk egitea izango da. Zeren, akaso, sortzeko eza gutza gehiago eduki behar da, informatikako programak sakonagotik ezagutu, alegia, adina nik uste dut, aurki, urrats erraldoi edo *boom* hori nork bere musika eramatea izango da (MU5)

Musika elektronikoa beste hainbat musika-praktikatatik bereizten duten ezaugarriek –gure honetan, elkarriketatuen arteko funtsezko aldea rock-a da–, «nortasunaren metaforatzat» aztertu ditugun egiteko modu emergenteak baldintzatzen dituzte. Elektronikari loturiko gazteen praktika eta identifikazioak geroago ulertzeko adierazgarrienak diren ezaugarriak ondoren aurkeztuko ditugu.

4.1.1. Musika makinaz egitea

Musika elektronikoa, funtsez, makinez eginiko musika da. Elektronikaren «iraultza» –guk elkarrizketatu dugun pertsona batek hori sutsuki aipatzen du– horri esker, lehenago sekulako azpiegitura eduki gabe ezin pentsatzukoa zena orain pertsona bakar batek sortu eta jende askoren eskura egongo den muga gabeko artifizioa eta aldaera-aukera (berez helburu bihurturik) lor dezake.

... elektronika iraultza da... Lehen, batek baxua jo behar zuen, besteak gitarra; orain, aldiz, zuk bakar-bakarrik, etxean, informatika programa on batekin, musika guztia egin, ekoitzi eta produktua amaiturik plazara dezakezu: erabateko iraultza! (MU2-1)

Dantzatzeko musika elektronika, Simon Reynolds-en arabera, aditu ala dantzatu dikotomiari irtenbidea eman dion «musika fisikoa» da: gorputz osoarekin aditzen den musika da, gorputza bera da protagonista (2002: 19-20). Elektronikak gorputz eta gogoaren arteko mugak suntsitzeko gomiti egiten digu: ez dago «abesti» egiturari loturik –pop edo rock-a bezala–, ezta testu bati ere; aitzitik, programazio-softwareek, sintetizadoreek edota erritmo-kutxek sortzen dituzten testura eta erritmoaren barrena iragazten da.

Horrez gainera, teknologiaren bitartez, musika-ekoizpen prozesuak esperientzia bero-beroak aktibatzen ditu: programak manipulatzeko dira, makinak (argibide-liburua aiantzita) baliatzen dira. Laborategian bezala jarduten da lanean: esperimintatzea musika moneiatzea da, musikarekin maniobrak egitea. Horrela bada, zeregin artistikoa eta bere euskailu materiala hertsiki lotuak daude²⁰:

Orain, aldiz, goitik behera kontrola dezakezu. Lehen behar zenuen produktorea, estudioa, ez dakit zein... Orain, etxetik bertatik, ordenagailu-programa on bat, ideia onak eta... ekoiztera! (...) Ene ustez, aktibo dagoen jende guztia, arte-sena daukana eta egonezin hori sentitzen duena... gauza berriak idorretzeko, ezagutzeko irrikatan dago... Orduan, non ote da oraintxe bertako, izan datekeeneko, aitzindaria? Nik zer dakit, korrante berriak, hau da, teknologian datza, alegia (MU2-1)

Nahasketa, musika elektronikoa lehentasunezko tokia hartu duen herri-musikaren mintzairan erabilitako topikoa da. Kulturaren hibridazio eta des-katalogazio kontzeptuak hitzetik hortzera darabiltza literatura soziologiko posmodernoak: praktika kulturalak ez dira puruak, ez dira erraz sailkatzen mundua bikote klasikoaren arabera (herritarra/kultua, tradizionala/modernoak, elitista/masiboa, etb.) klasifikatu nahi denean. Elektronikari dago-kionean, nahasketa, manipulazioa, aurretiaz imajinatu ere egingo ez genituzkeen soinu-elementuen arteko konexioa musika mota horren nortasun-ezaugarriak dira eta, jakina, soinuen purutasunik ezak eskarmentua gorpuzten lagundu duten logika sozialak ere heterogeneo izanarazten ditu.

²⁰ Gaur egungo musika elektronikoa genesia jardura industrialarekin estuki loturiko hirietan –Amerikako Estatu Batuetan, Detroit edota Chicago eta Europako Düsseldorf edota Manchester– agertzea ez da txiripa. Talde asko eta askoren izenak berak ere argi azaltzen du makinaren eta estatika industrialaren aldeko pasio sutsua, kasu denetan deigarriena *Kraftwerk* –«elekttrizitate zentrala»– talde alemaniarrena bada ere.

4.1.2. Teknologia-emozioa, gutxiengoentzat ote?

Apustu estetikoetan arriskua berez balioa da baina zirkuitu «txiki» batean (Euskadiko hiri eta klubetako den bezala) adituen artean esperimental den hori, dantzalekua betetzeaz kanpo, kultura musikala aportatzen duten gutxiengoen adjektibazioa probokatzen du:

Hortxe duzu hori [klubaren izena] marihuana-kulturadun lokala, eta hor Hip-Hop kultura aurkitzea, jendea ireki-irekia delarik; gero, zera [klubaren izena] Erreterian, [klubaren izena] Oiartzunen, horrek hor kartel bat jartzen dizu hamar artistarekin eta hamar horietatik zortzi dira saltzen dutenak, bi dira kultura ematen dutenak, ezta?(...) diskoa ipintzen dute, fusio bat egiten dute eta hor... dena jartzen duzu joan. Akaso jarriko dizute disko supermoderno bat, zernahiren eraginez osatua dagoena... egungo musika fusiozkoa da, esperimental, eta akaso jendeak flipatuko du pitin bat, ez zoaz hara «pistak haustera», zuk esaten duzun disko horretara zoaz... «hara!, gutxiengoentzako» (MU4)

Horrekin lotura du musika elektronikoari egotz dakizkiokeen ezaugarrien funtsezko alderdi batek: zentzu modernorik eredugarrienaren –ikusmenaren– erreferentzia galera, entzumenaren eta ukimenaren mesedetan. Horrela, ez dago zuzentzeko moduko ikono ikusgarririk eta horregatik ez omen da agertzen elektronika kulturaren industriarentzat arrakastatsuenak diren musika estiloen artean; nolabaiteko *underground* maila batean mantendu da, zenbaitetan espertizia maila batekin nahastuz

Discjockey jendeak badu halako purutasun bat: «Nik biniloak baliatzen ditut, ukitu egiten ditudalako eta...». Ergelkeria da. Discjockey izatearen kontra joatea da hori, ene iritziz. Discjockey izatea aurrera egitea da, bilakatzea, teknologiak hori eta askoz ere gehiago egiteko aukera ematen dizun honetan, batez ere (MU2-1)

Espertizia plegu horrek «elite» kontzeptuaren adiera bati heltzen dion bitartean, kultura eta pragmatikoa elkarrekin bizitzeko zailtasuna edo, zehazkiago, aisialdiarekin bakar-bakarrik lotura duen proiektu profesional bat planifikatzeko zailtasuna (aisialdia zirkuitu «alternatiboekin» lotuago dagoenean) planteatzen du,

Musika elektronikoa nola atsegin zitzaidan... azkenean aurkitu nuen hortik bizitzeko bezalako kulturarik ez dagoela hemen eta, hortaz, biziki poztu naiz horrelako jendea ikustean... hori gutxiengo bat lortzen ari delako, kulturarekin sentsibilizatuago dagoen sektorea (MU7)

4.1.3. Elektronika-eskarmentua proiektu gisa

Idazlan honetan musika elektronikoak proposatzen dituen praktika eta eskarmentu estetiko berezia, batetik, eta hainbat gazte-kolektibo Euskal Herrian gauzatzen ari diren proiektuak, bestetik, lotu nahi ditugu. Lehen-lehenik, elektronikari esker musika-proiektu askotan beren arduradunak eszenatokiaz «bi aldeetara» daude, gertakari, jaialdi eta era askotako ospakizunen sustatzaile aditu gisa eta,aldi berean, musikari diren aldetik ere esku hartzen dutelako; bigarrenik, musika elektronikoaren kontsumitzaile diren aldetik duten esperientzia –mundu zabalean, elektronikaren eszenategi-sare modukoa bihurtzen ari diren musika jaialdi eta hitzorduetara joanez–, sozialtasunarekin batera, proiektuen *leit motiv* eta abiaguneetako bat da; horren ondorioz, proiektu askoren (dirua) irabazteko asmoak eta elkarrizketatu askok defendatzen dutenen arteko (auzoan edo hirian «kultura musikala» sortzea) oreka egongaitza ondorioztatzen da:

Espainiatik kanpo, Bartzelona eta Madrila joateko... eta bertan egiten ziren ospakizunak pixka bat ikusteko, hau eta hura, gero, noski, [Benicassim-eko] jaialdia ikusten duzunean eta horren leherketaren testigu zarenean, esaten duzu: «Horra, Bilbon ez dago horrelakorik. Nik horrelakoaren beharra dut, horrelakoak izatea behar dut, honetara dedikatzen naiz eta. Gustatu egiten zait.» (MU2-2)

...lehendabizi, adiskidetasun handiak eta musikaren aldeko pasioak batzen gaitu, horixe da lokarriaren funtsa (MU2-1)

Hacker mugimenduan gertatzen den bezala, musika proiektu horien genesian bada «eztabaida eta elkarlan teknikoan aritzeko espazio paraleloak» sortzeko interesa, gure kasu honetan diru- eta kultura-helburuen arteko oreka egongaitzak, alde batetik, eta sare lokalak osatzeko premia tematizazio politikorik ez izateak, bestetik, elektronikaren espazio «aditu» hau toki lausoago eta egongaitzagoa bihurtzen du, ikuspegi soziologikotik.

4.2. ELEKTRONIKAREN METAFORA

Erlijio ekitaldietan baliatzen direnen antzeko esakuneak —«zelebrazioa», adibidez— erabiltzea topikoa da *dance* hiztegian (klubak tenplu edo santutegiak dira) eta, Reynolds-ek azpimarratu zuen bezala, «musika mota honek ez du zerikusirik komunikazioarekin, komunioarekin baizik: pistako jende guztiak nozitzen duen zentzumen-unitatea, alegia» (ibidem: 20). Dj baten saioan edo *rave party*²¹ batean izan den edonor konturatuko da espazioaren antolamendua eta Dj-aren kokapena, pistan bilduriko «jendetzarekiko» erlijiozko ospakizun batekoaren antzekoa dela: jendea «masa erritmiko» gisa agertzen da (Lasen eta Martínez de Albeniz, 2001: 140). Hau da, dantzarako musika elektronikaren eszenaratzea erritu-segidadatik gertu dabil, «erritu segida performatzaile» batetik (Butler, 2003).

Musika egiteko bestelako plegu eta formekiko erabateko aldea planteatzeko, bere bereizgarrietako batzuei hel diezaieke elektronikoa, sormen, erreprodukzio eta harrerari dagokionez, edo, bestela esateko, autoretza- eta publiko-dimentsioetan. Autorea desagertu egin da eta konposizioaz interpretea jabetu da, bere ukitu pertsonala emanik (ebakera, nahasketa); horretarako berariazko testuinguruan (saioa, kluba, etc.) bizitzeko gorputz eta sentimenez bidezko bizipenari esker jasotzen du publikoak interpretazio hori; amaitzeko, bestelako musiken azterketei aplikatzeko moduko kontzeptuak bi zutoin horien —Dj-a eta saiora etorritako publikoa— arteko negoziazioan disolbatzen dira. Hitz batez: baliteke musika elektronikoa autorerik, letrarik, aurpegirik, diskorik eta zalerik ez izatea.

Dantza egitera joatea da afera, ez zoaz musika aditzera... Dj-rik ez da munduan zurretzat (MU8)

Elektronikaren metaforak hemen heltzen dio sozialtasunari eta nortasunari, eskarmentutzat. Performatibitatea, «erritual kultural edo arau kulturalen errepikapena» (ibidem: 35) den aldetik, sozialtasunaren errepikapena da elektronikoa: «orokorrean esku hartzea» lokarri sozial egonkorraren premiarik izateke. Ikuspegi soziologikotik, berriz, beste zerbaiti adierazgarriagoa deritzogu: praktika estetiko jakin bat —elektronikoa— ekoizten duen

²¹ Musika elektronikoa jo, aditu eta dantzatzen den jaialdia, generikoki. Termino horrekin bataiatu ziren, has-tapenetan, metropolietako inguruneetan edo aspaldiko industria-guneetako toki abandonatueta egiten ziren le-getik ateko «bat-bateko» festak.

morfologia sozial horrek –masa erritmikoak– forma estetiko jakin batzuekin identifikatzearen eta horietan esku hartzearen terminoetan pentsatzera gerturatzeko gaitu, nortasun terminoetan baino areago.

Identifikazio eta praktika emergente horiek, berehala aurkeztuko ditugunez, diskurtso aditua eta bizipen musikaren arteko loturarekin, sozialtasunarekin eta elektronika munduaz mapeatze-posizio jakinetan daudenek kudeatu behar dituzten ikaste-jolasekin dute zerikusia.

4.2.1. Diskurtsoa adituaren eta musika esperientzia gisaren artean: *Dance* kultura eta gizarte-errituak

Herri-musika defini dezakeen aspektu bat, adiera generikoan, baldin bada horixe da «estandar estetiko» sortzeko, moldatzeko gaitasuna; forma adierazgarri horien erakargarritasuna, publiko jakin bat –heterogeneotasunetik, bere burua halakotzat agertuko duena, hainbat praktika eta forma estetikorik esker– osatzeko daukan gaitasunean, formak ekoizti edo kontsumitzen duten gizakiek jakinarazten duten horretan baino areago. Herri musikak bere esanahia zuzenean sortzen du, berak inprimatzen dituen gorputz-, denbora- eta sozialtasun-bizipenen bitartez (Frith, 1996: 124). Elektronikoari dagokionez, eskarmentu-alderdi hori funtsezkoa da baina, aldi berean, mintzaira aditua eta teknologia aurreratua sakon ezagutzeko ezinbestekoak dituen «alor kultural zehatz» bat aski duela dirudi (Reynolds, 2002: 15).

Musika elektronikoko disko-denda batean sartzean, sailkatze-etiketen kopurua handia da eta handituz doa etengabe, milaka konbinaziotan: techno, ambient, house (micro house, deep house, tribal house, hard house), progressive, trip hop, hip-hop, drum'n'bass, drill'n'bass, dub, 2step, broken beat, jungle, electro-jazz, computer music, experimental, noise, extreme electronics, pop industrial, pop elektronikoa... Reynolds-en aburuz, musikaren taxonomia²² «musikaz mintzatzeko» ezinbesteko modua bihurtu da, estiloen aniztasuna soinuaren, tekniken eta teknologiaren mugagabeko nahasketa muina daukan musika ekoizteko modu baten «sukarraren ondorioa» (ibidem: 29).

Ekoizpen-sukar horretatik haratago, badago elektronikaz diskurtso esperturik eta, gainera, horretaz berba egiteko, derrigorrezkoa da diskurtsoaz jabetzea. Zer esan nahi du horrek, jakintsua eta jakintsu ez dena mugatuko dituen «jakinduria-espazio» antzeko bat sortu duela? Hau da, sarreran genioen bezala, musika-esperimentazioa hein batean gutxiengoentzako praktika ote da? Lehenik eta behin, gure iritziz *elektronikaren erritual* –erritual hau eszenaratzea²³– da, hain zuzen, muga horiek lausotzea ahalbidetzen duena,

²² Elektronikaren mintzaira anglosaxoia da, funtsez; ezaugarri horrek –irritati-formulari eta kontsumo-industriarekin loturiko herri musika gehienari heda dakioketena– euskaraz hitz jokoak, berrizendapenak eta itzulpen atsegingarriak egitea errazten du. Esate baterako, After-hour klubeko programan (egitaraua goizean goiz hasten da, 6ak eta 8.30ak bitartean, beste hainbat klubetako goizaldeko saioen jarraipen gisa) Zambra (Lesaka, Nafarroa) chill out (ingelesez, «desizoztu» eta, eguneroko hizkeran, «lasaitu»); elektronikaren mintzairan, ordu luze dantza frenetikoan aritu ondoren, gorputza eta gogoa erlaxatzeko eta baretasun giroa jartzeko musikari dagokio) txill (haut berrizendatu da. Nahasketa, soinu alorrekoa ez ezik linguistikoa ere bada.

²³ Elektronika eszenaratzeak eskaintzen du, Lasen eta Martínez de Albeniz-ek adierazi legez, «instrumentista talde batekin –orkestra izan, rock taldea izan– jotzen diren bestelako musikak baino espazioarekin jokatzeko aukera handiagoak ematen ditu. Soinuaren espazializazioa du musika elektronikoa bereizgarrietako bat» (2002: 141).

dantza-pistan dauden guztiek soinu-unitate berbera esperimentatzen dute eta; horixe da, izan ere, Dj-k transmititu nahi duena; etengabeko «ikaste jokoa» (beherago jorratuko duguna) antolatzen da diskurtso aditua, honen eguneroko zeregina jende-olde baten aurrean eta jendetzak nozitzen duenaren artean. Nolanahi ere, «komunio gisa» erritu bihurtzen bada ere, jendea dantzan jartzea elkarrizketa da, berez:

Zuk saio batean zerbait transmititu gura duzu eta, transmititu gura duzu, bada... jendea pozik dagoela, alai dagoela, dantzan egin dezala, ondo goza dezala, baina barruagotik ere transmititu gura duzu zerbait, musika lasaiagoa, baina musika hori eta dantzan egitea akaso ez dira elkargarri, eta hori, esate baterako, herriko festetan ezin duzu ipini...ezin dituzu ipini une horretan adierazi gura duzuna kanporatzeko hautatu dituzun diskoak. Egokitu egin behar duzu horretara, ederto dago hori, zuk ipintzen duzuna beti gustatzen zaizula, eta horrela... baina ehuneko ehunean ezin duzu. Hori Dj-aren esku ere badago (MU3)

Bigarrenik, pendulu mugimendu antzekoa gertatu da, ezagutza aditu eta eskarmen-tuaren artekoa: elkarrizketan agertzen diren horietan musikaren aldeko pasioa –beren proiektu pertsonalaren (profesionalaren) hastapenean dautzan lokarri afektiboak– eta, publiko diren aldetik, izan dituzten bizipenak aipatzen dira baina, horrekin batera, hainbat mailatako «kultura musikalak» ere aipatzen dira maiz:

Ene ustez, Richie Hawting²⁴ ikustera jendearen ehuneko hogeit joango da, gainerakoak Richie Hawting ikustera joango dira ona dela aditu dutelako, haren entzuerak dute, baina horiek ez doaz Richie Hawting-en diskoak erostera; gero, gehienez ere, etxean grabatu egingo dute. Jendeak ez du musika erosten, hau da, ez dago horrelako kultura musikalik, orokorki, hau da, jeneralizatzen ari naiz orain, akaso, baina... aurreko egunean Zamoran izan nintzen; nik toki batean ziztatu nuen eta handik gertu Cristian Varela zegoen, hau da, Espainian gehien ezagutzen diren Dj horietako bat; milioi erdia kobratzen du saioko, eta bertan jendea, erdi kokaturik, oihuka zebilen: «Christian Varela! Ondooo!» Orroka hasi, dum-dum eta kito; sakonean, zeraren antz-antzekoa da... jendeak ahaleginak eta bi egiten ditu bakailaoaren afera horretatik bereizteko eta, noski, oso bestelakoa da. Bakailaoa hau da, mutur-muturrera eramana, baina (...). Zu zoaz horrelako jaialdi batera eta jendea doanera doa, nik esaten dizut eta, jendearen erdiak ez du ezagun hor dagoenetik ia bat ere. Sonar²⁵ horretara, gauez, egunez doan jende bera joaten da, normalean ere interesa ohi duena, alegia; esnob-esnob direnak, aldiz, egunez beren burua azaltzera eta zerera doaz, baina gauez mozolo guztiak doaz, «hautsontzi»²⁶ guztiak joaten dira, bere mugida eta guzti, ikaragarria da (MU1)

Afera «ezagutzen duen» esnob hori eta gaueko parranda egiteko asmo hutsez doazenen arteko bereizketa-jokoak agintzen duenez espertizia titulua diskoak erosi eta entzun ez ezik, publikatzen den musikaz informatua mantenduz irabazi behar da; adiera horretan, hacker-en kasuan azaldutakoaren antzekoa da: ezaguera aditua, «esperimentazioaren bi-

²⁴ Dj hau kartel-buru izan da musika elektronikoko jaialdi handietako askotan.

²⁵ Musika Aurreratuen Jaialdia, Bartzelonan ekaineko lau egunetan eginikoa. Programazioa egunez garatzen da, Museu d'Art Contemporani izenekoan, batik bat (MACBA); beste programazioa, gauezkoa, orain Firak Zona Francan daukan pabiloi erraldoian egiten da.

²⁶ Horrela deritzo, erdeinuz, «bakailaoa» izenez ezagutzen den musika elektronikoa kontsumitzen duen nerabeek osaturiko publikoari; estetika jakin bat agertzen dute –kaskamotzak, ilea tindatua ohi daukate, etc– bai berriek, bai beren automobileren ere –*tuning*-zaleak dira: automobilak apaindu eta egokitu egiten dituzte, bakoitzak bere erara: hamaikatxo hornigai, hagin handiak eta kalitate handiko musika-ekipoa–.

dez eskuratzen den berariazko ezagutza» modura ulertua, alegia, bertan informazioaren –aldizkari espezializatuak, web orriak, disko-denda eta banatzaileak, etc.– fluxuaren aldeko interesa funtsezkoa delarik

Jendea giroko musika jartzen duten lokaletara joaten da baina giroa dagoen tokietara doa, ez musika aditzera; orduan, saioetan nik erdietsi nahi dudana jendea musika-kulturaz janztea etortzea da, ospakizuna ikustera etortzea, alegia, eta ez barre batzuk egitera edo diskotekan bezala dantza egitera, ezta? Gau-kultura baino areago, kontzertu kultura egin gura dugu (MU7)

Eskarmentuaren eta eskarmentudunaren arteko joko edo elkarrizketa horretan sortzen da, hain zuzen, musika elektronikoaren egiazko protagonista: jendetza, musikaren eta bere dramatizazioaren bidez, une eta toki zehatz batean gorpuzturiko eskarmentuen arteko nahaste gisa. Adiera horretan dramatizatzen da dantzan sozaltasuna, izar bihurturik, ospakizunean esku hartzen duten gizaki guztien arteko komunioa eta *feeling*-ari esker. Izan ere, ez da inongo artistarik, interpreteak bere burua partaide eta artekarizat txertatua duen jendetza baizik

Saioetako protagonista den jendetza hori, gainera, une horretantxe zehaztugabea da, gertakaria kanpotik bizi duenarentzat onartezina den erregistro baten osagai da, nortasun indibidualak despertsonalizatu egin ditu nortasun kolektiboaren mesedetan, behin-behinegoz. Horrela deritzo horri Reynolds-ek («behin-behineko komunitateak»); horietan «zatiketak hausteko eta konexio-oinarri primarioak –espazio berean sentsazio berdinak partekatzea baizik ez bada ere– atzemateko ahalegin edo saiakera hauteman da (2002: 33). Era horretan, bizi izaniko sozaltasuna kontzeptu horren definizio klasikotik («gertatzen diren unean bertan agortzen diren harreman sozialak», alegia) gertu samar badabil ere, komunikazioa termino konbentzionaletan ulertzen ez den sozaltasun-plegu berezi batera begira, harreman sozial kontzeptua ostera definitu beharko litzateke.

4.2.2. Bizitza-proiektuak: sozializazioaren instituzionalizazioa

Bada, ordea, goien adierazi dugun jendetza gisa gorpuzturiko dramatizazio horretatik haratago doan musika elektronikoaren sozaltasunaren bigarren dimentsio bat: Euskadin musika alorrean diharduten kolektibo askoren bizi- eta ogibide-proiektuak sortarazi dituen sozaltasunaz ari gara, noski. Izan ere, egunerokotasun eta afektibitatezko lokarriak izaten dira elektronika alorrean euskal gazteek hasitako enpresa- eta kultura-ekimen asko eta askoren oinarri.

Hasiera batean, ongi pasatzeko jaiak antolatzen zituen kolektibo bateko partaide ginen baina pixkanaka musika alorreko enpresan finkatuz etorri gara (MU7)

Horixe gertatu zaie hainbat kolektibori, beraiek kontaktu duten legez, baina, hori bai, beti-beti asmo bikoitza bete nahian: kultura elektronikoan esku hartzea eta, eszenatokiaz alde batetik edo bestetik, musika-ogibidea lortzea helburu izaki.

Zereko [kolektiboaren izena] mugidan zortzi egin ditugu dagoeneko, kultuko musika elektronikoari dagokionez, mundu zabalean entzun daitekeen guztia hona ekartzeko ideia izan dugu beti eta... tira, hasi, tontakeria batez hasi ginen honetan, etxabe batean, lagun batek eta biok diskoak ipiniz, batez ere, eta hona musika hona ekarri ahal

izateko, gure kontaktuek... tira, eta Donostia honetan ere ez gurelako gure gustuko deusik aurkitzen... Horrela. Gero, bion artean denda bat jartzea deliberatu genuen, gustatzen zitzaigun musika, behintzat, eskaini ahal izateko. Eta... horrelaxe, duela pare bat urte arte. Orduan Bilbon hasi ginen (MU5)



Donostiako musika elektronikoko denda bat.

Musika munduan atazak uztartu behar izate horrek proiektua profesionalizazio biderantz bultzatzen du, hastapeneko gogoei traiziorik egin gabe bizirik irauteko aukeren peskizan:

Ni, hasiera-hasieratik, ekoizpenean ekin nion lanari (...) ospakizunen, ikuskarien antolaketan ibili nintzen beharrean. Hortxe hasi nintzen nolabait saltsa honetan murgiltzen. Pixkanaka-pixkanaka ekoizpena gustuko lana neukala atzeman eta alternatiben bila hasi nintzen, horrela, eta musika munduan begiratu nuen (...). Hasieratik ene lankidea eta biok honetatik bizi gara (MU7)

Eta, azken finean, jarduten diren eremu sozial eta profesionalaren definizio konplexua ematen lagundu nahian, Euskal Herrian arrakasta gehien izan duten proiektu asko martxan jarri izana, proiektu horiek ordezkatzan duten bizi-estiloari dagozkion arrazoi kulturalekin eta estetikoekin justifikatuz:

Jaialdiaren asmoa, nolabait esateko, la musika elektronikoz jendeak aurretiaz dituen ideiak suntsitzea da: musika mota hori garun-gabeentzat dela edo bakailoa baizik ez dela, edo intelektualek bakarrik aditu beharreko musika kultura dela... pentsatu dugu denok. Jaialdi horren bitartez, musika elektronikoa lanbide gisa begiratu nahi izan dugu, ezta? Ez, ordea, musika estilo hutsa bezala, ezta? Ordenagailuekin, teknologia berriekin, samplers-ekin beharrean aritzeko modu bat ere bada, oster... (MU6)

4.2.3. Tokian tokiko definizioak: despolitizazioa eta tokikotasuna

Musika erreferentziak, beste hainbat musikari eta Dj-rekiko harremanak, jaialdietan esku hartzea ... denek hartzen dute dinamika eta adiera globala eta, ekoizpen eta hedapen zentro adierazgarriagoak badira ere, sare malguak sortu eta antolatzea funtsezkoa da. Musika elektronikoa urbanoa da eta betidanik izan du bokazio kosmopolita baina, era berean, bertoko tesuinguruak berebiziko eragina du musika plegu horretan. Etengabe ari da bere burua birdefini-

tzen eta software bateko soinurik des-lokalizatuenak eta beren berezko testuingurutik kanpo entzutea ezinezkoa lirudikeen beste batzuk –txalaparta, esate baterako– nahastea du jomuga:

Orain *mestizaia tankerako zerbait egiten ari da*: musika etnikoa, House, musika elektroniko, Tecno, Hip-Hop... denetik nahasten ari dira hor, eta horrek askoz ere aberatsago eta maila hobea lortzen ari da, daudenak ez baitira bi estilo bakarrik, hamaika estilo eta korrante baizik eta, gainera, hori geroz eta konplexuago bihurtzen ari da (MU3)

Dena den, «fusio» terminoetan ematen diren definizio zenbaitetatik haratago, Euskadi testuinguru honetan, musika elektronikoaren nolabaiteko birdefinizio lokala berezi bihurtzen duena panorama erakargarria (enpresa-ikuspegitik anbiguo gerta daitekeen arren) eta eszena elektroniko globala elkargarri bihurtzeko –eta, aldi berean, elektronikaren kultura jakin bat publiko mugikor, bakan eta anitzarekin lotzeko– saiakera da. Horiez gainera, Euskadin elektronikarekin loturiko hainbat musika praktika bitxi edo berezi izanarazten duena «euskal berariazkotasunaren» tematizaziorik eza da, ez politizazio terminoetan (laurogeigarrenetako euskal rock erradikalarekin gertatu bezala²⁷) ez patrimonializazio terminoetan ere (Donostia hiriarekin zerikusia duen indie-pop eszena jakin batean irakur daitekeen legez).

Panorama lauso samarra, merkataritza hutsaren ikuspuntutik, alde batetik, musika industriak nozitzen duen egoera estrukturalagatik eta, bestetik, hainbat proiekturen aldeko apustuetan arriskurik ez izatearren. Hala eta guztiz, estilo bakar bati eta publiko bakar bati leialtasun osoz programatzen ez duten lokalen gainetik klubak kulturak nagusi irauten du:

Hortxe daude diskotekak, trabes, arazoari nolako konponbidea ez dakitela, artistak ekarri ez, zigilua eduki ez... ez daukate baliabideak, zerbaitetik bizi behar dute... orduan nahikoa zaila da musikatik bizitzea eta musikariek beren lana egin ahal izateko bezain eszena zabala edukitzea ere... zailagoa da. Hori da, azken finean, musikarrien lan artistikoa, ezta? Musika egitea, alegia (MU8)



«Elektronikaldia» jaialdiaren (Donostia) bosgarren edizioaren kartela.

²⁷ Hip-hop estiloan izan ezik; izan ere, estilo hau gure testuinguruan sakonago ikertzea mereziko luke baina, bere sustatzaile zenbaiten ikuspegitik, errebindikazio eta salaketa sozialeko hainbat joerarekin identifikatzen omen da.

Hip-hop, niretzat, musika-estilo errebindikatzaileena da, XXI. mendeko punka, lehen euskal rock erradikala izan zen hura, jendeak bere letretan gizarteak edo berak, edo auzoak zeuzkan arazoak agertzeko aukera zuen. Tira... orain horren ordezkoa hip-hop-a da. (MU8)

Horrekin batera, ikuskari batzuek jarraitu egiten dute, eguraldiaren, publikoaren eta erakundeen sostenguari esker, musika estilo zenbait formatu jakin batzuetan bakarrik kontsumi daitekeela frogatuz; horra hor, adibidez, urtero-urtero Donostian antolatzen den nazioarteko Elektronikaldia.

Eta musika estilo jakin batek jaialdietan soilik izaten du arrakasta, egintza sozial bihurtzen denean bakarrik betetzen da aretoa, ezta? Jazza, esate baterako, zer ez nizeke esango jazzaz? Urte osoan zehar inortxok ez du kontsumitzen musika hori eta gero, uda parteko Jazzaldia iritsitakoan, hura lepo betetzen da, ezta? (MU6)

Elektronikoarekin loturiko beste hainbat musika estilotara begira banatzen, hedatzen da panorama, joera berberak errepikatuz, hala nola komertziala dena eta gutxiengoentzako dena bereiztea eta ondoren aipatuko ditugun jokoak. Oraingo honetan hip-hop²⁸ horri goazkio: elkarrizketatu ditugun sustatzaile horietako batzuen iritziz, estilo hori Euskadin musikaren merkataritza alorrean jauzi kualitatiboa izan da baina, haatik, ez dago elektronikoaren alderditik erabat bereiz:

Publikoa bestelakoa da, hip-hopera egokitu delako. Musika elektronikoak hip-hop aldera egin baina, azken finean, oinarriak elektronikoak dira, ezta? Oinarri guziak, alegia, dena sortzen dute ordenagailuek eta dena da elektronika (MU8)

Beste gauza bat ere esango dizut: elektronikak ikasi duena, hip-hop horren alde jarri du, gehienbat (MU8)



Musika elektronikoko saioa, hip-hopeko kontzertuaren aurretikoa, Bilboko erdialdeko lokal batean.

4.2.4. Ikasteko jokoak

Aurrekoa ikusirik, argi dago, sozialtasun hutsetik haratago, elektronikoaren musika-bizipena moldatzeko jarrera-aldaketak egin behar direla, hainbat proiektu euskailu harturik.

²⁸ Hip-hop estiloak gaur egun loraldi ederra du Euskadin. Horrek ordezkatzen duen musika-estiloari eta kontsumo diskografiko eta estetikoari leial, jende gazte-gaztea –nerabea, gehientsuena– mugiarazten duten kontzertu eta artisten zirkuitua makina bat lokalek osatzen dute.

Esate baterako, inplikaturiko alderdien artean ezarritako ikaste-jokoei erreparatuko diegu: sozialtasuna eta proiektu kulturalaren artean dabilzan formak dira, eskarmentuez eta eskarmentudenez mintzo zaizkigunak, globalaren eta lokalaren dimentsioak uztartzen dituztenak. Zertan dira, zehatz-mehatz, ikaste-joko horiek? Kontu honek konponbide errazik ez duen arren, ikerlan honek erakutsi dizkigun emaitzak aipatuko ditugu:

Lehendabizi, bada aisialdiaren praktika eta lanbidezko praktikaren arteko ikaste jokoak, afektibotasunak –hau da, bizi-proiektu partekatutako batean betetzeari uko egin nahi ez zaion alderdi horrek– baldintzatua.

Bilbon denok ezagutzen gara, edozer sortzen denean, arruntasunetik irteten badu, berehala duzu horren berri. Nork bere historiak antolatzen ditu baina Bilboko kolektiboetako jende guztia gara ezaguna eta harreman polita dugu geure artean, gainera. Berez, elkarrekin egiten ditugu gauza asko... Gero, bakoitzak ahal duen moduan irauten du. Esate baterako, zera [Dj kolektiboa] horretan dabil, aurrera atera beharreko negozio gisa ikusten du, batez ere. Guk, oraingoz behintzat, egiten ari garenaz ehunetik ehunean gozatzeko aukera daukagu. Guk festetan gozamina delako dihardugu, berez, ez negozio modura, festetan ez dugu dirurik ateratzen. Esate baterako, negu partean jaialdia zerean [Bilbo Zaharreko klub batean] egin genuen eta goizaldeko ordu batetik bete-bete egon zen hura (...) bertan jaialdia bat ere kobratzeke egin ote geniezaiokeen proposatu genion guk, baina gauzak samurregi ipintzeke ere: «Jaialdia egingo dizuegu hementxe», eta haiek: «Bale!». Jaialdia egin eta kito. Sekulako dirutza atera eta denok gustura. Gustura geu ere, geuk egiten eta gozaten dugulako (MU3)

Bada, era berean, testuinguruarekin loturiko ikaste-joko bat, ingurunera moldatze eta egokitzea funtsean daukana: horrek lokalaren eta globalaren arteko lotura zabalago batera eta bertatik hori kudeatzeko hartzen diren nortasun-jarreraren ikuspegi zabalago batera garatzea.

Hau da, baliteke hemen, gauzak egiten dituen jendearekin dagokiola, nolabaiteko jarraera agertzea, baina eszenan ia-ia ez dabil inor... horrelaxe esaten dizut. Bazirudien, duela urte batzuk, Bilbon eszena izango zela baina, egia esateko, ez da ezeren eszenarik (MU1)

Hirugarrenik, bada estilo, erabilera eta modak ekoizten eta kudeatzen dituen industria musikal eta kulturalaren ikaste-jokoa baina hori ezin muga dakiok erraz ezarritakoaren eta ezartzailearen biribilera, hots, ez da bere arau, osagai eta eragileen arabera aise zehaztu eta mugatzeko modukoa. Hainbat eratako jarreraren arteko ikaste-jokoa, esan genezake.

Jarrerarik? Gauza interesgarriak egitea, hau da, akaso gogoak ez datoz egitarauak egiten dituen jendearen partetik (...) tabernako horrengandik baizik, zerbaiten aldeko apustua egiteko irrikatan daudelako, (...) zerbait underground, gutxienez... hau da, bertara joan eta denak mozorrotuta daude, kolokatuak, edo, gutxienez, badago zerbait... bestelako tokietan ez bezalako zerbait. (...) Egitaraua egiten dutenak, gauza interesgarriak egitea nahi dutenak (...), jendea ekarri eta hori, kontua da enpresariak ez duela laguntzen, sostengatzen. Enpresariak gura duena diru samurra da, diru asko, edozeren truk, beraz, enpresariak, gehienez ere, hilabete batzuetan horren alde jotzea egin dezake eta jendea dabilenean... (MU1)

Azkenean, bada obra osoa –proiektu gisa eratu eta taxutu denetik, bertsio guzti-guztietan kontsumitu arte, material manipulagarria den teknologiatik bizipen estetiko den musikaraino– eszenaratzean parte hartu duten guztien arteko ikaste-joko bat.

Lehenago, musika elektronikoa hor zegoen zerbait zen, gutxiengo baten jabetza lege, edo. Orain, berriz, ene ustez benetako estiloa bilakatzen ari da; baina ez estilo musikal hutsa, baizik... bitarteko bat baizik, eta bitarteko horretatik abiatuta hamaika musika estilo oparo sor daitezke, musika aberastasun izugarria. Eta jendea konturatzen hasia da dagoeneko (MU3)

Testigantza horietatik ondorioztatzen denez, musika elektronikoa gazte sektore zenbaitek gauzaturiko era askotako praktikak elkarrekin bizi diren saila da, gaur egungo prozesu sozialetako batzuk aztertzeke oparoak, soziologiaren ikuspegitik. Praktika eta diskurtso horiek behin eta berriro, etengabe, uztartu behar izaten dira estetikarekin eta nortasun kulturalarekin loturiko testuinguru dinamiko batean, gazteen hainbat joera behetik gora datozen seinale izaki

4.3. ONDORIOAK

Aspektu emergentetzat jorratu berri ditugun joera horien sinopsi zehatzago eta estrukturatu bat egitera iritsi gara, azkenean.

Ondorio nagusia, musika elektronikoa gaur egungo subjektu gaztea aztertzeke sail huts gisa baztertzen duena da; dena den, gogoan izan dezagun dimentsio estetiko horren bidez nortasuna ulertzeke forma birdefini daitekeela. Argi dezagun kontraesan hori, harik eta zehazkiago. Musika elektronikoa eremu kultural emergentea da, musika-eszena gisa hein batez finkatu dena. Eszena hori bestelako bihurtzen dute makina bat ezaugarrik: alderdi fisikoa, nahasketa, presentismoa, ospatzeko era, autorearen suntsipena... Berezitasun horietako batzuek, izan ere, estetikari buruzko diskurtso modernotik dezente urrutiratzen gaituztenez, nortasunaren azterketari bira ematea ahalbidetzen digute.

Era horretan, eraldakuntza gerta daitekeen eremuetan ikerketa egiteke moduan interresgarri izango delarik, nortasun kolektiboa prozesu eta *performance* gisa ulertzera hurbilduz goaz. Gure kasuan, azpimarra dezagun nortasunaren azterketa egiteke beste era batzuk –musika, bereziki– taxutzen ari direla eskarmentu gisa areago antzezpina den aldetik baino, hau da, subjektibotasuna eraikitzeke forma bereziak, zatikako identifikazio iheskorak esperimatzeko forma anitzak diren aldetik.

Gaur egungo gazteen nortasunak aztertzeke ditugun lanabesen derrigorrezko aldakuntzara hurbiltzen gaituen lehen ondorio hori, paraleloki, bigarren (eta zehatzago) batera doa: sozietasuna, profesionalizazio alderdia ezin bereizizkoa duten bizi-proiektu bilaka daitezkeen praktika sozialen genesitzat. Bestela esateke, sozietasuna, gazteen subjektibotasun konplexu, anitz eta dinamikoak azaltzeke erlazio gisa; horietan publikoa eta pribatuaren, naturala eta artifizialaren, aisialdia eta lanaren... arteko konexioak ahuldu egiten dira.

Musika elektronikoa hamaika jarrera desberdin agertzeke eszenategia eraikitzea posible bihurtzen duela eta, aldi berean, beren sozietasun eta sareak beren bizi proiektu osoa bihurtzea erabaki duten hainbat gazte-subjektibotasunek eskaturiko artekaritza dela

esanez eman diezaiokegu amaiera atal honi. Euskadin gazteria –kolektibo den aldetik– aztertzeke gaia musika elektronikoaren eszenak ematen digula kontuan hartzea bidezkoa litzateke gure azterketan, baina horrek nortasun klasikoaren nolabaiteko kontzeptu esentziala erreproduzitzera eraman gintzake. Hala eta guztiz, musika, jarreraren aniztasun horren artekaritza gisa jotzea gazteriarentzat adiera-forma berrien emergentziaz ikuspegi zabala ematen duena da; gazteria horrek, gainera, musika estilo jakinen batekin bere burua identifikatu ordez, esperimentatu, negoziatu, eraldatu egiten du, zenbaitetan gazteak bere bizitzan lanbide, jarduera, aisialdi, sozietasun... gisa proiektatzeraino, hura sorrarazi duen interes indibidual edo kolektiboen arabera.

5

**Identitateak sarean:
gizarte paralelo baten
teknologia-
-esperimentazioa**

5.1. SARRERA

Informazioaren teknologia berrien erabilerak aparteko tokia hartu du euskal gazteriarren lehentasunetan. Arestian eginiko ikerlanen arabera, teknologia horietako batzuk eguneroko bizimoduan erabiltzeari ezinbesteko deritzo erkidegoko gazte askok: gazteen %74k, hain zuzen, ordenagailu pertsonala baliatzea beharrezkotzat jotzen du eguneroko lanak egiteko; %63k Interneterako konexioaren aipamena egin du eta %57k, berriz, posta elektronikoarena. Bestetik, gazte horien motibazio-iturri eta iritzia aintzat harturik, %59k Interneteko iritzi mediatikoko kontsulta nahiago duela dio (Gabinete de Prospección Sociológica, 2003).

Informazioaren teknologia berrien eragina, ordea, ez datza gazteen motibazio eta erabakietan bakarrik; ikerketa soziologiko batzuei esker (Lash, 2001) badakigu horrelako teknologiak baliatzeak nolako eragin sakona daukan bizimoduetan, ingurunearen pertzepzioan eta gazteak garatzen ari diren aspirazioetan (Jones, 2003). Orokorki, gazteek teknologia berriak baliatzea eta beren antzekoekin harremanetan sartzeko ahaleginetan ibiltzea –bestela, harreman horiek ezinezkoak bailirateke, oztopo geografikoak medio-lotuak daudela azpimarratzen da; horregatik sartzan dira web orriak bisitatzera, e-mailak erabiltzera eta (zaletasun zehatzagoak dituztenek) mail-chat izeneko bitartez Internet mundua zeharkatzera, ordenadore bidezko komunikazioan pausoak eginez (Kollock eta Smith, 2003).

Lurraldez gaindiko pertzepzio horretatik sortzen da Internet espazio birtual, nortasun-jokoen eta aukera-tokitzat hartzea. Dimensio soziologiko berri horiek ulertzea dela eta, birtualtasunaren metafora anbiguo gertatzen bada ere (García Blanco, 2002), gure azterketan komunitate birtualen eta Euskadin gazteei teknologia berrietan esku hartzea ahalbidetzen dieten bideen –on-line eta off-line– aipamena egingo dugu (Smith eta Kollock, 2003).

Aurrekoek bezala, mail-chat horietan komunikazio-oinarri daukaten gazte taldeak identifikatu ditugu, bigarren joera gisa; honako hauek, gainera, teknologiak erabiltzeko moduez eta antolamenduaz gogoetak egin eta jarduerak praktikan jartzen dituzte. Talde horien xedea informazioaren globalizazioa izaki, hardware teknologiaren erabilera berrietan eta software askean oin harturik, komunikazio modu berrietan dihardute: modu horietako bat hacktibismoaren komunitatea da.

Hacker kontzeptua, ikusi batera, «hack» (Barandiaran, 2003) motako tren-maketen piezak elkartzeak sortarazten duen soinuaren onomatopeiarekin (joan den mendeko zortzigarren hamarkadan herritartua) lotua dago: horregatik hacking-a elkartzearekin du zerikusia, makinak egiten dituzten makinak eta bestelako makinak sortzeko elkartzearekin, hain zuzen. Ordenagailuetarako jauzia egin beharrekoa omen zen, bera makina birtualak egiten dituen makina izaki (Courau, 2004).

Hackinga, baina, ez da makina birtualak sortze hutsa, estruktura sistemikoek ezartzen dituzten mugak ezagutza birsortu partekatzeari esker zeharkatzea xede daukan azpi-kultura modukoa bihurtu baita. Horrela bada, lana sormenezkoa, kolektiboa eta kooperatiboa du (Hacker, 1997). Hackerrak informazioaren teknologiekiko zuzeneko harremanetan inplikatuak daude, beraiek «teknologia-naturaren kode klasikoak» eraisten ahalegintzen dira, hots, natura estentsibo baten parte gisa planteatzen dute teknologia, gizakiak moldatzeko modukoa eta malgua baita, era askotako helburuak –gure kasuan, sare libreak, software librea, enpresek sareak monopolizatzearen kontrako jarrera eta teknologia berri horietan saiatzeko eskubidea (Cornwall, 1985)– erdiesteari dagokionez. Definizio horretatik abiatuta, behar-beharrezkoa da horiek eta Cracker mugimendua bereiztea: eskuarki Hacker taldearekin nahasten dugun horrek suntsitze mekaniko kaltegarria egitera jo ohi du.

Euskadiko gazteen artean arrakasta hartzen ari diren espazio horietara gerturatzea, noski, kulturak eta teknologiak mugatzen dute; horien egintzek, identitate eta sozialtasun jokoetan ez ezik, itxura berriko elkartasun politikoetan ere hartua baitute euskailu sendoa, honelako ziberkulturaren historiaren eta bilakabidearen iturritik edaten dutelarik (Courau, 2004). Hortxe datza, hain zuzen, sozialtasunaren hainbat plegu desberdin erakusten dizkiguten bitartean, ideia ulertzeko kontzeptu klasikoei buru egiten dioten sozialtasun berri horien azterketa soziologiko baten garrantzia (Aronowitz et al., 1998).

Jarraian aurkezten dugun azterketa, hainbat eratako teknikek osaturik, gazteen sozialtasun berri horien gai eta objektiboetan sakontzeko bide izan da. Nabarmen dezagun, bidenabar, Hacker mugimenduan eta mail-chat izenekoetan oinarrituriko komunitateez bakarrik aritu garela, identitatea planteatzeko eta teknologia berrietan jarduteko bi modu desberdin baitira. Horrek ez du esan nahi, teknologia horien erabilerari dagokionez, bata eta bestearen artean progresio edo hierarkizazioa dagoenik: alderantziz, bata zein bestea, hainbat gazte elkarteren berariazko adierazpenak ditugu²⁹. Euskadiko agerpen ziberkulturalen zerrenda osatzea ere ez da azterlan honen helburua: bi moduko gazte sozialtasunen bitartez, informazioaren teknologia berrien eragin berriak sundatzea dugu burubide.

Off-line munduan mobilizaziorik eragin dezaketen egintzak azpimarratu ditugu: topaketak, mintegiak, «hitzorduen» antolaketa, etc. Era berean, eskenaratze kolektiboa inplikatzen duten euskailu teknikoak ere arakatu ditugu, honelako sozialtasunek bultzatzen dituzten iritzi eta erabaki politiko asko baztertzeko. Alderdi sozial horiei guztiei esker gazten sozialtasunaren larrialdiko hiru gune argi eta garbi atzeman ahal izan zien, hots: 1) bertako jokamolde berriei dagokiena, 2) adiera berriei dagokiena, eta 3) ezagutza berrien eraketa. Kategoria horiek, sarea osatzeko, honako ibilbidean gurutzatzen dira: lokaltasuna/globaltasunaren arteko lotura, adituen diskurtso eta praktikak, sozialtasuna bizi-proiek-

²⁹ Aipamenetan agertzen den formatu-aldaketa, beraz, ez da arbitrariotasun hutsa, bi komunitateen adierazpideen agerpena baizik. Ik. metodologiazko atala.

tu, pragmatismoa gizabanako-kolektibo erlazioan, politikan bestela esku hartzeko bideak eta identitatearekin jardutea.

Atal horiek adieraziko duten bezala, teknologia berriak ez dira bitarte huts gisa erabiltzen: esperimentatzeko, informazioa jorratzeko, ezagutza trukatzeko, identitate jokoetan aritzeko objektutzat ere baliatzen baitira; honek gazte sozialtasun horiei gogoeta egiteko ahalmen handia dutela aitortzeko balio du. Horren adibide nabarmenena, antzinako «komunitatearen» irudikari sozialak eduki ditzakeen izari-gama zabal-zabala da, inondik ere.

5.2. TOKIAN TOKIKOAREN ETA GLOBALAREN ARTEKO ERLAZIOAK

Tokiko edo global den horri buruzko erreferentziak aldatu egiten dira *chat* komunitetetik Hacker-enera: aurrekoen arabera, identitateen arteko aldeak lokalak dira, lagunartea, auzategia, herria, lurraldea edo futbol taldea diren bezala, eta horiek *chat* bitartez identifikazio-ikurtzat zabaltzen dira. Adiera horretan, aurretiaz tokikotzat jotzen den bitarteko batean erreferentzia lokalak bilatzeak esan nahi du praktika hau erabiltzeak, bera nolabaiteko karismaz jantziko duen bestelakotasuna agertzea ahalbidetzen duela, *chat*-ean ohikoa den eztabaida-talde baten hizketatik atera den aipamen honetan ikusten den bezala:

Horixe, bai, bai. Nik beste nonbaiteko jendea, ez dakit nongoa, Perukoa edo... Ameriketako omen zen... bilatu dut. Nik, honela: «Hara!» eta jendea, zer esango dizut, Bilbokoa, Donostiakoa, Madril edo Murtziakoa, edonongoa, zera... (CV-GD)

Ildo horretantxe, argi eta garbi politikoa den bereizketaz markaturiko identitateak adieraztea aukera askoren arteko beste bat bezala ikusten dira. Egoera horrek politikan ohikoa izan den bi muturreko oposizioa indargetu egin du, bitarteko globalak aukera huts gisa agertzen dituelako, bakoitzak bere nortasun politikoa galduta:

«IRC-Hispano, chat-zerbitzari hispanoetan handiena, hor den-denak daude, 200 lagunetik gora daude Canal Bizkaian, Vizcaya v-ez, Bilbaon, nik zer dakit ba.. Guipúzcoa c-z, Gipuzkoa k-z, Gipuzkoa nik zer dakit nola idatzita. Mordoa dago, Álava...» (CV-GD)

Hackerrentzat, ordea, globaltasuna eta tokikotasunaren arteko oposizioa tentsio-iturri da, horien antolamenduaren osagaietako batzuk errebindikazio eta mobilizazio sozialezkoak baitira. Izan ere, politika klasikoari berez dagozkion gaiak eztabaida gehien pizten dituztenak dira. Horrelaxe erakusten digu, adibidez, hackerren bilera batean planteatu zen kamiseta baten diseinuaren eraketak. Kontua, hasiera batean, hacker helburuen inguruko testuak agertuko zituzten kamisetak diseinatzea zen; arazoa, berriz, euskara agertzeko unean sortu zen, bertako testuak egokiro itzultzea zela eta:

Hona ene nebaren ideia: testua gutxienez bi hizkuntzatan jartzea ondo legoke; edo, bestela, euskaraz bakarrik, ezta?

> Esaion heure nebari ezetz; ingeles edo espainieraz ez bezala, euskaraz oso gutxik ulertzen dugu HM-n. Hitzaldiren bat euskaraz ematea interesgarria litzateke; pankartan esaldi bakar bat euskaraz agertzea, konforme; baina kamisetak euskaraz (edo euskaraz bakarrik) egiteak ez du buru, ez hanka. HM (Hack meeting) euskaldun bat sortu arte itxaron beharko da (CV-LD)

Euskara eta lurraldearen arteko lotura nabarmen agertzen da eztabaidan, tentsio politikoaren erreferentzia klasiko hori dela eta, errebindikazioak agerpen fisikoa eduki behar du. Euskara, bereizten duen balio gisa onartua denez, ikasi beharra dago eta, hortaz, kamisetak euskaraz jartzea egintza politikoa da. Ezbaiak errebindikazio ildotik segituz, erakutsi den arrazoibideak euskara alferrikakoa dela frogatu beharko du, kamisetetako testuak ulertu egin behar direlako. Horretaraz gero, eztabaidaren norabidea globalerantz abiatuko da, errebindikazioak hizkuntzaren alor hutsa gaingitzen duten osagaiak dituelako: orain, amaraunerako sarbideen eta erabilera teknologikoaren inguruko eztabaida da.

Azkenean, lokal eta globaltasunaren arteko bereizketa egingo da, hizkuntzaren –oraingo honetan, euskararen– problematika liskar lokalek baldintzatzen dutela eta hacker gertakariak berriarazko dimentsioa daukala nabarmenduz:

HM Nafarroan egiteak (Euskal Herrian baina ez Euskadin, hots, Bizkaia, Gipuzkoa edo Araban) ez du esan nahi euskaldun (euskaradun) dela, ibiltari dela baizik, eta oraingoan Iruñea-Pamplonan egokitu dela. Ez dut ulertzen HM Euskal Herrian egitearren kamisetak gutxienez euskaraz idatzita agertu behar izate hori. Ez nuke gaizki hartuko (areago, ongi irudituko litzaidake) euskaraz hitzik edo hitz-jokorik agertzea, hala nola «hack3ña», «jakin dezagun» eta bururatzen zaigun gainerako guztia (CV-LD)

Aipamen horretan bereziki interesgarria da, tokikotasunaren eta globaltasunaren arteko bereizketa onartuz gero, euskara, lehenago tentsio politikoaren iturri izaki, orain bereizmena egiteko baliabide eta mezua eraginkorrago bihurtzeko hitz joko gisa agertzea. Azken xedapena diseinuaren eta mezuaren eraginkortasunaren ildotik argudiatu zen, kamisetek hitz jokoak hainbat hizkuntzatan agertu zituzten eta, adiera horretan, politikaren eduki klasikoaren despolitizazioa gertatu zen, izaera globaleko errebindikazio politiko bihurturik (baina horrek ez zuen errebindikazio lokala zeharo baztertu).

Lokal eta globalaren arteko bereizketatik abiatuz, berriro itzuli behar da liskar berriarazko eta lokaletara, teknologia berriekiko elkartzeko sendoagoa gertatzea ahalbidetuz. Horrelaxe adierazten du aipamen honek:

Ez dut uste Hackmeeting-en xedea denik igarotzen den tokietako hizkuntzak sustatzea (nahiz horixe egiten duten beste elkarte eta kolektibo ugari), horiek errespetatzea eta teknologiarekin daukaten lotura sakontzea baizik. Ene ustez, HM-aren aurtengo edizioan bi gauza horiek egin egingo dira, gainera. (CV-LD)

Hackerrek gauzatzen dituzten egintza teknologikoetan ere tokikotasuna eta globaltasunaren arteko lotura gorpuzten da. Horren agerpenetako bat, ikuspegi lokaletik, Informazioaren Gizartearen kontra-gailurraren antolamenduan kolektibo gisa esku hartzea izan zen. Arazoak, dena den, globaltasunean ere hautematen dira, organismo errebindikatzaile klasikoek dagokienez (gubernuz kanpoko erakundeak, gizarte mugimenduak, gizarte zibila, etc.), globalizazioaren ondoriozko arazoei konponbidea ematerik ez baitute oraino lortu:

Gailur honetara begira, gizarte zibileko sektore nagusietako bat –GKE eta herri-mugimenduak– mobilizatu da, gailurrerako agenda politikoan era guztietako gaiak sartu dituztelarik. Nolanahi ere, gizarte zibilak erabakiak benetan hartzeko duen ahalmena eta jarduteko aukerak urri-urriak omen dira. Gailurrean gizarte zibilaren ordezkarien presentzia ugaria, bertan sinatuko den adierazpena legitimatzeko saiakera da, batez ere, prozesuan gizarte zibilak esku hartzeko benetako asmoa baino areago (CV-LD)

Aipamen horretan asmoa, beraz, argi dago: hacker mugimendua espazio politiko formatatik urrundu egin da baina ez, ostera, horiei oposizio subertsiboa eginez; bere proposamena gizartearen irudikariarekin du zerikusia: hackerrek proposatzen duen irtenbidea, off-line agenda politikotik urrundutako gizarte paraleloa antolatzea da, bertan teknologia informazioa aske ibiltzea ahalbidetuko duelarik.

Horrela bada, hacker mugimenduaren eskakizuna informazioa jasotzeko, komunikazioa egiteko edo digitalizazioa eskuratzeko eskubideetatik haraindi doa: eztabaida eta elkarlan teknikoan aritzeko espazio paraleloak sortzeak du lehentasuna, sare lokaletan oinarrituriko bestelako globalizazioak –globaltasuna eta tokikotasunaren arteko loturazko espazio paraleloak, hain zuzen– osatzeak. Helburu hori erdiesteko praktikan jarri zen egin-tzetako bat tokian tokiko erakundeen kritika eta kexuak kontra-gailurrean konektatu, zabaldu eta hedatzea izan zen, High-Noon baten bidez:

High-Noon: hiru egunez netcast bat lurreko iraultzari segituz, mundu zaballean *streaming*, aktibismo independentea eta bitarteko komunitarioen proiektuak. Proiektu horretan sartzen dira tokian tokiko komunikazio-erakundeak osatzea eta tokian tokiko borroka eta adierazpenei buruzko materialen jantziriko datu-base globala eratzea (CV-LD)

Lokala eta globala –informazioa bildu eta hedatzearen bidez eta teknologia askean sozializatzeari esker– elkartzen dituen logikak hainbat kolektiboren lotura zabaldu egiten duela esan dezakegu. Aldi berean eginiko transmisio-une batean efektu kolektiboa jazotzen da eta, gertakari horri esker, erakunde lokalen eta gizarte mugimenduen sareen integrazioa lortzen da.

Lau mugimendu horiek –informazioa biltzea, hedatzea, teknologia sozializatzea eta konektibitatea erdiestea, alegia– lokaletik globalerako urratsa ematea agintzen edo ondorioztatzen dute, alor indibidualetik (erakundea, sare lokala) kolektibora doan aldakuntza eraginez; efektu edo *interface* hori sare globalean agertzetik sortzen da, hurrengo aipamenean ederki adierazten den legez:

Orain, kontua da material kolektiboen hedapen-lan lokalean eta koordinazio- eta elaborazio-lan globalean egiten hastea, gailurrean denon ahotsak elkartuz, eraiki nahi dugun informazio eta komunikazioaren gizarte hori errealitate bihurtu dezagun (CV-LD)

Hori dena, zentralizazioa eta hierarkizazioa alboratuko duen sarearen baitako koordinazioa hobetsita, eskura ditugun baina alferrik galtzen ari garen edo behar bezala ez dabilzagun baliabideak erabiliz.

Laburbilduz, lokal eta globaltasunaren arteko loturan bi mugimendu orokor ditugu: lokaletik globalera, identitate anitz eszenan jartzea eta tokian tokiko tentsio politikoak suntsitzea. Globaletik lokalera, berriz, Interneten erabilera monopolizatuen paralelo izango diren konexio-munduak sortaraziko dituzten amaraun berriak sortzeko aukera. Lokalaren eta globalaren artean, espezializazio teknologikoa eta teknologia ezagutu eta erabiltzeko formak dira funtsezko helburuak.

5.3. DISKURTSO ETA PRAKTIKA ADITUAK

Hackerren kasuan ikusten denez, eskarmentuaren diskurtsoa ez da sortzen desiraturiko bizi-formak ahalbidetuko lituzkeen elementu gisa; aitzitik ordea, Hacker mugimenduak teknologia alorreko eskarmentua ziurtzat ematen du. Esan gabe doa erabiltzaile horietako gehienak ingeniariak, telekomunikazio edo informatikatik gertuko pertsonak direla eta, beren ahalbide profesionalak edo beren lanak atseginez ikusten ez badituzte ere, informazioaren teknologiak beren burua merkatariztatik kanpora osatzeko espaziotzat ikusten dituzte. Arazoa bestelakoa da: nola hedatu ezaguera, horri esker inortxok ere sosik atera gabe, alegia. Adiera horretan, ezagutza- eta informazioaren hedapen-sareak zabaltzeko premiak bultzaturik, ezagueran eskarmentu handia edukitzea eskatzen duten formei heldu behar izaten diete pertsona horiek, nahitaez, beren jardueretan argi asko agertu den bezala:

Bestea, edukiak partekatu edo sortzeko helburuz, jardunaldi teknologikoen egin eta komunitateak osatzea da. Zerrenda eta antzekoetan biltzen den jendearentzat «Aizu, nola egin behar dut nik horretan konektatzeko?»-oinarrizko ikastaroak antolatzeak ere garrantzi handia du. Beraz, ene us-tez garrantzitsua da gauza praktikoak irakasteko ikastaro azkarrak eratztea, jendea pixkanaka gaien sartzeko, eta gerora edukia osatzea, jendeak hori tunela dela ikusi ondoren (CV-LD)

Adituari bere estatusa, kasu horretan, ez dio legitimatu jakinduriarako hierarkiak, ezagutzaren banaketan erakutsi duen artekari teknologikoaren harremanak baizik; irakaskuntza teknologikoko erritu txikietan hasitako ikaslea eta maisuaren arteko lotura agertuko du eskemak, orduan. Bestetik, informazioa partekatu eta ezagutza gehiago sortzea ahalbidetuko duten sareak eratzea helburu hartuta, kezka behinena sarea da, termino fisikoetan: horretarako, Hacker mugimenduaren funtsean datzan espezializazio maila eduki behar.

Eskarmentuzko ezagutza –Hackerrek ziurtzat ematen dutena, adibidez– sortzearen adierazle nabarienteko bat, agian, jardueren antolamenduan erdiesten diren planifikazio eta zuhurtzia maila da. Horrelakoetan, informazio-sare alternatiboetan esku hartzen duten antolamendu sozialeko taldeentzat ere maila hori onartzen da. Eskarmentuzko ezagutza, beraz, lehenagotik instalatuak zeuden jakiteen saretik sortzen da, ez jakinduria-ahalmena bereiztetik:

Orientazio gisa, bost gogoeta-maila proposatuko ditugu: humanoa, fisikoa, sintaktikoa, semantikoa eta konektiboa.

Humanoa: zenbat lagun joan ahal izango da? Noiztik aurrera? Nola? Fisikoa: nolako makinak (hardware) ditugu eskuragarri, eramateko modukoak? Sintaktikoa: zein software eraman dezakegu?, zein alderdi sintaktikotan jardun dezakegu eraginkortasunez? Semantikoa: edukiei (hitzaldiak, manifestuak, dossierak, bestelako testuak...) dagokienez, nolako ekarpena egin dezakegu? Konektiboa: nolako hedapen- eta sostengatze-sareak dauzkagu kontra-gailurrean eta ondoren informazioa zabaldu eta laguntza jasotzeko (egintza lokalak, informazioaren hedapena, etc.)? (CV-LD)

Eskarmentuzko ezagutzaren partez, berariazko ezagutza izango genuke, saiakuntzaren bitartez erdietsiko bagenu. Eskema hori, planifikazio-mailarik garaietan, erakunde-en sareek ekoizten duten ezagutzaren kudeaketatik gertu dabil, saiakuntzak bereganatuz eta sareko osagai berrien arabera bilakatuz eta jardunez baitoa; adiera horretan biziki malgu eta bilakagarria dela esan dezakegu. Era horretan, teknologiara gerturatzeke eta bera maneiatzeko gaitasunen arabera definitzen dira hainbat informazio-maila.

Informazioaren eta ezagutzaren hedapena pertsonak aditu bihurtuz gauzatzen delarik, bi aukera daude horretarako: «trasteria», egun alde edo molde funtzionatzen duten makinetan hardware zaharra muntatzea eta, bestetik, softwarea sortu eta maneiatzea, hots, programak sortu edo programa zaharrak zeregin berrietan edo bestelako hardware bati erantsitakoetan aplikatzea. Eskarmentu-posibilitate hau bestelako garapen elkartu gisa bihurtzen da, hurrengo aipamenak frogatzen duenez:

Hackmeeting-ean berrehun kopia saldu ziren, besterik ez zen eta. Kontua da akatsak konpondu eta 0.3.1 bertsioa plazaratzea; gerora, berriz, urliak [izena] proposatu duena ikusi beharko da proiektuari nola heldu beharko zaion erabakitzeke (CV-LD)

Teknologia berrien gaineko eskarmentuzko ezagutza honetatik, egun gehien erabiltzen hitz bat dator: kudeaketa, gestioa, alegia (edukien, sareen informazioaren, koordinazioaren... kudeaketa):

Urliak [izena] programa bat PHP edo antzeko batean egitea proposatu du, HM batean tratatzen diren datuak gestionatzeko, call4paper, kamisetak, media horietakoa egin, hitzaldiena kudeatzeko, etc. Urliak eta sandia [izena eta izena] animatu egin dira (CV-LD)

Teknologia hobeki maneiatzen duten pertsonak osaturiko nukleo gogorraren antzeko zerbait eratzeko joera geroz eta nabarmenagoa da, mundu horretan geroago sartu direnontzat bereizteko; jardunak badaki ezagutzen duena eta ezaguera hori erakundearen barru alderantz husten du:

Urliaren [izena] hitzaldia ez da horren «publikoa», guk gozatzeko eta eztabaidatzeko aipamenak da (CV-LD)

Ezagutzaren espezializazioan beste aurrerapauso bat egiten da merkatuko produktu gisa jarduten has daitekeen makina edo erreminta bat sortzen denean: hori gurarizkotasuna argi eta garbi agertzen da, diru publiko nahiz pribatutik finantzatzen bada ere: sortzearen azken helburua produktua hedatzea eta kapitalismoz bestelako sistema bateko ezagutza-formatzat errepikatzea edo biderkatzea da. Hurrengo aipamenak, diru publiko ekoizti eta hedatuko den software batean oinarritutako adibidea erakusten digu:

Bestetik, ordea, HM-arentzat X-eraren horren edizio berezia egiteko ideia bikaina iruditu zitzaidan, X-eraren hori, azkenean, gertakizunak, ideiak eta komunitateak sustatzeko erreminta ere bihurtu daiteke eta. Horrez gain, ene ustez copyleft terminoak, hitz bakar batean, «metabolik» definitzen duten aspektu politiko gehienak bere baitan biltzen ditu: soft librea, informazio eta ezagutza-fluxuaren askatasuna, jabetza intelektualearen kontrako kritika, monopolioaren aurkakotasuna, infokapitalismo edo kapitalismo birtualaren aurkako kritika, etc. (CV-LD)

Diskurtso eta praktika adituen azterketatik ondoriozta dezakegu Hacker diskurtsoaren jarraitzaileek (taldekideek) ezagutza teknologikoez osaturiko oinarria bereganatua daukate, baina horrek ez du inplikatzeko jakintzen araberako espezializazio zatikatua. Saiakuntza, aitzitik, gauza bera beste nonbait eta bestelako formatuetan errepikatzea da; asmoa, berriz, *ezagutza forma berrien esperimentazioa*: aspektu horrek, oster, ez du onartzen eskarmentuzko diskurtso autonomoen agerpenik.

5.4. SOZIALITATEA BIZITZA-PROIEKTU GISA

Chat komunitateen kasuan, hura sozializatzeko ahaleginak interes orokorreko gaien araberakoak izan direnez, ez da argi eta garbi ikusten bizitzarekin edo lanarekin zerikusia duen proiektu orokorrik. Bide berrian sozialtasun-pleguak sortzen dituzten identitate- eta identifikazio-praktikak dira, batik bat. Nolabaiteko adiera duen praktiketako batzuk «hitzordua» izan dira: horrelakoetan *chat* talde bateko kideek toki fisiko batean jartzen dute hitzordua elkar ezagutzeko baina ez, ordea, elkarren berri izateko adiera tradizionalan, identitate joko berrietan aritzeko baizik:

Noski, musika trukatzearen poderioz ezagutuz doaz; adibidez, galderak egiten dizkizute: – Aizu, halako diskoa ba al daukazu? Eta bestelako abestia? Edo musika mota hori gustukoa duzu? Pixkanaka-pixkanaka pertsona horrekin hizketan hasten zara eta elkar ezagutzen duzue baina kontua ez da aspaldi zen modura, hots: «Zenbat urte daukazu?», «Nongoa zara?», etab. Ez, ez da horrela (CV-GD)

Chat praktikatzek sozialtasuna sortzen du pixkanaka eta, horri esker, lagun taldeak, ezagunak edo musika- nahiz informazio-bilatzaileak diren bereiz dezakezu. Elkarren ezagunak ez diren pertsonen hitzordua jartzen duten modu berean, ezagutzen direnak *chat*-etan nortasun berriekin jolasten dira, helburua ongi pasatzea izaki; dena den, ikusi batera jolas hutsa den horrek batzuetan lokarri sendoak sortzen ditu eta komunitateek denboran iraua egiten dute:

Tira, komunitatearen izena: Adituen Batzarra. – Zer dira?– Adituen Batzarra Anne Rice-ren eleberrri bateko gizatalde bat da (...). Eta horrelaxe, hizketan jarduten gara, Anne Riceren hainbat alderdiz, gustukoak ditugunez, nik kontrolatzen dut hori; beste bi eta hirurok gara administratzaileak (CV-GD)

Beste praktika sozializagarri bat *party* izenekoak dira: gertakari horietara teknologia berrien erabiltzaileak biltzen dira elkarrekin softwarea trukatzeko eta amaraunean baldintza hobeean sartzeko xedez. Kongresu edo topaketa horiek teknologia dute oinarri sozializagarria: nor bere ordenagailua darama besapean eta topaketetan ezagun eta adiskide taldeak osatuz doaz, Interneteko talde edo komunitateak sortuko dituztenak. Honelakoetan sozializazioak jakintza teknologikoetan trebe izatea inplikatzeko du; horra, broma soil batek teknologiaren aditu-erabilera nola erakusten duen:

Bai, hiruzpalautan izana naiz eta, tira, makina bat lagun egiten dituzu han, zeren, noski, lehenago Internetetik ezagunak baitzenituen eta gero pertsona ere ezagutzen dituzu, hantxe ere artxibo-transferentziei esker ere adiskideak egiten baitituzu, filmak eta musika elkarri trukatzeko dizkiete, gauza eta programa mordo ere bai, edo, ez dakit, tontakeriak edo broma astunen bat egiten duzulako edo egiten ahalegintzen zarela. Broma astuna? Ez dakit, ordenagailua itzali, edo puzkerra jardun, edo ordenagailu bitartez zerbitzaria haustea... (CV-GD)

Teknologia berrien indar sozializagarri horren beste alderdi bat ikusten da seme-alabek, praktiken bidez, gurasoei *chat*-en mundua eta Interneteko komunitateen berri irakasten dietenean. Egokiera horretan bitartekoa erabiltzea bizimoduaren osagai bilakatzen da: izan ere, bizi-proiektu izateraino iristen ez bada ere, familiarreko harremanak bestela egituratzen ditu indar berri horrek.

Ez, hark kasurik ez; nebak jolasean dihardu baina nik ordenagailua mutilarekin, neskarekin eta feministekin hitz egiteko baliatzen dut eta, noski, konexio gaian sartzen naiz, denok erabiltzen dugunean. Amak gutxitan darabil, txateatu baizik egiten ez du eta, baina nik horren premia biziagoa dut, trukaketak asko eskatzen digulako; horrek nik beste behar izaten du, beraz... banda-zabalerak agian ez du emango hirurok hor aritzeko (CV-GD)

Adibide horretan amak seme-alaben tankerako jokamoldeak agertzen du. Ama beste nonahiko adiskide eta lagunekin txateatzen hasteak, esate baterako, familia baten baitako bizimodu bihurtzeko sartzen ari den soziltasun-plegu hori bidez kotasunaz jantzen du.

Oso bestelakoa da, berriz, Hacker taldeetan gertatzen den sozializazioa, nahiz eta horrelakoek bitartekoa elkarrekin komunikatzeko, informazioa trukatzeko eta zaletasunak partekatzeko darabilten (baita topaketa, bilera eta kongresuetara biltzeko ere, jakina). Teknologia sozializatzeko eta informazioa partekatzeko ez ezik, saiakuntza teknologikoetatik abiatuta, ezagutza handiagoa eta gehiago ekoizteko borondatea dago, argi eta garbi: daukatena hedatu eta beraien artean konektatzeko gauza izango diren komunitateak sortzea da asmoa; horretarako, egun Interneteko erabilera monopolizatzen duten euskailu komertzialen paralelo izan litekeen espazioa sortu beharko litzateke.

Kontua da denek esku hartzeko moduko zerbait antolatzea, komunikazioaren parte izan dadin eta... ene ustez, dispositibo horien berri irakatsiko lukeen kutxa beltza edo CD antzekoa egin liteke, konponbide gisa; antzinako ordenadore bat prestatzea, gauza bera berriro ez bada, pixkanaka-pixkanaka aurrera egin behar da... ona litzateke wireless komunitateek zertan ari diren balekitez, komunitatea osatzeko adieran, alegia (CV-HM)

Elementu sozializagarri gisa, bai informazioa trukatzeko, bai saiakuntza-erlazioa baloratzen dira: bigarren hau, teknologiaren aldakuntzari dagozkion saiakuntzen transferentziatzat –hau, da, ezagutza– hartuta. Mobilizaziorik tradizionalenean ere, sozializazio-praktika jakin batzuk ere –okupa mugimendua, esaterako– erabiltzen dira Hacker jardueretan. Adiera horretan, argi dago saiakuntzen transferentzia gertatzen ari dela:

Beste gauza bat, zera, badirudi boluntarioak baditugula pankarten aferan aritzeko; mereziko luke, apaingarriez gainera, sarrerako ate gainean zeharka jartzeko beste bat egingo bazenute, handi-handia, alderik alde lihoakeena; horixe egin ohi da bertan [gazte espazioan] gazte-ospakizunik egiten denean eta, egia aitortzeko, ederki ikusten da (CV-HM)

Era berean, praktika-fluxua atzekoz aurrerakoa izan daiteke, hau da, mobilizazio-praktika tradizionalak Interneteko bitarteko teknologikoetan antolatzea:

Zera eta biok hizketan aritu gara manifaren aferaz: ondo deritzogu jarduera-zerrendan sartzeari, beste inork oztoporik ez badauka, behintzat (CV-LD)

Sozializate-bitartekorik erabilienean, inondik ere, banaketa-zerrendak dira, maila formatukoak. Espazio horietan esku-hartzaile bakoitzak posta pertsonal baten bitartez entregatzen duen informazioa dabil hara eta hona. Badu horrek ezaugarri bereizgarri bat, haatik: aurreko mezuak berreskuratzen egiten dira, erantzuna ematen zaie eta, gainera, zerrendako helbide guzti-guztietara iristen dira.

Banaketa-zerrenda zeinahi ekimen indibidual zein kolektiborentzako elementu sozializagarri gisa sortzen da. Horien garrantziak, bertako eztabaiden eta polemiken sakonak gaztigitzen du, ederki gaztigitu ere.

Bizkaiko Hacker mugimenduei goazkiela, talde hauek osatzen duten tradizioa eta «bizi-proiektu» pleguko ekimen indibidualak elkarren arerio dira. Horren adibide bat izan zen bertako partaide batek banaketa-zerrendara igorri zuen proposamena, gerora hacktismoaren zentzua bera ere ezbaian jarriko zuena:

Bajan nagoela, igortzen ditudan curriculumei inortxok ere erantzuten ez dienez, enpresa berriak sortzen laguntzeko omen den [erakunde jakin baten] aferan kuxkuxean ibili naiz. Beraz, ene egungo lan honetatik inork ere salbatu nahi ez nauenez, neurea sortu egingo dut eta kito. Gaur goizean haxe bururatu zait: ondo legoke agian paperezko aldizkari bat egitea (Mondo 2000 estilokoa), era askotako idazlanak bertan biltzeko: wi-fi-aren gaineko artikulatuak, hacking-az, astronomiaz, estatu zein mundu osorako ikerkuntza proiektuak, hacking soziala, erresistentzia digitala, fikzio zientzien gaineko komikiren bat, gpl testu politak, *underground* mugimenduko jendea-ri elkarriketak, bizitza artifiziuala, hiritar-sare askeak, software libre, burura dakigukeen girorik *cyberpunk*-enean idazlan laburrak ... (CV-LD)

Hasiera batean aldizkaria sortzeko egitasmo hutsa bazen ere, bizi-proiektua, lana eta parte-hartze politikoa lotu behar zituen proposamen horretara hamaikatxo zale erantsi zitzaizkion. Interesa areagotuta, hainbat e-mail eta proposamen ere etorri ziren eta, hortaz, horrelako proiektuen bideragarritasun ekonomikoa auzitan jartzen hasi zen. Aldizkaria sortzeko lehen asmoa bazterturik, software askeko enpresa edo kooperatiba osatzea izan zen hurrengo burutazioa. Ekimen horrek bestaren tankerako arrakasta jaso zuen; areago, proiektua burutzeko lege-baldintza eta bestelako aspektuak ere jorratu ziren baina, horretaz gero, banaketa-zerrendak hartua zuen norabideaz disidentzia jazo zen:

Gauzak kakazteko asmorik gabe (batzuetan horrela nahita ari naizela badi-rudi ere) nahiago nuke gai horiek urliaren [izena] jorratuko ez balira. Orain ez naiz ari bizimoduez abstraktuki espekulatzeaz, zerbait antolatzeko proposamen zehatzez baizik. (...) Honela mintzatzea ez nau bultzatu enpresen arteko lehiak edo horrelako zerbaitek (ez baitaukat enpresa edo antzekorik), zera [izena] berez den horretatik dezente urruti dabilela uste izateak baizik (CV-LD)

Hacker espazioak, oraingoan, ez enpresa, ez inoren lan-aukera pertsonalen konponbide bihurtzeko asmorik ez duela argi eta garbi zehaztuta, ekimen partikularrek sor ditza-keten teknologien inguruko ezagutza partekatzeke topa-gune bilakatzeko atea zabalik utzi du, baldintza batez: ekimen horiek taldetik aparte garatu behar dira. Denek, ordea, ez dute hori onartu, hara:

Jendeak ogibidea irabazteko moduez gogoeta egitea gaizki iruditzen ez zai-dala baizik ez nuen esan behar; ideia horiek gorpuzten eta negozio-auke-ra bihurtzen hasten badira, hobe dugu hizketari beste mutur batetik hel-tzea, baina hau bestelako kontua da (CV-LD)

Bizi-proiektua eta mugimenduaren osagai politikoaren artean sorturiko tentsioaz bes-telako interpretazioa azaldu da, beraz: honek, helburu eta balioen leku-aldatzea bere-be-reak izaki, norberaren proiektuak eta, areago, ogibideak aise sartuko dira aurrerantzean egitasmoan:

Zerean [izena] software askearen inguruan kooperatiba sortzeko ideiaz maiz hitz egin izan dugu; oso litekeena da hacklab-en koordinaden barnean ez egokitzea baina, azken finean, gizaki arruntak gara gu guztiok eta, horrenbestez, lan eta jan egiten dugu, maitemindu egiten gara, etab. Lepoa jarriko nuke, denoi software asketik bizitzea gustatuko litzaigukeela. Horregatik eskatzen dizuet malguago eta adikorrago izan zaitezten (CV-LD)

Eztabaida horrek Hacktibismoaren sakoneko definizioa egin beharra azaldu zuenez, tentsioa azaldu zen: batetik, antolamendu politikoan indibidualtasun eta kolektibotasunaren arteko lotura eta bereizketak agertzeko aspaldiko formak zeuden eta, bestetik, teknologiaren erabilera eta informazioaren zirkulazio askea bideratzen duten plegu berriak, elkarren kontra.

Materiala aztertuz ondorioztatuko dugu, gazte batzuen iritziz, interes kolektiboak (Hackerrenak, adibidez) eta indibidualak bereizi behar direla, batzuk besteekin nahastea arriskutsua gerta daiteke eta. Guretzat, aitzitik, ekimen indibiduala da, lanarekin eta di-ruarekin osatua, helburua lortzeko bitarteko gisa onartu behar dena. Horrek guztiak galdera handi bat planteazten digu: zertarako teknologian esku hartu, kostuak merkatzea ahalbideratzeko ez ezik, haren erabilera hedatzeko ez bada?

5.5. PRAGMATISMOA NORBANAKOA/TALDEA ERLAZIOAN

Hacker mugimenduak bere eginbideko objektuen alderako pragmatismoa garatzen du: elkarte bat sortzea, udal edo enpresa bati zerbitzua ematea, etc. Ondo ikusiak izaten dira egingtza horiek baldin eta komunitatea, sareak eta software askearen erabilera zabaltzeko bide badira:

Hortxe bertan elkartea sortzen ari gara gu, dirurik irabazteko asmorik gabeko elkar-tea, hain zuzen. Elkarte horrekin lortu nahi duguna, enpresa eta erabiltzaile arruntek, lokal txiki bat baldin badaukate, egin dezaketena jakinaraztea da: haririk gabeko sa-reaz zerbait ikasi nahi duen jendeak badu hara jo ikastea, adibidez. Elkarte batentzat askoz ere errazagoa da dirulaguntzen bidez hori dena aurrera eramatea: lokalak agian haiek emango dizkizute eta inoiz udaleko errepikapen-dorrean AT bat instalatu behar baduzu, hortxe duzu aukera (CV-HM)

Adiera horretan, mundu paraleloa sortzeko ideiarri esker estrategia politiko bat disei-na daiteke –erakunde klasikoenei dagokien mundu egituratuarekiko elkartze eta antola-menduzko estrategia bat– eta beste bat, aurrekoaren paralelo, wireless, konexioak komu-nitateari ateak zabalduko dizkiona:

Elkartea sortzen baldin baduzu, egiten ari zarenaren paralelo izan dadin, elkar-teak gauza batzuk barruan eta beste batzuk kanpoan edukitzeko balio dezan, alegia (bata legezkoa eta bestea wireless balira bezala) (CV-HM)

Hacker pragmatismoaren bereizgarrietako bat, testuinguru adierazgarriari errepara-tzeke, bere mezuaren bitarteko gisa media baliatzeko gaitasuna da: era horretan, eduki zein mezu-jasotzaile aldetik, oso era desberdinetako bitartekoak erabil daitezke horrela, informatikan espezializaturiko aldizkaritik hasita, Interviu aldizkariraino.

Beste aldetik, malgutasun horrek praktika politiko «serioagoak» praktikan jartzeko bali du. Horietako bat, adibidez, kontra-gailurrean agertzeko Hackerrek egin zuen proposamena izan zen. Asmoa HighNoon bat egitea zen, planeta osoa satelitez eta eskura ditugun bitarteko guztien bidez zuzenean konektatzea, irudiak, ahotsak, testuak igortzeko. Hackerren bitartekaritza adiera horretan funtsezkoa da: sarean proiektu global bat, tokian tokiko konexioek eta bakoitzak dituen errebindikazioek osaturiko euskailu gainean.

Teknologian espezializatzeko eta profesionalizatzea beste hainbat kolektiboren esku jarri ohi den baliabidetzat hartuak izan dira. Funtsezko gunea Hackerrentzat ez datza ez materialaren igorpenean, ez edukien ekoizpenean, ezta azken interpretazioan ere; aitzitik, ordea, bitartekaritza du gune behineneko hori, egintza «teknopolitiko» batean garaturiko informazioaren forma ekoiztea, hain zuzen: hortik dario enfasi pragmatiko nabarmena.

Ildo horretatik, kontra-gailurra ez dugu teknologia eta informazioaren inguruko espezialisten bilera huts bat izatea nahi; kontua da, 48 ordu horretan munduak (eta ez korporazioek) hitz egin dezan beharrezko azpiegitura teknologikoaz espezialista horiek hornitzea (CV-LD)

Hacker baten funtsezko zereginetako bat kudeaketa da, planifikazio zehatza: proiektu eta egintza bereizteak epe labur eta ertainerako planifikazioa ondo ezagutzen dela diosku. Erakundeekin harremanetan ibiliko da, Hacker helburua ezagutarazi eta hedatzea ahalbidetzen duten heinean, ez bestela. Nolanahi ere, finantzaketa-iturri zein artekarietatik gertuegi dauden edo hierarkiaz taxaturiko eskemak dituzten erakundeak (gobernuz kanpoak, adibidez) mesfidagarri gertatzen dira.

Ondorio gisa, esan dezagun Hackerren agerpen indibidual/kolektibo horren erdigunean egituratzen den logikan objektua eta eginbide politikoa elkarrekin nahasi eta bat eginik irauten dutela. Horri esker, helburuak erdiesteko baliatu den bitartekoak garrantzi politiko berbera dauka. Mundu paralelo hori egituratzen duten bitartekoak sarea eta komunitatea dira eta horren ebidentzia konektibitate bertatik sortzen da. Ezaugarri horiek, «betiko» helburuak errepikatzea ahalbideratzen dioten erakunde guztiekiko koordinazio- eta kudeaketa-harremanak sendotu egiten dute. Horren pragmatismoa mediatikoa, bere harremanak baliabide gisa kudeatzen dira eta bere utopia, berriz, bere burua gidatzen duen komunitatea da, kolektibo-idea den aldetik. Egoera hori, behetik gora datozen egintza eta partaidetza-plegu gisa deskriba daiteke.

5.6. POLITIKAN PARTE HARTZEKO BESTE ERA BATZUK

Teknologia berrien erabiltzaile gazteen egintzak bitara gauzatzen dira: on-line eta off-line. Lehen kasuan irudikaririk argiena komunitatearena da, Interneteko teknologia eta tankerakoen erabilera indartzen duen premia utopiko gisa sortzen dena, alegia. Informazioa eta egintzak partaide guzti-guztiek ekoiztea hobetsi egiten denez, dagoeneko ezagunak diren izendapen edo sozialtasunei dagozkien ordezkapenak ohikoagoak dira. Komunitateen barneko elkarrekintza, dena den, off-line eremuan gerta daitekeenaz biziki bestelakoa da.

On-line komunitate espazioa identitate-ordezkapenen toki zabala da, arras malgu eta aldakorra:

Ni Bizkaian sartzen nintzela, gero musikaren aldeko interesa pizten zela nire baitan, ene gustukoa zen musikaren aldekoa, noski, kanaletara nindoala, begira-begira nindoan, eta interesatzen zitzaidan hartan sartzen nintzela, hantxe astebetean egiten nuela eta gustatzen ez zitzaidala... Hartu atea zabaldu eta martxa. Kito (CV-GD)

Espazioaz jabetzeko formak ere garrantzizkoak dira: Bizkaiko Hackerrei dagokiela, *okupa* gazte-mugimendu klasikoa laborategi-formatudun bihurtzea, bere plegu askotako teknologia, bere espazioa erabiltzeko modu malgu eta guzti, gogoan hartu beharreko aldaketa da. Beste aldetik, konexio-sareen bitartez espazioa fisikoki eratzen duten tailer, hitzaldi eta ikastaroak daude: horri esker, laborategitik eskulangintzako lantokirako erdibideko itxura hartzen dute. Sareen eraikuntzan, gainera, bada herrialde-logika bat, baina hemen herrialde fisikoa herrialde-erakundeei dagokienaz zeharo bestelakoa da: Interneten paralelo diren sareak estaltzeko premiak ahalbidetzen du bertako aukerak biderkatzeko nodoak erdiestea asmatzaileek bizikiago ospatzea ondorioztatu du:

Goizean elektronika tailerra. AM irratiko antena egin dugu. Hainbat bro-ma egin ondoren (bertan kamisetak zabaltzea eta erradiazio bidez lehortzea, etc.), WJ antena probatzen hasi da eta, dirudienez, ROE-ren neurketak ez ziren bikainak (CV-LD)

Hacker izateko pleguen antzezpina eta agerpen espaziala agintzen duten egintzez ere beste horrenbeste esan daiteke: Install Party delako *performanceak* –software askearen instalazio-festa antzekoa, bertara adituak eta hasberriak ezagutza jorratzera biltzen direlarik– edota Arboleda Hacking-Camp –kanpin egin eta mendian, aire zabalean, sarea moldatzeko erronka–, esate baterako.

Teknologia objektu eta egintza politikoa daukala esan daiteke Hacker mugimenduz, bere ezaugarri nagusia aipatzean: horretan bereizten dira eta horri esker lortzen dute nolabaiteko malgutasuna gainerako talde edo mugimenduekiko harremanetan. Adiera horretan, komunitateek sorturiko edukiez osaturiko sare paraleloak sortzea eredugarria da, komunitateen arteko trukaketan bilatzen den berezko errealitate sozialaren antzeko zerbait. Komunitatearen kontzeptu zaharra horregatik jantzi da esanahi berriekin eta horregatik hartu ditu bestelako euskailuak, hala nola sareko konexioak:

Eta horixe da Internet baina, tira, guk egin nahi duguna txipa aldatzea da eta Internet baliatu ahal izateko horrenbeste diru ordaindu behar ez izatea, hemen edo hor klik egin behar ez izatea, hau edo hura gerta dakizukeen beldur, alegia. Ez, noski; nik nahi dudana da zer libre bat, zeren, e-mailen sartzen naizen bakoitzean aitortu behar baitut: «Hau konexio madarikatua, dena espatzen ari zaizkit oraintxe» (CV-HM)

Osagai politiko nabarmen hori ez da hautematen chat komunitatetan, horko gaiak politikoak ez diren neurrian. Chat komunitatetan identitate-jokoek ahalbidetzen dituzten identifikatze-estrategiak etorkizuneko komunitateen oinarri izan daitezke. Hasierako kontua olgeta eta ondo pasatze hutsa bada ere, aurrera egin ahala, kontsumo- edo iritzi-alorreko liskarren aurrean, sendotu egiten diren sare egonkor-egonkorak bihurtu daitezke:

Ene lagun batzuek kamisetak freaky hitzarekin egin dituzte.

Bada jendea kamisetan bere joko-komunitatea agertzen duena, hala nola...

«Adituen Batzarreko Komunitatea», eta komunitate horren argazkia atzealdean edukiko duen kamiseta egitea (CV-GD)

Hacker mugimenduan errebindikazioa nabarmena izan ohi da eta, ikusi batera, mobilizazio eta esku-hartze politiko tradizionalagoen pareko eman dezake, baina bertako diskurtso eta jarduerak gogoeta egiteko modukoak dira. Horren adibideetako bat, Hackmeeting-eko pankarta haren testua: *Reality Hacking*, askatasunez esperimentatzeko eskubidearen alde. Hots joko arina baizik ez dirudien horrek bere baitan diskurtso-eduki interesgarria eta praktika politiko berritzailea biltzen ditu, parte-hartzaileetako batek azaldu zuenez:

Reality hacking, hacker jarrera errealitatera, alor sozialera, gure inguruko mundu osora zabaltzeari dagokio. Goiburu hori hackmeeting honen ardatza izatea nahi genuke, Bartzelona eta Madrilan sekulakoa pairatzen ari den okupa mugimenduarekiko (reality hacking horren ordezkari ederra) elkartasun eta sintoniaren lekuko gisa. Baina okupen zapalkuntza ez da gertakari bakana, inondik ere; bestelako mundu posibleak esperimentatzeko aukera galarazteko saiakera orokorretako bat da (CV-LD)

Mobilizazio-praktiken alorrean argi asko dago objektua eta egintza politikoa elkarrekin gurutzatzen direla: egintza teknologikoak eta ospakizun artistikoak, adibidez. *Performanceek* hartzen dute manifestazio politikoaren tokia eta, diotenez, hauek baino eraginkor eta atseginagoak dira:

Bai, inondik inora, askoz ere atseginagoa da Urliak [izena] planteatzen duen bezala egitea performance moduan. Manifa baten gaia desdramatizatzeke eta kargarik arintzeke, gehienbat. Orduan eta areago, Iruñean: Sardiaren [politikari baten izena] itzala luze-luzea da (CV-LD)

Off-line eremuan, Hackerrak espazio publikoan antzeztzen dira *performanceen* bitartez, hala nola *Hacking in the street* izenekoetan: kalera irten eta web orriak erakustea, haririk gabe eta ordaindu gabe, edota software askea indartuz, adibidez, pinguinoz (software askeko programa baten ikurra) jantzita ibiliz, merkataritza-gune handietan ordenadoreez eta, Windows-en orde, Linux instalatzeko aukerez galdezka.

Ondorio gisa, esan dezagun, bai Hackerren bai chat komunitateen espazio-agerpenak on-line eta off-line espazioetan gorpuzten direla. Aurrenekoak, identitatea agertzeko formekin lotuak (beraz, balizko espazio eta komunitateak) eta bigarrenagoak egintza eta *performance* gisa gauzatuak. Era berean, ezin ahanztu ditzakegu antzinako sozialtasunen espazio-jabetzeak, laborategi teknologiko bihurtuak, eta komunikazio-sare fisikoen herrialdeko irudikaria ere. On-line komunitatea eta *performance* teknopolitikoa dira esku-hartze politikoa gauzatzeko plegu berriak.

5.7. IDENTITATEAREKIN ESPERIMENTATZEA

Identitatea ezagutzeko plegu klasikoak baliatzen saiatzean, chat bitartekoak porrot egin ohi du bertan identifikazio jokoak sustatzen direnez, identitatearen agerpen klasikoak faltsuturik eta beren zuzeneko erreferentzietatik bereiz azaltzen direlako. Horren eraginez, komunitate horiek luzaro erabili ondoren, estrategia «gu» berriak sortzea da, bertan geure burua ezagutu dezagun, oinarritzko joko nortasunaz etengabe aldatzea izaki:

Iaz...sartu eta nortasun jakin bat asmatzen duzu, nahi duzuna zarelarik berriro sartu eta nortasunez ostera aldatu eta berriz sartu eta irten, eta zeure izena, zeure familia-rena, adina eta gainerako dena aldatuz... (CV-GD)

Identifikazioetan nolabaiteko egonkortasunaren lehen adierazlea software kodearen *nick* identifikatzailea da –identitatearen ezaugarriarik adierazi gabe–; hori ere, pixkanaka, norberaren izena bezala, itzal sozialaren dimentsioa hartzen hasia da:

lzendatu egiten zaituzte, zure *nick*-a jakinarazten dizute (CV-GD)

Chat-eko talde espezializatuagoetan identifikazioak egonkorrago irauten du eskuarki baina, hori bai, komunitatearen helburu, gai edo interesari loturik; horiek, aisialdizko jarduerak, jolasak, musika, liburu eta antzekoekin bat egokitzen dira batzuetan, bertako par-taide batek dioskun legez:

Ez, ni sartzen naizen tokian ez da horrelakorik. Nick jakin bat daukan norbait sartu eta etengabe goraka doanean ez du aldatzen; gune batera iritsita, jende askorentzat errege modukoa izan daiteke (CV-GD)

Identitatearen aurkezpena eguneroko bizitzan ere aldatu egiten da, teknologia berrien erabileraren ondorioz. Horixe da elkarrizketatu dugun pertsona baten familiari (Internetekin eta, zehazkiago, chat-ekin loturik) gertatu zaiona. Anai-arreba bakoitzak gela bana dauka, bereiz, Internet, telebista, Play Station, irratia eta antzekoak konektatzeko aukera eta guzti... Panorama horretan, amaren rola ere bitarteko berri horren erabilerak baldintzatua dago:

Ama hasieran ene gelan sartzen zen, ni zaintzeko edo (...). Orain, berriz, bere orde-nagailua ekarri du eta hortxe dabil, arratsaldeko zortzietatik loak etzanarazi arte: goi-zeko laurak, bostak, seiak...Eta hor jarduten da berriekin bere lagunekin: bata he-mengo, beste gizon bat Lugokoa, oraintxe lagun berria egin du Logroñon eta horrekin jartzen du beti hitzordua, edo bestela deitu egiten dio eta chatean geratzen gara... Orain pare bat aste ama joan zen Logroñora eta datorren astean laguna eto-rriko da hona (CV-GD)

Hackerren kasuan, norberaren identitatea askoz ere ezkutuagoan geratzen da, «Hac-klab, Bilbo-wireless, Bizkaiko Hacker... taldekoak gara gu» eta antzekoek estalita. Dena den, interesgarri dirudien ezaugarri pertsonaletako bat, izenpetzen duenarekin nolabaite-ko identifikazioa sortzen duten mezuen sinadurak dira, banaketa-zerrendan dautzanak. Ondorengo zerrendan denetik agertzen da: sormen pertsonalak, liburuetako aipamenak, zinegile, filosofo eta, noski, Hacker aintzindari ezagunen erreferentziak:

«Hardwarerik gabe konputagailuko gidaliburua irakurtzea, hardwarerik gabe sexu-gi-daliburua irakurtzea bezain etsigarria da» Arthur C. Clarke-ren 69. legea

«Sortzea, ezezagun dugun hori aurkitzea da beti (...) gure gogoa da iraultza egiten duena» Constant COBRA

«Berez bereiz eta biziz piztu diren kultur irudi pusketak.» (Gernsback-en «Jarraitua») William Gibson

Ondorioz, esan dezakegu euskailu teknologiko berriak artekari dituzten identifikazio formek hainbat kontu dauzkatela beraiekin, hala nola: identitatearen etengabeko aldaketa eta malgutasun handia ez ezik, identitate kolektiboa sortzeko plegu berriak, mutur-mutu-reen, teknologian oinarrituriko proiektu politikoetaraino iristen direnak. Nolanahi ere, kolektibotasunaren azalpen horren euskarria, teknologian biziki espezializatuta dauden ha-maikatxo eragileren sare-kooperazioa da.

5.8. ONDORIOAK

Eginiko azterketatik aterako ditugun ideia orokorretako lehena gazte soziasun berri hauek ardura duten gai eta helburuei dagokie:

- ▶ *Off-line munduan egintzak abiarazi edo laguntzen dituztenak*, hala nola, chat komunitateen kasuan, mobilizazio, topaketa eta «hitzorduen» antolamendua edo, Hackerrei dagokiela, kongresu, mintegi, tailerretan lana banatzea, pankartak edo kamisetak egitea, etc.
- ▶ *Antzeppen kolektiboa agintzen duen euskailu teknikoari dagozkionak*, hala nola teknologiaren azpiegitura, antena parabolikoen instalazioa, gertakariak grabatu eta emititzea edota Interneteko sare paraleloak.
- ▶ *Iritzi eta erabaki politiko, tekniko, ekonomikoekin edo aisialdi eta olgetazkoekin loturarik daukatenak*. Horren adibidea dira kamisetetako hizkeraren gaineko eztabaidak, LSSI-rekiko lege-arazoak, pankartetako gaiak, *Reality Hack*, *Party* eta gainerakoak.

Bigarren iruzkin orokorra: gazte soziasun horietan azaltzen hasiak diren jokamoldeak, adierak eta ezaguerak identifikatu ditugu. Adiera horretan, Hacker topaketetan hitza txandakatzeko modua, Party-etan erabiltzaileen topatzeak, cyber-etan jokoetako gaitasunak eta teknologiazko ezagutza sozializatzeko pleguak ditugu nabarmentzeko alderdiak. Adierazien alorrean, berriz, «komunitate» eta beste hainbat termino birdefinitzea, chat-eko taldeek baliatzen duten hizkera, identifikazio pertsonal eta kolektiboak eta hainbat kontzepturen –Reality Hack, adibidez — sorrera azpimarra ditzakegu.

Dena den, bizikien erakartzen duen eremua, dudarik gabe, –gainerakoak honen baitan bildurik baitaude eta, gainera, honek gazte soziasun horiek berezkotasunez janzten dituelako– azaltzen hasiak diren ezagutzena da. Merkatuari eta politikari paralelo doakion gizartearen irudikaria eta definizioa; erakundeen eta, areago, hedabideen aurrean, pragmatismo eta aurkakotasunik eza; beste gazte-taldeen bizipenen eta jakintzaren birmoldaketa eta, batez ere, informazioaren teknologia berriek trukatzeko-objektu eta, aldi berean, soziasun-espazioen rola betetzen duten testuinguru esanguratsu berri horietan makina bat identitate-erreferentzia ostera nahasteko ahalmena. Ebidentzia berriak, identitate jokoak eta saiakuntza teknologikoa dira Euskadin sortzen ari diren gazte soziasun berrien adierazle.

6

Merkataritza-gunearen

lurraldea: gazteak

agertokian

6.1. GAZTEAK, KONTSUMO-PRAKTIKAK ETA AZALERA HANDIKO MERKATARITZA-GUNEAK

Kontsumo- eta aisialdi-giroak konbinatzen dituzten azalera handien presentzia geroz eta ohikoagoa dugu hiri inguruetan. Horrelako gune erraldoien ugaltzea aspaldi honetan gertatzen ari den ekonomiaren globalizazioari eta kultura eta gizartearen aldaketa prozesuekin loturik dago³⁰. Populazioaren parte handi batek eta egungo gazte askok praktikan jarri dituzten aldakuntza horietako batzuk bestelako kontsumo-jarraibide eta astia bestela erabiltzeko moduak bihurtu dira.

Horregatik gerturatu gara aisialdi eta merkataritza-guneetara, toki horietan garatzen diren gazteen praktika sozialak behatzeko asmoz. Arretagune interesgarriak ditugu aisialdi eta merkataritzako azalera handiak, gazteek aisialdi eta kontsumozko praktika sozialean gehienbat diharduten espazio-denborak diren aldetik, praktika horien bitartez, gazte horiek beren buruen eta gainerakoen identitateak antzeztu eta kontatu egin ditzaketelako. Esparru horietan, gainera, jolas, olgeta eta kontsumozko praktikak ez ezik, sozialtasun hazkorren lagintzat eta espazioak bizitzeko modu berritzaileak har daitezkeen batzuk ere garatu ohi dira.

Guretzat aspektu interesgarriena –merkataritza-guneen espazioaren egituraketa «gramatika sozializat» aztertzea baino areago– espazio horietan gazteek garatzen dituzten praktikak direnez, merkataritza-guneetako espazio-denborak esparru horietan garatutako praktikei ezartzen dizkien baldintzatzaileak eta merkataritza-guneetan gazteek espazioa erabili, antzeztu eta (bir)sortzeko duten moduak tartekatu egiten dira azterketan, ezinbestez.

Merkataritza-gunea osotasun gisa har dezakegu; muga zehatzak dituen esparru itxi horietan jende guztiak oro har eta gazteek bereziki garatzen dituzten era askotako jarduerak –aisialdi eta kontsumozkoak, batez ere– biltzen dira bertan: arropa eta gainerako osagarriak, musika eta aparatu elektronikoak erostea, zinema ikustea, jatetxeetan biltzea, maki-

³⁰ Joan den mendeko zortzigarren hamarkada bukatu arte, *malls* izeneko merkataritza eta aisialdi alorretako kompleksu horiek, Ipar Amerikako hiri handien inguruetan bakarrik zeuden. Hurrengo hamarkadan, berriz, Euskal Herri osoan hedatzen hasi ziren. Aztertutako merkataritza-gunerik aspaldikoena 1994 urtean inauguratu zuten.

netan jokatzera, etc. Honelako kontsumo- eta aisialdi-praktikak bikoteka edo taldeka garatzen dira eskuarki; nekez ikus daitezke gazteak banan-banan, bakarrik, merkataritza-guneetan. Kontsumo- eta aisialdi-praktika horien aspektu bitxia, beraien artean elkartzeko erraztasuna da, jarduera bakoitzaren mugak lausotuta, bata bestearekin nahastekoa, alegia; azalera handietan aisialdia kontsumora zuzendu ohi denez, aisialdia kontsumo bihurtzen da –kontsumituz jolastea: dela makinetan, dela zineman filma ikustean, dela jatetxean zerbait dastatzean– eta, aldi berean, kontsumoa aisialdi gisa praktikatzeko, kontsumoa aisialdi bilakaraziz –kontsumitzea jolasteko, ongi pasatzeko: ezer erostera joan edo nabarmenki amerikarra den shopping³¹ aztura–.

Merkataritza-gunea kontsumo- eta aisialdi-praktika jakin batzuk gauzatzeko helmugaz taxutu, eraiki eta moldaturiko eremua bada ere, oso litekeena da praktika horiek bigarren mailan geratzea gazteek bizi izaniko eskarmentuan. Bestela esateko, nahiz eta espazioak jardueraren zuzendari diren kode eta ikurrez josirik agertzen diren, bertan diren gizakiak dira ikur eta kode horiek interpretatzen dituztenak, adieraz betetzen dituztenak. Horregatik, merkataritza-guneetan gazteek gehienbat kontsumo- eta aisialdi-praktiketan badihardute ere, horrek ez du esan nahi gazte batzuk ez direla horietara hurbiltzen bertan paseotxo bat egin, lasaitu, ligatu eta harremanak zaintzeko bakar-bakarrik, beren praktiketan kontsumoa inola ere tartekatzeke.

Gehienez ere, hori bestelako kontsumoa izan liteke, kontsumo sinboliko edo antzekoa: hori praktikatzeko ez da derrigorrezkoa zerbait jatea, deus erostea, pelikula ikustea; aitzitik, aski da ikuste eta entzute hutsez kontsumitzea: azken joerak, koloreak, moda, musika, hots, sozialtasunaren ikuskaria kontsumitzea, gure garaietako askatasun eta ongizatearen itxura edo simulazioa kontsumitzea.

Egungo gizarteek bere-berea duten (eta kontsumoa ardatz behinena daukaten) adierazpen kultural horiek sakon aztertzen dituzten ikerlanen haritik, merkataritza eta aisialdiko gune handien fenomenoak bataiatzeko unean hamaika izendapen erabili dira, hara: kontsumo tenpluak (Ritzer, 2000), beirazko burbuilak, gotorlekuak (Medina, 1997), mikro-hiriak (Cornejo, 2001), kapsula espazialak (Sarlot, 2001). Gizarte gain-modernoak berezkoa duen tokia izaki, merkataritza-guneetako espazioa interpretatzeko xedez Marc Augé-k proposaturiko metafora espazialari –«ez-lekua»– heltzea ere bidezko iruditzen zaigu oraingoan.

Augéren argudioan ez-lekuak –aireportuak, autopistak, zerbitzu-estazioak, garraiobi-deak, are merkataritza-guneak ere– zentzu-krisiaren ordezkapen espaziala dira baina, aldi berean, bizitza soziala antzetzeko modu berriak posible bihurtzen duten espazioak dira, identitatearen eta bestetasunaren kategoria berriak formaz janztea ahalbidetzen duten espazioak (1998: 44). Lekuak espazio konnotatuak, mugatuak eta, bertan bizi zen jendearen aburuz, zentzu esplizitudunak ziren eta horien potentziala funtzio identifikatzailean, harremanezkoan eta historikoan oinarritzen zen; ez-lekuek, aitzitik, ez daukate horrelako funtziorik eta, areago, horietan identitatea, bestetasuna, harreman sozialak eta antzeko kategoria artikulatzeko mekanismorik ezin aurki genezake. Dena den, kategoriok adierazten dituzten errealitateak –hauen ziurtasun soziologikorik ez bada ere, ez-lekuetan dautzan– bestelako mekanismoetan artikulatzeko lagungarriak dira. Aisialdi eta merkataritzako azalera handietan gertatzen ari denaren azterketa, hortaz, erronka gisa hartu be-

³¹ Ik. adiera horretan, Miller-ek (1998) agerturiko argudioa erosketetara joateaz.

harko genuke; erronka teorikoa, batik bat, modernotasunetik herentzian dakartzagun parametro tradizionalaz (osagarri identitario, afektibo eta harremanezkoak ikertzeko baliatu diren horiez) haratago lihoakeen prozedura betetzea eskatzen baitu.

Ikuspegi horretatik behatu nahi ditugu merkataritza-guneetan gazteek garatzen dituzten praktika sozialak; horiek, gure iritziz, hainbat dimentsio elkarrekin gurutzatzean gorputzen dira, hala nola: egiazkoa eta itxurazkoa elkarrekin gurutzatzean, global dena eta tokiko dela elkarrekin gurutzatzean, indibidual eta kolektiboa elkarrekin gurutzatzean, barneratze eta baztertzeko prozesuak elkarrekin gurutzatzean eta balizko sozialtasunak elkarrekin gurutzatzean.

6.2. ERREALITATEAREN ETA SIMULAZIOAREN ARTEKO GURUTZAKETA

Hainbat aisialdi eta merkataritza-guneren planoetara so eginez konturatuko gara oso espazio estrukturatuak direla, zehazki ordenatu eta antolatutako, bertako bisitariei makina bat aukera (baita, bestetik, makina bat galarazpen ere) eskaintzen dizkietenak. Ikus dituzgun, azaletik bada ere, espazio horien ezaugarri nabarmenetako batzuk.

Merkataritza-guneetako espazioen egiturak pertsona eta objektuen zirkulazioa errazteko joera agertzen dute, badirudi merkataritza-guneetan «egotearen» funtsezko bereizgarriak mugimendua eta zirkulazioa direla: jendea bertan mugitzen ari da, ibilbideak eratuz, handik hona ibiliz, eskailera mekanikoetan gora eta behera...

Espazio deigarri edo nabarmenetako bat elipse erako galeria da, inondik ere, bertatik igarotzen da jende gehien. Nolabait esateko, ibilarazten dizun espazioa da hori: elipse formak ez dauka berriketan gelditzeko (eta, era horretan, etengabeko trantsitua eragozteko) zokorik, izkinarik, bazterrik... Galeria oso egitura zentratua da, bere buruari begira dagoena eta kanpoko ezerekin erlaziorik ez daukana. Bere bururantz inklinatua dago, ibilbide-mota bakar bat hertsatuz: zirkulazioa behartu eta bideratu egiten du. Eliptikoa izan eta bere erdialdean hiru solairuek bat egiten dutenez, amaigabeko ibilera horretan jendeak bere buruari so egin diezaion aukera ematen du espazio horrek (CC03)

Bai, zeinahi motatako leku edo geltoki sortzearen aurkako zen, benetan. Egiari zor, esertzeko tokiak gutxi-gutxi ziren eta horietako batzuk bidezko ere, ez ziren bidezko (CC03)

Behin eta berriro leku berean bueltaka genbiltzala zirudien, baina hura ere ez zegoen oso argi: hor izana ez bazara ere, «hemendik pasea nago» efektua da hori, biribilean ibiliz inor galduko ez den sentsazioa, toki horretara itzuliko zaren itxaropen sekretua. Ibilbidea biziki itxia denez, joan dena etorri egingo da, egote mugikor baten antzekoa zen hura, alegia (CC03)

Aisialdi eta merkataritza-guneetako espazioak zeharkatzean, egiazko eta simulaziozko materialekin egituratutako eszenografia topatzen da. Merkataritza eta aisialdiko gune horiek gazteen artean ez ezik, populazio orokorrean biltzen duten arrakasta eta sonaren eragile, hein handi batean, bertara bildutakoengan era askotako sentsazioak pizten dituzten kolore, soinu eta aniztasunen oldea da:

Hainbat telebista pantailatan kirola ikus daiteke noiznahi; bestetik, jardunaldi osoan era askotako musika entzuteko aukera (CC01)

Ikusmenak ere estimulu ugari ditu. Espazioa handi-handia ez ezik, oso koloretsua da eta horren guztiaren lagungarri eraginkorra giroko musika da, musika geza eta unean uneko top arrunta, merkataritza-gunea osoa girotzen duena (CCO3)

Ohiko kontua da merkataritza-guneen azterketak eta espazio urbanoenak berdintsuak izatea³². Merkataritza-guneetan espazio urbanoak erreproduzitzeak baditu erreferentzia argiak, hala nola zehar-kale nagusiak, bigarren mailakoak, espazio zentralak (plazak, pasabideen arteko arbolatxoak, aulki publikoak, etc.)... Merkataritza-gunea simulazio bezala, hirietako osagarri nagusiak identifikatzeko moduko eskala txikiko erreproduzio arkitektoniko gisa antzeztea ere ohiko kontua da.

Bai osaketa estrukturala, bai espazioen eta ibilbideen erabilera ere, hirietan egiten diren tankerakoak izan daitezke. Merkataritza-guneetan praktika urbanoak erreproduzitzen direla esaten da, hala nola, hitzordua bidegurutzean/plazan jartzea, galerietan/kaleetan barrena paseatzea, etc. Areago, merkataritza-guneen ugalpena ikusirik, hirietako topaleku tradizionalen (plazak, kaleak, auzategiak) ordez aisialdi eta merkataritza-guneen espazio itxietako elementu horiek agertzen ari direla pentsatzen du batek baino gehiagok:

Eraikin honek, «topaleku» gisako (eta, gainera, horrela bataiaturiko) den erdi-erdialdeko toki horretan artapen eta informazio zerbitzua eskaintzen dio bezeroari. Lehen solairuan, erdialde osoan zehar, aulkiak eta hainbat eratako eserlekuak, landare natural eta artifizialak daude (CCO1)

Bi plaza ziren bertan: bata «Gurutzeta» (bidegurutzean baitzetzan) eta bestea «Alaia» (aisialdi zonatik gertu izatearren, agian, poztasun hori (CCO3)

Baina hiriarekiko paralelotasun horretan aldeak ere aurkituko ditugu, hala nola, kalea eta kontsumo-espazioaren (taberna, arropa denda, etab.) arteko hesiak, merkataritza-guneen espazio «edukitzailean» askozaz ere lausoagoak. Merkataritza-guneetako denda eta saltoki gehienek ate zabal-zabalak dauzkate, bertatik konturatzeke pasatzeko modukoak; jatetxeek, esate baterako, mahaiak pasabideetan jarri dituzte, establezimenduaren barrualdea/kanpoaldea trebeki ezkutatuz. Merkataritza-guneetako espazio askea erabilera publikokoa, kolektibokoa da, baina horien jabetza, zaintza eta mantenua pribatuak dira; horrek, herriko kalearen aldean, alde handia adierazten du:

Bigarren solairuan, aldameneko eraikinarekiko loturako tokian, jolastokiak, joko aretoak, bolatokia eta hainbat jatetxe ditugu. Solairuetan zehar antolatutako daude toki horiek, zuzeneko sarbideez hornituta, eta mahai-aulkidun kanpo-espazioetan hedatzen dira. Alderdi horretan ez dago eserleku publikorik eta espazioko apaindura tokien apaingarriek osatzen dute (CCO2)

Horrek toki zabal eta irekiaren sentsazioa komunikatzen zuen, nonahi zirkulatu eta nonahi sartu omen zitekeen (CCO3)

Espazio itxi bakar batean jarduera ugari garatzeko eskaintzari esker, arriskurik gabe hainbat hautu egiteko aukera ematen zaio bezeroari. Merkataritza-guneek, izan ere, «espazio seguru» gisa agertzen dira –baita eguraldi kaskarraren ondorioetatik libre ere–, ho-

³² Merkataritza-guneak eta espazio urbanoen arteko paralelotasunak zehazten ahalegindu dira antropologia eta soziologia urbanoko azterlanak. Bai espazio horien aspekturik materialenetatik, bai sinbolikoenetatik –jabetze sinbolikoko praktika kulturaletan eta antzeppen identitarioen eraketan fokalizatuak– ere, azterlan horiek hirietako mekanismo sozialak merkataritza-guneetan erreproduzitzearen aspektuetan dihardute.

rietan deus ez da amenazo, ezer ez da arriskutsu. Eginkizun hori betetzeko segurtasun neurriak (zaindariak, kamerak, alarmak eta beste asko) merkataritza-gunearen estrukturan integratuak daude, osotasun horren ezinbesteko osagarritzat, eta inortxo ere ez da konturatzen elementuak hor direnik.

6.3. GLOBALAREN ETA GLOKALTASUNAREN ARTEKO GURUTZAKETA

Gazteak merkataritza-gunera buelta bat egin, tarte bat pasa eta antzekoetara joan ohi dira. Ez da zertan objektuak edo ondasunak erosi; sakelan eurorik izateke ere badago galerietan barrena ibili, adiskideekin tartetxo bat izan, joera berrietara erreparatu, arropa eta osagarriak probatu, eskaintza edo sustapeneko produktuak dastatu... Kontsumo materialik egitea ez da nahitaezkoa.

Nolanahi ere, merkataritza-gune batean printzipioz behintzat kontsumoarekin zerikusirik ez daukan zerbait (ostera bat egitera joatea, esate baterako) espazio horrek osagarri dituen zatiak integratzen dituen kontsumo sinbolikoko eragiketa bihurtzen da (García Cancellini, 1995: 113). Kontsumo sinboliko horren erreferentzia kontsumo sozialtasunaren ikuskaria da, sozialtasuna ikuskari gisa antzetzua, bertan ere –bertako erakusleioetan ez ezik, gunearen eta bertatik dabilen jendearen forma eta estetikan ere– egun-egungo moda joerak, azken berrikuntza teknologikoak, azken top musikalak, joko elektroniko berrienak etab. islatzen direlarik; aldi berean, eguneroko bizimoduan arrunt ditugun produktu eta ondasunekin nahasten dira antzoki horretan.

Aisialdi eta merkataritza-guneetan gauzatzen den kontsumo material zein sinbolikoa globalizazioaren logiken arabera garatzen dira. Gazteek, adibidez, objektuen eta ikur globalen kontsumoak geroz eta maizago zeharkatzen dituen eskarmentuak bizi dituzte. Objektuen eta ikurren kontsumo globalizatuak gazteen gorputz-irudien moldaketa biziki baldintzatzen du. Horrelaxe gertatzen da oraingo fenomeno global nagusi batekin, modarekin (Lipovetsky, 2000) alegia. Modari esker gazte askok bilatu du bere nortasuna moldatzeko erreferentziarik, adierazle horien bereizgarriak ezagunak izaki: prekarioak dira, hauskor eta aldakorak, baina, esporadiko eta efimeroak izanagatik, beren eta gainerakoen identitateak hauteman eta kontatzeko baliagarri gertatzen zaizkie. Merkataritza-guneen espazioan modako joerak kontsumitzea, gazteen artean, beraiekin, beraien estilora janzten direnekin, denda berberetara doazenekin, beraiek bezala –jatean, edatean, mirestean– gozatzen dutenekin identifikatzeko elementu nagusietako bat bihurtu da; aldi berean, noski, besteengandik, bestelako zaletasunak dituztenengandik, bestelako janzkera daramatenengandik, gozatzeko bestelako bideak hautatu dituzten horiengandik bereizteko elementu.

Gogoan izan dezagun, globalizazio-prozesu ekonomiko eta kultural zabalagoetatik datozen objektu eta ikurretan oin harturik, bizipen eta eskarmentuak eraikitze joerak ez duela agintzen tokian tokiko erreferentziak suntsitzea. Gure kasuan, adibidez, tokikoa («euskalduna» edo «euskal herritarra», alegia) merkataritza-guneen espazioetan agertzen da eta globalizazio-prozesuen ezaugarri nabarmenenekin nahasi egiten da: espazio berberean har dezakegu sagardoa Itzea Sagardotegian (estilo tradizionalako sagardotegia) lehen-dabizi eta hanburgesa bat, berehala, Mc Donald's tabernan edo, nahiago badugu, euskal sukaldaritzako plater tipiko bat Garriko Tabernan (bertako jatetxeen itxurako bat). Edo urtebetetzea Burger King-en ospatu ostean, parranda pixka bat egin daiteke Boulevard Sa-

gardotegian. Adiera horretantxe, hainbat toki izendatzeko (plazak: Gurutzeta, Alaia) edo produktu eta zerbitzu jakin zenbait eskaintzeko euskara baliatzeak ez du, ikusi batera, inongo liskarrik sortarazten espainiera edo ingelesarekin egokitzean.



Buruz behera ezarritako sagarraren itxura daukan eraikin horren azkeneko solairuan dago merkataritza-guneko sagardotegia.

Horrelako espazioetan, global dena eta tokiko dena konplexuki nahastea sustatzen dela ikusten dugu, globalaren eta tokikoaren arteko hibridazio-prozesuak etengabe teila-katuz eta bi unibertsoen agerpen eta erabilerak hutsalduz –edo, gutxienez, galbideratuz–. Horixe da, izan, azalera handi horien estilo arkitektonikoarekin gertatzen dena: ezaugarri behinena eklektizismoa izaki, printzipioz dibergente diren ikono, irudi eta formak (ikusi batera, inongo koherentziarik gabe) elkartzeko gauza da. Denboraren eta historiaren zentzua desagertzeko balio duen deskontestualizatzeko ariketa bati esker, tradiziozkoa eta modernoa, globala eta tokikoa, herritarra eta elitista sintonian agertzen zaizkigu (Medina, 1997). Aurreko argazkian, merkataritza-gune baten kanpoaldetik, sagardotegiak betetzen duen espazioa ikus dezakegu: eraikinaren atal hori sagardotegien ikono tradizional den sagar gisa agerrarazi dute baina, hori bai, estilo arkitektoniko abangoardistenek bere-bereak dituzten formatara egokituta.

6.4. NORBANAKOAREN ETA TALDEAREN ARTEKO GURUTZAKETA

Merkataritza-gune bat bisitatzea espazio publiko edo erdi-publiko, belaunaldi-arteko, jendez beteriko –asteburu eta jaiegunean, batik bat– batean sartzea da; bertan, pribatua edo espazio kutuna erdiesteak ezin eskuratuzko erronka dirudi.

Kontsumo-praktikak, berriz, indibidualtasunari berez dagozkion egintzak bilakatzen dira: horietan islatzen dira norberaren zaletasun eta gustuak, kontsumitzaile bihurtzen duen behin-behineko nortasuna garatzen du norberak. Indibidualtasun horren laguntzaile eraginkorra jendetza artean bizi ohi den –nolabaiteko– anonimatu sententzia da: berdin dio nor zaren, kontsumo-olde horretan zeure izena ezagutaraztea ez da beharrezkoa.

Anonimo jarduteko toki aproposa da. Goizean, esate baterako, banandu egiten gara, bakoitza bere kasa doa, eta goiz osoan bitan baizik ez gara topatuko. Bai, ene ustez anonimatua aise lortzen da merkataritza-gunean (CCO3)



Umeentzako jolastoki mugatua.

Merkataritza-gunean izatea arrotz-pilaketa da, ordea, ezagun ez ditugun beste horiekin –jabetuta ez bagaude ere, bestetasuna gurekin partekatzen duten horiek– espazio-denbora partekatu behar izatea. Merkataritza-guneen espazioan indibiduala eta kolektiboa Augék kontraktualtasun solidario (1998: 98) deritzon horretan elkartuko lirateke. Besteen aldamenean, arauak, espazioak eta ibilbideak partekatzen ditugun horien alboan bakarrik sentitzea zer den adieraziko luke. Merkataritza-guneetara hurbiltzen diren gazteak espazio jakinetan –gurutze-guneetan, zinemako sarreran, joko-aretoko izkinan...– elkartzen dira eta une horretan dauden espazioaren mugek ezarritako baldintzen pean garatzen dituzte beren txango eta praktikak –arropa ikustea, hanburgesa jatea, bola partida jokatzeta, etab.– baina, muga horiei esker, kolektibotasunean beren indibidualtasuna eta beren izari indibidualetan kolektibotasuna adierazteko aukera daukate:

Niri, behintzat, iruditu zait gazteak bakan-bakan zebiltzala eta, era berean, argi eta garbi zekitela nora jo. Bi talderen atzetik joan naiz eta, izan ere, merkataritza-gunean sartu aurretik ere aurreikusia zuten tokian sartu dira, ez beste inon, tokian nagusi den norabiderik gabeko zirkulazio horrek taldekideak eramateko adinako indarrak ez balu bezala (CCO3)

6.5. INKLUSIO ETA ESKLUSIO PROZESUEN ARTEKO GURUTZAKETA

Printzipioz, behintzat, merkataritza-gune batetik bestera ez omen dago alde handiegirik, denak berdintsuak dira, bertan uniformetasuna diferentziaren gainetik nagusitzen da eta kontsumo-kanonak patroi homogeen arabera gorpuzten dira. Hiri inguruneetan kokuak daude, antolamenduak berdintsu dira denetan, marka ezagun-ezagunen frankizia

eta komertzioen presentzia nabarmentzen da, estetika berdin-berdina da ia denetan... Merkataritza-gune bat bestetik bereiztea bidera dezaken arrastorik ez omen legoke baina... badira, bai, eta jendeak halakotzat jotzen ditu arrasto horiek, are berak erreproduzitzen ere.

Gune horien kokapena, inguruneak, beren eskaintza komertziala, beren publizitate-irudia, besteak beste, merkataritza-gune batzuk besteetatik bereizten dituzten nortasun-markak dira. Esate baterako, hiri inguruneetako alderdi batean edo bestean kokatzea –Nerbioi ezker aldean edo eskuinaldean, Bilbori dagokionez–, klase ertaineko, ertain-apaleko, ertain-garaiko edo apaleko populaziotik gertu, bertara garraiobide publiko ugari edo urri iristen direlarik, etc.

Bai merkataritza-guneen artean, bai bertan dauden komertzioen artean ere (jatetxeetako OPI zonak) kontsumitzaileari exijitzen zaion eskuramenak adierazten dituen aldeak nabarmentzen dira. Horien barrualdean, gizarte-segmentuen arteko estatus sozialaren araberako bazterketa eta bereizketak agerrarazten dituzten prozesu zoli-zoliak garatzen dira. Gauzak horrela, kontsumoa erritu gisa har daiteke, itxitura sozialak iraunarazteko ariketa bezala, hainbat faktore sozial betearazten dituelako, hala nola eskusibitatea, dotorezia eta gustu ona: zeinahi prozesu sozialetan eragiten duen kapital sinbolikoaren karga faktore horien bitartez maneiatzen da (Bourdieu, 1998). Ikusi dugun legez, merkataritza-guneen barrualdetan ezartzen diren hesi edo itxiturak, fisiko hutsak ez ezik, sinbolikoak ere badira, erabiltzaileek adierazten duten bezala: «Artea Max Center baino zakilagoa da» (CCE2), edo «Arteak beste zerbait eskaintzen dizu, bestelako estiloa da» (CCE1).

Hala eta guztiz, merkataritza-gunearen espazioak alde hori «neutralizatu» egiten omen du edo, bestela esateko, ezkutuan gorde nahi ei du, ateak gazte guztiei zabalduz. Merkataritza-gunera doan bisitariaren «berdintasunezko» bizipenak kontsumoaren ustezko demokratizazioak bazterketa sortarazten duten mekanismoak orekatzen dituzte. Aztertutako guneetako baten publizitatezko esakune batek honela dio: «Zaletasun guztiak, premia guztiak, begirada guztiak sartzen dira Artean».

Bereizketa eta bazterketa soziala sortarazten duten mekanismoak –kontsumitzeko ahalmenik ez edukitzea, esparrura sartzen ukatzea, ikusten ez omen den etengabeko zaintza– lasai edo lausoago bihurtzen badira ere, baztertze-mekanismo gisa funtzionatzen segitzen dute.

6.6. SOZIALITATEEN ARTEKO GURUTZAKETA

Azaldu dugun bezala, merkataritza-guneen espazioak aisialdi- eta kontsumo-praktikak eratzen ditu bereziki, baina, horrekin batera, lehenagotik ezarritako harreman sozial batzuk erraztu eta legitimatzen ditu, merkataritza-gunearen funtzionamendua eragozten ez duten neurrian. Harreman sozial horiek espazio jakin batean izatetik, elkarrekin izatetik sortu ohi dira³³. Merkataritza-gunean izatea, erosketak egin, begira, tartetxo bat egin, kalerik kale, ezertxo ere egin gabe... horrek guztiak, gazteek beren antzekoekin eta beste-lakoekin behin-behineko konexio eta deskonexioak ezartzeko moduko ibilbide eta tokiak

³³ Gogoan izan, sozialtasunaren eredu iragangaitza azaltzean, «elkarrekin izatea» nola definitu dugun (Cf., adiera horretan, 2. Kap. «Kokatutako» koadrila: identitatea, gazteriaren egitekoa).

ditu osagai. Adiera horretan, ligatzea (neska-mutilez osaturiko taldeen arteko harreman gozagarriak) ohiko jarduera da:

Jolastokian billarren zer hura ere bazen: gazteak alde batetik bestera tokia zeharkatuz eta neskak hantxe ligaketan, bolatokian ez bezala. Bolatokian neskak alde batetik eta mutilak bestetik zebiltzan, biak bereiz. Billarretan, aldiz, ligaketa tipikoan ziharduten denek, mutila artxo-artxo eginik, bera baitabil jokoan, eta neska begira: ene us-tez bazegoen batzuk eta besteen arteko jolas antzekoa. Espazio hura bazterrera gozagoen, ezkutuagoan, erdialdeko ikusgarritasun hartatik babestuta edo (CCO1)

Merkataritza-guneen espazioa arrotz eta ezagunekiko harremanen, espontaneo hutsak ohi diren elkarbizitzarako praktiken edukiontzi gisa agertzen zaigu. Horregatik agian, merkataritza-guneen espazioan egokitzen diren sozialtasunen dimentsioak nekez hautesman daitezke. Horri beste zerbait erantsi behar zaio, hots, horrelako sozialtasunak ez dira bideratzen egonkortasuna eta iraunkortasuna bereizgarri dituzten mekanismoei esker. Anonimatua eta despertsonalizazioa dira, seguruenik, merkataritza-guneen espazioetan gazteek praktikatzan dituzten sozialtasunen dimentsio argi-emaelek; dimentsio horiek, aldi berean, bestelako espazioetan bideragarri edo posible nekez izan daitezkeen identitateen adierazpenen ahaltsun-baldintza bihurtzen dira.

6.7. ONDORIOAK

Orrialdeotan eginiko azterketaren xedea, merkataritza-guneen espazioetan gazteen arteko harremanen eta kontsumo- eta aisialdi-praktiken inguruko ideia batzuk sistematizatzea izan da.

Lehen-lehenik, ikerketan aurkitu ditugun plano analitikoaren teilakapenaren berri gaztigitu dugu: 1) gazteen bizipenetan artekari lanetan diharduen mekanismo den aldetik, espazioaz mintzo zaiguna; 2) espazioan bizitzeko formak erreproduzitu eta aldi berean us-telarazten dituen gazteen praktikez mintzo zaiguna, eta 3) beste biak zeharkatzen dituen planoan, identitate-jokoez mintzo zaiguna, alegia.

Merkataritza-guneak gazteek nola erabiltzen dituzten eta bertan nolako bizipenak dituzten adierazi dizkigun azterketa, kontsumoak dituen dimentsiorik nabarmenenetako biren –merkataritzazkoa eta sinbolikoa– artean kulunka dabil beti. Geure ikuspegitik, gazteen praktikan bi dimentsio horien presentzia agertzen saiatu gara, gazteen bizipenak horietara bakarrik ez murrizten ahaleginduz.

Merkataritza-gune batean *izatea* bizipen bihurtzeko bestelako formak jorratu nahian, espazio horiek gazteak biltzeko eta topatzeko toki erdi-publiko eta, batez ere, elkarrekin izateko modu berri gisa ikus ditzakegu. Hasieran, bederen, *elkarrekin izate* horrek erabat elkarren kontra dauden (baina merkataritza-guneen espazio horietan bata bestearekin inolako aurkakotasunik gabe nahasten diren) bi fenomenoren artean fluktuatzen du: batetik, *anonimatua eta despertsonalizazioa*; bestetik, *aintzatespena eta afektibitatea*.

Merkataritza-guneetan gazte jendeak nozitzen duen anonimatu sententzia nabarmena da eta –gazteek ez ezik, adin guztietako pertsonen osaturiko– jende-olde horretan begiratuak izateko sententziorik nozitzeke gauzak egiteko aukera ematen du. Izen batez, toki batez, historia batez identifikatu beharrik ez izateak besteekiko, arrotzekiko, gure inguru-

ko ezezagunekiko arazorik gabeko konexioak egitea ahalbidetu ez ezik, erraztu ere egiten du. Konexio pragmatiko hutsak dira horiek merkataritza-guneen espazio batean egokitzean gorpuzten direnak.

Beste aldetik baina aldi berean, hainbat gazte-taldek beraien artean homogeneousan hautespatearen ondorioz oso litekeena da askoz ere konexio sendoagoak finkatzea. Gazten artean gertatzen diren maiztasun, elkarreragin eta trukatzeko, zenbaitetan, elkarren aintzatespenezko dimentsioak hartzen dituzte. Gazteek beren parekoak halakotzat hartu eta besteetatik, bestelakoetatik, bereizten dituzte. Espazioak bizitzeko formen, zailtasunen, antzeturiko identitateen eta beste hainbat elementuren bitartez eskuratutako aintzatespena da hori eta bertan afektibitateak aldatuz doazen mekanismoetan euskarriturik dihardu lanean.

Merkataritza-guneen espazioa, aurretiaz determinaturiko bestelako praktikak hautespatean diren unetik aurrera ez da espazio jakin bat: espazio izan ordez *lurralde* izan daiteke (*lekua*, Augéren terminologian), hau da, sozialki eraturiko espazioa, instrumentalki eta sinbolikoki jabetzeko moduko espazioa. Lurralde gisa eratzeko horrek, identitateak, identitate sendoak, are komunitateak ere sortzeko euskarri izateko balio duela esan nahi du. Oraingoan, ordea, hori ez da guk behaturiko gazteen kasua. Merkataritza-guneetara biltzen diren gazteetan eraikuntza-plegu identitarioak hautespatean ahal izan ditugun arren, horiek ez dira erakuntza sendoen arabera osatu. *Identitatea kontatu eta atzemateko modu* esporadiko eta efimeroak dira, beren erreferentzia kontsumoa edota moda direlako; unean unera-ko identitateak dira, prekarioak beraz.

Merkataritza-guneetan gertatzen dena hautespateko unean eta espazio horietan gazteek garatzen dituzten praktika sozialak aztertzeke garaian topatu dugun eragozpenik larriena, seguru aski, izen egokia jartzea da. Horregatik, beharrezkoa deritzogu gazte askorentzat eguneroko bihurtu diren praktika horiez eta izen emanak gauden simulazioez hausnarketa egiteko ahalbideak taxutzeari. Hausnarketa edo gogoeta horri esker, sozialtasun-plegu berriak, elkarrekin izateko, elkar eragiteko eta gauzak trukatzeko forma berriak ezagutu ahal izango ditugu.



7

Azken irizpenak

Ikerketari amaiera eman aurretik, azterlan honetan arakatutako mundu sozial horien zeharkako irakurketa bati jarraiki eta, era berean, irakurketa horren gainean ikerlari taldeak eginiko gogoetatik atera ditugun hainbat irizpen azaldu nahi genituzke.

Irizpen bataiatu ditugu, karga gutxiko ondorioak baitira, berez, ikerketa honen izaera hastapenetik zabal-zabala izan baita. Eta normala da gauzak horrela izatea, bizitzea garai honetantxe egokitu zaigula gogoan izaki. Autore batzuek *aro globala* deritzogu horri, oraino gizarte globalaz aritzea ez baita bidezko, soziologiak gizarte terminoa karakterizatu duen adieran. Gure egunetako errealitate sozial osoa –ezta bertako esfera eta alderdi guztiak ere– ez dago erabat jarduera-eskala globala duen logika bakarraren menpean. Aitzitik, ordea, tokian tokiko, estatuan estatuko eta tankerako logikek bizirik dira eta, gainera, horietako asko modernoak dira oraino, izaeraz. Aldi berean, logika moderno batzuk eskalaz eta zentzuz aldatu egin dira, tokian tokiko, estatuan estatuko eta tankerako interesen mesedetarakoak ez diren globalizazioaren aspektu batzuetatik beren burua babesteko. Nola ulertu, bestela, Europar Batasunak hirugarrengo herrialdeen aurka garatzen duen protekzionismoaren aurrean Hegoalde izeneko horretako herrialde askok jaurti duten kexua? Ez ote dira estatuez gainera batasun politiko ekonomiko horiek barne-merkataritza askeko zonak, kanpoaldeko mutur-sartzeetatik babestuak? Ez ote dute, areago, barnealdeko nekazaritza diruz laguntzea nahiago produktuak merkeago inportatzea baino? Ez ote da hori antzinako estatu-politiken kopia kaskarra? Egia da gainean aldaketa soziala daukagula baina horrek ez du esan nahi, inondik ere, aldaketa egina dagoenik.

Barnealdeari –Tillyren arabera, XVII. mendeaz geroztik, estatuz barruko homogeneizatze kultural geroz eta larriagoa eta estatuen arteko heterogeneizatze geroz eta latzagoa nozituko zituzten europar gizarte totalen barnealdean, alegia– dagokionez, ordena sozialean antzeko fenomenoak gertatzen ari dira. XX. mendearen azken laurdenean estatuz barruko homogeneizatze kulturalaren legea aldatu egin zen: ordurako inmigranteen hinkihankarik gabeko asimilazio kulturala politikoki zuzena ez zenez, gure gizarteetan kultura-aniztasunaren kontua agertu zen. Horrekin batera, ordea, krisialdi politiko-kultural horren sortzaile zen arazo berberak –petrolioaren garestitzearen ondoriozko krisialdi ekonomikoa, hain zuzen– lan-merkatuan nagusi zen ezaugarri hura krisian edo auzitan jarri zuen, soziologok *mugikortasun sozial subjektibo* bataiatu dugun hori, alegia. Gizarte sektore zigorren edo kaltetueneren (gazteak, emakumeak, luzaro langabetuak eta, jakina, nazioartetik etorritako inmigranteak) lanean hasteko aukerak geroz eta urriago direla ikusi dute. Ikuspegi objektibotik, abagune ekonomikotik haraindi, krisi endemikoa dela esan dezake-

gu, nolabait; horrek, gure iritziz, lanaren eta lanbidearen aurrean gazteek hartzen dituzten jarreretan sekulako eragina izan duenez, horien bizitzetan lanak eta lanbideak orain dituzten esanahiak ez dira lehenagokoak.

Beste aldetik, etxera etorrira, europar testuinguru sozialak bere-bereak dituen moderotasunaren hainbat aspektu, bizitzaren sekularizazioa eta askatasun sexuala euskal gizarteari beranduago –baina, horregatik, larriago, agian– iritsi zaizkio.

Amaitzeko, esan dezagun euskal gizarteak, belaunaldi berrien eskutik, kontzientzia politikoaren desdramatizazio prozesu azkarra nozitu duela; gazteek, izan ere, frankismoa bizi izaniko historia izatetik, kontaturiko edo objektibaturiko historia bilakatu denean erakutsi dute gauza publikoaren aldeko interesa, hau da, politikaren desdramatizazio eta urruntasun handiagoz, batetik, eta inplikazio pertsonal gutxiagoz, bestetik. Gogoan izan dezagun, gainera, belaunaldi horiek politikako frontoian sartu direnerako erakundeen garapen azkarra martxan jarria zegoela. Horregatik, euskalduntasunaren dimentsio sinboliko eta kulturala babestua daukate eta, gainera, ziurtzat emanda bezala bizitzen dute. Laburbilduz, euskalduntasunaren eta politikaren arteko loturak dagoeneko ez dira unibokoak. Ikusi bezala, euskal gazteek bizi dituzten egokiera asko eta asko ezin uler litezke euskalduntasuna ebidentzia sozial gisa, ondo bermaturik dagoen zerbaite bezala, bizi izateke.

7.1. IGAROTZEALDIA LUZATZEA ETA DESINSTITUZIONALIZATZEA

Gaztarotik helduarora igarotzeak gure gizartean des-erakundetze prozesua nozitu du aspaldi honetan:

- ▮ Eskola-ibilbideak biderkatu eta luzatu egin dira eta, gainera, orain ez dira elkarren artean lehenago bezain konparagarriak, elkarrengandik urrundu egin dira eta; gazteen eskola-ibilbidean zenbat eta gorago egin, hainbat eta adarkatuagorik kausituko dugu panorama.
- ▮ Lan-ibilbideak ere adarkatuago dira orain eta, sarritan, eskola-ibilbideekin tartekatutak daude. Ikasle izatetik langile izaterainoko tarte hori, maiz, luzeegi da baina ez oso aratza.
- ▮ Beste horrenbeste gertatzen da jatorriko familiarekiko emantzipazioarekin eta familia estatus independente, argi eta finkatua erdiestearekin.

Horren guztiaren ondorioz, egokiera paradoxikoa bizi dugu orain: integrazio sozial eta helduarorako igarotzeko mekanismo nagusiek ez dute eraginik baina, halaz ere, gizartean nagusi den diskurtsoa ez da funtsez aldatu. Diskurtso heldua –gizartean nagusi den diskurtsoa, alegia– profesional bilakatzearena da: gazteriaren helmuga lanbidean aritzeko prestatzea da; hori erdietsitakoan, familia independentea osatzea.

Gazteriaren parte handi batek hortik segitzea hautatu badu ere, beste parte batek instituzionalizatzeko horrekiko autonomo bihurtu du bere burua, premiak hala aginduta, hein handi batez. Sozialki heldutzat hartua izateko diskurtso nagusiak proposatzen dituen baldintza guztiak betetzea ez da kontu erraza jende askorentzat. Estatu espainiarreko gazteek Europan, independentzi gradua neurtzeko hautatu diren lau adierazleei (gurasoena ez den etxea, bikote-bizitza, finantza autonomia eta enplegu egonkorra) dagokienez, hartu

du ten posizio (erlatibo) kaskarra ikusiak gaude. Gogoan izan dezagun, beste aldetik, beren funtsezko kezketan –lana eta etxebizitza– euskal autonomi erkidegoko gazteek eta gainerakoek ezartzen duten alde nabarmena.

Helduarora igarotzeak berezkoa duen instituzionalizatzeko problematikoarekiko autonomizazio erlatibo hori eta jatorriko familiarekiko autonomizazio gradu eskasa arras agerpen desberdinak dira. Horrek guztiak eragin du, alde batetik, hamaika egoera berezi gertatzea eta, bestetik, gaztaroaren luzapena baino areago, des-erakundetze prozesuaren ondorioz, igarotzearen luzapena dela baieztatzea. Bizi zikloaren parte horrek ez du izenik, ez dago erritualki finkaturik eta, sakonean, hedatua dagoen arren, anomikoa da.

7.2. GAZTERIAREN ZATIKETA

Aro batetik besterako igarotze horren des-erakundetzea famili eta lan-egoera egonkorrrak lortzeari dagokionean gardentasun gabeziatik eta bata eta bestea behar bezala ez uztartzetik dator. Hori dena, bere jatorritik independizatzen den eta berdinen arteko sozialtasuna lehenesten den bizi-zikloko garaian gertatzen zaio pertsonari. Energia sozial horri bera bideratzeko ezgaitasun instituzionalari erantzen bazaio, ondorioa erraz ateratzen da: gazteen egoera sozialen kopurua biderkatu egingo da. Ahulezia instituzional horren erantzuna bilatzeko eta sortzeko gaitasun handiagoa izaten denez, gazteriaren zatikatze ize-neko fenomeno gertatzen da. Horrekin ez dugu adierazi nahi gazte izateko zenbat forma dauden edo forma horiek beraien artean elkargarri diren ere. Arazoa zoliago eta helmen luzeagokoa da: gazte askoren iritziz, gazte izateko modu horiek ez dira txalagarriak eta, askotan, nork bere proiektua diseinatu behar izaten du, imitatzeko aurrerakinik izan ezean.

7.3. ERASOA OINARRIZKO ZENBAIT KULTURA-DIKOTOMIARI

Erakunde sozial batek jokamolde sozialak bideratzeko gaitasuna galtzen hasia dagoela ikusten duenean, orain arte bermatu dituen balizko kasu sozial guzti-guztiak auzitan ipin daitezke. Horiek erdietsitako «naturaltasuna», adibidez, hautsi egin daiteke. Horixe da, inondik ere, euskaldun gazte askoren kasua: horien bizi proiektuan hainbat dikotomiarekiko haustura-saiakera ez ezik, lanaren eta lanbidearen egungo unibertso kulturalarekiko bereizketa ere gertatu da. Definizio jakin bat, definizio nagusiaren alternatiba bihurtu daiteke, behar bezainbesteko hedapen eta onarpena erdietsiz gero. Era horretan, bistako definizioa menpeko definizio bilakatuko da. Horrelaxe gertatu zaie hurrengo dikotomieiei:

- ▮ *Izatea - egitea*. Koadrolari eta merkataritza-guneei eskainitako kapituluetan identitatearen dimentsio interesgarri bat jorratu dugu: zenbaitetan, identitatea –persona definitzen duena– izatea baino areago egitea da. Identitate iragankor deritzoguna da, izatea iragangaitza delarik. Galdera hitzetik hortzera datorkigu: des-erakundetze larriko gorabeheretan, izatea iristeko baliabide sozialak eraginkor ez gertatzearen, ezarritakoa edo agindutakoa izatera iristea zaila baldin bada, ez ote da izango, bizi ahal izateko berritzen saiatzen denak bere identitatea proiektu terminoetan pentsatu behar izatearen ondorio, horren egitea ez baita agertzen ezarritako identitate sozial jakin batean?
- ▮ *Lana - aisialdia*. Landa-laneko parte adierazgarri batean, lana/aisialdia, lana/zaletasuna, lana/laguna dikotomia hausteko, lanaren agerpen menperatzaileak daukan kar-

ga-izaera, ahal den heinean, hausteko desira nabarmena hauteman dugu. Horretarako, lana adiskideekin, zaletasunekin eta gainerakoekin lotzen ahalegintzen dira, gazte batzuek, saiakuntza gisa, establezimendua antolatu edo negozio bati ekitera ere iritsita. Baina bizi-proiektu bezala ere.

- ▶ *Lanbidea – guztien ongia.* Adiera paraleloan, lana eta denen ongizaterako kolaborazioaren artean hausteko aukera ipinarazten duten kasuak ere ekar ditzakegu hona. Auzitan jartze hori, lana dimentsio bokazionala galduz doan heinean agertzen ari da. Kontu honek zerbitzu-elkarte izenekoetan boluntario-lanetan diharduten ikasle eta profesionalen baitan berebiziko garrantzia badu ere, ez da ariketa hutsala ikuspegi horretatik gizarte-mugimenduetan aktibistek, ondasuneko langileek eta hacktibistek burutzen dituzten jarduerak horrela aztertzea.
- ▶ *Lana - afektuak.* Modernitateak bere-berea duen etnozentrismo mota bat (Albrow, 1996) da arrazionaltasun instrumentalaren kutxan sartzen ez den guztia irrazionalarenean utzi behar dela sinestea. Bada hori indartzeko beste sinesmen bat oraino: arrazionaltasuna instrumentala izango da, bakar-bakarrik, baliagarritasun material edo ekonomikoa baldin badu. Horren bidez, aktoreek –jokamolde arrazionalaren aurrebaldintza logiko bilakatuz– finkatu dituzten helburuen definizioa haien kultura, tradizio eta afektuekin lotua egoteari mespretxua agertzen zaio. Era horretan, tradizioa eta afektuak ez dagozkio nahitaez irrazionaltasunari. Aro moderno honetan lana errealtate batez ere ekonomiko eta arrazional den arren eta, esaten denez, afektibotasunaz beste aldekoa bada ere, lanean ederki egiaztatu dugu nola gazteak ahalegintzen diren ogibidea eta harreman afektiboak ez bereizten. Harreman horiek iraunaraztea izaten da gazte askoren lan-proiektuaren helburu nagusia.
- ▶ *Zaletasuna - eskarmentuzko ezagutza.* Kasu askotan ikusi dugunez, eskarmentua gehiago dator zaletasun hutsagatik hasitako jarduera bat garatzetik aurretiazko prestakuntzazko jardueratik baino. Horrelaxe gertatzen zaie *hacktibista*, musika-jardueren sustatzaile edo, areago, ondarearen berreskurapenean diharduten profesional askori ere. Zenbaitetan, halaz ere, eskarmentuzko jakintza eskuratutako edo eskuratzen ari den ezagutzari lotuago agertzen da. Horrela jazotzen da hainbat gizarte-mugimenduetan, zerbitzu elkartetan eta ondarearen berreskurapen-kasu zenbaitetan ere ikasle edota profesionalek esku hartzen dutenean.
- ▶ *Lokala - globala.* Belaunaldi berrikoak eskala globalean jardun ohi dute eta bera daukate erreferentzia, gainera. Globaltasuna ez dute ikusten tokikoaren kontraktatzat. Etengabe, informazioaren teknologia berrien bitartez, bi esfera horien artean dabil-tza, badakite tokikoaren unibertsaltasunaz eta globaltasunak tokian tokikoaren araber-a jardutea agintzen duela. Merkataritza-guneen espazioetan ikus dezakegu hori: bertan tokikoa ikono global nabarmenekin nahasten da eta horren erabilera eta antzezpenean bi esferak hutsaldu eta okertuak gertatzen dira. Era berean, chat-mail lurraldeari eskainitako kapituluan ikusi dugu nola bihurtzen dituzten biak elkargarri, nork dihardu horretan, ingelesa *lingua franca* eta euskara, aldiz, defendatu beharreko tokiko hizkuntza. Gizarte-mugimenduei eskainitako kapituluan, berriz, nola gazte mobilizatuek hiritargo performatzailea sortu duten (Albrow, 1996), bere jokamolde eta jarreretan eskala globalari dagokiona. Hiritargo performatzaileari doakiola, bidezko da bi gogoeta egitea: lehenik eta behin, globaltasuneko kide izateko forma horiek inplikazio afektiboarekin lotzen dira identitate pertsonalaren terminoetan. Inplikazio afektiboak, planeta osoa eranskin soziala izaki, dimentsio txikiagoko estrukturak, harreman sozialak eta energia pertsonalak atzemateko

gaitasun biziaren premia du. Beste aldetik, ordea, dimentsio txiki hori helmen globalekoa bihur dadin, komunikazioaren teknologia berriak erabili behar dira. Horrenbestez, sistemetan baino areago, konplexuak diren eta hainbat mailatan gartzen diren harreman eta komunikazio forma fluidoekin egin beharra dago hausnarketa.

- ▶ *Pribatua - publikoa.* Gizarte-mugimenduetan jokoan dagoena pribatua, publikoa eta politikoaren arteko mugen haustura bada hor bereziki azpimarratzeko kontu bat: pribatua, publikoa eta politikoaren arteko mugen haustura, hain zuzen. Nortasun indibidualaren ezaugarri baten –sexua, homosexualitatea– adiera kulturala –generoa edo homosexualitatearen adiera soziala, adibidez– aldatzea helburu duten gizarte-mugimendu berriek beren kideentzat errebindikatzen duten traiektoria pribatutik publikora doa, ostera pribatura itzultzen da eta berriro doa publikora, etc. Ezaugarri pertsonal baten adiera negatiboaren arazoa talde bateko kide bihurtuz konpontzen da. Mugimenduaren helburua publiko hutsa denean –mugimendu ekologista batean, adibidez– bertako kideen traiektoria publikotik pribatura doa, mugimenduko kide izatea elementu behinena bihurtzen baita askotan, kideen nortasunaren ikuspegitik (Pérez-Agote, 1996 a).

Gazteak lan modu berrien eskizian dabilzanean ere badago modernotasunak berebera duen pribatutasuna eta publikotasuna bereiztearen aurkako erresistentzia. Esan gabe doa fabrikaren asmakuntza historikoak eragin zuen helbidea/lantokia bereiztea dela dikotomia honen funtsezko sorburua.

7.4. INSTITUZIOTIK ESPERIMENTURA ETA PROIEKTURA

Aipa dezagun, honetara ezker, helduarorako igarotzeari orokorki eta, horretan, lan-mundukoari bereziki dagokion des-erakundetze horren ondorioetako bat, argi dagoela: gazte askok bere bizitza proiektu pertsonal gisa planteatzen dute eta proiektu hori, sarri, bizi-saiakuntza bihurtzen da. Gazteek eragindako lanaren kultura eraldatzeko joera nabarmenaren muturrean daude kasu horiek: lanaren kultura sendotik –bizitzako erakunde nagusia bera izaki– kultura plastikoago baterako –lana ez da bizitza eta identitate sozialaren erabateko definitzailea– urratsa, hain zuzen. Lan egiteko bizitzetik bizitzeko lan egitera igaro da, alegia (Pérez-Agote, A., Tejerina, B. eta Santamaría, E., 2005).

7.5. EUSKALDUNTASUNA, BERMATUTA GIZARTEAN

Euskalduntasunak, euskal kultura eta hizkuntzari dagokion guztiak, sektore sozial zenbaitetan bederen, esanahi politikoaren galera –adiera konbentzionaletan– nozitu du, inondik ere, Euskadiren instituzionalizazio politikoaren ondorioz, hain zuzen. Belaunaldi berrietako kide askoren iritziz, euskalduntasuna jakintzat ematen da, sozialki bermaturik dagoen zerbait da. Horregatik euskalduntasuna ber-etnizatu egin da, bere izari kultural hutsa berreskuratu du. Zehaztu beharrik ez den aurretiazko kontua da hori. Eta ez du aurretiazko azalpen politikoaren beharrik. Metaforikoki, euskalduntasuna naturalizatu egin dela, ebidentzia sozial bilakatu dela esan dezakegu. Indar sozialaren gradu hori, dena den, ez belaunaldi guztietan, ez sektore sozial guztietan agertzen ez denez, ez da behin betirako finkaturik dagoen zerbait.

Joera hori, argi eta garbi, *hacktibismoaz* egin dugun azterketan agertzen da: bertan egiaztatu dugu euskararen kontua ez dela ezinbesteko baldintza bezala ikusten. Beste horrenbeste ondarearen azterketan ere: hor, ondarearen berreskurapen-lanetan dihardute-nek euskal kulturarekiko gogoetazko distantzia hauteman dugu.

7.6. POLITIKARI BURUZKO IRITZI BERRI BATERANTZ

Ikerlan honetan, antropologia sozialetik gertueneko politikaren nozioa hartu dugu abiagune, Balandier-ek (1967: 58) politikaz irakatsi zuen nozioari helduta: autore horren aburuz, politika da estruktura politiko bereizia –hots, Estatuak– ez daukaten taldeen dinamika eta sintesi sozialean eragina daukana.

Abiagune horretatik, gizarte-mugimendu berriak politikoak direla egiaztatu dugu, hau da, Estatuak den erakundeaz haratago politikan dihardute, gizartea kohesionatzen duten adierak eraldatuz. Argi utzi dugu gizarte hauetan kultura eta politikaren arteko erlazioek hartzen duten toki estrategikoa.

Galdera bat datorkigu berehala: oinarrizko adiera kulturalen aldakuntza zeregin nagusia duten jokamolde kolektibo zenbait politikotzat jotzerik baldin baditugu, oinarrizko dikotomia kulturalak iraularaz ditzaketen bizi-formak sortu nahian diharduten jokamolde guztiak ezin ditugu politikotzat jo? Jokamolde horietan ez al datza aldi berean zapaltzaile baina alferrikakoak diren estruktura kultural horiek aldatu edo hausteko imintziorik? Ba ote dago jokamolde horietan besterentzat egin eta eratzeko adierarik? Erreferentzia totalizatzailea dagoeneko ez da Estatuak, balizko kultural komunena baizik.

Goazen, bada, haratago, oraino. Instituzionalizatzearen krisialdi honetan hainbat jorkaerak daramate beraiekin sozialtasunaren berreskurapena, hein handi batean pairatzen zuen karga instrumentalaren kateetatiko askapena. Modernotasunean sozialtasuna zentzurik izan lezake baldin eta ekonomia edo politikari balegokio, ez bestela. Soziologiaren ikuspegitik, sozialtasunaren zentzua bere baitatik kanpo zetzan. Gatibutasun hori, dudarik gabe, modernotasunaren etnozentrismoetako bat zen. Sozialtasuna –sozialtasunagatik berregatik, elkarrekin izatearen atseginagatik– gazteek behin eta birritan obsesiboki berreskuratzea, ez al da ikusten kanpokotasun soziologikotik, sozialtasunaren askapen politiko legez?



8

Bibliografia

- ADAM, B.D. (1987), *The rise of a gay and lesbian movement*, Twayne Publishers, Boston.
- AGULLÓ, E. (1997), *Jóvenes, trabajo e identidad*, Servicio de Publicaciones, Universidad de Oviedo, Oviedo.
- ALBA-RAMÍREZ, A. ETA ALONSO-BORREGO, C. (1997), «Tipo de contrato y empleo en el ciclo económico, 1987-1996», *Papeles de Economía Española*, 72 zkia., 231-249 orr.
- ALBERONI, F. (1984), *Movimiento e institución*, editora Nacional, Madrid.
- ALBROW, M. (1996), *The Global Age. State and Society beyond Modernity*, Stanford, California, Stanford University Press.
- ARIÑO, A. (Dir.) (1999), *La rosa de las solidaridades*, Fundación Bancaixa, Valencia.
- (2002), «La patrimonialización de la cultura y sus paradojas en la sociedad del riesgo», in J. M. García Blanco eta P. Navarro (eds.), *¿Más allá de la modernidad? Las dimensiones de la información, la comunicación y sus nuevas tecnologías*, CIS, Madrid, 329-352 orr.
- ARONOWITZ, S., MARTINSONS, B., Y MENSER, M. (comp.) (1998), *Tecnociencia y cibercultura*, Paidós, Barcelona.
- AUGÉ, M. (2000), *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*, Gedisa, Barcelona.
- BADIOU, A. (1969), *Le concept de modèle*, Maspero, Paris.
- BALANDIER, G. (1967), *Anthropologie Politique*, Paris, Presses Universitaires de France.
- BARANDIARAN, X. (2003), «Hacklabs. Ensamblaje colectivo de la tecnopolítica como realidad social. v.1.0» in <http://barandiaran.net/textos/hl/hl.pdf>
- BARTHÉLEMY, M. (2003), *Asociaciones, ¿una nueva era de la participación?*, Tirant Lo Blanch, Valencia.

- BAUDRILLARD, J. (1993), *Cultura y simulacro*, Kairós, Barcelona.
- BERGER, P. (1966), «Identity as a problem in the sociology of knowledge», *Archives Européennes de Sociologie*, VII, 105-115 orr.
- (1971), *Para una teoría sociológica de la religión*, Kairós, Barcelona.
- BLÁZQUEZ, J. (2004), «Años 90, Música rave y la entrada de las sustancias sintéticas» in *Cañamo. Música y drogas (número especial)*. La cañamería global. Barcelona. 232-238 orr.
- BLÁZQUEZ, J. Y MORERA, O. (coord.). (2002), *Loops. Una historia de la música electrónica*, Reservoir books — Mondadori, Barcelona.
- BLUMER, H. (1957) «Collective behavior», in Gittler, J.B. (ed.), *Review of Sociology*, Wiley, New York.
- BOUDON, R. (1973), *L'inégalité des chances. La mobilité sociale dans les sociétés industrielles*, A. Colin, Paris.
- BOUFFARTIGUE, P.; LAGREE, J-CH. ETA ROSE, J. (1989), «Jeunes, de l'emploi aux modes de vie. Points de vue sur un champ de recherche», *Formation-Emploi*, 26 zkia, 63-78 orr.
- BOURDIEU, P. (1978), «Classement, déclassement, reclassement», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 24 zkia.
- (1979), *La distinction. Critique sociale du jugement*, Minuit, Paris.
- (1998), *La distinción, criterios y clases sociales del buen gusto*, Taurus, Madrid.
- BOURDIEU, P. ETA PASSERON, J.-C. (1979), *La reproduction. Eléments pour une théorie du système d'enseignement*, Ed. Minuit, Paris.
- BUTLER, J. (2003), «Reescenificación de lo universal, hegemonía y límites del formalismo» in *Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos en la izquierda*, FCE, Buenos Aires, 17-48 orr.
- KACHÓN, L. (1986), «L'insertion professionnelle des jeunes en Espagne pendant la crise, du chômage à l'institutionnalisation de la temporalité», in *Problèmes de la jeunesse, marginalité et délinquance juveniles. Interventions sociales au milieu des années 1980. Problèmes de jeunesse et régulations sociales*. I. liburukia, CRIV, Paris, 183-187 orr.
- (Ed.) (1999), *Juventudes, mercados de trabajo y políticas de empleo*, 7 i Mig, Valencia.
- CARABAÑA, J. (1999), *Dos estudios sobre movilidad intergeneracional*, Fundación Argentaria, Madrid.
- CARVETH, D.L. (1977), «The Desembodied Dialectic. A Psychoanalytic Critique of Sociological Relativism», *Theory and Society*, IV. liburukia, 1 zkia, 73-102 orr.

- CASAL J., MASJUAN J. ETA PLANAS J. (1991), *La inserción social y profesional de los jóvenes*, C.I.D.E. (Proyecto G.E.F.E.), Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid.
- CASTELLS, MANUEL (1998), *La era de la información, Economía, Sociedad y Cultura. El fin del milenio*, III. liburukia, Alianza, Madrid.
- CEDEFOP (1994), *Formation et marché du travail, l'utilisation des données pour la prise de décision. Actes du Colloque organisé par la Commission des CE (Programme PETRA)*, CEDEFOP eta GREE, CEDEFOP, Berlin.
- CEIC (1999), *Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones del mundo nacionalista*, in *Soziologiazko Euskal Koadernoak/Cuadernos sociológicos vascos 2*. zkia, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS, *Estudios* 1461 zkia (1985, maiatza-ekaina), 1715 zkia (1987, azaroa), 1788 zkia (1989, urtarrila) eta 2154 zkia (1995, apirila), Madrid.
- CEREQ (1997), *Enquête «Génération 92»*, Centre d'études et de recherches sur les qualifications, Paris.
- CHARLOT, B. ETA GLASMAN, D. (dirs.) (1998), *Les jeunes, l'insertion, l'emploi*, PUF, Paris.
- CLIFFORD, J. (1999), *Itinerarios transculturales*, Gedisa, Barcelona.
- CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL (1996), *España, Economía, trabajo y sociedad, Memoria anual 1995*, CES, Madrid.
- (1997), *España, Economía, trabajo y sociedad, Memoria anual 1996*, CES, Madrid.
- (1998), *España, Economía, trabajo y sociedad, Memoria anual 1997*, CES, Madrid.
- (1999), *España, Economía, trabajo y sociedad, Memoria anual 1998*, CES, Madrid.
- CORNEJO, I. ETA BELLON, E. (2001), *Prácticas culturales de apropiación simbólica en el Centro Comercial de Santa Fe*, *Convergencia*, nº 24, UAM, México, 67-86 orr.
- CORNWALL, H. (1985), *The Hacker's Handbook*, Century Communications Ltd., London.
- COURAU, LAURENT (2004), *Mutation pop et crash culture*, Le Rouergue / Chambon, Paris.
- CRUCES, F. (1998), «Problemas en torno a la restitución del patrimonio. Una visión desde la antropología», in *Política y Sociedad*, 27, «El patrimonio cultural», 77-87 orr.
- CUCÓ, J. (2000), «La sociabilité», *Ethnologie Française*, 2, Avril-Juin, XXX, 257-264 orr.
- DEGENNE A., FOURNIER I., MARRY C. ETA MOUNIER L. (1991), «Les relations sociales au coeur du marché du travail», *Sociétés Contemporaines*, 5. zkia, 75-97 orr.
- DEGENNE, A. ETA FORSÉ, M. (1994), *Les réseaux sociaux*, Armand Colin, Paris.

- DELGADO, M. (1999), *El animal público, hacer una antropología de los espacios urbanos*, Anagrama, Barcelona.
- DELLA PORTA, D. (1992), «Social Movements and Violence, Participation in Underground Organizations», *International Social Movement Research*, 4, JAI Press, Greenwich Conn.
- (1998), «Las motivaciones individuales en las organizaciones políticas clandestinas», in Ibarra, P. eta Tejerina, B. (eds.), *Movimientos sociales, Transformaciones políticas y cambio cultura*, Trotta, Madrid, 219-242 orr.
- DIANI, M. (1992), «The concept of social movement», in *The Sociological Review*, 40.
- (1998), «Las redes de los movimientos como perspectiva analítica» in Ibarra, P. eta Tejerina, B. (eds.) *Movimientos sociales, transformaciones políticas y cambio cultura*, Trotta, Madrid.
- DOLADO, J.J., GARCÍA-SERRANO, C. ETA GÓMEZ, R. (1997), «Creación y destrucción de empleo, una panorámica con nuevos resultados para España», *Papeles de Economía Española*, 72 zkia, 138-153 orr.
- DUBAR, C. (1992), «Formes identitaires et socialisation professionnelle», *Revue française de sociologie* 33 (4), 505-529 orr.
- (1996, 1. ed. 1991), *La socialisation. Construction des identités sociales et professionnelles*, Armand Colin, Paris.
- DUOCASTELLA, R. (comp.) (1975), *Cambio social y religión en España*, Fontanella, Barcelona.
- DUOCASTELLA, R. et al. (1967), *Análisis sociológico del catolicismo español*, Nova Terra, Barcelona.
- DUPAQUIER, M., FOURCADE, B., GADREY, N., PAUL, J.-J. ETA ROSE, J. (1986), «L'insertion professionnelle», en Tanguy, L. (ed.), *L'introuvable relation formation-emploi. Un état des recherches en France*. La Documentation Française, Paris, 35-88 orr.
- ENCUESTA DE POBLACIÓN ACTIVA (EPA), zenbait urtetakoa.
- ERBÈS-SEGUIN, S. (1988), *Le travail dans la société, Tome 2*, Presses Universitaires de Grenoble, Grenoble.
- EUROPE SOCIALE (1989), *Les jeunes face à l'emploi*, Office des publications officielles des Communautés européennes, Luxembourg.
- EUSKO JAURLARITZA (2003), *Retratos de Juventud 5*: http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos
- (2004), *Retratos de Juventud 7*: http://www1.euskadi.net/kultura/juventud/juventud10_c.htm
- (2004), *Juventud Vasca 2004*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

- EYERMAN, R. ETA JAMISON, A. (1991), *Social Movements. A Cognitive Approach*, The Pennsylvania State University Press, University Park, Pennsylvania.
- FEIXA, C. (1998), *De jóvenes, bandas y tribus: Antropología de la juventud*, Ariel, Barcelona.
- FERNANDEZ, J.A. (1989), «La inserción social y laboral de los jóvenes. Una reflexión desde la perspectiva de la educación y el desarrollo», *Documentación Social*, 75 zkia, apirila-ekaina, 47-61 orr.
- FORSÉ, M. (1997), «Capital social et emploi», *L'Année sociologique*, 47. liburukia, 1. zkia, 143-181 orr.
- FRITH, S. (1996), «Music and identity» en Hall, S. eta Du Gay, P., *Questions of cultural Identity*, SAGE. London. 108-127 orr.
- GABINETE DE PROSPECCION SOCIOLOGICA, GOBIERNO VASCO (2003). *Retratos de Juventud — 6*, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak, Gasteiz.
- GALLAND, O. (1986), «Jeunes, marché scolaire, marché du travail, marché matrimonial», en F. Proust (coord.), *Les jeunes et les autres. Contributions des sciences de l'homme à la question de la jeunesse*, CRIV, Vaucluse.
- (1997), *Sociologie de la jeunesse*, Armand Colin, Paris.
- (2001) *Les valeurs des jeunes, tendances en France depuis 20 ans*, L'Harmattan - Ministère de la Jeunesse et des Sports, Paris.
- (2002), *Les jeunes*, La Découverte, Paris.
- GAMBIER, D. ETA VERNIÈRES, M. (1985), *Le marché du travail*, Economica, Paris.
- GARCIA BLANCO, J.M. (2002). «Virtualidad, realidad, comunidad. Un comentario sociológico sobre la semántica de las nuevas tecnologías digitales», *Papers*, 68. zkia, 81-106 orr.
- GARCÍA CANCLINI, N. (1995), *Consumidores y Ciudadanos. Conflictos multiculturales de la globalización*, Grijalbo, México D.F.
- 1989, *Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*, Grijalbo, México D.F.
- García Espejo, M^a I. (1998), *Recursos formativos e inserción laboral de los jóvenes*, CIS / Siglo XXI (Colección Monografías 158 zkia), Madrid.
- GARCÍA-MONTALVO, J., PALAFOX, J., PEIRÓ, J. M^a ETA PRIETO, F. (1997), *La inserción laboral de los jóvenes en la Comunidad Valenciana. Capital Humano*, Fundación Bancaixa, Valencia.
- GARRIDO, L. ETA REQUENA, M. (1996), *La emancipación de los jóvenes en España*, Instituto de la Juventud, Madrid.

- GATTI, G. (2002), *Las modalidades débiles de la identidad*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua («tesis doctorales» bilduma), Leioa.
- GEHLEN, A. (1993), *Antropología Filosófica*, Paidós, Barcelona.
- GOFFMAN, E. (1987), *La presentación de la persona en la vida cotidiana*, Amorrortu, Buenos Aires.
- GORZ, A. (1995), *Metamorfosis del trabajo*, Sistema, Madrid.
- GRANOVETTER, M.S. (1973), «The Strength of Weak Ties», *American Journal of Sociology*, liburukia, nº 6. zkia, 1360-1380 orr.
- GUITTON, CH., MARUANI, M. ET REYNAUD, E. (coords.) (1991), *L'emploi en Espagne. Marchés du travail et relations professionnelles*, Syros / Alternatives, Paris.
- GUSFIELD, J. (1994); «La reflexividad de los movimientos sociales. Revisión de las Teorías sobre la sociedad de masas y el comportamiento colectivo», in Laraña, E. eta Gusfield, J. (eds.), 93-117 orr.
- HABERLE, R. (1968), «Types and functions of social movements», *International Encyclopedia of the Social Sciences* 14, 438-444 orr.
- HABERMAS, J. (1981), *Historia y Crítica de la Opinión Pública*, Gustavo Gili.
- (1975), *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Buenos Aires, Amorrortu.
- HACKER'S ENCYCLOPEDIA (1997, 1. edizioa 1995-1996), Logik Bomb: <http://www.sisna.com/users/Ryder/hack.html>
- HASLAM, D. (1998), «Dj Culture» en Redhead, S. (ed.) *The Clubcultures Reader*. Blackwell. Oxford. 150-161 orr.
- HERRANZ, R., ALVAREZ, J.R., GARMENDIA, M. eta BORJA, A. (1992), *Inserción y búsqueda de empleo*, C.I.D.E., Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid.
- HOGG, M. AND ABRAMS, D. (1988), *Social Identification. A Social Psychology of Intergroup Relations and Group Processes*, Routledge, London.
- IBÁÑEZ PASCUAL, M. (1999), «El uso de las relaciones sociales en el acceso y mantenimiento del empleo», *Revista Internacional de Sociología*, 22 zkia, urtarrila-apirila, 129-152 orr.
- (1999), «Recursos de mercado y familia de origen, en el proceso de inserción laboral», *Revista Internacional de Sociología*, 24 zkia, iraila-abendua, 7-26 orr.
- (1999), *Género y familia en la inserción laboral*, Servicio de Publicaciones, Universidad de Oviedo, Oviedo.
- IBARRA, P. ETA TEJERINA, B. (eds.) (1998), *Movimientos sociales, transformaciones políticas y cambio cultural*, Trotta, Madrid.

- IGLESIAS DE USSEL, J. (1995), «Trabajo y familia en España», *Revista Internacional de Sociología*, 11. zkia, 171-198 orr.
- INGLEHART, R. (1990), *Cultural Shift in Advanced Industrial Society*, Princeton University Press, Princeton.
- INSEE (1995), *Dossier* «Les trajectoires des jeunes, transitions professionnelles et familiales», *Économie et Statistique*, 283-284 zkia.
- (1997), *Dossier* «Les trajectoires des jeunes, distances et dépendances entre générations», *Économie et Statistique*, 304-305 zkia.
- (1998), *Enquête* «Jeunes et carrières», Institut National de la Statistique et des Études Économiques, Paris.
- INSEE/DARES (2000), «L'entrée des jeunes dans la vie active», *Liaisons Sociales*, 15 zkia., Liaisons, Paris.
- IZAGIRRE, A. ETA PASCUAL, X. (1995), «Una aproximación al mercado de trabajo de la C.A.P.V. a través de distintas fuentes estadísticas», *Ekonomiaz*, 32-33 zkia., 1995ko 1. eta 2. lauhilekoak, Vitoria-Gasteiz, 80-109 orr.
- JAUREGUIBERRY, F. (1983), *Question nationale et mouvements sociaux au Pays basque sud*, Thèse de 3e cycle, EHESS, Paris.
- JENKINS, C.J. (1983), «Resource Mobilization Theory and the Study of Social Movements», *Annual Review of Sociology*, 9 zkia., 527-553 orr. [Espainiako edizioa, 1994koa, in *Zona Abierta*, 69 zkia., 5-49 orr.].
- JOBERT, A., MARRY, C. ETA TANGUY, L. (1995), *Education et travail en Grande-Bretagne, Allemagne et Italie*, Armand Colin, Paris.
- JONES, S.G. (ed.) (2003), *Cibersociedad 2.0.*, UOC, Barcelona.
- JOVER, D. (1988), *Formación, inserción y empleo juvenil. Apuntes de una experiencia*, Popular, Madrid.
- KOLLOCK, PETER, ETA SMITH, MARC A. (2003). «Las comunidades en el ciberespacio», en Smith, M.A. y Kollock, P. (eds.), *Comunidades en el ciberespacio*, UOC, Barcelona.
- KOWINSKY, W. S. (1985), *The malling of America, a inside look and the great consumer paradise*, William Morrow, New York.
- KRIESI, H.P. (1992), «El contexto político de los nuevos movimientos sociales en Europa Occidental», in Benedicto, J. y Reinares, F. (eds.), *Las transformaciones de lo político*, Alianza, Madrid.
- LAMO DE ESPINOSA, E. (1996), *Sociedades de cultura, sociedades de ciencia. Ensayos sobre la condición moderna*, Ediciones Nobel, Oviedo.

- LARAÑA, E. ETA GUSFIELD, J. (eds.) (1994); *Los nuevos movimientos sociales. De la ideología a la identidad*, CIS, Madrid.
- LARAÑA, E., JOHNSTON, H. ETA GUSFIELD, J. (1994), *New Social Movements. From Ideology to Identity*, Temple University Press, Philadelphia. [Gaztelaniako itzulpena Laraña, E. eta Gusfield, J. (1994)].
- LASEN, A. ETA MÁRTINEZ DE ALBENIZ, I. (2001), «El tecno: variaciones sobre la globalización», *Política y Sociedad*, 36 zkia., 129-149 orr.
- LASH, SCOTT (2001), «Technological Forms of Life» en *Theory, Culture & Society*, 18 zkia., 105-120 orr.
- LIN, N. (1995), «Les ressources sociales, une théorie du capital social», *Révue française de sociologie*, 36-4 zkia., 685-704 orr.
- LIPOVETSKY, G. (2000), *El imperio de lo efímero*, Barcelona, Anagrama.
- MALINVAUD, E. (1989), *Informe Malinvaud. Sobre las estadísticas del empleo y del paro*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- MARTÍN SERRANO, M. ETA VELARDE, O. (1996), *Informe Juventud en España 1996*, Instituto de la Juventud, Madrid.
- MARTÍN, C. (1997), «El mercado de trabajo español en perspectiva europea, un panorama», *Papeles de Economía Española*, 72 zkia., 2-20 orr..
- MAUGER, G. (1986), «La catégorie de jeunesse. Essai d'inventaire, de classement et de critique de quelques usages courants o savants», en F. Proust (coord.), *Les jeunes et les autres. Contributions des sciences de l'homme à la question de la jeunesse*, CRIV, Vaucresson.
- MCADAM, DOUG (1982), *Political Process and the Development of Black Insurgency, 1930-1970*, The University of Chicago Press, Chicago.
- MCCARTHY, J.D. Y ZALD, M.N. (1977), «Resource Mobilization and Social Movements, A Partial Theory», *American Journal of Sociology*, 82. zkia., 1212-1241 orr.
- MÉDA, D. (1995), *Le travail, une valeur en voie de disparition*, Aubier, Paris.
- MEDINA, F. (1997), «El centro comercial: Una burbuja de cristal», in *Diálogos de Comunicación*, 50. zkia.: <http://www-felafaes.org/rev.dialogos/dialogos/50.html>
- MEHAUT P., ROSE J., MONACO A. ETA DE CHASSEY F. (1987), *La transition professionnelle. Les jeunes de 16 à 18 ans*, L'Harmattan (Col. Logiques Sociales), Paris.
- MELUCCI, A. (1989), *Nomads of the Present*, Hutchinson Radius, London.
- (1994), «¿Qué hay de nuevo en los 'nuevos movimientos sociales?», in Laraña y Gusfield, (eds.), 119-149 orr.

- (1995), «The process of collective identity» in Johnston, H. eta Klandermans, B. (eds.), *Social Movements and Culture*, UCL Press, London, 41-63 orr.
- (1996), *Challenging codes. Collective action in the information age*, Cambridge University Press. Cambridge.
- (1998), «La experiencia individual y los temas globales en una sociedad planetaria» in Ibarra, P. eta Tejerina, B. (eds.).
- MERTON, R.K. (1980), *Teoría y Estructura Sociales*, FCE., México.
- MIGUÉLEZ, F. ETA PRIETO, C. (dir. y coord.) (1995, 1ª ed. 1991), *Las relaciones laborales en España, Siglo XXI*, Madrid.
- (dir. y coord.) (1999), *Las relaciones de empleo en España, Siglo XXI*, Madrid.
- MILLER, D. (comp.) (1998), *Shopping, place and identity*, Routledge, London.
- MILLS, C.W. (1964), *La imaginación sociológica*, FCE, México
- MITCHELS, R. (1973), *Los partidos políticos*, Amorrortu, Buenos Aires.
- MONTORO, R. (1985), *La inserción en la actividad económica, empleo y paro juvenil*, Juventud y Sociedad, Barcelona.
- MORAN, M.L. ETA J. BENEDICTO (1995), *Sociedad y Política. Temas de sociología política*, Alianza, Madrid.
- NAVARRO, M. ETA MATEO, M.J. (1992), *Juventud en cifras*, Instituto de la Juventud, Madrid.
- (1993), *Informe Juventud en España 1992*, Instituto de la Juventud, Madrid.
- NEIDHARDT, F. ETA RUCHT, D. (1991), «The analysis of social movements, The state of the art and some perspectives for further research», en Rucht, D. (ed.), *Research on Social Movements*, Campus/Westview Press, Frankfurt/Boulder.
- NICOLE-DRANCOURT, CH. (1991), *Le labyrinthe de l'insertion*, La Documentation Française, Paris.
- (1994), «Mésurer l'insertion professionnelle», *Revue Française de Sociologie*, 35 (1), 37-68 orr.
- «Histoire d'un sujet et statut du sujet. L'apport de la sociologie du comportement», in *Les jeunes et l'emploi. Recherches pluridisciplinaires*, La Documentation Française (col. Cahier Travail et Emploi), París.
- OFFE, K. (1988), *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madrid.
- PÉREZ-AGOTE, A. (1986), *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*, CIS, Madrid.

- (1987), *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*, CIS- siglo XXI, Madrid.
- (1990), *Los lugares sociales de la religión. La secularización de la vida en el País vasco*, CIS, Madrid.
- (1994), «La crisis de la sociedad: entre la mundialización y la disolución narcisista», en E. Lamo de Espinosa y Rodríguez Ibáñez, J.E., *Problemas de Teoría Social Contemporánea*, CIS, Madrid.
- (1996), «La sociedad se difumina, el individuo se disgrega. sobre la necesidad de historizar nuestras categorías», en Pérez-Agote, A. eta Sánchez de la Yncera, I. (eds.), *Complejidad y Teoría Social*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- (1996b), «Are the New Social Movements really Social?», Second European Conference on Social Movements, Vitoria-Gasteiz
- (2001), «La crise de la société homogène», in WIEVIORKA, M. et OHANA, J., *La différence culturelle. Une reformulation des débats*, Balland, Paris.
- (2002), «¿Morir de éxito? Fin de la modernidad y triunfo de lo social» en García Blanco, J.M. eta Navarro, P. (eds.), *Más allá de la modernidad*, CIS, Madrid.
- (prentsan), «En la era global: Ruptura de ecuaciones y dicotomías de la modernidad», in Ariño, A. (ed.), *La encrucijada de la diversidad cultural*, CIS, Madrid.
- PÉREZ-AGOTE, A. ETA SANTIAGO, J.A. (2005), *Actitudes y creencias religiosas en España a principios del siglo XXI*, CIS, Madrid.
- PÉREZ-AGOTE, A., TEJERINA, B. ETA SANTAMARÍA, E. (Prentsan), *Transformaciones y tendencias de la cultura del trabajo en Bizkaia. Enfoque cuantitativo*, Cuadernos de Empleo, BBK-Gazte Lanbidean Fundazioa, Bilbo.
- PIZZORNO, A. (1994), «Identidad e interés» in *Zona Abierta*, 69 zkia.
- PROUST, F. (koord.) (1985), *Les jeunes et les autres. Tome II. Contributions des sciences de l'homme à la question des jeunes*, CRIV, Vaucresson.
- PUTNAM, R.D. (2000), *Bowling Alone, the Collapse and Revival in American Community*, Simon & Schuster, New York.
- RASCHKE, J. (1985), *Soziale Bewegungen. Ein historisch-systematischer Grundriß*, Campus, Frankfurt.
- REQUENA, F. (1991), *Redes sociales y mercado de trabajo*, CIS, Siglo XXI, Madrid.
- REYNOLDS, S. (1998), «Rave Culture, Living Dream or Living Death? en Redhead, S. (ed.) *The Clubcultures Reader*, Blackwell, Oxford, 84-93 orr.

- (2002), «Prefacio» en Blázquez, J. y Morera, O. (coord.) *Loops. Una historia de la música electrónica*. Reservoir books. Mondadori. Barcelona. 15-37 orr.
- RIETVELD, H. (1998), «The House Sound of Chicago» en Redhead, S. (ed.) *The Clubcultures Reader*. Blackwell. Oxford. 106-118 orr.
- RIFKIN, J. (1996), *El fin del trabajo*, Paidós, Barcelona.
- ROCHER, G. (1979, 1. ed. 1973), *Introducción a la sociología general*, Herder, Barcelona.
- ROQUERO, E. (1995), *La inserción a la vida activa*, Universidad de Granada, Granada.
- ROSE, J. (1982), «Pour une analyse de l'organisation de la transition professionnelle», *Colloque de Dourdan*, Maspero, Paris, 209-211 orr.
- (1987, 1. ed 1984), *En busca de empleo, formación, paro y empleo*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- (1994), «L'organisation de la transition professionnelle continue», *Cahier du GREE*, 8. zkia, Nancy.
- (1996), «L'organisation des transitions professionnelles entre socialisation, mobilisation et recomposition des rapports de travail et d'emploi», *Sociologie du travail* 1/96 zkia., 63-79 orr.
- ROSE, J. ETA POTTIER, F. (1993), *Formation et marché du travail, quelle formation, quelles approches, dans la perspective comparative*, CEDEFOP, Berlin.
- RUESGA, S.M. (1992), *Economía y trabajo*, Pirámide, Madrid.
- SANCHÍS, E. (1988), «Valores y actitudes de los jóvenes ante el trabajo», *REIS*, 41 zkia., 131-151 orr.
- SHILS, E. (1975), *Center and Periphery. Essays in Macrosociology*, The University of Chicago Press, Chicago.
- (1981), *Tradition*, The University of Chicago Press, Chicago.
- SMITH, M. A., ETA KOLLOCK, P. (eds.) (2003). *Comunidades en el ciberespacio*, UOC, Barcelona.
- SNOW, D. (1979), «A Dramaturgical Analysis of Movement Accommodation, Building Idiosyncrasy credit as movement Mobilization Strategy», *Symbolic Interaction*, 2. zkia, 23-44 orr.
- SNOW, D.A. ETA BENFORD, R.D. (1992), «Master frames and cycles of protest», in Morris, A.D. eta McClurg Mueller, C., *Frontiers in Social Movement Theory*, Yale University Press, New Haven.

- TAJFEL, H. ETA TURNER, J.C. (1986), «La teoría de la identidad social de la conducta intergrupala», in Morales, J. y Huici, C., *Lecturas de psicología social*, UNED Madrid.
- TAJFEL, H. (1984), *Grupos Humanos y Categorías Sociales*, Herder, Barcelona.
- TANGUY, L. (ed.) (1986), *L'introuvable relation formation-emploi*, La Documentation Française, Paris.
- TARROW, S. (1989), *Democracy and Disorder, Protest and Politics in Italy 1965-1975*, Clarendon Press, Oxford.
- (1994), *Power in Movement. Social Movements, Collective Action and Politics*, Cambridge University Press, Cambridge. [Gaztelaniazko itzulpena in Alianza Editorial, 1997]
- TEJERINA, B., FERNANDEZ SOBRADO, J.M. ETA AIERDI, X. (1995), *Sociedad Civil, Protesta y Movimientos Sociales en el País Vasco. Los límites de la teoría de la movilización de recursos*, Eusko Jaur-laritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- TEJERINA, B. (1998), «Los movimientos sociales y la acción colectiva. De la producción simbólica al cambio de valores» in Ibarra, P. eta Tejerina, B. (ed.), *Movimientos sociales, Transformaciones políticas y cambio cultura*, Trotta, Madrid, 111-138 orr.
- TEJERINA, B. ETA MARTÍNEZ DE ALBENIZ, I. (1999), «Movimientos sociales y globalización en Euskal Herria» en Beriain, J. eta Fernández Ubieta, R. (Koord.) *La cuestión vasca. Claves de un conflicto cultural y político*, Proyecto A, Barcelona, 244-256 orr.
- TEJERINA, B. (2002), «Acción colectiva, movilización y cambio social. Los movimientos sociales como estructuras de interacción y procesos de transformación en las sociedades avanzadas», mimeo, Bilbo.
- (2003), «Movimientos sociales», in Ariño, A. (ed.) *Diccionario de la solidaridad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 323-343 orr.
- TILLY, CH. (1978), *From mobilization to revolution*, Reading-Mass. Addison.
- TOHARIA, L. et al. (1998), *El mercado de trabajo en España*, McGraw-Hill, Madrid.
- TORREGROSA, J.R., BERGERE, J. ETA ALVARO, J.L. (eds.) (1989), *Juventud, trabajo y desempleo, un análisis psicosociológico*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- TOURAINÉ, A. (1978), *La voix et le regard*, Seuil, Paris.
- (1978), *La voix et le regard. Sociologie des mouvements sociaux*, Editions du Seuil, Paris.
- TROTTIER, C. (1995), «Emergence et constitution du champ de recherche sur l'insertion professionnelle» in Trottier, C., Perron, M. eta Diambomba, M. (zuz.), 15-44 orr.

- TROTTIER, C., PERRON, M. ETA DIAMBOMBA, M (zuz.) (1995), *Les cheminements scolaires et l'insertion professionnelle des étudiants de l'université. Perspectives théoriques et méthodologiques*. Les Presses de l'Université de Laval, Sainte-Foy.
- TURNER, R.H. Y KILLIAN, L.M. (1957), *Collective Behavior*, Englewood Cliffs, Prentice-Hall, N.J.
- UDY, S.H. (1971, 1ª ed. 1970), *El trabajo en las sociedades tradicional y moderna*, Amorrortu, Buenos Aires.
- VINCENS, J. (1981), «Problématique générale de l'insertion professionnelle», Communication au *Colloque de l'Université Catholique de Louvain*.
- VV.AA. (1985), *Mercado de trabajo y crisis económica*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- (1988), «Los jóvenes y el empleo», *Revista Economía y Sociología del Trabajo*, 1/2 zkia., abendua, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- (1996), *Les jeunes et l'emploi. Recherches pluridisciplinaires*, La Documentation Française/Ministère du travail et des affaires sociales, Paris.
- (1999), «El mercado de trabajo en España», *Revista del Instituto de Estudios Económicos*, 1 y 2 zkia.
- ZALD, M. N. ETA MCCARTHY, J.D. (1987), *Social Movements in an Organizational Society, Collected Essays*, Transaction Publishers, New Jersey.
- ZARRAGA, J.L. (1989), *Informe Juventud en España 1988*, Instituto de la Juventud, Madrid.